


Enseiukarrean

Alfonso Irigoien
Patxi Altuna
Jon Kortazar
Andrés Urrutia
Xabier Goitia

Gontzal Aldai
Joan Otaegi
Xabier Kalzakorta
Anjel Lobera

Unai Elorriaga
Jose Mari Etxebarria
Koldo Jule Garai
Gillermo González

12. zenbakia



Deustuko
Unibertsitatea

.....

Euskal Ikaskuntzen
Institutua

enseiucarrean

Enseiukarrean

Enseiukarrean

Deustuko Unibertsitateko Aldizkaria

12. zenbakia

Bilbo
Deustuko Unibertsitatea
1996

Zuzendaritza:

Joan Otaegi
Igor Varona

Erredakzioa:

Joan Otaegi
Igor Varona
Xabier Arauzo

Kolaboratzaileak:

Gontzal Aldai	Alfonso Irigoien
Patxi Altuna	Xabier Kalzakorta
Jose Mari Etxebarria	Jon Kortazar
Unai Elorriaga	Anjel Lobera
Koldo Garai	Joan Otaegi
Xabier Goitia	Andres Urrutia
Gilermo González	Igor Varona

Batzorde Kontseilaria:

Euskal Ikaskuntzen Institutuko Zuzendaria
Joseba Abaitua
Juan Manuel Etxebarria
Joan Otaegi
Jesus Uranga

Marrazkiak:

Alazne Odriozola

Argitalpena:

Deustuko Unibertsitateko Argitalpen Saila
1 Posta Kutxa - 48080 Bilbo
Tfnoa.: (94) 447 03 58 Fax: (94) 447 26 30

Zabalkundea:

Ediciones Mensajero
Sancho Azpeitia 2, 48014 Bilbo
Tfnoa.: (94) 447 03 58 Fax: (94) 447 27 30

Paper ekologiazkoan irarri argitalpena

ISSN: 1130 - 8192


Legezko gordailua: Bl. 1.113-92

Fotokonposaketa: IPAR, Sdad. Coop.
Particular de Zurbaran 2-4 - 48007 Bilbo

Inprimatzailea: Artes Gráficas Rontegui, S.A.L.
Avda. Ribera de Erandio, 4 - 48950 Erandio (Bizkaia)

Aurkibidea

Editoriala	11
Mahaingurua Bernat Etxepareren 450. urteurrenean. 1995-XI-13:	15
Alfonso IRIGOIEN, <i>Bernat Etxepare-ren Linguae vasconum primitiae liburuaren 450 urte</i>	17
Patxi ALTUNA, <i>Etxepareren bertsogintzako legeak</i>	21
Jon KORTAZAR, <i>Bernard Dextepare: bidegurutzean</i>	29
Andres URRUTIA, <i>Olerkaria lege autuetan: Etxepareren Linguae vasconum primitiae ikusmira juridikopean</i>	36
Xabier GOITIA, <i>Luteroren Biblia-itzulpena eta aleman hizkuntzaren batasuna</i>	55
Gontzal ALDAI, <i>Refranes y Sentencias de 1596: aditz sistemaren inbentarioa</i>	69
Joan OTAEGI, <i>B. Gandiagak Elorri-n darabiltzan zenbait sinbolo</i>	93
Xabier KALZAKORTA, <i>Acto para la Nochebuena antzerkiaren zenbait pasartez</i>	117
Anjel LOBERA, <i>Tiempo de silencio eleberriaz</i>	131
Unai ELORRIAGA, <i>Zenbait poema</i>	171
Jose Mari ETXEBARRIA, <i>Vienako euskal grabaketak: zuberera</i>	177
Koldo Jule GARAI, <i>Maiatzko 25. lorea eta J.J. Mogelen aditz sistema</i>	203
Gillermo GONZÁLEZ, <i>Erronkarierako deklinabidea</i>	261



Editoriala

Igandeetan sotana dotorea erantzi eta elizatarian inor ez zegoela ziurtatu ondoren, baratzan aritzeko erabili ohi zituen praka adabakiz beteak jantzita, elizaren atzeko landatik herria inguratzen zuten muinoetan barrena sigi-saga galtzen zen bideziorrean gora abiatu zen Eiheralarreko erretore gaztea. Haren berna sendoek laster batean eraman zuten muinoaren gailurreraino, eta han, San Migelen basiliza erromaniko eroriaren hondarren artean hazten ziren elorrietako baten puntaren puntan pausatua, hamaika koloretako lumajedun txori zoragarri bat ikusi zuen. Hain itxura ederreko egazti batek halabeharrez izan beharko zuen kantu miragarria entzun nahian, behearen gainean zangolatraba eseri zen. Eta hainbestearaino gatibatu zuen haren txorrotxio jario polikromatuak, ezen plazer eta osotasun sentsazio batek arrotatua, konturatu gabe egunsentiarekin begiz begi egin baitzuen. Txoria ez zen inondik ageri egunaren lehen argi brintzek aurpegia iluminatzen ziotenean; ez ordea lehengo aurpegi gaztea, lehengo azal leuna. Haren ordeztu egunaren lehen argi brintzek azal lehorra eta aurpegi zimurretan hasia iluminatu zuten. Jeiki zen bada apeza, eta tipi-tapa herriskara jaitzi zen. Baina ailegatu zenean, inork ere ez zuen praka adabakiz beteak jazten zituen arlote bizar-urdira hura ezagutu, ezta, jakina, hamar urte arinago modu susmagarrian desagertutako erretore gaztea ordezkatzera Eiheralarrera iritsitako apez Agramontarrak ere.

Hamar urte horietan Aragoiko Fernandoren aldeko Beamontarren azpikeriak zuzentzen ibili izana leporatu ziotenean, gure erretoreak soinak goratu zituen eta kristau eroapenez jasan zuen gartzelaldia. Txori miragariaren txorrotxio gozoak giza mintzairara isuri behar zituela eta, Behe Nafarroako larre doinuetara besta edonongoak baino hobeto egokitzen ziren euskal hitz apalez hamabost poema zizelkatu zituen, poema arreak, txoriarren kantu zerutiar garbia giza-lokatzetatik banatzen ez zutenak.

laz Etxepareren *Linguae vasconum primitiae*-ren lehen edizio ezaguna argitaratu zeneko 450. urteurrena izan zela eta, Deustuko Unibertsitatean haren obrari buruzko jardunaldi batzuk izan genituen. Hitzaldi haien fruitu dira *Enseiukarreen*-en 12. garren ale honetan bildutako lehen lau artikuluak. A. Irigoienek Etxeparek bizi izan zuen garaiaz egiten digun sarrera historikoaren ostean, Patxi Altuna haren bertsogintzaz mintzatuko zaigu. Bestalde, Jon Kortazarrek Eihalarreko erretoarearen bertsoek Erdi Aroko poesiarekin eta Errenazimenduko joera berriekin agertzen dituzten loturak zirriborratuko dizkigu, eta testu bera ikuspegi diferente batetik aztertuz, Andrés Urrutia kantuotan azaltzen den Zuzenbide alorreko lexikoaz arituko zaigu.

xvi. mendetik atera gabe, Luterok Biblia alemanera itzultzerakoan erabilitako irizpideen berri emango digu Xabier Goitiak. X. Kaltzakortak Barrutiaren *Acto para la Nochebuena* antzezlanean aurkitutako errefrau eta esaeren gaineko azterketak, Anjel Loberak burututako Martín Santosen *Tiempo de silencio*-ren literatur analisia orokorrak eta, Joan Otaegiren eskutik, Gandiagaren *Elorri* poema liburuan ageri diren zenbait sinboloren interpretazioak osabetetzen dute *Enseiukarreen*-en ale honen literatur ikerketaren alorreko ekarria.

Linguistika lanei dagokienez, «Maiatzko 25. lorea»-ren eskuizkribua abiapuntu hartuta, Koldo Jule Garaik J.J. Mogekek Ama Birjinaren gorazarretan idatzitako testu honen zenbait alderdiren azterketa linguistikoa, eta bidenabar, idazlearen aditz-sistema ere aurkezten dizkigu. Eta aditz kontuez ari garela, aurten *Refranes y Sentencias* argitaratu zen 400. urteurrena betetzen delako aitzakiaz, Gontzal Aldaik errefrauotako adizkiak estudiantu ditu.

Dialektologia alorreko lan interesgarri bi ere aurkituko dituzue: zubererari buruzkoa bata, euskalki honi dagozkion Vienako grabaketak aztergai dituen, eta Mendigatxak Azkueri eginiko gutunetatik abiatuz erronkarieraren inguruko bestea.

Hauxe duzue, bada, ale berri honetan luzatzen dizuegun entseiu bilduma. Agerikoa da Etxeparez geroztik hamaika koloretako lumajedun hegaltia Euskal Herrian ibili ezezik, haren txorrotxio jario gozoak hainbat eta hainbat euskaldun liluratu dituena. Gu, gure aldetik, txorrotxio majiko horren hizkuntzazko gauzapean diren hainbat literatur lanen —eta berauen lehengai den hizkuntzaren— ulermen eta ezagupen aberatsago baterako zenbait bide urratzen ahalegindu gara, irakurlea, nahi izatera, paper-lumak besapean hartuta, literatura eta hizkuntzaren bidezidorretan gora haren bila abia dadin.



Mahaingurua Bernard Etxepareren 450. urteurrenean¹

¹ Deustuko Unibertsitatean, Bernard Etxepareren omenez, eta haren lehen euskal liburu inprimatuaren 450garren urteurrenean egin zen mahai inguruan, ondoren datozen autoreok orduan esanak biltzen dira hemen. 1995eko azaroaren 13an izan zen.

Bernat Echepeare-ren *Linguae vasconum primitiae* liburuaren 450 urte

Alfonso Irigoien

Euskarazko lehenengo liburua 1545 urtean argitara zen, hain-zuzen-ere Bernat Echepeare-ren *Linguae vasconum primitiae*, eta titulua latinez badu ere testua euskarazkoa da oso-osorik, hasi eta amaitu, eta gaia poetikoa. Echepeare Donibane Garazi-ri loturik zegoen, eta handik hiru kilometrora dagoen Eihalarre-ko erretore izan zen, latinezko testuan: *rectorem Sancti Michaelis veteris*.

Artean moldiztegiak hedatzen ari ziren Gutenberg alemanak 1440 urtean typographia deskubritu zuenez geroztik, eta gure hizkuntzari ere halakoren baten txanda iritsi zitzaion moldezko letretan jendartera ager ledin. Autoreak berak ere argi eta garbi zuen bere poesiazko liburua zela euskaraz lehenengo aldiz imprimatzen zena.

Oraydano egon bahiz
Imprimitu bagueric
Hi engoitic ebiliren
Mundu gucietaric
Heuscara

Eceyn ere lengoageric
Ez francesa ez berceric
Oray ezta erideyten
Heuscararen pareric
Heuscara
Ialgi adi dançara.

Nafarroa-ko Errege Henriko II-aren emazte zen Margarita Angulema-ko ez zebilen noski arazo honetarik urrun¹, arte eta letrazale baitzen

¹ Ordurako Nafarroa Garaia ez zuten bere mende, Gaztelauak okupaturik baizik

eta haien bultzatzaile sendo bilakatu baitzen, eta, izan-ere, *l'Heptaméron* liburuaren egilea da, Boccaccio-ren erara eginiko kontuak, eta hura 1559 urtean argitara zen, bera hil eta hamar urte geroago. Poesia ere badu: *Les Marguerites de la Marguerite de princesses*, 1547 urtean argitara emanikoa, hil baino urte bi lehenago, eta aurretik, 1531 urtean, *Moroir de l'âme pecheresse*.

Joanna Albret-eko haren alaba zen, eta geroago Nafarroa-ko erregina izateko zen, eta hain-zuzen-ere protestantismoa ontzat harturik Testamentu berria euskarara itzultzeko eskabidea egingo zion Nafarroa-Bearnoko Elizako Synodo protestanteari, eta horren ondorioz Joannes Leizarraga-k, beste batzuren kolaborazioarekin, haren itzulpena egingo zuen, bestelako testu kalvinistak ere lagun zituela, horrela euskal prosa *ex novo* sorturik, eta *Heuscal herria* hitza lehenengo aldiz imprimatu eta euskaldunen artera zabaldurik.

Lehenago poesia landu zen, hain-zuzen-ere hizkuntza biziko tradizioz edonon beti hurbilago egon izan den generoa baita. Izan-ere badugu Echepare baino lehenagoko kanta zaharren berri, Garibay, Ibarguen-Cachopin, eta abarrek, bildu baitzituzten ahozko tradizio zaharretik.

Erran dugu Echepare-rena izan dela moldezko letraz argitaraturiko lehenengo liburua, eta hala da izan-ere, baina Oihenart-ek dioskunez bere ondorik poesia egin zuten beste autore batzu ere izan ziren, Mr Jean d'Etchegaray eta Mr Arnaud de Logras-en esku-izkribuak gure denborara heldu ez badira ere, edo inork ez ditu aurkitu behintzat, guk dakigula. Echepare-ren beraren edizioa ere Parisen gorderik dagoen ale bakar baten bidez besterik ez dugu ezagutzen, eta izan omen zuen, gainera, bigarren edizio bat ere, eta haren alerik batere ez da ageri inondik.

Hain-zuzen-ere Pierre Lafitte-k Oihenart-en «L'art poétique basque» esku-izkribua argitara zuen 1967 urtean², eta han erraiten da: «Il y a six uingts ans —beraz hau 1665 urtean izkribatzen du—, a eu intention de faire uers masculins ou bien de feminins (car pour les glissans ie ne croy pas quil les ayt sogneus) en une poesie basque quil fist imprimer a Bourdeaux chez François Morpain et laquelle a esté depuis reimprimee a Rouen chez Adrian Morront, mais fort incorrecte» 227 orr. Euskaraz: “Duela ehun eta hogeit urte —beraz hau 1665 urtean izkribatzen du—, versu maskulinoak edota femeninoak egiteko asmoa izan du (zeren ez baitut uste «glissan<t>s» direlakoak landu dituenik) euskal poesia baten, zein Bordelen imprimaerazi baitu François Mor-

² Pierre Lafitte, «L'art poétique basque (Un inédit d'Arnaud d'Oyhénart)», *Gure Herria* (1967), 195-234 orr.

paint-en baitan, eta geroago Rouen-en berrimprimitu izan baita Adrian Morrrent-en etxean, oso oker". Beraz Bordele-ko edizioaz gainera bigarren bat du Rouen-en egina, eta Oihenart-en ustez «fort incorrecte».

Hona hemen zer dioen beste autoreez:

1. «Après celui cy il y eust un autre prestre, natif de St. Jean de Pied de Port, nommé Mr Jean d'Etchegaray qui s'adonna aussy a la poesie basque: c'est l'auteur de la pastorale intitulee *Arzain gorria*, qui a esté iouee plusieurs fois en cette uille. Il escriuait il y a cent ans —beraz 1565 urtean—. L'ay ueu un uolume de ses rimes basques escrit de sa main. La plus part de ses uers sont aussy composez de quinze syllabes, et ont les mesmes manquements, en la forme, que ceux d'Etchepare», 228 orr.

Euskaraz: «Honen ondorik beste apez bat izan zen, Donibane Garazin jaioa, eta izenez Mr Jean d'Etchegaray, zein euskal poesian aritu baitzen: pastoral baten autorea da, titulu moduan *Arzain gorria* duena, eta behin baino sarriago jokatu izan dena hiri honetan. Duela ehun urte izkribatu zuen —beraz 1565 urtean—. Haren eskuz izkribaturiko volumen bat ikusirik dut euskal rimak dituen. Versuetarik gehienak hamabost syllabakoetan eginikoak dira, eta formaren aldetik Echebarenen rimen huts berberak dituzte».

2. «le puis vous dire la mesme chose des poesies de feu Mr Arnaud de Logras prieur d'Utziat et Vicaire general en Mixe et Ostabarez, que i'ay ueües ecrites de sa main», 228 orr.

Euskaraz: «Gauza bera erran diezazuket Mr Arnaud de Logras difuntuaren poesiez, zein Utziat-eko nagusi izan baitzen, eta Amikuze eta Oztibarreko bikario general, eta haren eskuz izkribaturik ditut ikusi».

3. Hirugarren kasu honetan Joannes Etcheberri Ziburu-ko autore ezagunaz ari da argi eta garbi: «Considerons apres celles du manuel de feu Monsieur d'Etcheberri prestre de Siboro —uler bedi Ziburu—, et nou truerons que ses uers son de la mesme mesure de quinze syllabes chacun, eta tachez de pareil uice de la uiolance de la quantité, en employant pour longues les syllabes finales, qui de leur nature sont breues; d'ou uient qu'en l'epistre dedicatoire adressee a Monsieur l'euesque de Bayonne, il faict rimer prelata contre bayta (prononçant les dernieres syllabes de ces deux mots comme sy elles auoint l'accent aigu au dessus)», etc., 228 orr.

Euskaraz: «Konsidera ditzagun ondorik Monsieur d'Etcheberri Ziburu-ko apez difuntuaren manualekoak, eta aurkituko dugu bere versuak neurri berekoak direla, hau da, bakoitza hamabost syllabako, eta oker bera aurkitzen zaiela quantitatea bortxatzerakoan, azken syllabak luzetzat erabiltzen baititu, berez laburrak izanik ere; eta hortik

dator Baiona-ko Apezpiku Jaunari zuzenduriko eskaintzazko epistolari *prelata* hitza *bayta* hitzaren kontra rimaeraztea (hitz bi hauen azkenengo syllabak gainean azentu akutua bailute bezala)».

Mahai biribil honetan moderatzailearen papera bete behar dudanez gero sarrera hau besterik ez dut egin Echepeare bere kontextu historiko orokorrean kokatzeko asmoz, zeren alde batetik Aita Patxi Altuna Echepeare-ren hizkuntzaz mintzatuko baita, bestetik Jon Kortazar-ek Echepeare literaturaren aldetik ikusiko baitu, eta azkenik Ander Urrutia-k Echepeare-ren lanaren eta bere garaikideen ikuspegi juridikoa eskainiko baitigu.

Etxepareren bertsogintzako legeak

Patxi Altuna

Euskal bertsolaritzaz eta zerbait Ahozko Literaturaz gure artean azken hirurogei urteotan liburu klasikorik izan bada, On Manuel Lekuonak *Literatura Oral Euskerica* izenez gerra aurrean argitara eman zuena izan da. Dituen bost ataletatik bigarrenari «La literatura oral en general y la popular euskérica» deritza eta hirugarrenari «El Bertsolarismo»¹.

Gaur baino lehen esana eta idatzia dudan bezala, ez nator bat liburu horrekin puntu guzietan, agian punturik garrantzitsuenetan, baina ezin uka On Manuel alor horretan lehena izan zela eta bertsolaritzaren gainean inoiz egin ez zen bezalako azterketa egin zuela eta bide berriak, inoiz zapaldu gabeak, urratu eta askoren begiak argitu zituela, eta horrebestez On Manuelek merezimendu handiak dituela, aitortu izan zaion bezala.

Geroztik ondoko urteotan asko eta ondo idatzi da euskal bertsolaritzari eta euskal bertsolariei buruz eta neroni ere saiatu nintzen behinola, Etxepareren obra aztergai harturik, neure txanpon txikia atakaban sartzen. Gaur ere Etxeparez dugu solasa ezinbestean, bere liburua argitaratu zenetik aurten 450 urte betetzen baitira. Solasa lehenik bakarka, gero elkarrizketan eta elkarren lehian, mahai inguru baten antzera.

Ene bakar-solasaren xedea hauxe da: Etxepareren testu labur bat harturik frogatu edo azaldu Etxepare herri-poeta, hau da, bertsolaria zela eta bertsolarien legeez baliatzen zela; baldin batbatean eta bertan asmatu bertsuak kantatzen zekiena ez bazen —ez jakin zen ala ez—, «bertso berriak» deiturikoen egileak diren heinean bederen bazela bertsolaria. Hau esatean ez dut inola ere ukatzen poeta zela. Gu formaz bakarrik ari gara eta azaleko baliabideez.

¹ Lekuona, Manuel, *Literatura oral euskérica*, 1935.

Aztergai hartuko dudan testua liburuaren haste-hastekoa da, «Munduan den gizon orok behar luke pensatu» lerroaz hasten den bertsoak eta ondoko beste lauek osatzen dutena. Hogei bertso- lerro dira denera. Poema txiki bat dela esan daiteke, ongi begiratu gero. Titulua ipintzekotan nik hauxe ezarriko nioke: «Jainkoa eta gizona». Lehen bertsoan gizona Jainkoak egin duela dio («nola duyen... gure arima kreatu»). Bigarrenean, egin bai, baina ez duela salbatuko («gloriarik ez emanen»), gizonak ongi egiten ez badu. Hirugarrenean, gizonak zerbitzatu egin behar duela («zerbitzatu behar dugu»). Laugarrenean, obra onak saria eta txarrak zigorra hartuko duela eta azkenean berriz, Jainkoaz «unsa oroitu» eta «orhituki haren izena goratu» behar duela.

Aipa nitzake neure iritziaren alde Mitxelenaren hitz hauek: «No hallamos en la literatura vasca un espíritu semejante más que en alguna poesía popular. En realidad, el parentesco de la obra de Dechepare con la poesía popular —en espíritu, lenguaje y versificación— salta a la vista. Lo mismo que se sirvió de los metros populares se valió de su habla nativa, el bajo-navarro de Cize»². Baita beste haiek ere Etxeparez mintzo dela: «Hor dugu, izan ere, obraren mamia bera, hain bakanka arrotz gertatzen zaigun hizkera, olerkariengandik baino bertsolariengandik hurbilago dabilen neurkera»³. Baina gaurkoz, horiek alde batera utziz, nahi dut Etxeparearen bertsogintzaren zenbait alderdi laburki agerian ipini eta gero esan: «Hau da bertsolari izatea eta bertsolari ez denak, hala nola Ziburuko Etxeberrik eta Oihenartek, ez dituzte bertsoak horrela tolestutzen».

Entzun ezazue poema txiki hori. Honela da:

«Munduan den gizon orok behar luke pensatu
Jangoikoak nola duien batbedera formatu,
Bere irudi propioa gure arima kreatu,
Memoriaz, borondatez, endelguiaz goarnitu.

Ezein jaunek eztu nahi muthil gaixtoa eduki,
Ez pagatu soldatarik zerbitzatu gabarik.
Jaungoikua ari duzu hala-hala gureki.
Gloriarik ez emanen hongiri gabarik.

Muthilek gure zerbitzutan deramate urthia.
Soldata apphur bategatik hartzen pena handia.
Jangoikoak behar luke guk bezanbat balia.
Zerbitzatu behar dugu emaitetekoz gloria.

² Michelena, Luis, *Historia de la Literatura Vasca*, 1960, 47. or.

³ Mitxelena, Koldo, «Etxeparearen edizio kritikoa aurkeztean», MEIG, V, 32. or.

Ogirik eztakusat biltzen hazi erein gaberik.
 Nork zer hazi erein baitu biltzen dizi komunki.
 Obra onak ukhenen du goaldona frangoki,
 Baietare bekhatuiak punizione segurki.

Zeren Jeinkoa egun oroz ongi ari baitzaigu,
 Guk ere hala behar dugu harzaz unsa orhitu,
 Gure hatse eta fina hura dela pensatu,
 Goiz etarrats orhituki haren izena laudatu» (I, 1-20).

1. Agian entzutearekin bakarrik ohartu zarete berdintasun batez: lerro bat = perpaus bat. Lafonek honela dio: «Dechepare aime à enfermer dans un vers l'expression d'une pensée»⁴. Horra euskal bertsolaritzaren lehen bereizgarria. Perpaus ia beti bakuna izan ohi da, batzuetan konposatua. Eta hori lerro batean eta bestean, bertsoko laurak batzuetan halaxe tolestatuak izateraino. Alegia, zenbat lerro hainbat perpaus. Horko hirugarren bertsoa, esate baterako, halakoa da: lau lerrotan lau perpaus nagusi dira hor. Hori dela eta, ederki dio Lafonek: «Si la suite de ces vers... produit au premier abord une impression de monotonie, on s'aperçoit vite qu'un art déjà sûr préside à leur composition et à leur mise en place»⁵.

2. Ez hori bakarrik. Lerroetako perpausak gainera elkarri batere lotu gabe egon ohi dira, inolako loturazko partikularik gabe, perpausen arteko erlazioa entzulearen baitan uzten dela, berak bere gisa asma dezan eta, esan gabe utzi den lokailuaren eta juntagailuaren hutsunea, bere barnean isilik bete dezan. Hitz batean esateko, lerroak elkarren segidan parataktikoki ipiniak. Halako garbi-garbia da, esate baterako, aipatu berri dudan hirugarren bertsoa. On Manuel Lekuonak ere beste hitz batzuekin seinalatzen ditu bertsolaritzaren bi puntu hauek bere liburuan.

3. Lokailurik gabeak izateaz gain lerro batzuetako perpausak ez dira askotan osorik ematen. Esan nahi baita, elipsiz beteak egoten dira, itxuraz behintzat iluntasuna handiturik. Elipsiak era askotakoak izan daitezke. On Manuel Lekuonak adizki laguntzaileen isiltzeak aipatzen ditu eta esaten diskurtsoari bizitasuna ematen diotela. Gure poemako 8. eta 10. lerroetan hori daukagu: hitz lauz aritzean komunzki eman ohi den adizki laguntzailea falta dute: batak «digu», besteak «dute».

⁴ Lafon, René, «La langue de Bernard Dechepare», *RSVAP*, VII, 1951, 337. or.

⁵ Lafon, René, Leku berean.

4. Ez dira ordea horiek elipsirik handienak, Horiek prosazko hizkeran ere gertatzen baitira. Nabarmenagoak dira honako hauek:

- «Suiak bero, hurak xahu, hats hartzeko airia» (I,347)
- «Anhitz pena, arima gal, harena eta neuri'ere» (II,9)
- «Hek dostetan, ni neketan, orduian errabiatu» (IV,28)
- «Ni erhoa, zu iakinsu, beha enakidizu» (XII,16)

Baina gatozen geure testura. Badira beste batzuk izkutuagoak, bati errepara gabe itzuri dakizkiokeenak, hitz lauzko hizkeran nekez onartuko liratekeenak. Ez ditut inon aipatuak ikusi. Har dezagun, esate baterako, 8. lerroa:

«Gloriarik ez emanen hongi egin gaberik».

Bi perpaus ditugu lerro horretan, bi adizki ezjokatu, lehena laguntzaile gabe emana. Okerrena ordea da ez dakigula zein diren subjektuak, ez baitira aipatzen. Ikusi batera pentsatuko genuke subjektu bera behar dutela. Bada ez! Testu inguruaren ikerketak erakusten digu diferenteak direla eta, ez baitaude espresuki esanak, jakiteko modu bakarra da entzuleak asmatzea zein diren, eta, gezurra badirudi ere, bertsotara ohitu entzuleak entzun orduko asmatzen du: alegia, lehen adizkiaren subjektua «Jaungoikoak» dela eta bigarrenarena «guk». Bestela esan, baldin prosaz ariko bagina, hori horrela esango litzateke: «Jainkoak gloriarik ez <digu> emanen <guk> ongi egin gaberik». Lerro horretako zehazgabetasuna, iluntasuna ez litzateke inondik ere onartuko hitz lauzko testuan; bertsolariari, berriz, hori eta gehiago barkatzen zaio. Gauza bera gertatzen da 6. eta 12. bertso lerroetan; horietan ere ez zaigu esaten bi adizkien subjektuak zein diren.

5. Lehen aipatu dugun «lerro bat, perpaus bat» legea ez da beti betetzen; ez luke ere ederki emango. Batzuetan lerro baten muga gainditzen du esaldiak eta jarduna bizpairu lerrotan barna luzatzen da. Orduan ere badu haatik bertsolariaren hitz-kateak gauza berezi bat, poeta landuarenak edo ikasiarenak ez duena. Esaldia bi lerrotan edo gehiagotan barna hala luzatzen denean, hitzen ordena eguneroko hizketan bezala, prosazkoan bezala, jariatzen da batera bortxarik gabe, hitz bakoitzak dagokion lekutik atera gabe, hitz-katearen maila bakoitzak bere lekua gorderik. Hainbestetaraino da hori egia, non baldin erritmoa oso markatua ez badu, ez eta pundua oso aberatsa, hura entzuten duenak pentsa bailezake hitz lauzko testua entzuten ari dela. Honen oso exenplu ona da Etxepareren lehen bertsoa:

«Munduan den gizon orok behar luke pentsatu
Jangoikoak nola duien batbedera formatu,»
etabar.

Hori kaleko eguneroko hizkeran ere horrelaxe esaten da, hitz horiek horrelaxe tolestutzen dira. Olioia bezala dariote hor hitzak, batere karaskarik gabe, batere kurrinkarik gabe.

Ez da hala gertatzen Oihenarten bertso honetan, adibidez:

«Beraz higanik
Egin iadanik
Noiz nakidina dakidan
Jin eta nura,
Gorde-lekhura,
Eta hi han bat akidan»⁶.

Hitz horiek egunoroko hizkeraren ordenan eman nahiko bagenu, honela tolestatu beharko genituzke: Beraz iadanik egin dakidan higanik noiz jin nakidina, eta nura, gorde-lekhura, eta hi han bat akidan. Halaz ere ulertzen zaila da.

6. Esandako horren sekretua bertsolaritzaren honako beste bereizgarri honetan datza. Hara. Gaztelera «grupo fónico» deitzen direnak eta Mitxelenak «hitz andana» izendatu zituenak oso-osorik gordetzen ditu Etxeparek, puskatu gabe, printzatu gabe, zatiak lau haizeetara barreiatu gabe. Hori kontrako bizpairu exenplurekin aditzen da ondoena. Ikus Ziburuko Etxeberriren lerro hauek:

«Exenplua begietan dakusagu argia»

Mundu guziak «exenplu argia» esaten du, hori da hitz andana. Poetak ordea erdibitu egin du, bi osagaiak elkarrengandik urrundu eta hizkuntzaren lege guzien kontra biak, izena eta izenondoa, mugatzailaz hornitu. Etxeparek, herri poeta delako, ez dezake inola ere horrelakorik egin, Ziburuko Etxeberrik bai. Ikus beste hau:

«Ezin garaituz muthiri itsasoen lanzadak»⁷.

«Itsaso muthirien lanzadak» esango luke hitz-lauzko idazle batek, baldin, dirudien bezala, itsasoak badira mutiri eta ez lanzadak; bestela berriz «itsasoen lanzada muthiriak». Berdin zaigu. Batera nahiz bestera hori ere ezin esan lezake Etxeparek, egunoroko hizkeran —edota, hobeto, egunoroko ahoskeran— hitz andanak ez direlako puskatzen.

Horixe bera egin zuen Quevedok irriz askotan errepikatu ohi den bertso lerro honetan: «En una de fregar cayó caldera».

⁶ Oihenarte, Arnaud, *Les proverbes basques recueillis par le Sr. d'Oihenart; Oten. gaztaroa neurthitzetan*, III, 43-48.

⁷ Etxeberri, Joannes, *Manual debozionezkoa*, 2. parte, III. burua, «Untzia zaharturik haustean» titulu duen atala.

7. Etxeparek, diogun berriro, ez dizu sekula horrelakorik egingo, baik hitz andanak beti osorik gordeko, zartatu gabe, erditik apurtu gabe. Hitz andanak ez dira guziak berdinak. Bertso bakoitzak bereak ditu; zortziko handiak batzuk eta zortziko txikiak besteak. Etxepareren hamabost silabako lerroetan konkretuki hitz andanak, ahal den oro, lau silabakoak dira, hiruko azkena izan ezik, 4/4//4/3-ko eskema gordeko badu. Poeta-
ren trebezia honetan datza, alegia: lau silabako hiru hitz andana elkarren segidan ipintzean, dominoko fitzak balira bezala, edo, hobeto esan, horma bat egiteko arginak lau zuloko adreiluak elkarren ondoan ipintzen dituen bezala, azkenean toki faltaz hirukoa bakarrik ipinirik. Ahal den oro, esan dugu; inoiz gertatzen baita poetak ezinbestean eskema hori urratzea, hala nola lau silaba baino gehiagoko hitzen bat erabiltzean; orduan lizentzia batez baliatu dela esan ohi dugu. Hona bizpairu esanplu:

«Miserikor-diaz bethe // ziraden iaun / eztia» (I,58)

«Zuk idazu / othoi osso // neure endelga-menduia» (I,61)

«Neure bekha-tuyez oroz // dudan barkha-menduia» (I,67)

8. Are gutxiago egingo du inoiz Etxeparek Ziburuko Etxeberrik honako beste bertso honetan, lehen aipatu pasarte berean, eгина:

«Hanbat beraz duzula esker zenbat handietarik
Itsasoan begiratu baituzu kaltetarik».

Gainerakoak gainera, guri orain axola zaigun «kalte handietarik» hitz-andana ez dago, lehengoak bezala, txikitua, apurtua bakarrik; gainera osatzen duten bi hitzak zangalatrau bertso banatan sakabanatuak daude eta hori gutxi bailitz, izenondoa izenaren aurrekoan eta, Oihenartek egotzi zion legez, biak kasu markaz jantzirik gramatika arauen kontra⁸. Etxeparek ez ditu behin ere hitz andana bateko osagaiak zangalatrau bi lerrotan banatzen; egungo eta inoizko bertsolariak banatzen ez dituen bezalaxe, oso bertso lerro txikietan, silaba gutxikoetan, izan ezik, baina orduan galdegin behar da, ea lerro txiki horietako bakoitza zinezko lerroa den.

Poeta ikasi eta landu batek, bai, egin dezake hori. Fray Luis de León-ek, esate baterako:

«¿Y dejas, pastor santo,
tu grey en este valle hondo, oscuro
en soledad y llanto,
y tú rompiendo el PURO
AIRE te vas al inmortal seguro?»

⁸ Oihenarte, Arnaud, *L'Art poétique Basque*, 1665, Edition «Gure Herria», 1967, 39. or.

Edo beste lerro hauen egile Rodrigo Caro-k:

«Estos, Fabio, ¡ay dolor!,
que ves ahora campos de soledad,
mustio collado,
fueron un tiempo Itálica famosa».

Batean «puro aire» hitz-andana eta bestean «estos campos de soledad» zatikatuak daude eta bi lerroren ganean zangalatrau ipiniak. Horiek, ordea, poeta landuak ziren eta Etxepare ez. Etxepareren ahoskera egunoroko hizkeran edozein hiztunena bezalakoa da, alegia hitz-andanak osorik eta bere osagaiak baturik.

9. Horregatik, tesia egin nuenean, Mitxelena bera izan zen zein titulu ipini behar nion esan zidana, neure dudatik atereaz: «Versificación de Dechepare: métrica y pronunciación». Azken bi hitz horiek biltzen dute, izan ere, ezin hobeki neure tesian lehen eta lantxo honetan orain erakutsi nahi izan dudana: alegia, bertsolarien bertsogintza hertsiki atxikitzen zaiola egunoroko hizkeraren ahoskerari; bestela esan, elkarrengandik ezin berezirik bezala, batera dabiltzala beti bertsogintzan eta perpausen —hitz-katearen eta konkretuki hitz-andanen— ahoskera edo ebakera, zeren hauek osorik eta zatitu gabe ahoskatzen baititugu egunoroko hizkeran eta halaxe erabiltzen bertsolariak bertso lerroak egiterakoan. Beraz ozenki esan daiteke banako sintaktikoa hauentzat banako metrikoa dela. Horra zer esan nahi duen «métrica y pronunciación» izenburuak.

Hori bera nik baino hobeki adierazi zuen Mitxelenak berak Etxepareren ene edizio kritikoa jendaurrean aurkeztean: «Hor, euskal bertsogintzaz azaldu izan diren iritzi eta teoriak arakatzuz gero, axalak eta mamiak, hotsak eta zantzuak, fonologiak eta sintasiak elkarrekiko dituzten harreman estuak miratzen dira, luzaro eta astiro»⁹.

10. Aipa dezadan bukatzeko beste bereizgarri bat, Salamankan Homeroren *Iliada* aztertzean, irakasle Sánchez Ruipérez jaunak ahozko literaturaren bereizgarrien artean seinalatzen ziguna. Hitz betegarri direlakoak. Alfer hitzak direla esan daiteke. Semantikoki bai, ez baitute gauza berririk esaten, lehen esana errepikatzen baizik, edo hitz berri errankide bat sartuz edo lehengoa errepikatuz. Metrikoki ez dira alfer hitzak, ordea, zulo bat betetzera baitatoz, behar adina silaba faltaz bertso lerroak poto egin ez dezan. Partikulak izan ohi dira gehienetan, funts gutxikoak eta pisu txikikoak, ia somatzen eta sentitzen ez direnak. Euskaraz hartarako egokiena «ere» da dudarik gabe, eta hala aur-

⁹ Mitxelena, Koldo, «Etxepareren edizio kritikoa aurkeztean» *MEIG*, V, 32. or.

kitzen dugu Etxepareren zenbait bertso lerrotan zertako dagoen ez da-
kigula. Ikus adibidez:

- «EzetaRE falta ERE hihaurc nahi duyana» (I,212)
- «EzetaRE hitz orotan fida ERE gizona» (XIII,101)
- «lugeak ERE ez enzunen ezein ERE othoiik» (I,288)
- «Nihaurk ERE ukhen dizit zenbait ERE amore» (II,7)

Horietan guzietan ERE bitan esana dago eta aski garbi ageri da behin esatea aski zela, bestea betegarria dela, ez duela bertso lerroaren silaba kopurua osatzeaz beste egitekorik. Halaber ongi begiratu gero ohartzen gara bi lehenak egitura berekoak direla: EZETARE + aditza + ERE», eta beste biak ere bai, beste egitura batekoak: «nork sint./ERE + aditza + izenord./ERE». Aditza erdian, alegia, eta ERE alde banatan.

Ez naiz ausartzen gauza bera esaten ERE lerroan behin bakarrik agertzen den beste honako hauetaz. Ikusi batera bai, betegarri dirudi horietan ere. Baina hori ene euskalkiaren irudipena izan daiteke. Nork esan Etxeparerenean ere hala zela? Zuhur izatera behartzen nau gainera beste puntu honek: hiru bider agertzen da eta hiruretan galdetzailerarik «-bait»-en bidez sorturiko izenordain edota aditzondo zehaztugabeen ondoan ageri da ERE, euskalki batzuetan ez bezala, baina agian ekialdeko nafarreraren arabera. Hona hirurak:

- «Nor bait ERE amoria niri daraut muthatu» (VII,7)
- «Nor bait ERE egin deraut malizia handia» (XIII,31)
- «Non bait ERE ifernuya are gaitzago dela» (XIII,65)

Hala balitz ere, goiko lauek, ERE bitan errepikatua dutenek balio dutela uste dut frogatu nahi dudanerako; alegia, bertsolariak zenbaitean betegarriez baliatzen direla kenka larrietan bertso lerroak eskatzen duen silaba kopurua osatzeko, eta hori ere bertsolaritzaren eta batbateko hitzetatik ahorako jardunaren ezaugarri bezala aitortu behar dela.

Bernard Detxepare: bidegurutzean

Jon Kortazar

Ni ikasle nintzenean, Bernard Detxepare Juan Ruiz Hitako Artziprestearekin gonbaratzeko ohitura zegoen. Bien artean omen diren parekotasunak medio, Plutarkoren bizitza paraleloak egiten zituzten orduko kritikariek. Oso hedaturik zegoen topikoa zen hori. Gerora urteen poderioz, topikoa indargetuz joan den heinean zerbait gehiago egin ahal izan dugu Detxepareren literatur lanaren balioaz jabetzeko. Patxi Altunak bere Doktorego tesia idatzi zuenetik hona, hala ere, eskasak izan dira Detxeparez eginiko lanak, eta haren literaturaz gutti aritu garela iruditzen zait.

Itzul nadin, dena dela, ikasle garai haietara eta begiratu zertan oinarrizten zen Juan Ruiz eta Detxepareren arteko parekotasuna. a) Metrika zen lehen arrazoiak: Detxeparek darabilen neurriak ba omen du «cuaderna vía» puntu bakarreko ahapaldiarekin loturarik orduan esaten ohi zenez. b) Arrazoi biografikoa zen bigarrena: kartzelan egon zirenez biak, arrazoi biografikoak ere eman zuen biderik parekotasunerako. c) Maitasunari buruzko irizpidea berdintsua omen zuten idazle biek berdina baino gehiago antzekoa, hala ere. d) Ama Birjinaren irudiak zemaian orduko iritzi emaleei bidea azken puntuan gonbaraketa egiteko.

Arrazoiok astiro begiratzuz gero, azpian dagoen zehazgabetasunaz ohar gaitzke; iritziak orokorregiak dira eta ez dute kritikaren indar erdirik jasotzen behera etortzeko. a) Puntu monorrimoa erabiltzen da ahapaldi bietan, baina neurriaz ez zuen inork ezertxo ere esaten, eta begi bistakoa da neurria desberdina dela, garbiago adierazita: ahapaldi desberdin bi erabiltzen direla; b) kointzidentzia biografikoak —zenbat idazlek ez ote zuten lau mendeetan zehar bere hezurak gartzelaratuak ikusiko?— ez du ezertxo ere frogatzen; c) maitasunari buruzko iritzia idazle biongan ez da berdina, eta zehatz irakurriz gero bion artean diren desberdintasun nabarmenekin —antzekotasunak baino handia-

goak, zalantzarik gabe— egingo genuke topo. Detxepareren maitasunak badiu erroak Provenzako maitasun olerkietan ongi sustraiturik; d) Ama Birjinarengan duten itxaropena izango litzateke bien arteko lotura bakarra, baina jakina de ikuspegi hori oso zabaldua zela kristautasun osoan eta ezin dela hor frogatu batak bestearengan eginiko eraginik.

Ikuspegi honek, azpitik eta zeharbidez besterik ez bazen ere, ondorio jakina lortzen zuen. Detxepare Erdi Aroko idazletzat jotzen zuen, garbiro eta gardenki agertzen ez bazuen ere, baina Erdi Aroko idazlearekin gonbaratuz gero, Erdi Aroa bidaltzen zuen gure idazlea.

Horixe dugu bigarren gatazka gure artean. Nola ulertu behar da bere literatura: Erdi Arokotzat hartu behar dugu, ala Errenazimendu garaiko idazletzat?

Jon Juaristik adibidez, bere *Literatura Vasca* liburuan (1987, 31) Erdi Arokotzat jotzen du. Han jartzen dituen argumenduak hauexek dira.

- a) Detxeparek bere idazlanak kantatuak izateko idazten ditu eta ez irakurriak izateko. Egoera honetatik beste ondorio hau ateratzen du, «badirudi Detxepare ez dela ohartzen ahozko eta idatzizko lanen artean dagoen erro-erroko desberdintasunaz».
- b) «Amodio sakratuaz eta amodio profanoaz aldi berean gozatzeraz bultzatze horrek (...) Hitako Artziprestearengan pentsatzeraz garramatza berehala. Eta, hala da, Detxeparek eta Juan Ruiz-ek planteamolde hori eta beste batzuk parekoak dituzte». Jon Juaristik ez ditu zehaztu zeintzuk diren aipatzen ez dituen beste planteamolde horiek.

Liburuan aipatzen ez duen arren, bere elkarrizketa oparo bezain aberats eta eskuzabalagatik dakit Jon Juaristik baduela beste arrazoi bat: hain zuzen ere, Detxepareren liburua katixima baten (Doktrina Christiana) argitarazioaz hasten dela, eta Erdi Aro berantkoraren ezaugarria dela katiximen argitarazioa.

Garbi da inork ezin duela ukatu azken datu hori. Baina, nik uste ez direla kontuan hartu Detxepare Errenazimendurekin lotzen duten beste zenbait datu.

- a) Detxeparek garrantzi handia ematen dio inprentari. Harro ikusten du bere burua lana inprentaz zabalitzen duelako: aho eta idatzizko kulturaren bideturutzean aurkitzen bada ere Detxeparek badaki idatzizko kultura batean ari dela. Bere liburua «Kantatzeko» idatzi zuela esaten da maiz eta sarri, eta gainera bere zenbait ahapaldi tradizionalizatu direnez, indartua geratzen da argumendua. Baina Detxeparek ez dio «Kantatzekoa», edo

«Kantatzeko» soilik egin zuenik bere liburua. Kantatzekoaz gain agertzen dira beste ekintza batzuk bere hitzaurrean: «eta baskoek bertzek bezala duten bere lengoajian skribuz zenbait doktrina, eta plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora iragaiteko materia»

Kantatzekoaz gain, solas hartzekoa ez ote da irakurketari egiten zaion aipamen garbia? Ez diot horrela denik, horrela pentsatzeko beta ematen duela baino.

- b) Norberaren hizkuntza goraiatzea latinaren aurrean Errenazimendu garaiko ezaugarria da, hizkuntza nazionalen goraiamena sortzen den unea. Lekuan lekuko hizkuntzak indarra hartzen hasi ziren eta kultura iragorpenerako indartzen eta trebatzen.
- c) Bada Errenazimenduko den datu soziologikoa. Une batez —liburuan bi aldiz baina— Detxepare zerbitzariari zor zaion soldataz ari da. Kontzeptu hau Errenazimenduan sortzen da, Erdi Aroan ez zaio soldatarik zor zerbitzariari.
- d) Ama Birjina unibertsoaren gun e gisa kokatua omen dago liburuan. Baina maitasun poemetan beste horrenbeste egin du gizakiarekin, bera da unibertso gun e.
- e) Katiximaren argitarazioa Erdi Arokoa delako egiten da, ala ortodoxoa delako, besterik gabe?
- f) Idazmoldearekiko harremana eztabaida honen ardatza gertatzen da. Orain arte, uste dut Detxepare ahozko kulturarekin lotzeko jarrera egon dela gure artean. Alderantziz, esan nahi nuke idazmoldearekin loturik ikusiko bagenu arazoa ez genuke ustegaberi izango, idatzizko kulturaren aztarnak nonnahi agertzen baitira Detxeparerengan. Patxi Altunak, noizbait, «herri poeta» deitu du, agian, ene iritziz, «herri»k hor adierazten duena garbiegi azaldu gabe; «kantatzeko» egin omen zituen bertsoak, hori ere askotan aipaturiko gaia dugu, eta gainera, bere bertso batzuk tradizionalizatu omen ziren. Aspaldi ez da aztertu zer tradizionalizatu zen, eta nolako loturak zituen bertso jasoak eta Detxeparerenak.

Begira dezagun orain txanponaren beste aldera. Badakigu Errenazimenduko modernitatea idazkerarekin duen harremanean gauzatzen dela. Aries eta Dubyk bere *Historia de la vida privada* lan mardulean, hiru irizpide jartzen dituzte modernitatearen agerpena gauzatzeko: idazketareri harremana, Estatuarekikoa, eta erlijioarekikoa. Idazketarekiko alorra aztertzen badugu, batbatean ikusiko dugu Julio Urkixok «letra gizon» deitzen duela, eta halaxe zen, Donibaneko bikarioa izateko abokatua behar baitzuen izan, letra gizona, lege gizona, idazketare-

kin ongi moldatzen zena. Idazketarekiko loturak beste zenbait puntutan agertzen dira, silogismoaren joeran, humanismoaren agerpenean, poemen itxuran, poemak orrialdeetan agertzeko eran, zatikatze prozesuan eta abar. Eta abar horren barnean liburuaren barne moldaketan, geroago astiroago azalduko dugun gai horretan. Gainera ez dago autobiografiarik idazketa prozesuak dakarren hausnarketa eta barne analiariarako joerarik gabe. Eta garbia da Mosen Bernart Detxeparek autobiografia agertu duela bere poema batean, nahiz eta gai honetan zalantzan agertu bere burua, eta bere buruaz zenbaitzutan ni-ka ari, eta besteetan, hura-ka, edo zu-ka. Bestela esanda autobiografia guttiz erroturik izan gabe.

Estatuarekiko harremanetan Detxeparek hautsi egiten du bere nagsiarekiko zuen fidelotasuna eta beste jaun baten menpe jartzen du bere burua. Ez litzateke horrelakorik sinetsiko Erdi Aroan, non garrantzizkoa baitzen familiarekiko atxikimendua. Erlijioari dagokionean, ez dakit Doktrina entzulego zabal batentzat egina den, nahiz eta ziurrenik kantatua izango zen, ala «gizon orok» horrek ez duen adierazten gizon bakoitzak, eta beraz, erlijio pribatu baten ateetan ez ote gauden. Halaz ere, erlijioa da ortodoxoena liburuan.

Errenazimendua ez da berez ongi finkaturiko aro bat, baizik eta kinka larrian bizi den aroa, modernitatearen garapen bidean. Detxeparek liburuan agertzen duena aro biren artean mugitzen den kinka bat da, beraz gutxienez bidegurutzean aurkitzen den nortasunarekin egiten dugu topo, gutxienez transizio gizontzat hartu beharko genuke, Errenazimenduan sortzen diren kinka larrien artean mugitzen den pertsona.

Juan Ruiz, Hitako Artziprestearekin egin ditugu orain arte loturak, baina Detxeparek badu ondoan, eta informazioaren pistan jarri ninduen Patri Urkizuri bihoakioz esker beroenak, nahiko antzeko idazle frantsesa: Clément Marot (1496-1544). Aurkitzen hastekotan hurbilenean aurkitzen hasi behar baikenuen eta ez lau mende lehenago bizi izan zen idazle batek utziriko aztarnetan.

Clément Marot Frantzian bizi den idazle jakintsua da. Zer lotura du baina Detxeparekin? Bi ziurrak, bestea frogatzekoa. Bata Lehete jauna da. Dakikezutenez, Detxeparek Lehete jaunari eskeini zion obra. Clément Marotek ere bazion zer zor Leheteri, honek atera baitzuen gartzelarik. Bitan egon zen gartzelan Clément Marot, behin garizuman okela jatearren —aitzaki hutsa izan ez zena—, beste behin arazo politikoengatik. Biek zuten bada jaun babesle bera. Biga, Detxepareren lanaren aurrean agertzen den grabatua lehenago Clément Maroten *Doctrina* baten azal gisa agertu zen. Beraz inprentak grabatu bera erabili zuen liburu biren azala egiteko. Eta frogatzeko zalantzazkoa zein?

Bada, Clément Marotek ere lan bikoitza egiten duela: idazten du doktrina, idazten ditu maitasun poemak....

Bai Clément Maroten maitasun poemetan, eta baita ere Detxeparenetan garbia da Provenzako maitasun poesiaren eragina. Octavio Pazek bere *La llama doble* maitasunari buruzko saioan erakutsi duenez, Provenzako literaturaren bidez maitasunari buruzko kontzeptu berria zabaltzen da Europan, emakumearen balorazioa egiten duen maitasunarena, fina eta galanta, eta era berean sexua ahazten ez duena.

«Tres notas sobre la poesía provenzal: la mayor parte de los poemas tiene por tema el amor, este amor es entre hombre y mujer, los poemas están escritos en lengua vulgar.... Poemas no para ser leídos, sino oídos, acompañados por la música»

Lafonek trobadoreak Detxepareren iturritzat aipatu bazituen ere, ikerketa bide honi ez zaio jarraibiderik eman. Maitasun gortesauaren topikoa nabaria da Detxepareren zenbait poematan.

Eta bidenabar, Detxeparek bere lanak «kantatzeko» egin zituela esaten den bakoitzean, lotura aho literaturarekin egiten dugu, baina Octavio Pazen zita horrek adierazten duenez, bazen literatura jantzia kantatzeko egiten zen poemarik. Ezin jakin, ikerketak aurrera egin arte, baten edo bestean jarri behar den Detxepareren «kantatzeko» hori.

Ez dakit hona ekarriko dudan adibidea garbiegia izango den hain zuzen ere garai desberdinekoa delako idazlea, baina Orleanseko Guillermori buruzko aipamen hau kontutan hartuko bagenu, bat-batean ikusiko genuke zein den bien artean dagoen paralelismoa. Paralelotasuna, ordea, ez dut testu mailan jartzen, ez baitut horrenbestearinoko ikerketa egin, hala ere egingo balitz, ziur nintzateke Detxepare eta Provenzako poeten artean loturak badirela, paralelotasuna mundu ulerkuntza, amodioari buruzko loturetan agertuko da, batez ere. Hona hemen nola aipatzen duen Peter Dronke ikerlariak Poitierseko Gillermoren poesia.

«El amor humano (amor que se encuentra y que se conquista, no el puro anhelo amoroso ...) puede ser una fuente de bondad y alegría, en armonía con todo lo que hay de dulce en la naturaleza. ¿Por qué, pues, ocasiona tantos sufrimientos a los amantes? La presión social puede mantenerles apartados uno del otro y obligarlos a encontrarse furtivamente con el miedo a las murmuraciones maliciosas ... Todas estas presiones frustraciones y miedos tienen su efecto sobre la moral de los mismos enamorados, les hacen discutir cuando están juntos y estar inseguros uno del otro cuando están separados. El no sabe ninguna noticia de ella, ¿quiere esto decir que su amor disminuye?»

Detxepareren lanean badira bi alde estilistiko aipatu nahi nituzkeenak Provenzako literaturarekin lotzeko: bata ispiluaren metafora da, bestea gaia asmakizunaren eta idealizazioaren bidetik bialtzen duena da.

Ispiluaren metaforak, hain zuzen ere, Detxeparek azaltzen duenean mirailaren beste aldean ikusten duela bere maitea, irrealtasunean kokatzen du, fikzioan, Detxepareren maitasuna, dramatizatu egiten du metaforak.

«¡Mirail bat nik ahal banu hala duyen donoa
Neure gogoan nerakutson sekretuki han barna,
Han berian nik nakusen harena ere nigana,
Hutsik ezin egin nezan behin ere hargana!»

Poetak errealista ez den egoera batean kokatzen du maitasuna. Miraila izan liteke jarraitu beharreko lehen zantzua hipotesia sortzeko asmotan.

Baldintzazko eta ahalezko perpausek bere poesia baldintzazko egoeran jartzen dute, silogismotik hurbil, sentitua eta batbatekoa den maitasunetik baino pentsatua eta eratua den poesiatik hurbilago. Era-tua, asmaturia, fikzionaturia, kontzeptuala, berdin zait zein izenondo jarri, intelektuala, esan nahi dut, buruarekin egindakoa eta ez, neurri baten behintzat, bihotzarekin. «Amoros sekretuki dena» poeman irrealitate zantzua indartzen da silogismotik hurbil diren perpaus horien bidez. Eta silogismoa aipatzen dugularik, esan beharko genuke, ahozkotasuna ikertu dutenen ustetan silogismoa ulertzeko ezintasuna dela ahozkotasunak duen ezaugarrietako bat, eta beraz silogismoaren agerpenak idazketarekin egileak duen atxikimendua agertuko lukeela.

Itzuli nahi nuke, lan hau bukatzeko, aho eta idazketaren arteko loturetarra. Nik uste, eta hemen ere Errenazimendu zantzuak nabariak dira ikusiko genuke, Detxepareren lanean bada idazketaren ordenamendu bat. Poemen gaiak zatitzeak, «Doktrina Chistiana»n egiten den bezala, erakutsiko luke materialen organizaziorako trebezia berezia, idazketarekin ohitua den norbaiten agerpena, Bottérok eta beste idazketaren ikerlariak erakutsi duten moduan.

Baina materialaren ordenamendua ez da hor bukatzen. Idazle klasiko-zaleek ohi duten bezala, Detxeparek ere badu simetriarako joera nabaria. Adibide bi ekarriko ditut hona, nahiz eta ulertu erabiltzen dudan metodoak, formalismoak alegia, bere muga larriak jartzen dizkiola hipotesiari.

Har dezagun «Amoros jelosia». Horra hor poema simetrikoa. Zazpi ahapaldi ditu, lehenak 2 eta 4 eta bukaerakoak sei bertso, launakako egitura errespetatzeko, zazpi ahapaldi eta erdikoak gaiaz aldatzen du, itaunen bidez errejistro berria aipatzen du poeman, alde bitan bananduz testua.

Garbiagoa da, hala ere, maitasunezko poemen artean ikus dezakegun egitura. Maitasun poemetan, nik uste, badago egitura oso oreka-

tua. «Amorosen gaztiguya» eta «Emazteen fabore» poemek testuaren funtzio bikoitza betetzen dute. Detxeparek duen amodiori buruzko teoria «orokorra» azaltzen dute, eta jainkozko eta munduzko amodioaren arteko bereziketa osatzen dute. IV («Ezkonduyen koplak») eta V («Amoros sekretuki dena») poemek maitaleak maiteari adierazi ez dion maitasuna dute gaitzat, eta alderantzizkoak dira VIII («Potaren galdatzia») eta IX («Amorez errekeritzia»), hauetan maitaleak maitasuna adierazten baitio maiteari.

Miraila eran, VI («Amorosen partitzia») eta VII («Amorosen jelsia») poemek adierazi gabeko maitasunaren ondorioak erakutsiko litzukete: maitearen urruntzea eta horregatik sortzen den egoera jeloskorra. X («Amorosen disputa») eta XI («Amore gogorraren despita») poemek adierazi den maitasunaren ondorioak erakusteko balioko lukete.

Izenburuetan atentzioa jarriz gero, maitasunari buruzko entziklopedian aurkitzen garela esango genuke. Gai guztiak, edo gai zerrenda jarraitzen ari den poetaren aurrean.

Ispiluaren metafora poemetan, mirailaren egitura maitasun poemetan. Hona poesia kontzeptu egiten ari den poeta baten irudia¹.

Bibliografia

BOTTERO, Jean, eta beste zenbait: *Cultura, pensamiento, escritura*. Gedisa, Bartzelona, 1995.

DRONKE, Peter: *La lirica en la Edad media*, Seix Barral, Bartzelona, 1978.

PAZ, Octavio: *La llama doble*, Seix Barral, Bartzelona, 1993.

¹ Eskerrak eman nahi dizkiet Juan Kruz Igerabideri eta Reyes Villaseri lan hau egiteko eman didaten laguntzagatik. Eskerrik asko.

Olerkaria lege autuetan: Etxepareren *Linguae vasconum primitiae* ikusmira juridikopean

Andrés Urrutia

Aurkibidea: 1. ZUZENBIDEA ETA LITERATURA ETXEPAREREN ILDOTIK.—2. JUSTIZIAREN URRATSAK «JUDIZIO GENERALA» OLERKIAN: PROZESUAREN DINAMIKA.—3. JUSTIZIAREN GORA-BEHERAK ETXEPARENGAN.—3.1. **Etxeparek bere barnean bizi zuen justiziaren indarra eta agindua.**—3.2. **Etxeparek justiziarekiko zuen mesfidantza.**—4. *LINGVAE VASCONUM PRIMITIAE*-REN HIZTEGI JURIDIKOA.—5. AMAIERA.

1. ZUZENBIDEA ETA LITERATURA ETXEPAREREN ILDOTIK

Literatur lanak aztertzerakoan ohiz eta usu izaten ditugu eskura ikuspegi linguistikoa, filologikoa eta literarioak. Ez horrenbeste, ordea, literaturak islatzen dituen bizitzaren beste ikuspegiak, hala nola, Zuzenbidearenak, Medikuntzarenak eta abarrenak. Gurean, adibidez, oso urriak dira Zuzenbidea eta literatura lotzen dituzten saiok. Ia deusezak esango genuke guk, Euskal Literaturari beren-beregi bagagozkio behinik behin¹.

Gure euskal klasikoek, barbarako, ez dute merezi izan lege ikertzaileen arreta berezia, ez hizkuntzaren ezta Zuzenbide hutsaren aldartetik ere.

Gu gaude, eta diogun horren frogagiri hagitz zuzena jarraian emango da, ahaztu egin dugula aspaldian Lekuona zaharrak idatzi zuen hura, Euskal Literaturaren gailurra dugun *Gero* liburuaren argitalpena egiterakoan:

«Oparoa esan det. Eta benetan. Eta edozeñen eskutarakoa gañera. Guztiontzat «duana». Ez euskal-zaleentzat bakarrik. Euskera jatorreran ur bizia iturburuan bertan xurgatu nai duanarentzat bakarrik; baita zuretzat ere, Apez Jaun, zuretzat, Midiku Jaun, zuretzat, Jaun Abokat... Zerana zerala: guztiontzat. Guztiok arkituko degu Liburu onetan nun edan, nun goza, nun ase. Olakoxea da»².

¹ Horren salbuespenak honako hauek izago lirateke: BALENTZIAGA BENGOETXEA, J.M.: *Axularren teologia. Gerori zenbait oharpen*, Gero-Mensajero, Bilbao, 1990; ZELAIETA, A.: *Foruak eta euskal literatura*, Kriselu, Donostia, 1978.

² LEKUONA, M.: *Aintzin-solas* in Axular, P.: *Gero*, IV argitaraldia, Itxaropena, Zarautz, 1954, XX. orr.

Badirudi beraz, gizonarekin harreman zuzenak dituen oro dela edo izan daitekeela literaturaren edukia eta izan ere, horrelaxe da.

Ezinbestekoa gertatzen zaio orobat euskal juristari euskarazko literaturari so egitea. Hizkuntza, berbakizun eta hizkera eguneroko tresnak dituenak nekez ahantz ditzake mintzairaren nondik norakoak.

Are gutxiago orain arte erdaraz ari izan zaigun euskal juristak, hauxe baitabilkigu sarri askotan noraezik gorriean, euskaraz konzeptuak nola adierazi, hitzak non bildu eta esamoldeak zein modutan taxutu horren bila.

Ildo horretatik joan eta Alvarez Vigaray legelari espainiarrak bi modutan azaltzen ditu literaturaren eta Zuzenbidearen arteko zereginak, Cervantes zenaren obrak Zuzenbidearen ikuspegitik aztertzean: lehena, Zuzenbideak berak ekoizten dituen testuak literatur mailan aintzat hartzekoak diren horretan murgiltzen da; bigarrena, aldiz, askoz gehiago saiatzeko da legelariari literatur obrek ekar diezaioketen hori azaltzen³.

Bigarren ibilbide horretan kokatuta, bizpahiru helburu zehazten ditu irakasle espainiarrak literatur lanetan. Horien artean nagusi dugu literatur obren garaiko sistema juridikoak ezagutzea eta ondorenez ere, literatur emaitzen bidez eskura dezakegun Zuzenbidearen historian sakontzeko aukera ezin hobea.

Guk geuk ere bide horri jarraituko diogu. Hala ere, Etxepareren azterketari ekin baino lehenago, bi hitz esan behar idazle horrek Euskal Literaturaren barnean duen lekuari buruz, hain zuzen ere, lehen autore izate horretatik ondorioztatzen direnak.

Errenazimendu garaian gaude, Erdi Arotik orduantxe irtenda, Etxeparek idazten duen garaian. Hizkuntza nazionalak latinetik ari dira bereizten eta moldatzen. Langintza horretan, batez ere, egitura politiko-juridiko propioak ez dituzten herrietan, berebiziko garrantzia eta pisua du olerkarien eginkizunak⁴. Maiz aipatu izan da zeregin hori, baita

³ ALVAREZ VIGARAY, R.: *El Derecho Civil en las obras de Cervantes*, Comares, Granada, 1987. 35. orr.

⁴ GOYHENETCHE, J.: *Les Basques et leur histoire. Mythes et réalités*, Elkar, Donostia, 1993. 47. orr.: «Pour nous en tenir à J. Liçarrague et B. Dechepare, les questions de tradition et de modernité sont traitées en termes autres que les simples relations Paris (le progrès) et la province-périphérie (le retard). Il s'agit davantage de l'intégration de civilisations et de langues à traditions orales, comme celle des Basques, dans le monde de la modernité, de l'écrit et de l'imprimerie. Des difficultés analogues s'étaient posées, à la sortie du Moyen Age, aux autres langues dites vernaculaires. Elles eurent le support des cours, des académies, des universités, bénéficièrent des travaux des linguistes et des grammairiens. Entre les Pyrénées et l-Adour rien de tout cela, dans le domaine basque. Point de structure administrative englobant la sphère linguistique basque alors que le développement d'autres langues se fait dans le cadre des grandes monarchies de la Renaissance et leurs institutions, alliant l-histoire, la géographie, la linguistique».

adierazi bestelako kasuetan ere, hala nola, Italiako eta italieraren historian⁵.

Guk ere ezin baztertu pentsamolde hori, hau da, hizkuntza nazionalarena, Etxepareren ikerketan. Gogoratu, bestela, haren hitzak 1545. urtean argitaratu zen bere «*Linguae vasconum primitiae*»ren berbaurrekoan⁶:

«Zeren baskoak baitira abil, animos eta jentil, eta hetan izan baita, eta baita, zientzia guzietan letratu handirik, miraz nago, iauna, nola batere ezten asaiatu bere lengoaje propioaren faboretan heuskaraz zerbait obra egitera eta skributan imeitera, zeren ladin publika mundu guzietara berze lengoajiak bezala hain skribatzeko hon dela. Eta kausa honegatik gelditzen da abataturik, ezein reputazione bage, eta berze nazione orok uste dute ezin deus ere skriba daiteiela lengoaje hartan, nola berze orok baitute skribatzen berian».

Bigarren puntuari bagagozkio, berehala aipatu behar literatur historiagileek gure Etxeparerengan aurkitu dituzten Hitako Arziprestearikiko antzekotasunak. Poeta gaztelarraren liburuan ere justizia dugu mintzagai, «*Libro del Buen Amor*» klasikoaren orrialdeetan ebatzi baitzuen Bugiako epaile zen Tximino Jaunak Otsoa eta Azeriak izan zuten liskarra eta auzia⁷.

Haria pittin bat eten badugu ere, arrabetean dugu oraindik orain Álvarez Vigarayk erakutsitako lorratza eta bertan, haren pentsamoldeari jarraiki, honako hauek formula ditzakegu lehen euskal liburua idatzizuen behenafar hark egungo euskal legelariei ekar diezaikeen hori azaltzerakoan.

Usteak uste, hiru alor nagusi:

1. Lehendabizikoan, idazleak erakutsi egingo digu Jainkoaren Justizia orduko justiziaren gorabeherak direla bitarte, haren giltzapeko urteak ere barne. Egungo legelariak hortxe ditu, batez ere «*Judizio generala*» (JG aurrerantzean) eta «*Mossen Bernat Etxeparere cantuya*»ren (MBDC aurrerantzean) orrialdeotan, proze-

⁵ NADAL, J.M.: *Llengua escrita i llengua nacional*, Quaderns Crema, Bartzelona, 1992. 106. orr.

⁶ ETXEPARE, B.: *Linguae Vasconum Primitiae*, Mensajero, Bilbao, 1980. P. ALTUNAK paraturiko edizio kritikoa. Etxepareren hitzak, bertsoen aipamenak eta euren bertsio eguneratua Aita Altunak egindako ediziotik egiten dira.

⁷ FINA SANGLAS, A.: *Justicia y Literatura*, Bosch, Barcelona, 1993. 89. orr. eta jarr.

ARCIPRESTE DE HITA: *Libro del Buen Amor*, Castalia, Madril, 1988. Zehatzago esateko, pasartearen titulua hauxe da: «*Aquí fabla del pleito quel lobo e la rraposa ovieron ante don Ximio, alcalde de Bugia*»

- suaren aldeak eta aldiak, azken ebazpenera arte. Etxepareren bestelako bertsoetan ere, ez dira lege kontuak falta, eta egoki deritzagunean, aurrekoekin batera aipatuko ditugu.
2. Hurrenean, literatura guztietan ageriko ditugun justiziarekiko zalantzak eta dudamudak azalaraziko dizkio Etxepare giltzape-tuak justiziari. Mesfidantza izango da oinarria sailtxo horretan, beste euskal autore klasikoetan ere igarri daitekeena. Axularren *Gero* eta Oihenarten *Atsotitzak eta Neurtitzak* izango ditugu horretan Etxepareren zalantzakide.
 3. Azkenez, xvi. mendeko hainbat berba juridiko gogoraziko ditu-gu, garai hartan idazleak bizi zuen sistema juridiko baten oihar-tzun zuzenak direnak. Horretan ere, egungo euskal juristak, lexi-koarekin bizi duen borroka latz eta eskergan, Etxepareren irizpidea ezagutuko du eta menturaz, hizperrigintzaren eta mai-legutzaren arteko balantza batera edo bestera pittin bat lerra-zeko argumentuak ere aurkituko.

Horietan guztietan izan dakioke Etxepare mesede eta lagungarri-gure arteko gelariari. Eta zer esanik ez, munduan dabilen orori.

2. JUSTIZIAREN URRATSAK «JUDIZIO GENERALA» OLERKIAN: PROZESUAREN DINAMIKA

Villasantek aipatzen duenez⁸, Etxepare kultura eta jakituria handiko gizona dugu. Egia esan, etengabe erakusten ditu horrelakoak bere liburu-an zehar justiziaren eta orohar, Zuzenbidearen inguruko gaiak erabil-tzerakoan.

Etxeparek zehatz-mehatz ezagutzen ditu justiziaren bide bihurri eta estuak. Prozesuaren mundua ez zaio arrotz eta aparteko. Bere buruan bizi zuen prozesua ere, zalantzarik gabe, ezagutza horretarako baliabi-de izango zitzaion.

Mundu honetako Justizia erabiltzen du Etxeparek beste munduko, hots, Jainkoaren justizia azaltzeko.

Alabaina, aurrean duen eredu eta adibidea, garai hartako egune-roko justizia, ez da nolana hikoia, gatazkabide eta gorabeheratsu ger-tatzen baitzaio behenafarrari justiziarekikoa, jarraian azalduko de-nez.

⁸ VILLASANTE CORTABITARTE, L.: *Historia de la Literatura Vasca*, Aranzazu, Burgos, 1979. 53. orr.: «*En las religiosas, a juzgar por la exactitud de los términos y conceptos dogmáticos, Dechepare se revela, a la par que sincero creyente, hombre culto y de letras*».

Izan ere, arestian aipatu Alvarez Vigarayk argi erakusten duenez, literatur obrak berebiziko tresnak izan daitezke garaiko Zuzenbidea ezagutzeko. Horretan fede handirik ez dio ematen espainiar legelariak olerkiari⁹. Bai, ordea, elaberri eta antzerkiari. Iritzi berekoak izanda ere, ezin uka aitzaki ederra ematen digula Etxeparek orduko sistema juridikoaz zerbait esateko.

Goi eta Behenafarroaren arteko bereizketa aldiak ditugu Etxeparerenak. Goyhenetchek¹⁰ adierazita, jakin badakigu bereizketa horrek moztu egin zuela 1511. urtean hasitako foru aldaketarako bidea. Bereizketa horren bidez ere, Etxeparek ezagutu zuen Behenafarroa, juridikoki bederen, nahaspilaren ispilu ederra zen.

Albretarren eta Gaztelako koroaren artean banatuta, lehendik indarrean zegoen Nafarroa osorako Foru Orokorra eta gainerako legeria, bitan zatitzerakoan, biotan gertatu zen aplikagarri¹¹.

Hala ere, behenafarre, behin eta berriro eskatu zioten erregeari legeriaren aplikazioa zehaztea, batez ere zein legeren menpeko bizi ziren jakiteko, eta aldi berean ere, euren betiko foruak eta askatasunak gogorarazteko monarkari¹². 1575. urtean hasi ziren Behenafarreko Foru Berria idazteko proiektuak, gerogarrenean, xvii. mendean hain zuzen ere, umotuko zirenak. Horrela lortu zen errenazimenduaren ideia politikoa aurrera eramatea, subiranoaren botere politiko eta bakarraren pean jarriz Erdi Arotik zetorren erregearen eta gizarte indarren arteko foru ituna.

Horixe da Etxeparek bizi zuen giroa, 1545. urtean bere liburua argitaratu zenean. Albretako Henri II.ak Donapaleun Kantzileritza kokatu eta Behenafarroaren gainean bere agintea finkatu zuen 1530. urtetik hamabost urtera, hain zuzen ere.

Dudamudazko izate horrek, alabaina, ez zuen eragotzi, lehen esan legez, Etxeparek erakusten duen justiziaren ezagutza eta ezaupidea.

Hona hemen, labor bilduta eta haren bertsoetan gorpuztuta, prozesuaren aldiak eta aldeak, bere «*Judizio generala*»¹³ olerkitik hartuak¹⁴:

⁹ ALVAREZ VIGARAY, R.: ibidem, 39. orr.

¹⁰ GOYHENETCHE, J.: *For et Coutumes de Basse Navarre*, Elkar, Donostia, 1985, bereziki liburuaren sarrera. Ildo beretik ere, ORELLA UNZUE, J.L.: *Las instituciones del Reino de Navarra en la Edad Antigua y Media*, Librería Carmelo, Donostia, 1991.

¹¹ URZAINQUI MINA, T.: «Repercusión de la conquista de Navarra en el campo del derecho y sistema jurídico propios» in EUSKO IKASKUNTZA *Cuadernos de Sección, Historia-Geografía*, 11, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989, 38. orr. eta jarr.

¹² GOYHENETCHE, J.: ibidem, sarrerako 28. eta 29. orr.

¹³ Olerki honetan ikusten du Jon Juaristi idazleak Etxepareren erdiarotasuna. JUARISTI, J.: *Literatura vasca*, Taurus, Madrid, 1987. 37. orr.: «Así, por ejemplo, su descripción del Juicio Final contiene los mismos tópicos escatológicos que podemos encontrar en los terroríficos sermones bajomedievales, en las Danzas de la Muerte, o —incluso— en las coplas de Manrique».

¹⁴ ETXEPARE, B.: *Linguae Vasconum Primitiae*, ibidem.

a) Prozesuaren hasiera:

231 (JG)

*Arma arma mundu oro iudicio handira
Ceru eta lur oren creadore handia
Munduyaren iuyacera rigorosqui heldu da
Nola gauden apphaynduric batbederac beguira.*

Arma! arma! mundu oro iudizio handira!
Zeru eta lur oren kreadore handia
munduiaren iuiatzera rigoroski heldu da;
nola gauden aphaindurik batbederak begira.

b) Alderdien uziak eta argudioak:

151

*Orduyan cer eguinen dut gaixo beqhataria
Arartecoac faltaturen contra iuge handia
Abocacen eztaquique ehorc haren gortian
Oguen oro publicoqui aguerturen orduyan.*

Orduian zer eginen dut, gaixo bekhataria?
Arartekoak faltaturen, kontra iuie handia;
abokatzen eztakike ehork haren gortian,
ogen oro publikoki agerturen orduian.

(Oracione igandeco)

264 JG

*Anhiz gauça vehar dira iudicio handian
lugeac duyen potestate parte oren gaynian
Demandantac erran deçan vere causa eguiaz
Bayetare defendentac bere defensionia
Porogatu datenian norc duqueyen çucena
Sentenciaz eman deçan iugiac nori veria.*

Anhitz gauza behar dira iudizio handian:
iujek duien potestate parte oren gainian,
demandantak erran dezan bere kausa egiaz,
baietare defendentak bere defensionia;
porogatu datenian nork dukeien zuzena,
sententziaz eman dezan iujak nori beria.

c) Sententzia gogorra:

256 JG

*Haren bier emanen du sententia piçuya
Elgarrequi pena diten ifernuco garrian
Seculaco suyan eta eceyn pausu gabian
Oroc othoy onsa pensa cer den yrabacia.*

Harren bier emanen du sententzia pizuia
elgarreki pena diten ifernuko garrian,
sekulako suian eta ezein pausu gabian.
Orok, othoi, onsa pensa zer den irabazia.

d) Sententzia errebokaezina:

147

*Ordu hartan afer date hari apellacia
Harc ehorri eztemayo oren vaten epphia
Ecetare estimacen chipia ez handia
Batvederac egarrico orduyan vere haxia.*

Ordu hartan afer date hari apelatzia,
hark ehorri eztemaio oren baten ephia,
ezetare estimatzen xipia ez handia;
batbederak egarriko orduian bere haxia.

(Oracione igandeco)

302 JG

*Afer date egun hartan hari apellacia
Ehonere eztaçagu iaunic vere gainian
Malicia gayci çayca eta mayte eguia
Elas othoy oroc equin oray penitencia
Egun hartan guero eztugun eguiteco handia.*

Afer date egun hartan hari apelatzia,
ehon ere eztazagu iaunik bere gainian;
malizia gaitzi zaika eta maite egia.
Elas, othoi, orok egin orai penitencia,
egun hartan gero eztugun egiteko handia.

e) Sententziaren ejekuzioa:

360 JG

*Ezta anhiz luçaturen execucionia
Bertan date yrequiren lurra oren verian
Su harequi irexiren oro vere varnian
Haur yçanen veccatoren vndar yrabacia.*

Ezta anhitz luzaturen exekuzionia,
bertan date irekiren lurra oren berian,
su hareki iretsiren oro bere barnian;
haur izanen bekhatoren undar irabazia.

- f) Ondasunen zatiketa: Prozesuarekin zerikusi zuzena ez badu ere, bai ordea, hona ekartzeko modukoa, gizonaren bizialdi osterako Etxeparek egiten digun jaraunspenaren banaketa:

92

*Personoro hil denian hirur çathi egiten
Gorputzori vstelçera lur hoçian egoyzten
Vnharçuna ahaidiec vertan dute particen
Arima gaixoa dabilela norat ahal daguien
Hayn viage vortician compaynia faltacen*

Person'oro hil denian hirur zathi egiten:
gorputzori usteltzera lur hotzian egoitzen,
unharzuna ahaidiek bertan dute partitzen,
arima gaixoa dabilela norat ahal dagien;
hain biaje bortitzian compainia faltatzen
(Oracione igandeco)

Edonondik begira dakiola ere, Jainkoaren irudia epailearen bidez ematen da. Epailletza eta prozesubidea erabili da horretarako eta horren ariora adierazten da Jainkoaren ahal eta agindua¹⁵.

¹⁵ Bide beretik ere aipa daitezke oraindik argitaragabe dauden baina gerra aurrean Jose Maria Arizmendi-Arrietak idatzitako lerroak, Etxepareren poesiaren herrikotasuna agertarazteko; ARIZMENDI-ARRIETA, J.M.: «Bernard de Echepare. Lenengo Euskal-Idaslea», *Obras completas, Tomo VII*, Mondragón, sine data. Hona hemen lerro horiek: «Xenpelar-en «Juizio generala» ta Etxepare-rena alkarren ondoan jarri ba-daikezuz, alkarrekin antz aundia daben gauzak dakuzkezuz, batezpe olerki tankera ta egin-eran». Gogora ditzagun Xenpelarren bertsoak: «Munduko gauzen erremantia / dakar azken juiziyuak: / auts biurtuta utziko ditu / erri ta palaziyuak, / mendiyak lertu alkarren kontra, / erreino eta naziyuak... / sententzi ori botako digu / Jesusen bendiziyuak»; ZAVALA, A.: *Xenpelar bertsolaria*. Auspoa, Tolosa, 1981, 393. orr. Ildo beretik ere Patxi Altuna; ALTUNA F.M.: *Versificación de Dechepare. Métrica y pronunciación*. Mensajero, Bilbao, 1979. 337. orr.: «Resulta absolutamente claro que Dechepare es por eminencia un poeta popular en el más estricto sentido de la palabra».

3. JUSTIZIAREN GORA-BEHERAK ETXEPAREGAN

3.1. Etxeparek bere barnean bizi zuen justiziaren indarra eta agindua

Ezaguna denez, Etxepare epaitua eta punitua izan zen Behenafarroko Erregearen eskutik. Ilun samarrak dira Etxepareri Paben egin zitzaion prozesu eta gartzelaldiaren xehetasunak. Autore batzuk, bereziki Huarte¹⁶ eta Reicher¹⁷, saiatu izan dira prozesu horren kariak eta arrazoiak idoro nahian. Ahalegin horiei esker, osotoro argiturik ez badago ere auzia, badirudi Etxepareren epaiketa eta haren atxilo egotea bi Nafarroen arteko berizketa boladan gertatu zela.

Etxepare, nonbait, Espainiako Erregearen aldeko zen, Pabeko Errege Nafarrak, hortaz, ezin ikusi begi onekin espainiarzalearen egitekoa. Etxepareren hitzetan, «*falsu testimonio*» jarri zuten bere kontra eta politika dela bitarte, baita kartzelan sartu ere gure idazlea. Agi denez, hortxe dago Etxepare giltzaperatzeko gakoa.

Hizkuntzari eta hizkerari dagokionez, Reicher-ek¹⁸ alderaturiko galdera plazaratu dezakegu guk ere: nola galdezkatu zuten Etxepare Paben, frantzesez ala biarneseraz?, kontutan hartuta Mosen Etxeparek euskara eta gaztelania bakarrik zituela bere eskura, autore horren arabera.

Badaki Etxeparek, ongi jakin ere, bi justizia bereizten¹⁹:

a) Jainkoaren justizia oroaginteduna:

278 JG

*luge iauna iraturic egonen da gaynetic
Yrestera apphaynduric yfernuya azpitic
Exay gayça acusacen ezquerreco aldetic
Beccatuyac escuynetic minçaturen publiqui
Hire contra heben guituc ihaurorrec eguinic
Gayzquienic contra date conciencia varnetic*

¹⁶ HUARTE, J. M. de: «Dechepare y su tiempo», *Euskalerriaren alde* XVI (1926) 241-248.

¹⁷ REICHER, G.: «Bernar Dechepare», *Gure Herria* XXIX (1957) 33-49.

¹⁸ REICHER, G.: ibidem, 47. orr.

¹⁹ Hala eta guztiz ere, bi justizia horien nahasmendua bizirik dirau Etxepareren garaian. Horren lekuko hurrengo bi aipamenak. MULLET, M.: *La cultura popular en la Baja Edad Media*. Crítica, Barcelona, 1990. 66. orr.: «*Las rebeliones de la Baja Edad Media y de la Edad Moderna muestran una creencia creciente en que Dios y sus santos, sobre todo la Virgen, estaban deseosos de ver la sociedad regulada por los principios de la justicia cristiana, resumidos en la expresión de la guerra de los campesinos alemanes «el derecho de Dios». Esta frase demostraba la confianza en la existencia de vías*

luie iauna iraturik egonen da gainetik,
 irestera aphaindurik ifernua azpitik,
 etsai gaitza akusatzen ezkerreko aldetik,
 bekhatuia eskuinetik minzaturen publiko:
 «hire kontra heben gituk, ihaurorrek eginik».
 Gaizkienik kontra date konzienza barnetik.

b) Horren aurrean munduko botereak ezerezak dira:

290 JG

*Non dirate egun hartan hebengo iaun erreguiac,
 Duque conde marques çaldun eta verce iaun nobliac
 Eta hayen armadaco guiçon sendoen valentiac
 ordu hartan valiaco guti hayen potenciac.*

Non dirate egun hartan hebengo iaun erregiak,
 duke, konde, markes, zaldun eta berze iaun nobliak
 eta haien armadako gizon sendoen balentiak?
 Ordu hartan baliako guti haien potenziak.

294 JG

*lurista eta theologo poeta eta doctoriac
 Procurador aduocatu iuge eta notariac
 Ordu hartan aguerico clarqui hayen maliciac
 Eta guti valiaco cautela eta parleriac.*

lurista eta theologo, poeta eta doktoriak,
 prokurador, adbokatu, iuje eta notariak?
 Ordu hartan ageriko klarki haien maliziak
 eta guti baliako kautela eta parleriak.

de comunicación entre lo social y lo divino. La misa era el compendio de un cristianismo fundamentalmente de este mundo, no sólo dirigido a la redención personal (ésta era de importancia vital) sino también al bien común, en definitiva, un cristianismo de redención social». ARIÈS, P. eta DUBY, G.: Historia de la vida privada. Tomo II, De la Europa feudal al Renacimiento, Círculo de Lectores, 1993. 39. orr.: «Sabem que es el Dios juez, el Cristo del día postrero, pronunciará sus sentencias rodeado de un consejo privado, formado por sus familiares; y se dirigirá a ellos como lo hacen los señores en las cortes feudales, dando sucesivamente la palabra a sus barones, a fin de que cada uno de ellos defienda la causa de sus propios fieles, de quienes le han prestado fidelidad. Este papel de asesor lo ejercen los santos, cuyo poder terreno procede del privilegio que tienen de hallarse sentados desde ahora en el cielo junto al Señor y poder dar su parecer».

298 JG

*Ayta sayndu cardenale apphez eta prelatuyac
Berez eta ardi oroz eman vehar han conduya
Egun hartan handiena yçanen da erratuya
Eta vardin iuyaturen handia eta chipia.*

Aita saindu, kardenale, aphez eta prelatuiak?
Berez eta ardi oroz eman behar han konduia;
egun hartan handiena izanen da erratuia
eta bardin iuiaturen handia eta xipia.

c) Gizonaren justizia, alabaina, gutxietsi egiten du olerkariak:

11 MBDC

*Valinetan ioan ezpaninz oguenduru ninçaten
Ene contra falseria bethi cinhexi çaten
Iustician ençun vaninz sarri ialgui ninçaten
Haren faltaz hassi nuçu iauguitiaz dolucen.*

Balinetan ioan ezpaninz, ogenduru ninzaten,
ene kontra falseria bethi zinhetsi zaten;
iustizian enzun baninz, sarri ialgi ninzaten;
haren faltaz hasi nuzu iaugitiaz dolutzen.

19 MBDC

*Ni gayxoa exayari nihaur giniz escura
Ene vnsa eguinac ere oray oro gayz dira
Haren menian ezpanengo nic nuqueyen çucena
Miraculu vanagui ere oray ene oguena.*

Ni, gaixoa, etsaiari nihaur jin niz eskura;
ene unsa eginak ere orai oro gaitz dira;
haren menian ezpanengo, nik nukeien zuzena;
mirakulu banagi ere, orai ene ogena.

29 MBDC

*langoycua çu cirade eguiazco iugia
çure gortean vardin dira handi eta chipia
Norcvayt ere eguyn deraut malicia handia
Hayer hura othoy barçha niri valia eguia.*

langoikua, zu zirade egiazko iujia;
zure gortean bardin dira handi eta xipia;
norkbait ere egin deraut malizia handia;
haier hura, othoi, barkha; niri balia egia.

- d) Gizonak ezarritako zigorrak ez dira Jainkoarenak bezain gogorrak:

64 MBDC

*Mossen bernat pensa ezac carcel hori gayz bada
Nonbait ere yfernuya are gayçago dela
Heben hic vaduquec vana hayec ez norc consola
Penac heben fin dic sarri hayenac ez secular.*

Mosen Bernat, pensa ezak karzel hori gaitz bada,
nonbait ere ifernuaia are gaitzago dela;
heben hik badukek bana, haiek ez nork konsola;
penak heben fin dik sarri, haienak ez sekulan.

- e) Poetak, hala ere, ez ditu bere erruak baztertzen, aitortzen baino:

84 MBDC

*Eztaçala gayzeriztez damna heure buruya
desiratuz gayxtoari hel daquion gayzquia
leyncuari eguiten duc iniuria handia
Hura borrar eguiten duc iuge eure buruya.*

Eztazala gaitzeriztez damna heure buruia,
desiratuz gaixtoari hel dakion gaizkia;
leinkuari egiten duk iniuria handia:
hura borrar egiten duk, iuje eure buruia.

88 MBDC

*Certan iuya hic vaytaçac eure yzterbeguia
Hartan condemnacen duquec yhaurc eure buruya
Eta hartan eztaquidic escusaric valia
Eracustac ehonere nor den oguen gabia.*

Zertan iuia hik baitazak eure izterbegia,
hartan kondemnatzen dukek ihaurc eure buruia
eta hartan eztakidik eskusarik balia.
Erakustak ehon ere nor den ogengabia.

3.2. Etxeparek justiziarekiko zuen mesfidantza

Bada Etxeparerengan bestaldetik ere, literatura guztietan nabarmen izan ohi zaigun ideia, alegia, justiziarekiko mesfidantzarena. Gauza berbera aurki dezakegu, adibidez, euskal literaturaren hasierako beste bi euskal autore klasikoengan, Axular eta Oihenartengan, hain zuzen ere.

Nola utzi, pentsamolde horretatik abiatuz geroz, jarraikook parekatu gabe?²⁰:

ETXEPARE:

294 JG

*lurista eta theologo poeta eta doctoriac
Procurador aduocatu iuge eta notariac
Ordu hartan aguerico clarqui hayen maliciac
Eta guti valiaco cautela eta parleriac.*

lurista eta theologo, poeta eta doktoriak,
prokurador, adbokatu, iuje eta notariak?
Ordu hartan ageriko klarki haien maliziak
eta guti baliako kautela eta parleriak.

AXULAR:

*Munduko gortheak, audientziak, eta iustiziak
nahasten dira, lekhukoek ukhatzen dute, notaria
irabazten da, alkatea diruz itsutzen da, lausenguz
eta faborez gobernatzen da: eta handik anhitze-
tan ere, barrenean zarela usteduzunean, kanpoan
edireiten zara, irabazi ustea galtzen duzu. Baiña
konzientziaren gorthean eta audientzian eztaha-
lako bidegaberik egiten. Aitzitik bertze guztiek
faltatuagatik, kulpantak berak, konzientziak be-
rak akhusatzen du bere burua, eta bai kondena-
tzen ere. (Ax 285).*

OIHENART:

*Auzilaria nekeziaren ezkutaria. (PRO 58)
Auzilaria sarista ezak onsa barataria,
ezpere eure zuzena eztakidik balia. (PRO 59)
Atxeter zekeneti, Abokatu goseti, eta partida bien
konseilu deneti, begira adi nola asaieti. (PRO 488)*

²⁰ Aipamenak edizio hauetatik egiten dira: Etxeparerenak P. Altunak paratu eta lehen aipatu ediziotik. AXULAR, P.: *Gero*, Aita Villasanteren argitalpena, Jakin, Arantzazu, Oñati, 1976. OIHENART, A.: *Proverbes et Poesies Basques*, J.-B. ORPUSTANEK paraturiko edizioa, Izpegi, Baigorri, 1992.

4. *LINGUAE VASCONUM PRIMITIAE*-REN HIZTEGI JURIDIKOA

Zalantzarik gabe, hitz-andana ederra erakusten digu Etxeparek Zuzenbidearen alorrean.

Hona hemen, alfabetikoki zerrendatuak, haietariko nagusienak, gaur mahaikide dugun Aita Altunak²¹ artoski bildu zuen Etxepareren hiztegitik hartuak:

«Abokatu, adbokata, adbokatu, apelatu, ararteko, auzi, aurride, damnatu, defensione, dignitate, dilijentzia, disputa, drezatu, errege, exekuzione, gorte, herri, iaun, iniuria, iudizio, iuiatu, iuie, iuratu, iurista, iustizia, iustoki, iustu, kartzel, kausa, konde, kondenatu, konfessione, korrejitu, lege, manamendu, manatu, markes, mosen, nazione, noble, notari, obeditu, obligatu, ohi, persona, phorogatu, phorogu, prelatu, printze, prokurador, publikatu, publiko, publikoki, punitu, punizione, reglatu, sententzia, testimonio, thornu, unhasun, zuzen, zuzenbide».

Zer nolako hitzak, hala ere, horrelakoak? Cornu eta beste autore batzuek²² klasiko bihurtu dizkigute berba juridikoen sailkapenak, hizkera arruntetik mintzamolde juridikora doan bide-zidorrean.

Horretara bereizten dituzte hizkera juridikoaren hitz soilak eta kontrajarri bi aldarteotan ere, alegia, hizkera juridiko nahiz arruntean tarteko ditugun hitzekin.

Azkeneko horiexen artean idoroko ditugu Etxeparek erabilitako lexi-ko juridikoaren aleak.

Hitzek, hala ere, lehen azaldu legez, kontzeptuak adierazi behar. Hitzak, era berean, modu askotakoak izan daitezke. Euskal Literaturaren hasieran ere hitzak moldatzeko aiurriak arras bestelakoak autoreen artean. Har ditzagun, esandakoaren adibide gisa, hiruzpalau adiera nagusi eta ekin diezaiogun erkaketari.

Konparagai izango ditugu gure laginean hiru autore klasiko: Etxepare (1545. urteko *Linguae Vasconum Primitiae*), Axular (1643. urteko *Gero*) eta Oihenart (1657. urteko *Atsotitzak eta Neurtitzak*)²³:

²¹ ALTUNA BENGOCHEA, F.M.: *Etxepareren Hiztegia*, Mensajero, Bilbao, 1979.

²² CORNU, G.: *Linguistique juridique*, Ed. Montchrestien, Paris, 1990.

ALCARAZ VARÓ, E.: *El inglés jurídico*, Ariel Derecho, Bartzelona, 1994.

²³ Etxeparerenak Aita Altunak paraturiko hiztegitik hartuak dira, —ikus 16. oharra—; Axularrenak, berriz, hemen aurkitzen dira: VILLASANTE, L.: *Axular-en Hiztegia*, Jakin, Arantzazu, Oinati, 1973. Oihenartenak egiteko, eskura izan dugu aurtemein argitaraturiko hau: ORPUSTAN, J.B.: *Oihenarten Hiztegia*, Ed. Izpegi, Baigorri, 1993.

ETXEPARE	AXULAR	OIHENART
Apelatu	Apelatu	—
Ararteko	Ararteko	Ararteko
Gorte	Gorte	—
Iudizio	Iudizio	—
luge	—	luge
lurista	—	—
lustizia	lustizia	—
lusto	lustu	Justo
Kartzela	—	—
Konfesione	—	Aitor
Nazione	—	—
Notari	Notari	Baratari
Prokurador	—	—
Reglatu	—	—
Sententzia	Sententzia	—
Obligatu	Obligatu	Zordun
Zuzen	Zuzen	—
Zuzenbide	—	Zuzenbide
Persona	Presuna	—

Ondorengoak erraz hautemango dituzue. Oihenart izango litzateke hiruretatik garbizaleena, Mitxelenak ederki erakutsi zuenez²⁴. Etxepare eta Axular, ostera, lexiko kontuetan hizkideak ezezik, gogokideak ere badirela esan genezake.

Hitz batez esateko, euskararen malgutasuna behar dute klasiko horiek lan egiteko. Horren bila doaz eta bidean maileguak erruz hartzen badituzte ere, egitekoa argi dago, hizkuntzaren dohain eta duintasuna edozein arlo eta zereginetan, gogoa eta ideiak kanporatzeko.

Horretan ere, hutsik ez Zuzenbidearen alorrean. Azpimarratu, zertzelada eta adibide gisa, aipatu autoreengan nabaritzen den *epaitu* aditzaren eratorrien eza, «Gorte» baita euren erreferentzia, egun Epaitegi eta Auzitegi dugun hori adierazteko. Bego hor orduko legeriaren leku-kotza, gorteak aldi berean errege ganbara eta justizi organu emaile ziren garai haietakoa.


²⁴ MITXELENA, L.: «Arnaut Oihenart» in *Euskal Idazlan guztiak V-Literaturaren inguruan II*, Euskal Editoreen Elkarte, Zarautz, 1988. Orobat, autore beraren «Sarrera-gisa» in DECHEPARE, B.: *Olerkiak*, Txertoa, Donostia, 1978.

5. AMAIERA

Buka ditzagun, beraz, gure Etxepareren gaineko zirriborro antzeko hauek eta bukaera hori eduz eta taxuz egin ahal izateko, olerkari behenafar hark merezi duen moduan, aldera ditzagun hona, beste behin ere, haren bertsoak. Itzul gaitezen Zuzenbidearen mundura. Hortxe dugu andra-gizonen, seme-alaben eta senidetasunaren ingurukoa, ondore juridiko askoren sortzaile gisa. Hemen, berriz, Etxepareren jasa eta moldea, hura idazteko ordu eta tenorean:

13

Ene gogoa balyaqui mayte vide nynduque
Ni erregue valin baninz erreguina liçate
Hura hala nahi valiz elgarrequi guinate
Haren haurrac eta eniac aurride osso lirате.
Ene gogoa baliaki, maite bide ninduke;
ni errege balin baninz, erregina lizate;
hura hala nahi baliz, elgarreki ginate;
haren haurrak eta eniak aurride oso lirате.
(«Amoros secretuqui dena»)



Luteroren Biblia-itzulpena eta aleman hizkuntzaren batasuna

Xabier Goitia

Otsaillaren 19an, 1546an, bere jaioterri zan Eisleben-en hil zan Lutero. Orain 450 urte. Bere lagun zan Justus Jonasek hilteko egoenari, aldi haretako ohitura zan legez, itandu eutsan bizitzan egindakoak barriri ere ontzat hartzen ete ebazan. Martin Luterok baietz. Berak bizitzan egindako guztia Ebanjelioa bere garbitasunean zabaltzeko egina zala eta, uste osoz aurreratu eitekeala Jaunaren auzi handira.

Lutero, bada, hil zan. Baina bizitza honetan zeozer egin izan dabenekin jazo ohi dan legez, heriotzaren ostean ere bizi da bera. Bizi, bere jarraitzaileentzat. Eurentzat Eliza barriztatu nahi izan eban pertsonaia handia izan zan. Bizi, berak hain bizirik idatzirikoak gaur ere irakurri egiten dabezanentzat. Guztiok aurkitu geinke idatzi horreetan benetan eta barrutik Jainkoaren bila ibili izan zan baten historia. Eta bizi, baita, eta batez ere, bere herriko hizkuntzari beste inork itzi deutan baino dohai handiagoa itzi eutsalako: Biblia Santua. Honi buruz berba batzuk esan nahi geunkez.

Herriaren Biblia

Luterok itzulitako Biblia aitutzen dogunean, oso zabalduta dago zeozer entzun baina besterik ez dakienen artean, berak egin ebala Biblia horren lehenengo herri-itzulpena.

Berez, gauzak horrela esanez gero, ez da egia Luterok lehenengo itzulpena —bere herriaren hizkuntzan— egin ebanik. Luteroren aurretik, gizaldi batzuk aurretik baegozan alemanerazko itzulpenak¹. Ez da

¹ Luterok bere Bibliaren itzulpena, Wittenberg-en, 1534ean, atara orduko, Biblia osoaren 14 itzulpen Goi-alemanez eta 3 Behe-alemanez argitaratuta egozan (Ikusi Grabert W. - Mulot A., *Geschichte der deutschen Literatur*, München 1969¹³, 90).

hori harritzekoa. Sortaldetik gaurko euren lurretara etorri zirenean ez euken herri barri horreek besterik euren herri kulturea baino. Herri barriekin hartu-emonetan hasiz gero, beharrezko eben euren hizkuntza ere barrizatzea. Eta horretan kristau fedea lagundu eutseen. Karlo Nagusiak berak —Lutero mundu honetara etorri baino zazpi mende aurrerago— bere erreinuko abadeei aginduten eutseen herriari ez latinez, aldi hartan ohitura zan legez, «diutisce» dalakoan (hau da, herriaren hizkuntzan) berba egitea baino.

Karlo Nagusiak hasiriko hori beste askok eroan eben aurrera. Eta herriaren onerako Biblia Deunaren atalak edo Biblia osoa ere itzuli ebanak ziran horreen artean.

Ez da, bada, Lutero egindakoa Bibliaren lehenengo itzulpena.

Baina hori egia dan arren, honetan da, era berean, egia aitaturiko horreen susmoa: Luteroen Bibliak gauza guztiz barri bat erakusten deusku Biblia-itzulpenen ganean. Barri bat da arrazoi askogaitik. Aita dagiguzan euretariko batzuk.

Sartaldeko Eleizan egindako itzulpenak latinez egindako itzulpen batetik, hain zuzen, «Vulgata» deretxan itzulpenetik, eginak dira. Oso gutxi dira itzulpen horreek egiteko ez latinezko hori, besteren bat, hasierako testuak, erabili izan dabezanak. Nahiz eta oraindino erdi aginduta egon ez «Vulgata»ren itzulpena erabiltea, hasierako hizkuntzak gehientzat ezezagunak zirelako edo, «Vulgata» hori erabilten eben ia beti².

Lutero ez. Wartburg-eko jauregian sasi-atxilotuta egoala, Bibliaren itzulpena egiten hasi zanean, ez latinezko «Vulgata», griegozko hasierako testua baino ez eban erabili, Testamentu Barria itzultzeko³. Eta geroago —inoren laguntzaz, jakina— Testamentu Zaharra itzultzeari ekin eutsanean, barriro ere ez «Vulgata», testu jatorrak baino —hebreoz idatzita egozanak— hartu ebazan itzulpen horren sustraitzat⁴.

Bere aurretik ere, esan dogun legez, baegozan Bibliaren alemanerazko itzulpenak. Baina edo latinezko testuari lotuegi egozalako, edo itzultzaileak ezer hoberik egiteko gauza ez ziralako, ez da itzulpen ho-

² Trentoko Batzar Nagusiak Vulgata izeneko itzulpen hau derrigorrez erabilteko agintzen eban (Dz. 785). Aldi haretako gora-beheren ondoren bat legez ulertu daiteken hau gaur egunez ez da gehiago legezko, baina urte batzuk direla oraindino indarrezko agintza zan katolikoentzat.

³ Bere lehenengo itzulpena Wittenberg-en, 1534an, agertzen da. Itzulpen hori egiteko Erasmo, Rotterdam-ekoak, argitaraturiko griegozko Testamentu Barria hartu eban laguntzat.

⁴ Bigarren hau zalantza barik griegozkoa baino errazagoa zen egiteko. Judarren artean Testamentu Zaharrak ez eukan erabili behar zan, edo erabili ohi zen «Vulgatarik». Luteroen kutuna zan Melanchthon-ek kristau egindako judar baten laguntza izan eban hori egiteko.

rreen hizkuntza irakurleari poza ematekoa. Gehienetan irakurle zuhurri laster agertzen jaku ez dagoala itzulpen horreetan originaltasunik, ez eta hizkuntza aberasteko behar dan indar eta bizirik.

Lutero, ostera, honetan izan da benetan mutila. Urteak, gizaldiak, dira artean igaro diranak; baina gaur egun ere itzulpen horreen edertasuna miraz begiratzekoa agertzen jaku. «Klasiko» bat dala esango dabe gaurko bere herritarrek.

Ez da ahaztu behar orraitio, Luteroren eritziz, Liburu Santuak itzulzea preminako (emerjentzia) soluzio bat dala. Nahiago luke berak guztiok Biblia idatzita egoan hizkuntzak ezagutuko bagenduz. 1524ko urtean berak aldizka idatzirik kartatxo batean gai hori darabil. Alemaniako Herrietako herri-kontseilariei idatziriko karta batean, bulztatu nahi ditu euren herrietan eskolak eraikitza. Karta horren gaia hau da. Jainkoaren berbea herri batean —edo egiaz bitan— etorri da guretara. Jaungoikoak, dino berak, horrela aintzat hartu baditu hizkuntza bi horreek, Testamentu Zaharreko hebreoa eta Testamentu Barriko griegoa, ondo joaku guri ere hizkuntza bi horreek maitatzea, eta ahal izanez gero, gureen artean zabaltzea⁵.

Luteroren itzulpena

Luterok Bibliaren itzulpena egin ebala guztiok dakigu. Itzulpen hori gaur ere bere herritarrentzat klasikoa dala ere badakigu. Baina interesgarri jakuna ez da hori aitatztea, zelan heldu zan klasikotasun horretara jakitea baino. Eta hori da orain azaldu nahi doguna. Berak erabili eban bideak ezagutuaz, eta ahal izanez gero ibiliz, guk ere geure herrian daukaguzan edo izan ditugun gora-beherei buruz ere argi apurren bat isuri geinkeala uste dot. Zergatik?

Luteroren hermeneutika

Luterok ez dau egin, beste askok egin ohi izan daben legez, itzulpen on bat eta besterik ez. Bere itzulpen hori egiten inarduala, itzulpen on bat egiteko zelako bideak eukazan eskura pentsatu egin eban. Edo beste era batera esanda, itzulpen on baten hermeneutika bat egin dau. Hori da batez ere gu guztioi mesedegarri izan dakikeguna. Has gaitezana, bada.

⁵ Luther M., An die Ratsherren aller Städte deutschen Landes, dass sie christliche Schulen aufrichten und halten sollen (1524) Weimarer Ausgabe, Weimar 1906 etab. (Aurrerantzean WA) 15, 36-43.

Hizkuntzaren batasuna

Erdi-Aroan, gaur herri bat moldatzen dabean eta hizkuntza nahiko batua erabiltzen eben herriak, ez egozan gaur legez bat eginda. Oso ezbardinak izan eitekezan herri batean erabilten ziren dialektoak. Pentsa dagigun gure alboko doguzan erromanze hizkuntzetan. Ez egoan aldi haretan, gaur egun dagoan legez, guztien artean besteak baino gehiago izan eitekean hizkuntza bat. Alfonso VIIIrenak, «Jakintsuak», gauza batzuetarako hizkelki bat erabiliko eban, eta beste gauza batzuetarako beste bat. Olerkiak, batez ere maitasun-olerkiak, idatzi nahi ebazanean, Galiziako hizkelkia erabiliko eban. Antza danez, besteak baino bigun eta gozoago zalako. Legeetan ostera, Gaztelako dialektoa. Edo zehatzagoa edo legorragoa —eta horrela lege-gaietarako egokia— zalako.

Bere aldiko Alemaniari buruz hau idatzi eban Luterok:

«Alemanian hizketa asko dagoz, hitz egiteko era asko. 50 kilometro alkarrengandik urrun egonez gero, ez deutsoe alkarri ondo ulertzen. Austriakoak eta Babierakoak ez deutsoe ulertzen Turinjin eta Sajoniakoei. Eta hori jasoten da batez ere Alemania-behekoan bizi direnekaz»⁶.

Gehiegikeriaz esana bada ere, azken baten egia da Luterok inoan hori.

Gaur egun ere, Luteroren herrian, Alemanian, nahiz eta hizkuntza ofiziala —edo erdi ofiziala— dan bat izan, hain zuzen «Bühnensprache» —hau da, antzerkian erabili ohi dena— izena daroana, herrialde bakotzak bere hizkelkia erabilten dau. Literatura erara behar bada ez horrenbeste, baina bai herritarren arteko gora-beheretan. Rhin erreka alboan diran herrialdeetan, herritarren artean ez «Bühnendeutsch» (antzerkian erabilten den alemana) herriko hizkalkia baino erabiliko dabe herritarrak. Eta hau ez bakarrik eskola handi bakoak. Eskolatuek ere bai. Batez ere Babieran jazoten da hori. Zetatik edo hatatik «Bühnendeutsch» hori erabili beharrean dagozanean, arrotz-hizkuntzaren bat darabilela uste izango dabe askok.

Hori gaur horrela bada, zer izan eitekean Luteroren aldi. Eskolatuak latina erabiltzen eben. Eta zeozer aurrerago bakarrik hasita egoan Dokumentu eta bestelakoetan herri hizkuntza.

Luterok, bada, bere Biblia herriarentzat itzuli nahi izan ebanean, auzi hori eukan askatzeko. Nongo hizkuntza erabili?

⁶ Tischreden («Mahai-alkarriketak») 5, 6146, WA Weimar 1919, 512.

Esana dogun legez, herriak hainbat hizkelki erabilten ebazan. Antzekoak bai, baina ez bardinak. Eta hizkuntza idatzian bertan ere, ez-bardintasun nahiko handiak nabarmentzen ziren. Nongo hizkuntza, hizkuntza idatzia, «kultoa» esango geunke gaur, erabili, bada?

Luterok berak erantzun bat emon deutsa gai honi. Berak erabili nahi eban hizkuntza ahal zanik eta gehienak uler eikien hizkuntza izango zan. Ez zan hizkuntzaren edertasuna edo historia edo berezko balioa, berak bilatuko ebana. Beste hau baino. Herriak uler eikean hizkuntza.

Eta hizkuntza horren bila ebilela, bat aurkitu eban berak nahi eban helbururako lagungarri izan eikiona.

Handikien artean egoan aldi haretan gero eta zabalduago Handikien-Idazkaritzetako gutunak, ez latinez, herriaren hizkuntzan idaztea baino. Eta euren artean baegoan batez ere poliki-poliki moldatzen joian herri-hizkuntza bat. Hain zuzen, Turinjia eta Sajonian nagusi zan «Wettin» errege familiaren lurretako bulegoetan erabilten zan hizkuntza.

Hizkuntza hau bulegoetarako egina zan, bada. Eta horregaitik hizkuntza egokia beste arlo askotan erabilteko ere. Eta batez ere abantaila bat eukan hizkuntza horrek besteen aldean. Iparraldeko eta Hegoaldeko hizkelkien erdian legez egoala⁷. Batzuek eta besteak nahiko errez ulertzekoa. Beste posibilitate askoren artean hizkelki hori erabiltzea egokien begitandu jakon Luterori.

Berak ere «Bazkal-inguruko Alkarrizketetan»⁸ inoan legez:

«Nik , Alemanez egiten dodanean, ez dot erabilten berariazko, aparteko hizkuntzarik, gehien zabaldua dagoana baino. *Horrela, bai Goi-Alemanikoak, baita Behekokoak ere, ulertzen dabe nik zer di-notsedan.* Nik darabilan hizkuntza Sajoniako idazkaritzetan erabilia dot; idazkaritza horreen arauz idazten dabe, idatzi ere, Alemaniako errege ta printze guztiak. Imperioko huri handi guztiak gure Sajoniako jaunen idazkaritzaren arauz idazten dabe, eta horrela guztien arteko zabalduena dogu. Maximiliano Enperadoreak eta Aukera-Printze dan Federiko, Sajoniako Dukeak, Alemaniako hizkuntza ezbardinak zelako edo halako batasun batera ekarri dabez»⁹.

⁷ Gaur egun ere herrialde hauei «Mitteldeutschland» esango deutsoe, hau da, ez Egoalde ez eta Iparralde, Erdialdeko Alemania baino.

⁸ Ezkondu ondoren, Luterok ezkonsaritzat Wittemberg-eko hiriaren arduradunengandik bera aurrerago bizi izan zan komentua artu eban. Handia zalata, ostatu bat egin eban Unibertsitatara etozan ikasleak bertan eukiteko. Ikasleekin eukiko ebazan bazkarian elkarrizketarik gozoenak. Ikasle honeek, Lutero hil ondoren, aldi hartan beragandik entzunikoak idatziko ebazan. Idatziriko gogorapen honeek osotzen dabe «Bazkaldu-inguruko Alkarrizketak» deritzoen bost liburuak.

⁹ Tischreden 1 Bd. 1040, Weimar 1912, 524-525. Latinez esakera hori beste toki honetan ere aurkitu daiteke: Tischreden 2 Bd. 6146, Weimar 1913, 639.

Hor dogu, bada, Luterok, Bibliaren itzulpena egiteko zala eta, hizkuntza aukera bat egin behar izan ebanean, bultzatu eban arrazoirik gorena. Bere herriaren onura.

Herri-itzulpena

Hegoaldeko itzulpena edo Iparraldekoa, edo beharbada erdikoa, hizkelki guzti honeek Herri-Agintarien Idazkaritzetan erabiliak ziranak ziranez gero, herri xeheagandik hurbil baino urrun egon eitekezan hizkelkiak izateko arriskuan egozan. Bat da, gaur ere, herriak erabili ohi dauan hizkuntza, eta beste bat gizon eskolatuak euren liburuetan darabilezanak. Ferdinand de Saussurek¹⁰ berba bi aurkitu ditu hizkuntza bi horreek adierazoteko. «Langue» da bata, «Parole» bestea.

Herriak erabili ohi dauana biziagoa da, odola eta izpiritua ditu. Liburuetan agertzen dana, ostera, bere bizitzan lore marduldua dirudi, odol bagako arraina.

Luterok —Skyla eta Karibdis-en antzeko ziren— kai harri bi horreen artetik —Odysseo barri baten antzera— ibili behar. Lehenengo erabiliz gero, liburuetako ateak zarratuta aurkituko ebazan, edo beharbada herriarren batzuk baino ez irakurteko zan hizkuntza erabiliko eban. Bigarrena erabiliz gero, ostera, gatz bagako hizkuntza erabiliz gero, bere aurrekoak —berak «asto-zaharrak» sarritan izendatutako katolikoak— egin ebena barriztauko eban berak. Era horretara, bizitza bagako hizkeraz idatziz gero, bizitza dan Biblia erdi hilda dagoen hizkera batean eskeintea litzateke. Eta bigarren hau, batez ere, ez eban nahi ezelan ere, gure Luterok. Biblia bere bizitzako hondorik hondoenean eukan sartuta. Hortik hartu eban berak Eleiza barriztatzeko eukan adorea. Zelan, bada, orain Jainkoaren berbearen gose eta egarri zan herriari, gatz bagako berba bat eskeini?

Nongo bideetatik joan?

Luterok berak, aurrerago esan dogun legez, Bibliaren itzulpena egin eban, bai. Baina horrezaz gainera zelako bideetatik joan eitekean hausnartu behar izan eban.

Eta hau Bibliaren liburuen itzulpenei egin deutseezan Sarreretan egin dau. Han adierazoten dau zergaitik honelako edo bestelako itzul-

¹⁰ Saussure, F.de. Cours de linguistique générale, Paris 1969.

penen bat erabili dauan. Labur. Gai hori azken baten ez da berak sarre-
ra horreetan erabili nahi dauana. Nahiago dau berak, eta hau ulertze-
koa da, irakurleei irakatsi liburu baktotxean zer esaten dan. Zelan irakur
daikean liburua, bertan esaten direnak ulertzeko gauza dala.

Horreetarikoak hainbat itzulpen eta sarrera ditugu. Esaterako, Tes-
tamentu Zaharrari egindakoa¹¹, edo Salmo-Liburuari egindakoa¹², edo
Testamentu Barri osoari¹³, edo beste hainbat libururi.

Behin baino sarriago itzulpena dala eta, bere bide hau aitatu egiten
dau sarrera horreetan. Esaterako, Salmoen laburpen bat argitaratuta-
koan, itzulpenak zergatik egiten dituen eta egite horrek dauan zailtasu-
na aipatzen dauanean¹⁴.

Baina idazti guzti honeen artean bat da, guztien eritziz, bere itzul-
penetan zelako bideetatik joan dan jakiteko behinena. «*Itzulpena dala-
ta balduriko idazkia*» deritxana¹⁵.

«*Ein Sendbrief vom Dolmetschen*» (1530)

Karta hau zelan sortu zan ez dakigu ziur. Kartaren hasieran «Jaun
agurgarri eta argia dan N. nire jaun eta lagunari» eskaintzen deutsa bere
lana Luterok. Baina argi ez dakigu jaun hori nor izan daitekean. Badira,
era berean, ez nonori, ez berariaz bati, itzultzen inarduen guztiei baino,
idatzi deutseela karte, nahiz eta itxuraz bati baino idatzi ez, dinoenak.
Baina, uste izan geinkeanez, lagun baten bitartez balduriko karta honen
bidez, nonork berari egindako itaunei erantzun bat emon nahi eutsen.
Eta nonor hori lanbidez imprimatzaile zen Georg Rottmaier jauna izango
zan. Honek, kartan erabilten zan gaia ez bakarrik beretzat, kristau guz-
tientzat ere garrantzizkoa zalako baino, bat-batean irarri egin eban.

Baina ez dira zertzelada honeek garrantzizkoak guretzat. Beste hau
baino. Zer dinosku Luterok karta honetan, gaur ere guretzat garrantziz-
koa izan daitekeana?

¹¹ Luther M., Vorrede zum Alten Testament(1523), WA 8, 10-30.

¹² Luther M., Vorrede zum Psalter (1528), WA 10, 1, 98-104.

¹³ Luther M., Vorrede zum Neuen Testament (1522), WA 6, 2-10.

¹⁴ Luther M., Summarien über die Psalmen und Ursachen des Dolmetschens (1533),
WA 38, 9-28.

¹⁵ Luther M., Ein Sendbrief vom Dolmetschen (1530), WA 30, 2, Weimar 1909, 632-
646. Berez «Itzulpena eta Santuen Bitartekotasuna direlata» deritzo liburuak. Gero iku-
siko dogunez, gizasemeok zelan bide barritzen garan Jaunaren aurrean da Karta honen
bigarren zatian erabiltzen dauan gaia. Eta gai honek Santuen Bitartekotasunarekin zeri-
kusi estua izan daike. Horregatik, bada, hasieratik eukan izena. Baina gaur egun izen la-
burra baino ez da agertzen karta hau aitatzen danean.

Errom 3,28 zelan itzuli?

Luteroren eta beretarren fedea ezagutzen dabenentzat ez da gauza barria esango dogun hau. Bere bide barriaren sustraiak Erromatarrei Pablok idatziriko kartan agertzen dira. Eta hain zuzen hirugarren atalburuaren 28garren bertsoan batez ere esaten dituan berbetan. Berba horreetan aurkitu dau Luterok bere ezpai guztien askapena. Ez da gizona bere ahaleginez Jainkoagana heldutzen dana, bizitza barria lortzen dauana. Ez! Beste hau da egia. Jainkoagan jartzen dauan fedea lagun, bereganatzen dau gizonak Jainkoaren maitasuna eta laguntza. Fedea bai! esango dau, bada, berak. Gizonen lanak ez! Biblia bertso hori itzul-tzean berba bat gehitzen dau Luterok Pablaren kartan agertzen ez zana.

«Uste dogu, gizonak fedearen bidez lortzen dauala zuzentasuna, Legeko egintzarik gabe».

Horrela inoan Pablok idatziriko karteak.

Luterok bere itzulpenean berba bat generatu dau. Euskaraz esan geinkean legez,

«Uste dogu, gizonak fedearen bidez *“bakarrik” (allein)* lortzen dauala zuzentasuna, Legeko egintzarik gabe»¹⁶.

Berba barri hori dala eta, bere arerio katolikoak gogor eraso deuse. Biblian Bibliarenak ez direnak jarri ditualakoan.

Hortik sortu da iskanbila osoa. Hortik Luterok izan daikezan berba gordinak, katoliko itzultzaileei buruz berba egiten dauanean.

Bere burua aipatzen da mutil gure Lutero.

Ez da katolikoaren artean itzultzaile patxadazkorik. Egia da, honelakoetan jazoten dan legez bide barriak urratu egin behar direnean, guztiak ere irakasle izan nahi leukeela. Baina ez jagoko berari itzultzaile horrengandik ezer ikastea. Eurak, bai, eurak ez bakarrik ikasi, bereetan ikusi eta eurenak bailiran argitaratzen dabez itzulpenak.

Orain arte ez dau Luterok besterik egin bere burua aipatu baino.

Baina ondoren datozanetan bere itzulpen horren zergaitiak erakutsi nahi ditu berak.

«Itzulpenean sekulako ahaleginak egin ditut, esango dau Luterok, hizkuntza garbi eta argi baten idazteko»¹⁷.

¹⁶ WA 30, 2, Weimar 1909, 632.

¹⁷ O. c. WA 30, 2, Weimar 1909,636.

Baina, autortzen dau berak, ez da gauza erreza itzulpen on bat egitea.

«Behin baino sarriago jazo jaku hamabost egun, hiru aste, lau astetan zehar berba bakar baten bila ibili gareala, eta horrela eta guzti ere berba egoki hori ezin aurkitu»¹⁸.

Esaterako Joben liburua itzultzean:

«Han egin genduzan inongo ahaleginak Felipe jaunak (Melancthon), Aurogallusek¹⁹ eta hirurok, eta behin baino sarriago lau egunetan hiru lerro baino gehiago ezin itzuli»²⁰.

Berriro ere, «bakarrik» gehituriko berbeari ekiten deutsa. Egia da, dino berak, berba hori Pablok idatziriko testuan - ez griegozko ezta latinezko itzulpenetan ere -ez dala agiri. Baina zer, horrela izanik ere? Luterok ez dau latinez edo griegoz idazten, alemanez baino. Eta horretarako ez deutseegu arrotz hizkuntzak diren griegoari edo latinari itandu behar, zelan guk geure hizkuntzan idatzi. Nori, bada? Hemen dogu, Luterok, itzulpena dela eta, dakarskun bide barria.

«Ez dago berbaz-berba itandu beharrik latinezko hizkuntzari guk geurean zelan idatzi behar dogun jakiteko, "asto zahar horreek" (itzultzaile katolikoak) egin ohi daben legez. *Etxean amari, umeei kallean, gizon xeheari azokan itandu behar jake*»²¹.

Eta argiago, ulergarriago hitz eginik, hara zer esaten deuskun:

«*Eztarrira begiratu behar jake eta ikusi zelan egiten daben berba. Eta horren arauz itzuli.* Orduan ulertzen dabe eurak ere. Orduan narbitzen dabe alemanez egiten dogula berba eurakin»²².

Honen ondoren adibide batzuk dakarskuz Luterok. Eta adibide honeetan latinezkoen arauz eta

«amak etxean eta gizonak kalean»²³

egiten dauanaren arauz esakera batzuk zelan esaten diren adierazoten deusku.

¹⁸ Ibidem.

¹⁹ Wittemberg-eko Unibertsitatean irakasle zan eta Luterori Testamentu Zaharraren itzulpenean lagundu eutsona.

²⁰ WA 30, 2, Weimar 1909, 636.

²¹ WA 30, 2, Weimar 1909, 637.

²² Ibidem.

²³ Ibidem.

Luterok, gizon osoa izanik, buruagaz bakarrik ez, gorputz guztiagaz bizi dan bat izanik, ondo ikusten dau hizkuntza ez dala bakarrik burua argitzeko . Eta hori esan ondoren berba honeek ditu:

«Nik ez dakit berba hau —berez «Liebe» (hau da, maitasuna, edo maitea) da erabilten dauan berbea— latinezko edo bestelako hizkuntzatan gure hizkuntzan legez esan daitekean, bihotzean sartu eta berriazko doinua egiten dauala»²⁴.

Gauza oso zaila dala itzultzea esan deusku aurrerago. Ez da nahiko berba bat edo beste bat erabili ahal izatea. Berba-aberastasuna izan behar dau benetan eta, egoki itzuli nahi dauanak. Horrela aukera euki daike. Eta orain bat, hurrengoan beste berba bat, baina beti egokiena, erabili daike.

«Itzultzea ez da edonork egin daikean lana, santu zoro horreek (emen ere katolikoak aitatu behar!) uste daben legez. Itzultzeko bihotz zuzen bat da beharrezko, eraspentsua, zintzoa, arduratsua, deduzkoa, kristaua, jakintsua, ohitua, saiatua. Hara zergaitik nire ustez ez dagoen ez guzurrezko kristau ezta sektakiderik inor benetan itzuli ahal izateko gauza izan daitekeanik»²⁵.

Ez da ez gitxi Luterok lan hori hartu nahi dabenengandik eskatuten dauana. Ia, esango geunke, Sortaldeko kristinauen artean «Ikonoak» margoztuten dabezanengandik eskatu ohi dana.

Beste lege batzuk alde batera itzita, Luterok, Bibliaren itzulpenean —Jainkoaren berbea da han jokoan dagoana eta— Jainkoaren lagunak bakarrik inardun daikeela uste dau. Eurak, ez mundu honetako jakintsuak, dira «Lagun handiaren» berbea ulertu eta besteei emoteko gauza izan daitekezanak.

Beste posibilitaterik ez dagoanean, orduan bakarrik, alemanezko berbak zeozer adierazoteko egoki izan ez daitezanean, izango da beharrezko griegozko edo latinezkora jotea. Baina horretarako ere, berriazko ardura euki behar. Eta hori da Luterok eta bere lagunak egin nahi izan dabena.

Goikoa ala behekoa? Iparraldekoa ala Hegoaldekoa?

Lehenago esana dogun legez, aldi hartako Alemanian jaun eta jabe ziren dialektuak garaituteko, erdiko aldeko hizkera batera jo nahi izan eban Luterok. Hain zuzen Wettin-eko jauntxoan bulegoetan erabilia zan hizkelkira.

²⁴ WA 30, 2, Weimar 1909, 639.

²⁵ WA 30, 2, Weimar 1909,640.

Horrela jokatuaz, Hegoaldeko azkenengo mugan egoanak ezik²⁶, beste guztiak berak itzuliko Biblia ulertu ahal izango eben.

Herriak bai, herriak emoten deutso hizkuntza bati, batez ere Jainkoaren hizkuntzari, zor jakon bizitza eta gatza. Baina beharrezko zan, era berean, hizkuntza landua. Hizkuntza honen bidez bakarrik zan gauza Jainkoaren hizkuntza goiko eta beheko kristinauakana iristeko. Eta azken baten hori zan arazo guzti honetan Luteroren helburua.

Ez zan hizkuntzaren batasuna —aldi hartako «Aleman batua» edo horrelakoren bat— Luterok nahi ebana, Jainko-berbearen gose eta egarri zan herriari zer jan eta zer edan emotea baino. Baina, berak bihoztzean ez eukan batasun hori lortzeko bere bide izan zan bere itzulpena. Berak eraturiko Erreformazioa zala eta, Biblia ere, Guttenberg-ek aurkituriko Imprimagailua bide zala, etxetik etxera zabaldua dogu²⁷. Bere hizkuntzak, bada, Bibliaren bitartez bere herriaren hizkuntza zelan edo halan moldatu egin dau. Eta adiera honetan baieztu geinke bestela ere handik eta hemendik esan ohi dana, «Lutero Alemaniako hizkuntzaren aita eta eragilea dala».

Baina, —hau ere egia da— Bibliaren bidez, bestelako hizkelkiak ere bizitza barri bat hartu dabela esan behar.

Bide bi

Lutero bizi zala, edo bere heriotzaren ondoren, era bitako bideak hartu dabez Alemanian —edo alemanezko hizkuntzaren herrietan— Bibliaren itzulpenek.

Iparraldean Rhin-errekako behe aldean berariazko hizkelki bat erabili izan da beti. Alemanian bai, baina batez ere Olanda eta Beljikako lurretan erabilten dana. Hizkelki honek hasieratik, hain zuzen, Luteroren lagun kutunenatarikoa zan Bugenhagen²⁸-en lanez eratua, Bibliaren berariazko itzulpena izan eban.

²⁶ Aldi hareetan legez, gaur ere, Dinamarkako mugetan bizi diren Schleswig-Holstein-ekoak egiten daben alemana nekez ulertzen dute gaur Italiaren menpean dagoan Hego-Tirolekoak. Batzuek eta besteak «Antzerki-alemanera»ra jo beharko dabe alkar ulertu ahal izateko.

²⁷ Alemaniako hizkuntzaren historia idatzi dauan baten iritiz, «1533an —Ereformazioak hogei urte baino ez eukala— hamar etxetik batek Luterok egindako Testamentu Barriaren itzulpena eukala uste izan geinke» (Tschirch F., *Geschichte der deutschen Sprache II*, 1979, 106).

²⁸ Lutero Wittemberg-en bizi zala, bere Bikarioa, bere konfessore eta laguna zan Bugenhagen. Horrezaz gainera Liturjia barria eraturten gehien lagundu eutsuna.

Urteak joan, urteak etorri, lur honeetan hainbat mugimendu barri²⁹ sortu zala, Biblia Santuaren itzulpen barriak sortu ziran. Edo Luterok egindakoaren arauz egindakoak, edo bestelakoak.

Eta ez Erreformazioarekin zerikusia eukenen artean bakarrik. Katolikoen artean ere itzulpen barriak sortu ziran. Behin baino sarriago Luteroren itzulpena itzultzaile honeek begi aurrean ebela, nahiz eta egia hori argi autortu nahi ez edo autortu ezin³⁰.

Hegoaldean beste era bateko zoria euki eben Bibliaren itzulpenak. Hemen Suizako barrizailerik ezagunena dugun Zwingli-ri zor deusagun itzulpena da zabalduen izan dana. Ez da berak egindako itzulpena. Bai ostera, Zürich-en berak eraikiriko «Profeta-etxean» egindako lana. Etxe honetan, Zürich-eko katedraleko areto batean, «Artzain, Predikalari, Vi-kario, eta abar», Zürich eta inguruetatik etorrita alkartzen ziran euren goiko-jakintza barriztatu eta egokitzea. Hortik sortu zan gaur ere Hegoaldeko protestanteen artean oso zabaldurik dagoan «Zürich-eko Biblia». Luteroren Biblia dogu azken baten Biblia itzulpen guzti honeen oinarri. Baina herriaren hizkuntzari egokitua³¹.

Lutero gaur ere bizi


450 urte igaro dira Lutero bere jaioterri Eisleben-en hil zala. Urte guzti honeetan gora-behera asko jazo dira Luterori buruzko eritzietan. Baina gauza bat dago argi baino argiago berak itzultitako Bibliari buruz. Itzulpen hau gaur ere baliokoa dogu. Ez Protestanteen artean bakarrik, beste fede bateko diran Katolikoen artean ere klasikotzat hartua dago. Igaro diran mendetan beste itzulpen asko irarriak izan diran arren, eta gaur ere irarriak diran arren, Luteroren Biblia gaur ere irarria eta fededunen artean irakurria dogu. Adinez zaharra dogun itzulpen hori behin baino sarriago Eleizkizunetan harro erabiliaz. Horrela, bada, bere Biblian bizi da gaur arte Lutero³².

²⁹ Hor doguz Münster-en Kristoren erreinu barria eraiki nahi ebenak. Edo Olandatik alde egin behar izan eben Menno Simons-en ikasleak. Eta beste hainbat. Lur honeek talde txiki eta berotsuak sortuaraziteko egokiak izan dira beti.

³⁰ Horrela Hieronymus Emser-ek egindako Testamentu Barriaren itzulpena. Edo Johann Dietscher-ek osotutako Biblia osoarena. Eta beste askorenak.

³¹ Itzulpen guzti honeei buruz ikusi, Sauer-Geppert Waldtraut Ingeborg, 5. Die Übersetzungen der Reformationszeit, art. Bibelübersetzungen, TRE Bd. 6, Berlin-New York, 1980, 239-244.

³² Ez, jakina, Bere Biblian bakarrik. Behinola herri xehearen laguntzarako idatziriko «Kristau-lkasbide laburra»n ere bizi da. Eta beste hainbat liburutan.



***Refranes y Sentencias de 1596:* aditz sistemaren inbentarioa**

Gontzal Aldai

1. Refranes y Sentencias de 1596

Aurten betetzen dira 400 urte *Refranes y Sentencias* liburu famatua lruinean argitara zenetik. Benetan interesgarria errefrau bilduma hau, ez bakarrik isladatzen duen hizkuntzaren aldetik, baina baita (ausartuko nintzateke esatera, nahiz zeharo profanoa izan arloan) bere balio etnografikoa, historikoa eta agian literarioarengatik. Erdi Aroko gure historia kotidianorako barnebidetako liluragarria iruditzen zaio RS gaurko irakurle jakingurari. Bere hizkuntza dela eta, ez dut hemen nik deskribituko orain zeinen garrantzitsua den gure bilduma euskararen historiarako. Ikertzaile asko etorri baitira bat bere balio handia azpimarratzen; besteren artean, Van Eys, Urkijo, Lafon, Mitxelena, Irigoien, eta abar luzea. Lagin bezala, hona hemen Mitxelenak Urkijoren edizio amaitugabekoari egin zion *Preambuloan* dioena RSei buruz:

«[...] uno de los documentos más valiosos para la historia de nuestra lengua [...]. No hay necesidad de encarecer el valor que como documento lingüístico tiene esta colección [...]. En ella abundan los más venerables arcaísmos, tanto en la morfología como en el léxico [...]» (Urkijo 1964, 9-11).

Ez ditut kontatuko hemen liburuaren edizio guztien gorabeherak, baina bai aipatuko edizio moderno eta kritikoaren premian aurkitzen garela. Ez da lan erraza; nahikoa zaila baizik. Aldez aurreko ikerketa handia behar duten horietakoa. Egia esan, ez litzateke gehiegizkoa esatea agian behar handiagoa daukagula RSen hizkuntzaren azterketa egiteko lehenago. Bere hizkuntza (bere aditz sistema batez ere) sako-

nago ulertuko ez badugu, nekez egin dezakegu edizio fidagarririk. Eta horretarantz abiatu nahi du hemengo lan honek. Mitxelenaren hitzak berriro ekarriaz, ez dirudite lekuz kanpo hogeitamabi urte geroago:

«[...] los problemas que plantea esta colección de refranes están muy lejos de haber sido resueltos definitivamente. Antes bien podríamos decir que ahora es precisamente cuando su estudio es más necesario, por lo mismo que podría ser más fructífero que nunca.» (Ur-kijo 1964, 17).

Ez dira honetan amaitzen RSen balioak, nire ustez. Oraindik guztiz ebaluatu gabe daude liburuaren partikularitate asko. Alabaina badirudi hainbeste berezitasun etorri direla kointziditzera liburu berean (mutur-retako dialektoa; kokagune-ambiente hiritarra apika; idazle kultoa baina ez hizkuntz manipuladorea; gai humanista eta arkaizantea; helburu ez-erlijioso; herri euskara; formula tradizionalak; arkaismo lexikoak; zenbait adizkiren interpretazioa fosilizaturik garairako ere) non ez baitakugu antzeko lekukorik, agian, euskal literatura osoan, poesia epikoaren zati batzu (askoz laburragoak beraz) kenduta beharbada. Tamalez, iratxeki dakioken «akats» bakarra (baina hau fikzio hutsa da) benetako «testu» bat ez izatea da. Fikzioa diot, zeren benetako literatura testua balitz ez lituzke izango dituen berezitasun guztiak, baizik eta bere garaiko euskara (nahiko arkaikoa ere izango zena) fidelkiago isladatuko luke. Mikoleta edo VJ testuen hizkeratik gehiegi ez aldenuduz. Beraz, euskararen historia baterako zeharo inportantea bada gure bilduma, proto-euskararen berreraiketa baterako agian areago, gordetzen dituen eta oraindik aztertzeke dauden arkaismoak kontutan hartuta.

2. Lan honen helburua

Artikulu honen asmoa zera da: bizkaiera zaharraren aditz sistemaren inbentario bat ematea, *Refranes y Sentencias* liburua corpus bezala hartuaz. Hortaz, eskainiko dena RSen adizki sailkapen bat (edo bat baino gehiago, nahi bada) besterik ez da, bertan agertzen diren adibideak soilik kontutan harturik. Dena dela, horrela bizkaiera zaharraren aditz sistemaren taxuzko irudia lortuko dugulakoan nago.

Nahiz lanaren xedea hain sinplea izan, betetzerakoan alde zurreko zailtasun, nahaste eta korapilo ugari agertuko zaizkigu. Bilatutako sailkapena egiterakoan aurkitzen dugun problemarik larriena terminologikoa da. Hots, ez dagoela batera finkatuta zer termino erabili behar den adizki mota bakoitza izendatzeko. Hala ere, arazo honek beste problema sakonago batera eramaten gaitu, euskaratik urrutirago: Tempus eta

Aspektu aditz kategorien sailkapen orokorraren premiara. Esan nahi baita egiteke dagoela hizkuntz arteko aditz kategorien tipologia orokorra, unibertsalki onartua. Horretaz jabetzeko begira bedi eransten den bibliografian (Comrie 1976 eta Dahl 1985, bereziki), eta are gehiago aipatzen ez ditudan bestelako idazki askotan.

Beraz, lan honen asmoa ez da, ezin izan daiteke, behin betikoa; behin behinekoa baizik. Euskara zaharraren aditz sistema, eta horrekin batera hizkuntz arteko aditz sistemen tipologia, sakonago ulertzen saiatzeko urratsa besterik ez da. Proposamen moduan ulertu beharrekoa. Gehiago landu beharko dira gai biak zerbait garbiago lortu nahi bada.

Hortaz, artikulua hau, geroko lan sakonagotarako aurreko urrats bezala hartu behar da. Izan ere, ez da konklusiorik orain emango. Batetik, espazio arazoek aginduta. Baina batez ere, hurreko geroan perspektiba eta jakintza handiagoarekin gaurko arazo handiak txikiago bihurtuko direlakoan. Ildo honetatik, esan beharko dut esperantza handiak ditudala Gramatikalizazio Teoria delakoan, hots, Tipologia Linguistikoa hizkuntzen eboluzioan aplikaturik (ikus batez ere Bybee et al. 1994). Marko teoriko hau oinarritzat hartuta, uste dut euskararen aditz sistemen eboluzioaz ditugun arazo aunitz errazago ebatziko direla, Mitxelena parafraseatuz, «orain beren azterketa inoiz baino emankorrago izan bait liteke».

3. Lafonen lanaren errebisio beharra

Aurreratu dudanez, oinarri teoriko faltan aurkitzen gara oraindik xvi mendeko euskararen aditz kategoriak (aspektua barne) behin betiko azaldu ahal izateko. Eta horren beharrean, Lafon (1943) da daukagun erreferentzia nagusia. Lafonen autoritatea onartu dute gai hau ikutu duten ikerlari guztiek. Baita nik ere 1994ean idatzi nuen artikulua baitean. Dударik ez dago, beraz, Lafon dela denon abiapuntu eta maisua. Hala eta guztiz, eta ausarkeria balitz ere, Lafonen planteamentu zenbait errebisatzea gustatuko litzaidake hemen.

Bi puntu dira errebisatzeko ekarri ditudanak, Lafonen lan handiaren artetik. Nire ustez, ikerlari guztiek jarraitu dute ildo beretik bi puntu hauetan, eta beharbada arazoa ondo ez ulertzera eramán gaituzte. Ez baititugu apika diferentziak behar bezain garbi mantendu hurrengo bi bereizketetan:

- a) adizki esanahiaren eta formaren artean
- b) adizki trinkoen eta perifrastikoen artean, aspektuari dagokionez

Ondoko erara labur litezke Lafon eta bere jarraitzaileen planteamenduak ikutu nahi ditudan gai biotan:

- a) Euskara arkaikoan bazegoen gaur egun mantendu ez den oposaketa bat: aspektuarena. Horrela, aspektua bereizterakoan beste hizkuntza zahar askok bezala jokatzeko euskarak (grekera klasikoa, adibidez), eta gaur egungo euskara edo gaztelaniatik aldentuz. Delako distintzioak aspektu «indéterminé» versus «déterminé» oposatzen zituen, eta «IZAN-*EDUN eta abar» versus «*EDIN-*EZAN eta abar» delako oposaketan isladatzen zen. Aspektu oposaketa hau, inguruko hizkuntza erromaniko berrien eraginez, modu oposaketa bihurtu da egungo euskararen. XVI mendeko euskarak, ordea, oraindik gordetzen zuen aspektu oposaketa zahararen aztarna zenbait, «aoristoa» delakoa inportanteena izanik.
- b) Aditz trinkoei dagokienez, aspektu oposaketaren arrastoa XVI mendeko aditz sistemaren ondoko datuetan aurki dezakegu: aditz batzuk (aspektu determinatukoek) futuro balioa zuten Oraineko adizkietarako; eta lehenaldi sinplea (preterito), Iraganeko adizkietarako; besteek (aspektu indeterminatukoek), ordea, orainaldiko balioa Orainean, eta lehenaldi inperfektoa Iraganean.

Oposaketa bera aurkitzen dugu aditz perifrastikoetan jarraiturik; hots, laguntzaile hautaketa hertsia zegoen aspektu oposaketa markatzeko: *EDIN eta *EZAN laguntzaileek, aspektu determinatukoek, «aoristoa» edo aspektu gabeko saila markatzen zuten, baita indikatiboaren barruan; aspektu indeterminatuko IZAN eta *EDUN laguntzaileak aspektuko saila adierazteko erabiltzen ziren bitartean.

Honaino eskaini dudako laburpena bereziki Lafonen, Txillardegiren eta Irigoienek idazkietatik ateratakoa da, nahasketa modukoa eginez. Ez dakit nola topatuko dituen irakurleak aurreko ideiak, baina nire ustez (lehenengo hurbilketa bezala egokiak izanik ere) nahiko ilun agertzen dira orohar. Esan dudanez, ez nago orain proposamen orokorra eskaintzeko moduan, alabaina aipatutako bi puntu hauek beste era honetara planteatzea bidezkoa iruditzen zait:

a) *Forma eta esanahia*

Euskara arkaikoan bazegoen aspektu oposaketa bat, nola egungo euskararen badagoen ere. Edozein teoriaren barruan garbi desberdinu beharra dago esanahia eta forma artean. Horren arabera, esanahiari dagokionez, eta orokorrean hartuta, XVI mendeko euskararen aspektu

oposaketa eta gaurko euskaran (nola gaztelaran) aurkitzen duguna berdinak dira. Formari bagagozkio, ordea, garbi dago ez direla berdinak; hots, oposaketaren sailak adierazteko espresio formalak ez dira berdinak orain eta XVI mendean, (edo behintzat adizki batzu ez dira berdinak). Baina oposaketa bera da.

Aurrekoa esatean pentsatzen ari naizena Iraganeko tempusa da gehien bat. Oraineko tempusa nahastuago agertzen zaigu, batez ere perpaus subordinatuak direla eta. Orainean agertzen diren zenbait fenomeno azaltzeko daude oraindik, ez bakarrik euskararako, baizik eta teoria orokorrako baten bidez. Alegia, presente perfektibo zer den esplikatzeko eta bere erlazioa futuroarekin; edota zer erlazio dagoen futuro eta subjuntiboaren artean; edota futuroa eta aspektu generikoaren artean; alata zenbait perpaus subordinatuetan (baldintzazkoak, denborazkoak) agertzen den presentearen estatusa; eta abar.

Hala eta guztiz, perpaus nagusietako adizkiak bakarrik kontutan hartuaz, gauzak askoz garbiago azaltzen dira. Horrexegatik, gure inbentario honetan perpaus nagusietako adizkietara mugatuko gara, gehien bat. Hau eginez, gaur egungo eta XVI mendeko euskararen aspektu antolaketak berdinak dira, arestian esan denez. Eta, (Orainean oraindik argitzeko fenomeno zenbait egon arren), zilegi deritzot esateari XVIeko aditz sisteman ez zegoela inongo esanahirik gaur egun ez dagoenik. Ezin da, ordea, gauza bera esan formari buruz.

Iraganeko tempusean, beraz, aspektu oposaketa nagusia, bai euskara zaharrean, zein gaurko euskaran, hala grekera arkaikoan nola egungo gaztelaran edota hizkuntza eslaboetan, perfektiboa versus imperfektiboa da. Mila izenekin ezagut daiteke oposaketa hau (aoristoa versus imperfekttoa, kasu); baina funtsean gauza bera da hizkuntza guzti horietan. Gaurko euskararen <TU> + ZEN / ZUEN tankerako adizkiek esanahi bera dute nola gaztelararen «preterito indefinido» (*amó*), edo grekera klasikoaren «aoristo de indicativo», edo errusieraren «perfectivo pasado», edo euskara arkaikoaren <O> + ZEDIN / ZEZAN tanke-rakoek.

Zein da, hortaz, XVI mendetik gaurko euskararako diferentzia? Iraganera murriztuz behintzat, diferentzia forman datza, besterik ez. Ez esanahian. Aspektua ez da euskara zaharrean ematen zen eta galdu egin den kategoria bat. Aspektu oposaketa mantendu egin da, baina bere espresio formala aldatuz, adizki zenbaitek esanahiaz aldatu baitute.

Egia esan, eta jarraian ikusiko dugunez, gaur egungo sisteman (edozein esanahia adierazteko) erabiltzen den adizki oro bazen agertzen ere XVI mendeko euskara zaharrean; baina honetaz gain, baita desagerturiko beste adizki batzu ere agertzen ziren. Honi azalpena bilatu

nahian, zera proposa daiteke: XVIko aditz sistema aldaketa sakonean ari zela: sistema sintetikotik sistema perifrastikora. Hortaz, hemendik inferituz beste proto-sistema zaharrago batera iritsgintezke. Baina baita berreraikitako aditz sistema batean (demagun «euskara pre-arkai-koan»), aspektu oposaketa baldin balego, berdina edo oso antzekoa litzateke, ezin baita beste tankera batekoa izan: nagusiki, perfektibo versus imperfektibo Iraganeko tempusean (behintzat), eta ez beste.

b) *Adizki trinkoak eta adizki perifrastikoak*

Bestalde, desberdinu beharra dago baita aditz trinkoen («fortes») eta perifrastikoen («faibles») artean, beren aspektuari dagokionez.

Euskal adizki trinkoak ez daude markatuta aspekturako, tempusa soilik daukate gramatikalizatuta. Hortaz, baldin adizki trinkoek aspektuarekiko jokaera ezberdinak erakusten badituzte, berauek haien semantikaren arabera izango dira. Hau gauza normala da munduko hizkuntza askotan, hots, jokabide ezberdinak edota inkompatibilitateak erakustea aditzen semantikaren arabera. Batez ere, aditz «estatiboen» eta «ez-estatiboen» arteko portaera diferentea da hizkuntz arteko gertaera nagusia. Baina hau ez dago zeharo kuantifikatuta eta determinatuta hizkuntz artean. Bereziki aditz estatiboen eta perifrasi progresiboen arteko inkompatibilitatea edo irregulartasuna da hizkuntz artean gehien dokumentatuta dagoen fenomenoetariko bat.

Adibidez, Curaçao irlako Papiamentu hizkuntza «criolla» orainaldi orokorra egiteko «TA + aditza» formaz, gaztelerako «está + gerundio» perifrasiaren oinarritutako konstrukzioaz, baliatzen da. Baina badaude zenbait aditz, zeintzuk ez duten TA delako aspektu markadorea erabiltzen. Aditz guzti horiek estatiboak dira, eta beraz beren berezitasuna perifrasi progresiboarekiko inkompatibilitatean datza. Hauetako batzu dira: «tá» (izan, egon), «ké» (nahi), «tin» (eduki), «mester» (behar), «sa» (jakin), «konosé» (ezagutu), eta abar. (Goilo 1969, 24)

Beraz, ez da harrizkoa euskara zaharrean adizki trinkoek ez izatea jokaera berdina, beren semantikaren arabera. Eta hau bide da Lafonek azaldu nahi zuena bere «déterminé» / «indéterminé» distintzioarekin aditz trinkoen kasuan:

«rien dans la forme d'un verbe basque n'indique s'il exprime un procès à terme ou un procès sans terme». (Lafon 1943, 28).

Dirudienez, Lafonek azaldu nahi duen jokaera ezberdin hau «estatibo» versus «dinamiko» oposaketaren arabera uler liteke. Baina ez dago batere garbi hau horrela den ala ez. Badirudi talde ezberdinak zeudela

aditzen artean, jokaera gramatikal ezberdinetan isladatzen zirenak; baina ilun dagoena da zein zen talde bakoitza, eta are taldeok semantikan oinarrituta zeudenentz.

Hipotesi moduan, aditz estatibo / ez-estatiboen arteko oposaketa semantikoa proposatuko dugu, nahiz hau zeharo ados ez egon datuekin (geroxeago ikusiko dugunez). Hipotesi honek, hortaz, zera lioke: aditz talde bi horiek ez zeukatela esanahi bera forma berdinetarako. Eta hau bai Oraineko formarako (orainaldia / futuroa) zein Iraganerako (lehenaldi inperfektiboa / perfektiboa). Gaur egun aditz ez-estatibo gehienek ez dute adizki trinkorik, eta daukatenen apurrak bai Orainean (mendebaleko euskalkietan behintzat) zein Iraganean (harrigarriena dena) aditz estatiboen esanahi bera dute: lehenaldi inperfektiboa, Iraganerako.

Badaude eta bazeuden, beraz, aditz trinko batzu non, dinamikoak izanik, arestian «estatiboen jokaera» bezala izendatu duguna erakusten baitute: *joan, eroan, etorri, ekarri*. Aditz hauen portaera ez bide zen (eta ez bide da) berdina, dena dela, ekialdeko euskalkietan. Hala eta guzti, ez daukat azalpenik aditz hauetarako; baina ohar bedi irakurlea aditz hauen perifrasi progresiboak ez direla guztiz arruntak beste hizkuntzatan ere. Adibidez: «estoy yendo», «está viniendo» adizkiek ez dute normalean esanahi kontinuorik edo progresiborik, habituala baizik.

Adizki perifrastikoen auziak, bere aldetik, ez dauka zerikusi handirik aurrekoarekin. Behintzat, gauzak ezin dira planteatu adizki sail bien (trinko / perifrastiko) aspektuarekiko berezitasunak paraleloak balira bezala. Adizki perifrastikoek aspektua markatu egiten dute, trinkoek ez bezala. Perifrastikoetan, beraz, aspektuaren azalpen batek ez du zertan erreferentziarik egin aditzen semantikari.

Laguntzailearena beste arazo bat da. Nire ustez, ez da egokia planteatzea euskara zaharraren adizki perifrastikoen aspektu oposaketa laguntzaile oposaketa bezala. Horrela, gauzak laguntzaileen semantikara laburtuko lirateke, eta azken finean aditz trinkoen semantikaren arazo bera genuke. Planteamendua oso bestelakoa dela proposatuko nuke nik. Hain zuzen, perifrasi bakoitzak bere nortasuna duela eta hortaz ez dela laguntzailea soilik kontutan hartu beharrekoa, perifrasi osoa baizik. Aspektu oposaketa zaharra ez da, beraz, IZAN-*EDUN / *EDIN-*EZAN oposaketa, konstruktio osoen oposaketa baizik. (Gainera, eta jarraian ikusiko dugunez, bizkaiera zaharrean ez daukagu bi laguntzaile pare, hiru baizik: JOAN-EROAN ere kontutan hartu behar da eta. Honetaz gain, badago EGIN laguntzailea ere, *EZANen tokia hartzera etorri bide zena).

Ondorioz, aspektu oposaketa zaharra honela planteatu behar delakoan nago: <0> + *EDIN-*EZAN / <TZEN> + IZAN-*EDUN / <TU> + IZAN-*EDUN / <TUKO> + IZAN-*EDUN / <TU> + JOAN-EROAN. Ez da

oposaketa binarioa, multiplea baizik. Arazoa da jakitea aspektu guzti horiek nola antolatu. Zein den inportanteago eta zein sekundarioa. Zein zer kategoriarri dagokion, eta abar. Laguntzaileak ez dauka berez erlazio zuzenik konstrukzio osoak adierazten duen aspektuarekin. Ez eta *EDIN-*EZAN gain osatutako perifrasiak aditz oina eskatzeak. Hori perifrasiaren beraren espresio formalari dagokio, baina ez zuzenki bere esanahiari. Ondorioz, oposaketa ez da bitan zatitu behar: aspektudun perifrasiak / aspektugabea. Hori ez zen oinarritzko partizioa garai arkai-koetan, nahiz geroago modu oposaketa bi atal horietan zatitu den: indikatibo / subjuntibo.

Ez da, hortaz, zeharo egokia esatea «aspektu oposaketa arkaikoa modu oposaketa berria bihurtu dela» (1994an Lafonekin batera planteatzen nuenez). Zeren horretatik uler daitekeena zera baita: «lehen aspektua bakarrik geneukan eta orain modua bakarrik». Ez da hori errealitatea. Beraz, behintzat bi puntualizazio egin behar dira aurrekoa esatean:

- a) aldaketa hori forma mailan eman dela, esanahiari dagokionez bai aspektua zein modua desberdin baitzitezkeela euskara arkai-koan nola gaurkoan;
- b) formari bagagozkio, modu oposaketa berria laguntzaileen araberakoa bada ere (IZAN-*EDUN versus *EDIN-*EZAN), aspektu oposaketa zaharra ez zen ematen era berean: IZAN-*EDUN laguntzaileek ez zuten osatzen aspektu sail (edo kategoria) bakar bat, bat baino gehiago baizik.

Erarik sinpleen eta ulerterrazenean amaitzeko, gertatu zen aldaketa bakarra ondokoa izan zen: lehen indikatiboan ere agertzen zen adizki mota bat, geroago (eta orain) soilik subjuntiboan agertzen dela. Bestetik ez. Honen azalpena bilatzea da karkoa.

4. Terminologia

Aspektuaren oinarritzko oposaketa perfektibo / imperfektibo dela onartzen badugu, euskara arkaiko baterako ondoko *oposaketa formal* nagusia proposa genezake (ez dugu ezer esaten oraingotan adizkiok XVI mendean zuten esanahiari buruz, beren formaren arabera izendatzen baizik):

Perfektiboa: <0> + *EDIN-*EZAN/EGIN

Inperfektiboa: <TZEN> + IZAN-*EDUN

Bi aspektu hauen parean badago perfektoa ere, zeinak perfektiborantz eboluzionatzeko joera orokorra duen. Cf. latinaren Perfectum,

perfektoa eta lehenaldiko perfektiboa zena; edota frantses mintzatua-
ren Passé Composé delakoa, esanahi biak ere hartzen dituena. Euskara
arakaikoen Perfektoa hauxe litzateke:

Perfektoa: <TU> + IZAN-*EDUN

Proposatu ditugun termino hauek, aztertuko dugun XVI mendeko
bizkaierarako, adizkien forma hutsa adieraziko dute (maiuskulaz). Ez
beren esanahia (minuskulaz). Ikusiko dugunez, forma eta esanahia ez
datoz bat ez eta XVleko euskararako. Adizkien forma lehenagoko ga-
raietako esanahiaren antolamenduaren lekuko ohi da. Honek esan nahi
bide du proto-euskaratik XVleko euskararaino aditz sistema nahikoa al-
datuta zegoela zegoeneko. Baina hemen ez gara sartuko proto-euska-
raren aditz sistema aztertzen, XVI mendeko bizkaiera deskribatuko
dugu soilik.

Forma horietaz gain badauzkagu futuroa eta habituala ere. Azken
honek aspektu inperfektiboaren zati bat hartzen zuen, antza denez.

Futuroa: <TUKO> + IZAN-*EDUN

Habituala: <TU> + JOAN-EROAN

5. Antolaketa

Orain arte esandako guztia kontutan harturik, garbi geratuko zaio
irakurleari bariabile aunitzekin jokatu nahi dudala RSen aditz inbenta-
ria egiteko orduan. Ahalik eta distintzio posible gehien hartzeko as-
moz, sailkapen bat baino gehiago eskainiko dira. Zeresanik ez, sailka-
pen guzti hauek egiteko orduan zalantza eta problema asko eta asko
izan ditut, eta oraindik ere puntu ilun ugari geratzen zaizkit.

Hasteko, egokia deritzot adizki trinkoak eta adizki perifrastikoak
bereizteari sailkapen osoan zehar. Hau beti ere kontutan hartuta,
lehenbizi adizki guztien sailkapen formal orokorra emango da. Gero
Orainaren barruan zenbait bereizketa formal ikusiko dira, adizkiek da-
ramaten afijoaren arabera. Adizki hauetatik (lehenago aipatu denez)
perpau nagusietako adizkiak soilik hartuko dira kontutan azterketa sa-
konagoa egiteko.

Azterketa sakon honek 268 adizkitako lagin bat hartuko du objektu,
Orain (233) eta Iraganeko (35) tempusetakoak bakarrik. Lehenengoz,
beraen sailkapen orokorra emango da. Goragoko diskusioan aurreratu
denez, adizki trinkoetan bereizketa semantikoa (baina baita afijoen ara-
berakoa ere) eta adizki perifrastikoetan bereizketa formala egingo da.

Geroago, eta hau jadanik astiroago, sailkapen berbera aditz klase ez-
berdin batzuren barruan egin dut: «aditz klaseen arabera sailkapena».

Horago diskutitutako arrazoiengatik, lehen han hemenka eta gutxi gora behera aipatu ditudan klaseak bereizi ditut; hain zuzen edo zehatzago:

1. aditz elkartuak (NAHI bezalakoak),
2. aditz «forts» estatiboak (IZAN bezalakoak),
3. mugimendu aditzak (JOAN bezalakoak),
4. aditz «forts» ez-estatiboak (EGIN bezalakoak), eta azkenez
5. aditz perifrastikoak edo «faibles».

Hemen sailkapena adizkien *forman* oinarriturik emango dut (letra maiuskulaz, euskararen forma propioei dagokielako), alegia:

1. Adizki trinkoak
 - 1.1. Oraina
 - 1.2. Iragana
 - 1.3. Oraina + -AN
 - 1.4. Oraina + KE / TE
2. Adizki perifrastikoak
 - 2.1. Orain Inperfektiboa
 - 2.2. Orain Habituala
 - 2.3. Orain Perfektoa
 - 2.4. Orain Perfektiboa
 - 2.5. Futuroa
 - 2.6. Iragan Inperfektiboa
 - 2.7. Iragan Habituala
 - 2.8. Iragan Perfektoa
 - 2.9. Iragan Perfektiboa
 - 2.10. Iraganeko Futuroa

Eta jarraian adizki bakoitzaren gutxi gora beherako esanahi ezberdinak emango ditut (letra minuskulaz, nozio orokorra baita). Esanahi hauek desberdinu eta izendatzerakoan are arazo handiagoak aurkitu ditut adizkiak berak izendatzeko baino. Problematikoa da guztiz adizkien esanahiarena. Arestian esan dudanez, proposatzen dudana behin behineko moduan hartu beharko da.

Arazorik handiena aspektu «generiko»arekin izan dut. (Lightfootek, 1975, adibidez, garbi bereizten du aspektu generiko bat, eta futuroarekin erlazionatzen). Errefraua ari garenez aztertzen, adibide gehienek (guztiak ez esatearren) irakurketa generikoa izan dezakete. Hala ere, modu murritzua ulertu nahi izan dut aspektu generikoarena, alegia aspektu gnomikoa bezala. Baina baita kasu honetan ere, aspektu generiko posible gehiegi postulatu behar izan dut, beharbada.

Azkenez, adibide guztiak RS liburitik atereak dira; eta are gehiago, soilik RSen testuan dagoena hartuko da kontutan, ez besterik. Hutsu-

neren bat balego, adibideen murrizta dela eta, bere horretan geratuko da gure inbentarioan. Hala ere, nahikoa erabatekoa dela uste dut.

Horago aipatuenez, balantzea falta du honako sailkapenak. Izan ere, konklusio asko daude datu gordin hauetatik ateratzeko. Mota askotakoak gainera. Hori dela eta, konklusio guztiak oportunitate hoberako utziko dira, bitartean datuok, beren horretan geratuz, euren bitartez mintza daitezten.

6. RSen adizki sailkapen orokorra

1. Adizki guztien sailkapen formalak

I. Adizki sintetikoak guztira		332 (65.7%)
I.a. «nahi dut» bezalako adizkiak	23	
I.b. adizki trinkoak	309	
II. Adizki perifrastikoak		173 (34.3%)
ADIZKIAK GUZTIRA	505	

(Hemendik aurrera, sailkapen orokor honetan, «adizki sintetikoak» aipatuko direnean, «nahi dut» bezalako adizkiak barne daudela kontsideratuko da.)

	adizki sintetikoak		adizki perifrastikoak		guztira
1. Aginte adizkiak	42	(56%)	33	(44%)	75
2. Alegiazko adizkiak	22	(75.9%)	7	(24.1%)	29
3. Iraganeko adizkiak	10	(28.6%)	25	(71.4%)	35
4. Oraineko adizkiak	258	(70.5%)	108	(29.5%)	366
GUZTIRA	332		173		505

2. Orain tempuseko adizkien sailkapen formal-nozionala

Oraineko adizkien barruan, (4), ondoko bereizketak egiteari interesgarria deritzot, adizkiok daramaten subordinazio afijoari dagokionez:

	adizki sintetikoak		adizki perifrastikoak		guztira
4a. indikatiboko -LA	2		0		2
4b. subjuntiboko -LA	3		5		8
4c. subjuntiboko -(A)(N)	5		0		5
4d. futuroko -(A)(N)	5		0		5
4e. subordinatuetako -(A)(N)	83		24		107
4f. baldintzetako BA-	9		7		16

Esan beharra dago, aurreko adizkien artean, futuroko -A(N) atzizkia daukaten adizkiak, (4d), bereziak direla besteekin konparatuz. Zeren beste adizki guztiak mendeko perpausetan agertzen diren bitartean, hauek perpaus nagusietan agertzen baitira. Egia esan, subjuntiboko -A(N) atzizkia daramaten adizki gehienak ere, (4c), perpaus nagusietan agertzen dira, inperatiboak balira bezala, nahiz isilpeko subordinazioa dagoela kontsidera litekeen.

Inventario honetan falta diren *Oraineko* adizkiak *subordinazio afijorik gabeko adizkiak* dira. Eraman dezaketen afijo bakarria KE/TE hizkia da. Ikus ditzagun:

	adizki sintetikoak	adizki perifrastikoak	guztira
4g. KEduinak	11	4	15
4h. KEgabeak	140	68	208

3. *Oraineko adizki «huts»en sailkapena*

Azkenengoak, hots (4h) *sailako adizkiak*, dira gehien bat lan honen objektua. Hau da, perpaus nagusietan agertzen diren eta *inolako afijorik gabeko adizkiak*. Hauen artean, dena dela, adizki sintetikoek bagagozkie eta beren semantikari dagokionez, beste sailkapen bat egin behar da: orainaldia adierazten dutenak eta geroaldia adierazten dutenak. Adizki perifrastikoen barruan, beren aldetik, aspektu ezberdinak gramalizatuta topatuko ditugu.

Oraineko adizki sintetiko hutsak:

1. orainaldia adierazten dutenak	132
2. futuroa adierazten dutenak (EGIN)	8
GUZTIRA	140

Oraineko adizki perifrastiko hutsak:

1. <TZEN> + IZAN-*EDUN	17
2. <TU> + JOAN-EROAN	21
3. <TU> + IZAN-*EDUN	9
4. <O> + EGIN	9
5. <TUKO> + IZAN-*EDUN	12
GUZTIRA	68

4. Gure lagineko adizkien sailkapena

Baina orohar, perpaus nagusietako adizkiak hartuko dira kontutan geroko azterketa sakonagorako, nahiz afijorik izan; eta bai Oraineko zein Iraganeko adizkiak. Iraganean, adibideen murrirtza dela eta, baita perpaus subordinatuetako adizkiak ere aipatuko dira, beren esanahia perpaus nagusietan delako adizkiek izaten duten esanahi berbera da eta. Horrela, adizki lagin bat hartuko dut hemendik aurrera, berarekin erosoago lan egiteko asmoz: 268 adizki guztira.

Beraz, Orainari dagokionez, (4c), (4d), (4g) eta (4h) adizkiak hartuko dira kontutan delako laginean; lehenengo hiru taldeetako adizkiak eta (4h)ko zenbait ere (8 adibide hain zuzen) «futuro» esanahia, (orokorrean), adierazten dutelarik. Iraganari dagokionez, eta lagina ahalik eta handiena izan dadin, adibide guztiak hartuko dira. Hortaz, ondo-koak dira gure azterketa sakonagorako kontutan hartuko ditugun adizkiak:

	4c	4d	4g	4h	Oraina	3.Iragana
<i>GU</i>						
adizki sintetikoak	5	5	11	140	161	10
adizki perifrastikoak	0	0	4	68	72	25
GUZTIRA					233	268

Oraina eta Iraganaren barruan, arestian egin dugunez, honako sail hauek bereiz litezke; bai adizki trinko nola perifrastikoetarako, eta esanahiaren ala formaren arabera, hurrenez hurren.

Orain sintetikoa:

orainaldiko esanahia 132
«futuro»ko esanahia $8 + 5 + 5 + 11 = 29$

161**Iragan sintetikoa:**

lehenaldi perfektiboko esanahia 8
lehenaldi inperfektiboko esanahia 2

10**Orain perifrastikoa:**

1. <TZEN> + IZAN/*EDUN 17
2. <TU> + JOAN/EROAN 21
3. <TU> + IZAN/*EDUN 9
4. <0> + *EDIN/EGIN (+ TE/KE) $9 + 4 = 13$
5. <TUKO> + IZAN/*EDUN 12

72

Iragan perifrastikoa:

6. <TZEN> + IZAN/*EDUN	0	
7. <TU> + JOAN/EROAN	0	
8. <TU> + IZAN/*EDUN	8	
9. <0> + *EDIN/*EZAN/EGIN	16	
10. <TUKO> + IZAN/*EDUN	1	25
GUZTIRA		268

7. Aditz klaseen araberako sailkapena1. *Aditz elkartu estatiboak:* (10 adibide)

NAHI, BEHAR, NAHIAGO, ATSEGINAGO, BIZI, ERRUKI, IGUIN, INARTSI, ON, (AHAL), (EZIN).

1.1. Adizki trinkoak: (8)

1.1.1. Oraina (6)

- a) orainaldi kontinuo
- b) habituala (generikoa)

1.1.3. Oraina + -AN (1)

- a) subjuntiboa

1.1.4. Oraina + TE (1)

- a) futuroa (generikoa)

1.2. Adizki perifrastikoak: (2)

1.2.5. Futuroa (2)

- a) futuroa (generikoa)

2. *Aditz trinko estatiboak:* (115 adibide)

IZAN, EGON, *EDUN, EDUKI, JAKIN, EZAGUN, ERITZI, IRUDI, (JARRAIN), (ENTZUN1), IKUSI, *IO.

2.1. Adizki trinkoak: (113)

2.1.1. Oraina (101)

- a) orainaldi kontinuo
- b) generikoa

2.1.2. Iragana (3)

- a) lehenaldi perfektiboa
- b) lehenaldi inperfektiboa

2.1.3. Oraina + -AN (2)

- a) futuroa

2.1.4. Oraina + KE/TE (7)

- a) futuroa
- b) generikoa

- 2.2. Adizki perifrastikoak: (2)
- 2.2.1. Orain estatiboa, <TU> (1)
- a) generikoa (orainaldia)
- 2.2.5. Futuroa (1)
- a) futuroa

3. *Mugimendu aditzak*: (32 adibide)

JOAN, EROAN, ETORRI, EKARRI, IBILI, ERABILI, IRAKIN.

- 3.1. Adizki trinkoak: (29)
- 3.1.1. Oraina (25)
- a) orinaldi kontinua
- b) orinaldi habituala
- c) generikoa
- 3.1.2. Iragana (3)
- a) lehenaldi perfektiboa
- 3.1.4. Oraina + KE (1)
- a) futuroa
- 3.2. Adizki perifrastikoak: (3)
- 3.2.1. Orain Inperfektiboa (1)
- a) orinaldi habituala
- 3.2.5. Futuroa (1)
- a) generikoa
- 3.2.8. Iragan Perfektoa (1)
- a) lehenaldi perfektiboa

4. *Aditz trinko ez-estatiboak*: (32 adibide)

EGIN, EMAN, *I, ESAN, (IGARO), IBINI, *EDIN, *IRATAN, ENTZUN₂.

- 4.1. Adizki trinkoak: (21)
- 4.1.1. Oraina (EGIN) (8)
- a) generikoa
- b) futuroa
- 4.1.2. Iragana (4)
- a) lehenaldi perfektiboa
- 4.1.3. Oraina + -AN (7)
- a) subjuntiboa
- b) futuroa
- 4.1.4. Oraina + KE (2)
- a) futuroa
- b) generikoa

- 4.2. Adizki perifrastikoak: (11)
- 4.2.1. Orain Inperfektiboa (3)
 - a) orainaldi kontinuo
 - b) orainaldi habituala (generikoa)
- 4.2.2. Orain Habituala (2)
 - a) orainaldi habituala
 - b) orainaldi kontinuatiboa-akumulatiboa
- 4.2.3. Orain Perfektoa (2)
 - a) perfektoa
- 4.2.4. Orain Perfektiboa [EGIN laguntzailea] (2)
 - a) futuroa
- 4.2.5. Futuroa (2)
 - a) futuroa
 - b) preskriptiboa

5. Aditz perifrastikoak («faibles»): (79 adibide)

- 5.2.1. Orain Inperfektiboa (13)
 - a) orainaldi kontinuo
 - b) orainaldi habituala
 - c) generikoa
- 5.2.2. Orain Habituala (19)
 - a) orainaldi habituala (generikoa)
 - b) orainaldi kontinuatiboa-akumulatiboa
 - c) generikoa
- 5.2.3. Orain Perfektoa (6)
 - a) perfektoa
- 5.2.4. Orain Perfektiboa (11)
 - i. EGIN laguntzailea
 - a) generikoa
 - b) futuroa
 - ii. laguntzailea (EGIN, *EKIN, *EDIN) + KE/TE
 - a) futuroa
 - b) generikoa
- 5.2.5. Futuroa (6)
 - a) futuroa
- 5.2.6. Iragan Inperfektiboa (0)
- 5.2.7. Iragan Habituala (0)
- 5.2.8. Iragan Perfektoa (7)
 - a) lehenaldi perfektiboa
 - b) pluskuanperfektoa ??
 - c) generikoa

- 5.2.9. Iragan Perfektiboa (16)
 a) lehenaldi perfektiboa
 b) generikoa
- 5.2.10. Iraganeko Futuroa (1)
 a) potentziala

8. Eranskina: adibideak

1. *NAHI tankerakoak.* (10 adibide)
- 1.1. Adizki trinkoak. (8 adibide)
- 1.1.1. RS 3, 40, 85, 112, 113, 540. (6)
 a) RS 40: «*Nayago dot "to" bat çe amavi "emon deyat"*»
 «Mas quiero "toma" uno que doze "te dare"»
 b) RS 3: «... auçooc vere *yguy daude* veti dabilena esque»
 «... los vezinos tambien aborrecen siempre al que anda pidiendo»
- 1.1.3. RS 334. (1)
 a) RS 334: «... ta *garea* vaquez *bizi*»
 «... y seamos con paz bivr»
- 1.1.4. RS 158. (1)
 a) RS 158: «Ezaun adi ta *ajate* ondo *bizi*»
 «Conocete, y seras de bien bivr»
- 1.2. Adizki perifrastikoak. (2 adibide)
- 1.2.5. RS 124, 430. (2)
 a) RS 124: «Asco badoc, asco *bearco doc*»
 «Si tienes mucho, mucho avras menester»
2. *IZAN tankerakoak.* (115 adibide)
- 2.1. Adizki trinkoak. (113 adibide)
- 2.1.1. (101)
 a) RS 1: «Adi adi ce jaun goycoa *dagoc* adi»
 «Mira con cuydado que el Señor de lo alto te esta mirando»
 b) RS 153: «Hon huarric ez *dau* ynoc bereçat...»
 «Consejo no tiene nayde para si...»
- 2.1.2. RS 244, 358, 419. (3)
 a) RS 419: «Perrau *neuen* gogoa...»
 «Hermitaño tuvo el pensamiento...»
 b) RS 244: «Onçoriçat *neuca*...»
 «Tenialo para no menester...»

- 2.1.3. RS 31, 240. (2)
 a) RS 31: «Ax adinhon ta axa hon»
 «Se acomodado y seras bueno»
- 2.1.4. RS 87, 187, 215, 290, 325, 375, 439. (7)
 a) RS 215: «Badaguic eguipidea ona *doquec* erioçea»
 «Si hazes lo que eres obligado, tendras buena muerte»
 b) RS 187: «Daquianac arçayten *daquique* emayten»
 «Quien sabe tomar sabra dar»
- 2.2. Adizki perifrastikoak. (2 adibide)
- 2.2.1. RS 433. (1)
 a) RS 433: «Ondasunac galdu azquero *dyra ezaun*»
 «Despues de perdidos los averes son conocidos»
- 2.2.5. RS 403. (1)
 a) RS 403: «... aec yndarsuen *yçango dira*»
 «... aquellos seran los mas fuertes»
3. JOAN tankerakoak. (32 adibide)
- 3.1. Adizki trinkoak. (29 adibide)
- 3.1.1. (25)
 a) RS 21: «Zitel zirola, noc gudura *aroa?*»
 «Pusilanimo çapatero, quien te lleva a la guerra?»
 b) RS 82: «Tacoc *deroat* dodana neure echerean çejara»
 «"Para" me lleva lo que tengo de mi casa al mercado»
 c) RS 472: «Hurac dacarrena hurac *daroa*»
 «El agua lo que trae el agua lo lleva»
- 3.1.2. RS 332, 332, 438. (3)
 a) RS 332: «Adiunça onean *nentorre* vaya ezer ez *necarre*»
 «En buena sazon vine mas no truxe nada»
- 3.1.4. RS 165. (1)
 a) RS 165: «... ylteco edo bicico gudura *goaquez*»
 «... para morir o bivar yremos a la guerra»
- 3.2. Adizki perifrastikoak. (3 adibide)
- 3.2.1. RS 48. (1)
 a) RS 48: «Farata asco calean audiaca *ebilten dira...*»
 «Muchas vanagloriosas en la calle suelen andar vendiendo autoridad...»
- 3.2.5. RS 316. (1)
 a) RS 316: «Andra guztioç erçeti *erabilico aude veti*»
 «Todas las mugeres te traeran siempre por la orilla»
- 3.2.8. RS 244. (1)
 a) RS 244: «... oparinac *eroa eusta*»
 «... llevomelo la necesidad»

4. EGIN tankerakoak. (32 adibide)

4.1. Adizki trinkoak. (21 adibide)

4.1.1. RS 33, 34, 116, 181, 407, 410, 427, 463 (8)

a) RS 34: «Zaran bat daguianac bi *day*»

«Quien hiziere un cesto hara dos»

b) RS 407: «*Bayt* aguindua ta ezertua»

«Hare lo mandado y lo que vedays»

4.1.2. RS 75, 263, 307, 358. (4)

a) RS 75: «Oparinac *nenguian* bearguin...»

«La necesidad me hizo obrero,...»

4.1.3. RS 99, 136, 174, 334, 422, 479, 525. (7)

a) RS 99: «*Daminda* sabela vetez vetez...»

«Ponga el vientre de lleno en lleno...»

b) RS 174: «... *diada* nesquea gajpaga»

«... dar te he la moça sin mal»

4.1.4. RS 233, 265. (2)

a) RS 265: «Ondo eguioc landerrari, layncoac *diquec* do-
nari»

«Haz bien al pobre, dar te ha Dios galardón»

b) RS 233: «Yquedac ta *diqueada*»

«Darasme y darte he»

4.2. Adizki perifrastikoak. (11 adibide)

4.2.1. RS 49, 220, 258. (3)

a) RS 49: «*Trancart eguiten deustac* ta ulerretan deustat»

«Engaño me hazes y te entiendo»

b) RS 220: «Iazquereac parrahua *eguite ez du*»

«El vestido al hermitaño no le haze»

RS 258: «Laster emayten dauenac birretan *emayten du*»

«Quien presto da, dos veces lo que tiene da»

4.2.2. RS 61, 238. (2)

a) RS 238: «Seyac danzuana escarazean esan *daroa* ataa-
tean»

«Lo que oye el niño en el fogar suele dezir en el portal»

b) RS 61: «Guichia guichia asco *eguin doa*»

«Poco a poco se haze mucho»

4.2.3. RS 67, 506. (2)

a) RS 67: «"Zuc, au"; "nic, au". Zozquereac *emon dau*»

«"Vos, esse"; "yo, este". Dado lo ha la suerte»

4.2.4. RS 18, 40. (2)

a) RS 40: «Nayago dot "to" bat çe amavi "emon deyat"»

«Mas quiero "toma" uno que doze "te dare"»

- 4.2.5. RS 13, 389. (2)
- a) RS 13: «Badeguioc yñori, *eyngo deusc* bestec yri»
«Si hazes a alguno, harate otro a ti»
 - b) RS 389: «Edo ydia edo beguia *emongo deustac*, ene eguia»
«O el buey o el ojo me has de dar, en mi verdad»

5. *Aditz perifrastikoak («faibles»)*

5.2. Adizki perifrastikoak. (79 adibide)

- 5.2.1. (13)
- a) RS 370: «*Yzpiçazen det* ayta ez ama dirudian abereaz»
«Reniego de la bestia que a su padre ni madre parece»
 - b) RS 352: «*Gax chipiac nau ycaraçen ...*»
«El mal pequeño me haze temblar ...»
 - c) RS 89: «*Osaylgo euria, erayten dituz* onçueriac»
«Pluvias de Hebrero, Mata a los logreros»
- 5.2.2. (19)
- a) RS 481: «*Zenzun equarria estoa sartu* buruan»
«Juyzio traydo no suele entrar en cabeça»
 - b) RS 94: «*Dindica murcoa betatu doa*»
«Gota a gota se henche el cantaro»
 - c) RS 229: «*Leorrear artu ez doa* arrancaria»
«En lo seco no se toma la trucha»
- 5.2.3. RS 300, 329, 329, 396, 517, 519. (6)
- a) RS 329: «*Doguna jan dogu* ta arlot *gara biortu*»
«Lo que tenemos hemos comido y nos hemos buelto pobres»
- 5.2.4. (11)
- i. RS 178, 227, 227, 252, 336, 385, 452. (7)
 - a) RS 385: «*Arrien ganean jarri dina ypirdian atera day* mina»
«Quien se sentare sobre piedra en el culo sacara dolor»
 - b) RS 227: «*... yl aye, ta yre erallea yl daye*»
«... matar te han y a tu matador mataran»
 - ii. RS 136, 251, 394, 462. (4)
 - a) RS 394: «*Echun ayte afalzaga ta jagui aite* zorbaga»
«Acuestate sin çena y levantar te has sin deuda»
 - b) RS 251: «*Uzqur baquio ecachari, senda aqui que* eguz-
quiari»
«Si te agachas a la tempestad, al Sol te robusteceras»
- 5.2.5. RS 25, 57, 144, 208, 212, 424. (6)
- a) RS 212: «*Beste gauza ençunic ta ecusiric ylgo gara*»
«Moriremos vistas y oydas otras cosas»

- 5.2.8. RS 228, 343, 343, 345, 364, 513, 526. (7)
- a) RS 228: «Matrazu orrec *hurte ez eban* carcaj orretarean»
«Esse birote no salio de essa aljaba»
- b) RS 513: «Eznea, guria ta odola errorean *atera neban*,
ta ezer yrabaci ez neçan ta ene beychua gal nezan»
«Leche, manteca y sangre saque de la teta, y nada no
gane y perdi mi vaquilla»
- c) RS 345: «Osoac vere araguirean *jan ez euan*»
«El lobo de su carne no comio»
- 5.2.9. (16)
- a) RS 167: «Erioac *ereçan* Butroeco alabea Plencian»
«El tartago mato a la hija de Butron en Plencia
RS 294: «*laygui cidi* naguia *erra cizan* uria»
«Levantose el perezoso y quemó la villa»
- b) RS 486: «çartegua *bior cidi* jayparrira»
«La vejez bolvióse al nuevo nacimiento»
- 5.2.10. RS 557. (1)
- a) RS 557: «Ene laba aldian labea *jausico zan*»

9. Erreferentziak

- ALDAI. 1994. «Euskal aditz sistema zaharraz: aspektu oposaketatik modu oposaketara», *Enseiukarreen* 10. 67-82. Deustuko Unibertsitatea.
- BYBEE, PERKINS & PAGLIUCA. 1994. *The Evolution of Grammar*. University of Chicago.
- COMRIE. 1976. *Aspect*. Cambridge University.
- DAHL. 1985. *Tense and Aspect Systems*. Basil Blackwell.
- GOILO. 1969. *Papiamentu textbook*. De Wit, Aruba.
- IRIGOIEN (ed). 1975. «Refranes y Sentencias», *La Gran Enciclopedia Vasca* 10. 615-682. (ed. facsimil). Hitzaurrea: Irigoien
- LAFON. 1943. *Le Système du Verbe Basque au XVI siècle*. Elkar.
- LIGHTFOOT. 1975. *Natural Logic & the Greek Moods*. Mouton.
- TXILLARDEGI. 1978. *Euskal Gramatika*. Ediciones Vascas.
- URKIUO (ed). 1964, 1967. *Refranero Vasco: Los Refranes y Sentencias de 1596*. Col. Auñamendi n.º 40 & 55. (ed. amaitugabekoa). Hitzaurrea: Mitxelena.



Zenbait sinbolo Gandiagaren *Elorri*-n

Joan Otaegi

Lehendik ere begiratu bat emana diogu sinboloari Bitoriano Gandiagaren lehen poema liburu honetan¹; baina orduan *elorriaren* sinboloa genuen azterketa gai. Oraingoan beste zenbait sinbolo aztertu nahi ditugu.

Bitoriano Gandiagak Donostian bere obraz emandako hitzaldian esaten digunez², *Elorri poema liburuan* «deskribapen diren natur fenomenoak sentimenduen zerbitzutan» daude. Ageri zaigun irudia harantzagoko esanahi baten adierazle gisa dator. Izan ere, hitza bera barne somamenen itzala duen bezala, edo artile xorta galduaren antzeko —berak darabiltzan irudiez baliatzeko—, edota eguzkiaren sua adierazi nahi lukeen laino artetik datorren baden ez deneko argi printza, halaxe hitzean eraiki duen sinbolo irudia —*elorriaz* gainera edozein dela ere— poetaren izpirituaren tolesturetan agertzen zaigun munduaren adierazle da.

Gandiagaren liburu honek batez ere, *Elorri*-k, sinbolismoaren giroko baliabiderik asko erakusten digu. Eta merezi luke gure olerkariaren poetikak zein bide egin duen ikertzerakoan Gandiagak obra honetan darabiltzan beste sinbolo hauek ere gogotan hartzea.

Beharbada ongarrri izango zaigu gogoratzea, sinbolismoaz ari garenean poemaren gorputza bere betean edo jasotzen duen egituraz ari garela, ez aipamen huts den edo iraizean gauzatzen den sinboloaz, ez eta sinbolo estereotipatuaz, edota historian zehar gorputza hartu duenarik nolabait fosilizatua eskaintzen zaigun sinboloaz.

Bestalde, Bitoriano Gandiagak sorkuntza literarioari ekin dionean abiapuntu literarioak izan ditu buruan, eta *Elorri* poema liburuan ager-

¹ Otaegi, Joan, «Sinboloa Gandiagaren *Elorri*-n», *Enseiukarreen* 11 (1995) 157-176. orr.

² GANDIAGA, Bitoriano, «Neure obraz», *Hegats* 4 (1991) 207-217. orr.

tu digun mundu poetikoak, sinbolismoaz baliatuz, autorearen niaz gainera bere garaiko gizakiaren sentimen, tirabira, lorpen eta huts egiteak eskaintzen dizkigu. Hala dio Gandiagak berak bere obraz hitzegiten duela:

«...Elorri-ko ni-a, ni-neu baino zabalagoa da: gizateria izateraino-koa, baina ez abstraktuki hartua, neugan errotua eta pertsonatua baino. Eta, beraz, denbora guzti haren ni-a»³

Elorriaren sinboloaz baliatu nahiz bestez —artikulu honetan beste sinbolo horiez ari gara—, ni poetikoak gizateriaren izaria jasotzen du beragan. Beraz, axola handiko izan liteke zernolako ikuspegia gauzatzten den *Elorri* liburuko poematan aztertzea.

1. Euria-ura sinbolo

Nahiz eta euri-uraren motibo gainean eraikiak zenbait poema badi- ren —hala: 41, 42, 43, 44 poemak—, ez dira guztiak sinboloaren ana- logiazko korrespondentziaren arabera egituratuak. Guk, abiapuntutzat, antologia batera eramateko modukoa den 44garren olerkia hartuko dugu. Berorretan sinboloaren bikoiztasunaz gainera, hots sinbolismoa- ren jokoa interesgarria da.

Lehenengo itoginaren euri tantaren erorkeraz baliatzen da idazlea; horrek zorua jotzerakoan ateratzen duen soinuaz eta lurra kolpatzean jauzi egin eta sortzen duen irudia zaio begiko olerkariari.

Poema hiru estrofatan banatua dago. Lehen estrofa eta erdian ito- ginaren hots sinbolismozko eta krabelinaren irudizko deskribzioa eskain- tzen digu poetak.

«...T'EURIA.
T'ozkirri ta argia
itogin-zarata
saltari ta alaia,
klastroko patio
barru ta gordean,
arra t'erdi luze
edo krabeliña
zuri bat jagia.
...T,euria.» [44,1-10]

³ Ibid. 209. or.

Baina beste ahapaldi eta erdi bigarren planoan gauzatuak datoz; hau da, olerkariaren barne izpirituaren bizitzaren irudira garamatza. Sinbolizatzailea, beraz, itogin eroriak egiten duen zarata eta krabelin irudiak dira; eta sinbolizatua —gurarien perspektiban gauzatua poema honetan— olerkariak bere izpirituan gorputz hartua ikusi nahi lukeen loratzea:

«.....
kanpoan baiño be
ariman ba-litza
arra t'erdi luze
edo krabeliña
zuri bat jagia.
...T'euria.» [44,15-20]

Guk hemen jaso ez badugu ere, bigarren ahapaldiko lehen zatian, eta horren parez, hirugarren estrofako erdigunean ageri den «beti lez» motibo hori, poetaren nahiaren adierazpide nabarmena da.

Irudiak eta eduki semantikoak bi eremutara ekarriak dira korrespondentzia analogikoak ñabardura hainbat batera jasotzen dituela. «krabeliña / zuri bat jagia» errealtatearen deskribioa da batetik eta izpirituaren loratze irrikatua bestetik. «...beti lez / betiko beti lez,» errealtatearen deskribioa da; baina, era berean, «beti lez, alaia, / beti lez, barruan» poetaren izpirituan etengabe somatua nahi litzatekeen loratze pozgarriaren irudia. Oraindik ere, «arra t'erdi luze / ... jagia» bi eremuak adierazpide eta irudi berean jasoak direlarik, poetak bere izpiritua jaikia nahi luke ikusi. Areago, «itogin-zarata / saltari ta alaia» ikusi / somatu egin ditu poetak mundu errealean eta izpiritu barnean. Bestalde, «...krabeliña / zuri bat...» ikusten du batetik eta somatu nahi luke bere animan bestetik. Zenbat osagaiaren korrespondentzia analogikoa somatu duen Gandiagak eta zein ñabarduratan gauzatua eman digun!

Bestalde, hots sinbolismoa nabarmenki adierazia utzi du poemaren izenburuan eta estrofa amaierako «T'euria» horretan; baina, aldi berean, oihartzun gisa jaso izan da olerkiaren ibili guztian *t* fonemaren etengabeko aliterazio bidez. Hemen ere bi eremuak jasotzen ditu baliabide poetikoak: errealtatearen deskribioa eta poetaren nahien munda.

Aurreko poema hori antologietan jartzeko modukoa bada ere, ez ditugu guztiak horren konplexu eta aberatsak. Askoz soilagoa da, esaterako, «EURIA txara-txara» dioena, 43garrena. Euria badator leun eta suabe zuhaitzaren orrietan behera, guztia bere umeltasunaz hartzen

duela. Izadia bera eta bereziki euria Asisko Franziskoren begiaz ikusia da «arreatxua, aratz»:

«EURIA txara-txara.
-xar-xar-ots motel bat-
Zeruan jaiotako
arreatxua, aratz,
zugaitz-ostroen eta
bedarren ganerantz.
Euria, txara-txara,
arratsalde erdirantz.» [43,1-8]

Lehen zati hau, sinbolizatzaileari dagokiona, benetan soila da. Poetak jarrera eta begirada xarmanta ageri digu, sotila. Ez gauza handiak, xumeak baizik egiten du poemaren edukia. Hori da Gandiaga poetaren ezaugarrietako bat, berak aitortu digunez⁴.

Eta motibo bera bigarren eremura eramanez, sinbolizatzailean zuhaitzaren hostraje guztia leunkiro ukitu eta igurtziz lurrera datorrena, sinbolizatuan poetak berak somatuko du bere burua euriak ukitua eta igurtzia maitasunezko leunduraz:

«.....
bidean aurkitu nau
arrea garbiak.
kolkoraino sartu jat.
Maite nau euriak!» [43,13-16]

Poema xumea zalantzarik gabe, baina maite giroz betea. Poetaren sentiberatasuna hedatua da bere izate guztian, poemarenean esan nahi da. Kontenplatazailer sentibera da Gandiaga. Sentsazioen osagaiak hitz gutxi, baina semantikaz betetakoak datozkigu irakurleoi. Ukimenaren leuna dastatu du olerkariak eta irakurleoi ere somarazi egiten digu. «...T'EURIA» poemaren kontenplatazailer izanaz gainera, egarrien munduan murgildurik ageri da poeta, bere izpirituaren loratzea nahi lukeelarik. «EURIA» olerkian, berriz, pozez eta baketsu ageri da olerkaria, zuhaitz orrietan barrena leun-leun datorren euria autoreak gorputzean beheara somatzean halako komunioa sentitzen du izadiarekin berarekin.

Hemen aipatu ditugun bi olerki hauetan poetaren izpiritua —eta beraz gizakiaren izpiritua— bere gurari sotil eta lorpen baketsuetan murgildua agertu bada ere, ez da beti horrela, gizakia bera ez denez

⁴ Ibid., 209. or.

beti horrela. Ondoren aipatzen dugun olerkian, 130garrean, besterik da autorearen sentimendua: estu eta larri somatzen du irakurleak poeta. Bizitzaren aztura eta ezintasunak sakonki saminduko du haren izpiritua. Gandiagak 130garren olerkian sinbolizazio bide, hain zuzen, «zurrunbillo»a hartu du. Olerkariaren izpirituaren egoeraren sinbolizatzaile egokia, izan ere, narratzaile poetikoaren izpiritua erabat nahasia somatzen da olerkian. Horra, bada, sinbolizatua. Berrito ere analogia garbian oinarrituz datorkigu Gandiaga:

«UREN zurrunbillo
nabar bat legezko
aldiak narabil,
ta, barrena, zoro.» [130,1-4]

Zurrunbiloan urek erakusten duten nahasmenduaz gainera, ur nahasi horien indar eramailea da azpimarratua batetik, eta bestetik, uren kolore arrea. Sinbolizatzailea hori delarik, sinbolizatua, poetaren izpiritua, eramana eta nahasmenduan zoro ageri da.

Egoera horretan estrofaz kanpo datorren bertso lerro bakarrak olerkariaren egoera urdurian jarriarazten du arreta. Goiko bertsoan aurkeztu duen sinbolizazio guztia lerro batean bildu du eta hurrengo bertsoaren edukiarri abiabidea ematen dio.

Bigarren ahapaldiak sinbolizatuan du edukia. Narratzaile poetikoa gurarien borrokan itxaropenik gabe aurkitzen da; egoera hori, literatura munduko sinboloaz baliatuz -«nire itxaropena, / izarra bailitzan» [130,8-9], eskura ezinezko oreka bezala ageri da. Izan ere, «izarra bailitzan» esapidea olerkariak galdua duen itxaropenaren irudi tipikoa baita.

Egoera berri honen ondorioz poetaren jarrera sinbolizatzaile berri baten bidez adierazia dator poemaren bigarren estrofaren ondoko bertso lerro soltean. Hau ere ezintasunaren adierazpide da, gizakiak ezintasunaren aurrean bizi duen antsiaren sinbolizatzaile: «Aizeak intziri» [130,10]. Izarraren sinboloz adierazi duen ezin eskuratuzko orekaren aurrean antsiaka ageri da poeta.

Kontatzaile poetikoa, olerki honetan beti lehen pertsonan ari dena, berrito ere, hasierako sinbolizatzaile dator. Galdua du aurreko egoera argia bere izpiritua zurrunbiloak nahastu duenez gero, eta nahasmena jabetu da bere buruaz. Berrito ere poemaren hasierako egoerara dator, beste esapidez, baina oinarritzko eduki berera, sinbolizatzailea irudi berriz adieraziz, ordea:

«Ez naz leenagoko
zalantza gabeko
potingo argia.
Lur ta minez nago.» [130,11-14]

Lehen ahapaldian baieztapenez adierazia, hemen ezeztapenez ematen zaigu batetik, bestetik, ezeztapen horren barruan, «uren zurrunbillo»aren kontrajarria dagoen «potingo argia» —horra sinbolo beraren barruan irudi berria—. Zurrunbilo egoerara etorri aurreko egoera baketsua argitasunaren semaz eta txikitasunaren semaz —ur putzu txikiaren irudiz— adierazia dator. Jarraian, baieztapenez oraingoan, «Lur ta minez nago»; hasierako «nabar» hark adierazten zuen ur arre —egoera ilun— hura, poetak berriro jaso du «Lur» horretan. Azken lerro honen bidez, bestalde, sakonerako urrats berria eman du: poeta minez dago. Eta bertsoz kanpoko lerroan hirugarren estrofa horretan esana jasoaz gainera, pauso berria ematen da: «Bake dena zati» [130,15].

Azpimarragarria da, hain zuzen, bertso lerro bakar hauetan ematen zaigun olerkiaren eraikieraren zutabe bakoitza: «urduri» > «intziri» > «dena zati» > «zarraski» > «larri» > «Jainkoa geldi». Azkenekoak ezik beste guztiek olerkariaren sentimendu egoera itogarria adierazten digute; azkenekoan, berriz, narratzaile poetikoaren egoera larri horren aurrean beronek somatzen duen Jainkoaren jarrera urruna.

Laugarren ahapaldian narratzaile poetikoa nahasmenaren zurrunbilotik irten nahiez dabil; baina nondik eta norakorik gabe. Berriro ere zoramenaren irudia ekarri du bidera egoerak indartsu eramana dela adierazteko: «zorabio». Eta irten nahia adierazteko, berriz, «arnasa» hartu nahiaren irudia. Sinbolizatzailearen semantika alde berriak agertzen ari den neurrian sinbolizatua ere sakontzen doa. Hala, noraezeko egoera larri horretan «Biotza zarraski» —hondatua, desegina, alegia—, berriro ere bertso lerro soltean esaten zaigunez.

Bostgarren ahapaldian narratzaile poetikoaren nahasmena, jadanik hondamendia dena, larrian gora doa, hersturaren jasan ezinera bai bertsoan eta bai lerro soltean. Bostgarren bertso lehen bi lerrotan sinbolizatzailea bere gailurrera dator zurrunbiloaren bira irenkorra eta haren orroa deskribatzen baititu poetak. Sinbolizatuan, berriz, itolarria eta beldur galkorra nabarmentzen ditu:

«Bira naasi dago,
amorru ta orro.
lto-urre, nigan,
beldurkor ta gaizto.» [130,21-24]

Antsia eta larria goi erpinera datoz. Poetak bere izpirituaren borrokaren estua sinbolizazio indartsuz eta korrespondentzia analogikoa pare-parean eramanez egoeraren gailurra jo duela esan genezake. Ho-

rixer berori jasotzen digu lerro soltean, somatzen den estuasunari esapide egokiz adierazpidea emanez: «Estuasun larri» [130,25].

Poetak seigarren ahapaldian bere izpirituaren gainbehera deskribatzen du, sinbolizatuan indar egin eta sinbolizatzailearen irudiaz behin berriz baliatuz: poeta, uren zurrunbiloak igerilaria bezala, bere nahasmen eta larrian, nekeak eta ezinak abaildurik daramaten antzera, azpirantza doa:

«Nekeak auldurik
ondatu bat letxik,
azpirantza noa,
ez karraxi barik.» [130,26-29]

Azken bertso lerroa poema guztiaren kontrapuntu gisa dator. Eramana eta larrian galdua sentitzen den poetak «karraxi»a jotzen du, bere protesta bezala. Hain zuzen, azken lerro solteak protesta karraxi horren edukia dakar: «Ta, Jainkoa, geldi» [130,30]. Zurrunbiloak orroa jotzen duen bezala poetak karraxia jotzen du. Korrespondentzia analogikoa olerkiaren gorputz guztia hartuz datorren egitura da; berorren zain eta mami.

Gandiagaren *Elorri*-ko poemagintzak mundu bukolikoa baizik ez dakarrela uste duenak ez du poemategi hori behar bezala irakurri. Gizakiaren bizitzan gozamena eta poza diren bezala oinazea eta samina baitira, ez abstraktuki, bizi-bizian baino; eta Gandiagak bere poemagintza ez baitu fikzio eta engainuan eraiki nahi izan, bizitzaren sakonean eta olerkiaren magian baizik, poeta beraren, gizakiaren eta kosmosaren poza eta drama eskaini ditu eraiki duen mundu poetikoan. Berak poemagintza honetan hartu duen oinarrizko sinboloaren arabera: lore eta arantza. Bi alderdi horiek ondo nabarmenduak utzi ditu «EURIA» eta «UREN zurrunbillo» olerkien bitartez.

2. Udagoena-negua-arratsa sinbolo

Ilunabarra eta udazkena bizitzaren joanaren sinbolizatzaile dira sarri mundu poetikoan. Literatura orokorrak askotan erabili baditu, ez gutxiago euskal literaturak. Horren testigu argia da, noski, Gandiagak berak jaso duen ondare poetikoa. Izan ere, bere aurretik idatzi zuen Salvatore Mitxelenak *Arantzazu* poema eta beronen hirugarren zatian, esaterako, irudi garrantzitsua da ilunabarrarena. Azken batean heriotzaren edota heriotz zoriaren sinbolo nagusi izan da askotan. Salvatore Mitxelena deiadar hori jotzeko baliatu bada ere, ez du horrela jokatu

Gandiagak. Honek ikuskera konplexuagoa, nahi bada orekatuagoa, eskaini du ilunabarrari eta udazkenari buruz. Bion ikuskera koloretsua eta bizitzaren gezamina gehiago ikusi ditu Gandiagak denboraren eta bizitzaren joate dramatiko bano.

Dena den, udazkena, negua eta ilunabarra sarri agertzen dira gai nagusiago baten barne giroan txertaturik *Elorri* liburuko poemetan. Hemen, ordea, poema osoaren egiturari gorputz ematen dioten sinboloei eman nahi genieke begirada bat, laburra bada ere. Une honetan gogoan ditugu udazken-arratsaren sinboloaren argitan gauzatuak dauden zenbait poema. Hauek, alegia: 20, 135, 175, 176, 177, 178.

Har dezagun 177garrena. Beste poema askotan ez bezala, «ARRATSALDEAK...» poeman —olerki laburra, hiru ahapalditakoa— lehen ahapalditik adieraziak dauzkagu sinbolizatzailea eta sinbolizatua: arratsaldeak eta udazkenak olerkariaren gogoan giro gazi-goizan jartzan dute aldi berean.

Bi errealtateak —bai arratsa bai udazkena— aipamen esanahitsuz baina xumez, jartzen dizkigu aurrean Gandiagak. Bakoitzasun hori, ordea, paraleloki olerkariaren izpirituaren egoera bakoitzaz lotua dago sinbolizatzaile eta sinbolizatuaren gorpila bimenbrazioz betetzen delarik:

«ARRATSALDEAK egunero ta
Udagoenak urtero,
ipinten dabe nire arima,
batera gazi ta gozo.» [177,1-4]

Denboraren ikuskera bi dimentsiotan, egunaren eta urtearen gurpilean, eta olerkariaren izpiritua bi sentimendu kontrajarrien gatazkan jartzen ditu Gandiagak. Ikuskera hau ez da autorearengan poema honetako ikuskera bakarrik; bere munduaren eta gizakiaren ikuskera orokorra da hori eta *Elorri*-ko poemagintza guztian etengabe agertzen dena. Gizakia da halakoxea: sinbolizatua; eta kosmosa bera ageri zaigu tankera horretara: sinbolizatzailea. Bi izariduna da aldi berean Gandiagak gauzatu duen poemagintza.

Bigarren ahapaldian arratsaldeko ilunabarraren deskribzioa egiten du, aurreko estrofan lehenen aipatu osagaia, arratsa, deskribatuz; hori ere ikuskera bikoitzez: batetik argitasunaren perspektiban —beraz, presentzian, nolabait esateko—, eta bestetik galtzearen, joanaren perspektiban:

«Urregorritzko laiño argi bat.
Bide bat urruneraiño.
Argi ondarrak, Sarkalderantza,
ume zurtz geldi orduko.» [177,5-8]

Zehazki sinbolizatzailearen deskribzioa bada ere, sinbolizatua iradokia dago, sakonki iradokia gainera «bide», «ume zurtz» metafora horien bitartez. Lehenengo ahapaldiaren ondorioz polisemian oretuak dira arratsari dagozkion bertso lerro horiek. Mundu iradokiorra osagai anitzez emana dago lauko handi honetan: lainoaren urreztadura, bidearen luzea —han urrunean galtzera bailioan—, argiaren azken izpiak —galtzera doazenak—, zeinak ezkutatzera doazen, noren eskutik izanari eutsi ez dutela geratu baino lehen: «ume zurtz geldi orduko».

Hirugarren ahapaldian, berriz, udazkenaren deskribzioaz batera, eta deskribzioa bezainbat eta gehiago sinbolizatua marraztu du poetak. Beti ere, labur eta iradokizun mundura zabaldurik. Lehen estrofan bezala hirugarrenean bi errealtateen aipamen iradokiorra dakar, sinbolizatzaile bikoitza alegia, lehen bi bertso lerroetan; eta azken bi bertso lerroetan, lehen estrofako modura, sinbolizatua. Lehen estrofan arratsaldea lehenengo, gero ilunabarra; baina beti ere deskribzio osagai berri eta iradokiorrez jantzirik:

«Zugaitzen orri oriak,
Aize morea, baltzago.» [CLXXVII,9-10]

Izadiaren heriotza deskribatzen du lehen irudiak, udazkenekoa. Iluntasunaz adierazten du heriotzarako bidea: horia zena, «illun» —badirudi gainera, urtaroaren biluztura egunaren gauetzatzeaz jantzia datorrela hemen, *ilun* adjetiboak bai udazkeneko izadia bai arratsa deskribatzen dituela—. Arratsak dakarren laino eta zero zolaren urregorrituaren moretzea iradokia da eta irudi bidez esana bestalde, ez baitu zero zola moretzeat ematen, haizea baizik. Beraz, zeharka, zero zola, adjetiboaren desbideratzea gauzatuz bi izariak jasotzen dituela, anbiguotasuna jasoz. «Aize morea, baltzago» bertso lerro honek egunaren behera bidea adierazten du, batez ere *more* adjetiboaren indarrez. Udazkenaren paraleloki dator hemen egunaren joana. Hau, berriz, konparazioz jantzia datorren «baltzago» adjetiboaz indartua. Hori, more mundu hori beltzera dator: ilun, beltz. Nahiz ilunabarra nahiz udazkena biak ere heriotz unera. Sinbolizatua, lehen estrofan «gazi ta gozo» egoeran ikusia, azken ahapaldian ahalmena galdurik eta noraezean somatzen dugu:

«Ego gabeko nire joranak
nai ez dakian bat dauko.» [CLXXVII,11-12]

Poetaren izpiritua hegan egiteko ahalmenez gabetua ageri da bate-tik, eta bestetik, nolako nahi eta joranak daraman ez dakiela. Bizitzaren halabeharrak eramana bezala, timoia galdu duenaren antzera. Bere bu-ruaren jabetasuna galdu duelarik.

Gaia ez da, noski, berria; literaturan etengabe gertatu ohi den bezala, atzo-herenegungo gai berak gaur-bihar erabiliak dira; baina autore bakoitzak ikuskera eta ñabardura nahiz poetika baliabide ezberdinez hornituak.

Aurreko olerkian «gazi ta gozo» zena, hurrengoan, 178garrenean, «SAMIN gozo bat» izango da. Zalantzarik gabe poema honetan ere udazkena da sinbolizatzailea; ez, ordea, besterik gabe. Udazkenaren ezaugarri bat baizik: hostrajearen erortzea. Hostoak joan ahala poetaren bizitzaren zerbait doa. Horra sinbolizatzaile-sinbolizatuak.

Hemen ere olerkariaren sentimenduen bikoiztasuna nabarmentzen da; aurreko poeman bi adjetiboen bitartez gauzatua zen: gazi-gozo; oraingoan sintagma bat beraren bi osagai kontrajarrien bitartez emana: «Samin gozo bat», oximoron jokoaren bidez gauzatua:

«SAMIN gozo bat daroat,
orixkea ta xamurra.
Samin gozo bat daroat edo
ostro laztanen agurra.» [178,1-4]

Olerkariak lehen unetik aitortu du sinbolizatuak: poeta beraren sentimendu kontrajarriak, oximoroaz baliatuz emanak jadanik esana dugunez. Bestetik, aitorten horretan berean ikusten da zerk daragion «samin gozo» hori: «ostro laztanen agurra»k. Baina hori baino lehen, «samin gozo»a kalifikatzerakoan, «orixkea» adjetiboa eman du bigarren bertso leerroan. Beraz, zalantzarik ez da, sinbolizatzaile-sinbolizatuak biak batera datoz. Izan ere, hori kolorea udazkenari baitagokio, eta zehazki udazkenean hostrajeak hartzen duen koloreari. Sinbolizazioa, hain zuzen, adjetibo desbideratu horren bidez gauzatua da; «orixkea» hostrajea baita eta ez olerkariaren samina. Hemen, berriz, poetak bere samina kalifikatu du «orixkea». Testua polisemiaz hornitua gauzatu du Gandiagak. «Xamurra» adjetiboa, berriz, ukimen-dastamenei legokieke; hasierako sintagma guneari kontrajarria dator oximorona indartuz, eta, aldi berean, «orixkea» adjetiboarekin kontrajarria letorke semantika aldetik, «orixkea»k oinarrian bizitzaren joana eta nolabait heriotza iradokitzen digunez gero.

Lehen ahapaldiaren bigarren zatian bezala, bigarren estroforen lehen zatian sinbolizatzailea errepikatzen da, eta ñabardura berriz hornitzen: udaberrian etorririk orain doazenek sortu min gozoa du olerkariak:

«Ostro laztanen agurra:
eratziz doazanena...
Udabarrian ernetzen pozik
ikusit nebazanena.» [178,5-8]

Azkenik, udaberrian etortzen somatutako orrien zuhaitzetatik erauzi eta joan doazenen samina, azken bertso murriztuan zehaztua uzten digu zer-nolako eta noizko samina den:

«Udagoengoa.
Ostroen agur maite
ixil ta maltsoa» [178,10-12]

Poema honetako adjetiboen semantika edukiek olerkariaren mundu ikuskera maitekor eta barea eskaintzen digute. Sentimenduen kontra-jariaren barruan ere, etsipenaren ukitu uxa ezinaren ondoan ere, poetaren izpirituaren bakea nabari da olerkian.

«Ostro laztanen agurra» > «Ostroen agur maite» bihurtzera dator. Maitagarri zirenek joate maitagarria egiten dute. Bizitzaren joana bera maitagarri egiten diote olerkariari. Areago amaierako bi adjetiboen bidez: agur isila baita, agur mantsoa. Hemen ere, izadiaren, bai eta giza bizitzaren ikuskera baketsua eskaintzen digu poetak.

Bi poema hauen alderantziz, 176garrenean, sinbolizatzailea eta sinbolizatua isilean iradokia, edo printza apurretan gauzatua ikusten da:

«ZUGAITZIK zugaitz begiok.
Agur-barrenez adia
Gorputza nekez, arima naiez...
Urki kolorez ibaia.» [176,1-4]

Olerkaria udazkenez bere inguruari begira dago eta, izadiaren ikuspegiarekin bat eginik, aldi berean, bere barne sentipenei arreta egiten die. Lehen ahapaldi honetan dator agerian sinbolizatua, gutxiago sinbolizatzailea. Denboraren eta bizitzaren joanak arduratzen du olerkaria. Hurrengo bi estrofatan sinbolizatzailea deskribatzen du:

«Orlegi, ori, beilllegi,
laru, gorri, uger, dardar...,
orriak azken garretan dagoz
udagoengo urretan.» [176,5-8]

Koloreak erreskadan jarri ditu Gandiagak; guztiak udazkeneko orrien lehortze bidetako koloreak; gainbehera mailakatuaren ñabardurak dakartza kolore zerrondapen honek: bizitza gordinean azaltzen duenean hasi eta lehorte heriotza dakarren zuhaitzetik askatzeraino-koan.

Sentimenduz eta adierazpidez zehazkiago eta beltzago ageri zai-
gu poeta 175garrenean. Negu gorrian, bakarrik ikusten du bere izpiri-
tua:

«MUKER ta astiro, zidorretatik,
nire arima,
bakarrik,
bere betiko joran morea
ezin eroanik.» [175,1-5]

Narratzaile poetikoak bere burua atzeraka eta zinean ikusten du,
bide estuz eta laguntzarik gabe. Bere antsia eta nahiak beregain ezin
harturik. Sinbolizatua jarri du aurretik oraingoan Gandiagak. Poetaren
izpiritua eroria ageri da; abaildura hori azpimarratzeko *more* adjetiboa
erabili du. Adjetibo desbideratua da kasuan, gauzen koloreari dago-
kiona giza izpirituaren egoera deskribatzeko erabilia izan baita. Ondo-
renean, bigarren ahapaldian, sinbolizatzailea gauzatu du autoreak:

«Zugaitz gorriak, neguko aizez.
Baso ta landak, otzgarri.
Txoriak ixil. Bide bustian
pau suon otsa, nabarki.» [175,6-9]

Lehen ahapaldian narratzaile poetikoak bere izpirituan somatu
duena, orain bigarrenean somatzen duenaren errainu da: inguru ho-
tza, bakardadea, isiltasuna eta giro horretako norberaren pausoen
hots nabarmena. Poeta erne dago bere inguruan gertatzen den guz-
tia izpirituan jasotzeko. Gehiago, harekin txerta-txerta eginik ageri da,
sinbiosia batean, sentipen hitsetan, gauzek berek dakarten honda-
mendia bere eginik. Hala aitortzen du poetak berak hirugarren aha-
paldian:

«Sentipen itsa, parajeko min
guztia guri leukela,
edaten doa gauzen zarraski
unkigarri ta zabala.» [175,10-13]

Bizitzaren gainbehera zenbait poematan Gandiagak nola ikusten
duen aztarnak hartzeko haina badela uste dut zati honetan esan dena,
eta bizitzaren behetik gorakoari nola begiratzen dion une batez ikus
dezagun.

3. Eguzkiaren ernealdia-goiza-eguna sinbolo

Poetak lorea somatzen du eguzkiari mun eman nahi diola, eta olerkariak berak bere burua eguzki edo oldar berri batek eragina ikusten du, bere barrua argiduna somatzen du. Sarri ohi duen bezala, olerkariak lorea pertsonifikaturik dakar; halakoari dagozkion gurariak ditu:

«LORE-BURU lorea
ezpan gosez dago
eguzki ederrari
mosu emoteko.» [25,1-4]

Bigarren ahapaldian aurrekoa bildurik: lorearen legea berezkoa baita, harenera egon behar dela esan eta gero, goizaren irudi pertsonifikatua eraikitzen du: «Maitea ba-dator» [25,18]. Beraz, poema honetan ere bi sinbolizatzaile ditugu: lorea eta goiza. Sinbolizatua bat, ordea, eta bera azken bertsoan olerkariak berak hitza hartu eta amari zuzentzen diola adierazten duena: olerkariaren barne sentimendu maitekorra.

«Eguzki bat daroat,
biotzean, ama.
Eguzki bat edo oldar
barri ta argiduna.» [25,9-12]

Eguzkiaren irudiaz azken bertso lerroan aipatzen duen barne indarra adierazi nahi du: «...oldar / barri ta argiduna». Poetak beraz, loreburuak duen sentimendu bera du; badirudi, halaber, molde berean adierazi nahi lukeela bere barne sentimendua.

Esate labur eta soilaren bidez maiz askotan adierazia ikusi dugu Gandiagaren eskutik bere mundu poetikoa. Sinbolizazio eta magia giroan emana da 132garren poema. Bizitzaren joan-etorriak adierazten ditu lau bertso lerro xumetan:

«EGUN-SENTIAK ekarri nindun
gabak eroan nengian.
Illargiari saldu naiako
nire ardura dagian.» [132,1-4]

Batetik egunsentiaren eta gauaren irudi tipikoaz baliatu da, egunsentia eta gaua antonomasiak ditugu hemen bizitzaren eta heriotzaren

irudi. Hala ere, Gandiagak ibili dinamikoaren ikuskeratik hartuak darabiltza irudiok «ekarri» eta «eroan» aditzez baliatuz. Bestetik olerkariak jarrera pasiboa hartzen du, gizakiaren etortze eta joate hori pertsonifikatuak diren egunsentia eta gauak berek egingo bailuten.

Horrezaz gainera, kontuan hartzekoa litzateke ilargiaren mundu magiko-mitikoa literatura orokor eta gure mundu mitikoan. Jose Migel Barandiaranek dioenez⁵ ilargiaren izena bera «ilazkia»rekin lotua dago, bai eta hildakoekin; hilen zoria, berriz, ilargiarekin lotua dago; bestalde, astearen egun bat ilargiari eskainia dugu: ostirala; eta beste bat eguzki-ortzeari: osteguna.

Olerkariak bere burua ilargiaren esku utzi du honek haren ardua izan dezan. Poema txikiaren tonua jarraituz olerkariak jarrera pasiboa hartu du bere zoria ilargiaren eskutan utzirik.

Beraz, egunaren bi ertzen aipamenaz —egunsentia eta gauaz—, bizitzaren zikloaren metonimia bidez gauzatu du poetak sinbolizazioa, denbora fisikoa dugu olerkariaren denboraren sinbolizatzailea, eta poetaren denbora sinbolizatu.

Goizaren irudia erabili du beste behin 164garren olerkian poeta beraren poza adierazteko. Goiza eta honi dagozkionak dira sinbolizatzaile, eta olerkariaren poza eta honi dagozkionak sinbolizatu. Olerkaria memoriaren golkoan galdua zuen pozaldi berreskuratua jarri du kantari «goiz eder» haren ohoretan:

«GALDUTAKO goiz eder bat,
aldi-buruek aaztua,
pozarren aurkitu dot gaur,
barnean, ezkutatua.» [164,1-4]

Gandiagak bere barruan somatu du guttiz ongarrri zaion *goiz ederra*, eta hain gutxitan presente egiten zaiona. Poetak «goiz on» hori hodeiez estalia dagoen aurpegi irrifartsuaren irudiz gauzatzen du. Horixe zegoen poetaren izpirituan, baina laino xumez estalia. Irudi iradoiorrez aurkezten du poetak desestaltzea:

«Irri garbiez egoan
odei-pillak estaldua.
Ez dakit neuk ala berak
urratu dauan gandua.» [164,9-12]

⁵ BARANDIARÁN, José Migel, «Diccionario ilustrado de mitología vasca», *Obras completas*, Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca, 1972. Ikus «Ilazki», «Illa», etabar.

Poetaren kontzientziara etorri den «goiz eder» hori, ez daki poetak berak eraginik ala pozaren mugimenduak desegin duen gandua:

«Bakarrik dakit, barriro,
pozak argitu nauala.» [164,15-16]

Zenbaitetan sinbolizatua iradokia baizik ez da geratzen eta sinbolizatzaileak hartzen du poemaren egitura eta adierazi mundua. Baina lehen ere behin edo beste aitortu dugunez, isilean bada ere, poema guztiaren humusaren antzera somatzen da sinbolizatua. Olerki horietako bat dugu 66garrena, «ARRATSALDEAK ordu bi». Eguerdi-eguerdiko eguzkiaren galda -beti ere harkaitz ganean bizi den elorriaren sufrimena gauzatu du olerkariak poema horretan, zeina «komentu idorren irudi» den poetaren ikuskeran. Beraz, giza bizitzaren lehor, bakartasun eta larriaren irudi —kasuan, komentu bizitzaren irudi—. Antologiazko olerkia da hau; baina ez gara beronetan geratuko, hain zuzen, elorriaren sinbolopean gauzatu baita. Eta horri dagozkionak jadanik beste artikulu batean ikusiak baitaude⁶.

Egunsentiko eguzkiaren ernetzea du 24garren poemak bere garai nagusia. Horixe da sinbolizatzailea eta sinbolizatua, berriz, espreski adierazia, bestalde, Gandiagak idatzi zuen garaian Arantzazuko seminarioan hazitzen eta argitzen doazen gaztetxoak:

«URRUN eta gozo, betiko ta urrungo
soiñu edo argia,
azpi barri batean edo
lore-ontziko lore sortaldekoan,
ernetzen dago,
poz aundi ta zabalez
urreratuz eta geituz,» [24,1-7]

Lehenengo urrunean eta kosmosaren barne erraietatik ernetzen datorren «lore-ontziko lore sortaldekoan,» [24,4]. Izadiaren ikuskera dinamikoa eta pertsonifikatua eskaintzen du olerkariak. Bizi indar kosmikoa etengabe kontenplätzen du Gandiagak, «azpi» indar horrek hartua somatzen du izadi guztia egunsentian. «Soiñu edo argia», zero eta lurrrak, kosmos guztia argiak hartzen duen bezala, erditzearen barne urradurak ere erabat hartuko bailuen hitzegiten digu. Gainera pozaren izariak ere hurbiltze-zabaltze mugimenduz adieraziak utzi ditu autoreak. Horra sinbolizatzailea.

⁶ Ikus lan honetako lehen oharra

Eta berehala sinbolizatua:

«zeure umeon begietako
argi gazte ta azi-naia legez.» [24,6-9]

Seminarioko gaztetxoan bizi berritze eta sendotzearen kontenplazioan, olerkaria erne dago gertakizun eta higidura antzekoak dakartzan egunsentian dinamika bera somatzeko.

Poemaren hurrengo zatitxoan berjasoak dira etortze dinamikaren barruan zabaltze eta zuritze guztirakoa, berriro ere kosmosaren izariak hartzen dituela gertakizun sinbolizatzaile horiek. Eta sinbolizatuaren harian, poemaren lehen zatian «argi gazte ta azi-naia» zena, hirugarren zatian gaztetxoan «barruko argia» da, hain zuzen, «zuria edo zitori-buruzkoa». Erreferente kosmikoa, sinbolizatzailea deskribatzeko erabiltzen dituen adjetibo eta iruditeria edota antzeratsukoa berrerabilia da sinbolizatua deskribatzeko, korrespondentzia analogikoa oinarri sendotan gauzatzen duela.

Olerkiaren laugarren eta bostgarren zatietan, behin eta berriz, osagai eta irudi berrien bidez adierazten du zabaltzen doan «zuritasun guzti / lur eta zero betekoa» [24,24-25], bai eta seminarioko umeen gaztetzegizontze eta bizarra «zidarrez jantzi arte»koa [24,22.30-32].

Kosmosaren erabateko argitze-zuritzeek pareko bidea dakarte giza bizitzaren erretze, gaztetzegizontze eta helduzarora etortzean. Korrespondentzia analogiko bete eskaini digu behin berriz.

4. Harkaitza sinbolo

Poema liburu honen hasieratik agertzen den irudia da harkaitzarena, baina zenbait kasutan aparteko indarra hartzen duen sinbolizatzailea da Gandiagaren lehen liburuan. Hala olerkariak lehenengo poematzat emana duen horretan harkaitza zurtz somatzen du, bakar eta hornitu gabea. Sinbolizatzaile horren ondoan poema liburua du sinbolizatu, «soin gabeko ta eziña» [1,9], halaz ere, harkaitzaren korrespondentzia analogikoa; hain zuzen, poetak ume zela usnatu zuen «soin gabeko poema» [1,3], oraindik ere, «ementxe poema» [1,7] badio ere, soin gabekotzat jotzen duelarik.

Nahiz eta Arantzazuko inguru bakartian bizi, Gandiaga erne dago gizakiaren sufrimenaz konturatzeko. Ingurune horretxek, hain zuzen, ematen dio izadia bera aztertuz eta gizakiaren barne oinazeak bizi-somatuz, bi munduon korrespondentzia analogikoa olerki mamitan gau-

zatzeko. Gizakia, bere garaiko gizakia —eta garai guztietakoa— begiratzuz eta errepresentatuz dator 14garren poema.

Poema honetan, beste askotan bezala sinbolizatzaileak hartzen du olerkiaren eremurik eta egiturarik zabalena, ia erabatekoa. Baina poetari nahiko zaio azken bertsoko bi lerro poema guztia bere giroan eta sinbolizatuaren argitan kokatzeko:

«BASO galduen erdian,
kare-arrizko mendiak
gorri, aizto ta mutur, iparrak
melar zorroztu sarriak.» [14,1-4]

Arantzazuko baso zabalen gainean harro ernetzen diren mendi gailurrak intentsitate handiz deskribatuak datoz lehen bertso honetan: «gorri, aizto ta mutur». Lehenengo adjetiboak harkaitzen soildura adierazten du, baina beste biek zorroztasuna azpimarratzen dute. Gainera, jarraian datorren perpausak, «iparrak / melar zorroztu sarriak» intentsitate horri indar berria ematen dio zenbait aldetatik: zorroztasuna azpimarratzen duen aditzarengatik; sema hori berori «melar» adjetiboaren bidez berjasoa etortzeagatik; hirutan errepikatua den «-ar-» aliterazioagatik, beti ere beste dardarkariekin batera hots sinbolismoan jasoa suertatzen baita ingurunearen laztura; azken perpaus horren joskera behartuagatik, puntuaren zerbitzutan egiten dena; izan ere, badirudi joskera normalean beste honetara beharko lukeela: «iparrak / sarri melar zorroztuak».

Sinbolizatzailearen deskribazioak aurrera darrai bigarren bertsoan:

«Lur aitu baten azurki
penagarri ta larriak...
Labandutako gantzu ondarrez,
azpitik, zerbait bustiak.» [14,5-8]

Lehenengo bertsoan zetorren «gorri» adjetiboaren ikuskera azpimarratu du hemen deskribio eta metafora berriz ideia berari eutsiz: oraingoan, galdutako lurrak utzi duen biluzia ageri zaigu «azurki» metaforaren bidez eta «lur aitu» horrek adierazten duen gabeziaren bidez. Ondoren datozen adjetiboek, berriz, poetaren subjektibitatea adierazten digute, biluztura haren aurrean poetaren sentimenduak azaltzen dizkigute: «penagarri ta larriak...»

Lur galdu hori metafora berriz aurkeztua da «Labandutako gantzu» horrez; alabaina ez da erabat galdua, azpi aldean geratua den lurrak ematen baitio umeldura. Eta bi osagai horiek berjasoz, hau da, harri-

mendi gorriak eta azpitik umeltasunez ukituak direloak, eta hauek ematen dituzten fruitu urriak ekarriz dator hirugarren bertsoa:

«Zeatu zitun aldiak,
lasatzen ditu euriak.
Noizbait, asperen gisan, egozten
ditue elorri urriak.» [14,9-12]

Jadanik bigarren estrofan olerkariaren ikuskera subjetoaren adierazle izan den «penagarri ta larriak...», hemen, «asperen gisan» hori ere ikuskera berorren adierazle bezala dator; mindura subjetoaren adierazle ditugu bi ukituok; horiek, hain zuzen, zabaltzen digute sinbolizaturantzako atea. Sinbolizatu hori, berriz, laugarren ahapaldian dator bete-betean:

«Miñaren erreiñu eder,
maite deusdaz zauriak:
Iretargiak maite ditun lez
abar urratu ta ausiak.» [14,13-16]

Azken ahapaldi honen lehen bertso lerroak zabaltzen digu sinbolizatuaren mundua. Izadia bera oinaze larritan somatzen du olerkariak, pertsonifikazio horren bidez gizakiaren sufrimenaren mundua isilean baina indartsu adierazia geratzen da. Analogiazko korrespondentzia iradokia. Gandiagak bere poetikaren ezaugarria duen iradokitze edo ukitu juxtu horren bidez adierazia, jakina. Olerkaria bera ageri zaigu izadiaren oinaze mundua maitatuz eta maitasun horren osagai mitiko gisa, aldi berean horren testigu, ilargia bera jartzen du ideketaz baliatuz: «abar urratu ta ausiak» maite dituela.

Hogeita hamaikagarren poema bete-betean badator ere elorriaz gainerako sinboloen ikuskera honetara —sinbolizazio anitzean artean elorriarenari ere bai baitagokio—, halaz ere, jadanik sail horretan aurkeztua baitugu, ez diogu hemen beste begiraturik emango.

5. Pagoa sinbolo

Poema txikia baina esanahitsua eta egituraketa estukoa. Gaueko ilargitan pago adarrak jasoak somatzen ditu olerkariak. Ikusmen horretan poetak berak jasotzen ditu bere besoak bigarren sinbolizazio gai bihurtzen direlarik beso horiek. Beraz sinbolizazio anitza aurkeztu du Gandiagak. Honez gero badakigu autoreak behin baino gehiagotan

egin duela joko hori olerkiak eraikitzerakoan. Sinbolizatua, berriz, olerkariaren gogoia bera da:

«BILLOXIK adar jasoak,
iretargitan, pagoak,
milla begiez, zerura, neure
ainbeste naien lakoak» [119,3-4]

Lehen sinbolizatzailea adierazten duen sintagma «pago adar jasoak» olerkiaren eraikierarako maneiamendu gai nagusi bihurtu du autorea. Lehen ahapaldian «adar jasoak» dena, bigarren ahapaldian pagoak berak dira jasoak eta hirugarrenean, berriz, poetaren besoak dira jasoak; jadanik bigarren ahapaldiaren azken lerroak ematen dio, ordea, abiabidea. Bi sinbolizazioak «jasoak» adjetiboaren bidez lotuak datoz, sinbolizazio bat berari abiabidea ematen diotela.

Sinbolizatua, ordea, erdi isilean iradokia datorkigu. Jadanik lehen bertsoan poetak sinbolizatzailea deskribatu digu bere barne nahien adierazle fisiko gisa: «neure / ainbeste naien lakoak» [119,3-4]; korrespondentzia analogikoa garbiro azpimarratua dago hor. Bigarren ahapaldian pagoen ikuskera horrek eragiten dio poetari bere besoak jaso eta goratua izan dadin eskatzea:

«Gora nagien, izarrei eske,
luzatu ditut besoak.» [119,7-8]

Gandiaga kontenplaztaile agertzeaz gainera, bere keinu eta mugimenduz ekintzaile ageri zaigu. Poemari bukaera emateko, berriz, pagoen irudira dator olerkiaren amaieran. Baina, aldi berean, hirugarren ahapaldiko azken lerro honen bidez, olerkaria eta pagoaren jarrerak pare-pareko ikusten ditu, pagoaren pertsonifikazioz baliatuz, jakina:

«...Izarrei eske, pagoak.» [119,12]

Eske hori benetan poetak berak egiten du, olerkariaren otoitz kosmikoa da, eta korrespondentzia analogikoaren bidez azkeneko batari buruz esaten dena besteari buruz ere esaten da; polisemiaz jantzirik eskaintzen digu, bada, Gandiagak poema labur baino aberats hau. Izan ere, azken aurreko bertso lerroan narratzaile poetikoak bere eskuak luzatu eta pago adarren jarrera berean ditu: «Neure eskuekin ikutu dotaz» [119,11]. Jarrera honek analogiaren indarra sendotu egin du, bai eta bide batez sinbolizazioaren gauzatze biribila.

6. Esnagailua sinbolo

Nahiz eta esnagailua jarri dugun, halaz ere, ehunda berrogeita bederatzigarren poema laburrean —dagoeneko hainbatetan ikusi dugun bezala—, sinbolizatzailea anitza da: iluna eta esnagailua. Despertadoreak hedadura handiagoa hartzen badu ere, «Iluna» hitz bakar horrek, besterik gabe, bere pareko analogiazko osagaia dakar poemaren barruan.

Olerkiaren lehen zatia sinbolizatzaileak hartzen du erabat; bigarren zatia, berriz, sinbolizatuak. Ez hitz askorik, hitz juxtuak esan eta hortxe utzi, leioa zabaldu eta mundu guzti bat iradokirik:

«ILLUNA.
Despertadore bat:
tik-tak, tik-tak, tik-tak...» [149,1-3]

Ordulariari, sarritan, denboraren joate estuaren esanahia eman izan zaio; erruki gabeko denboraren joanaren irudi izan dugu literaturaren munduan. Baina esnagailua, batez ere kristau munduan, kontzientziaren ahotsaren sinbolizatzaile izan da. Gandiagak ilunaren giroan jarri digu esnagailuaren joanaren erritmoaren hotsa, nabarmenago agertzen da horrela hotsaren deiarra.


«Obena.
Kontzientzia, beste
ixildu eziñezko
ta ixildu eziñezko,
despertadore bat.» [149,4-8]

Analogiazko parekotasuna erabatekoa da sinbolizatzaile diren bi osagaienetik begiratuta, iluna eta esnagailuak pareko dituzte obena eta kontzientzia. Bekatuak sortzen duen iluntasun metaforikoan erneago somatzen da, bestalde, kontzientziaren ahotsa; hain zuzen, errepikazioak berak ere, «ixildu eziñezko / ta ixildu eziñezko» horrek esnagailuaren denboraren joanaren erritmo hotsaren oihartzun izan nahi du. Analogiazko korrespondentziaren gauzatu nahia nabarmena da autorearen. Olerki askotan, zalantzarik gabe, baina batez ere zenbait poema txikitan oso argia da.

.....

Gandiagaren *Elorri* liburuko poemagintza aztertzean irudi literario bat hartu dugu abiapuntu: sinboloa. Eta sinboloa aztertzerakoan lehen

artikuluari *elorría* aukeratu genuen; nola ez, izan ere, poema liburu horretako sinbolo nagusia izanik. Baina gero, ereduak hautatzerakoan zailantzarik gabe eztabaidagarria den xorta bat ekarri genuen gure lanera; alabaina argibide egokiak direlakoan gaude. Era berean, lan honetan elorriaz gainerako sinboloak aukeratu ditugunean, hautapen diskutigarria egin dugu. Halaz guztiz ere, molde ezberdinetako sinbolizazio bideak somatzeko hainako aukera anitza egin dugulakoan gaude. Gandiagak *Elorri* liburuan gauzatu duen poetikaren barruko sinboloa aztertu nahi izan dugu, ez erabat eta zehatz-mehatz, baina bai abiabide zenbait emateko lainera.



Acto para la Nochebuena antzerkiaren zenbait pasartez

Xabier Kalzakorta

Euskal testu zaharrek, zoritxarrez hain ugariak eta hain zaharrak ez diren arren, uste baino zorioneko ustekabe eder gehiago ematen digute. Euskalki eta garai desberdinetako testuak duten bateratasun eta are berdintasunez orain baino lehen ikertzaile bat baino gehiago aritu da¹. Geure lantxo honek ez du *Acto para la Nochebuena* antzerki lanaren pasarte batzuen argigarri berriak eta ordain zahar barreiatuak bateratu, eta, nolabait arrazoitu beste asmorik. Ahalegin horretan, eta testu bera aztergai dutela, geure artean izan ditugun ikertzaile batek baino gehiagok lan konplirik eskeini digu².

Barrutiak idatzi zuen lanak osagai landu edo kultuak baditu ere, ez da ahaztu behar zein neurri haundian herri-literaturatzat har daitekeen. Juan M. Lekuonak ohartu zuenez «Herri-literaturaz jabetzen denak, eta Barrutiaren idazlanaz arduratu denak, beste gabe ikusten du bi horien arteko lotura. Eta lotura bat ikusi ezezik, ohar daiteke, baita ere, herri-literaturan legokeela giltza, Barrutiaren zenbait literatur legeren argibide jatorra aurkitu nahi bada»³. Begibistakoa da, beraz, Gracioso edo Txarles Tripazabalek⁴ bere emazte Mari Gabonekin duen autuak gatz

¹ Inoren lana gutietsi gabe hor dugu ikertzaile zuhur eta argiaren eredu izan behar lukeen lan ezin politago bat Mitxelenaren, «Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos» in *FLV* III, 1971, 149-169 or.

² Guk egin asmo dugun lanaren azterlan eredugarria litzateke Mitxelenak berak *Acto para la Nochebuena*-ren gainean idatzitako «Miscelanea filológica vasca II» in *FLV*, 1978, X, 389-413 or. artikulua azken zatia, hots, 3. *Xocudi y otros en Barrutia* delakoa.

³ LEKUONA, Juan Mari: «Barrutiaren metrikaz» in *Gabonetako Ikuskizuna [Acto para la Buenanoche]* 209or.1983

⁴ Barrutiaren laneko protagonista Gracioso da, denok dakigunez. Gracioso delakoa beste izen batzuk ere hartzen ditu Jon Kortazarrek dioenez» *Acto para la Nochebuena de Pedro Ignacio Barrutia (1682-1759 Análisis literario)* in *Gabonetako Ikuskizuna*

eta biperrez oratua izateko herrikoagoa izatea, ministroak irakurtzen duen «Edicto de Cesar» delakoa baino. *Acto para la Nochebuena* lanean herri-pertsonaiarik badago Txarles Tripazabal da, Arestiren hitzetan «Bergarako koplaria, barregarria eta euskaldun arlekina»⁵. Era berean nagusi-morroien autua ere ezin herritarragoa denik ezin uka. Bi pasarteok aipatu ditugu. Orain har dezagun iruzkingai dugun senar-emazteon autuko ataltxo bat, honatx:

266 GRA. Mari Gaboncho enea, biozeco puskea, Orienteko perlea.
Nun da zure legea? nun zure karidadea?

M. G. Berbok eder aoan orapiloa kolkoan
Leen legez egongo enaiz zure ukaondoan.

GRA. Echeko-andra maitea, eukidazu piedadea!

Senarrak, Txarles Tripazabalek, andreari leunkeriazko hitzak zuzentzen dizkionean, andrearen erantzun lakonikoak (*Berbok eder aoan orapiloa golkoan/Leen legez egongo enaiz zure ukaondoan*) goitik beherako ezpata-ukaldi bortitz baten eragina du: senarraren jarrera aldatzea.

Metrikari bagagozkio, Juan Mari Lekuonaren lana oinarri harturik, esango genuke Bosteko berdina dela (8A, 7A, 8A, 7A, 8A) Graziosoak dioena, eta Mari Gabonen erantzuna (7A, 8A, 7B, 8A). Guk hemen aztergai dugun kontua Mari Gabonen erantzuna da (*Berbok eder aoan orapiloa kolkoan/ Leen legez egongo enaiz zure ukaondoan*) Koplak zaharren tankerako egitura duenik ezin uka. Gehienetan errepikatzen den eredia jartzearen:

Zeruan eder izarra,
Errekaldean lizarra,
Etxe hontako nagusi jaunak
urre gorrizko bizarra.

[*Acto para la Buenanoche*] 184-185or «Los nombres por el que se le llama en la obra son: Txarles Tripazabal (verso 233), Matxi Frisa (254), Matxi Ardantza (verso 298), Txarles (297) y Txarlesikotxo (331). Así pues, le vemos con 2 nombres: Txarles (Carlos), Matxi (Martin) y varios postnombres: Tripazabal, Ardantza, quizá Frisa pueda ser un apellido; habría que comprobarlo con una investigación en los libros de actas de Bautismo, Defunción. Además sabemos que es «Bergarako dantzari koplaria»

⁵ ARESTI, Gabriel: «Pedro I. de Barrutia, Mondragoeko eskribauaren» Gabonetako Ikus-kizuna» euskeraz eskribidutako lelengo teatruzko lana» in *Euskeria*, 1959, IV, 139-149 or.

«Txarlesekin, Bergarako koplariak, barregarriarena (obeto esango neuke nik *euskaldun arlekiña*) egin da gero, beste bat egiten dau, pertsona bizi batena, denpora aretan Mondragoen edo aldamenen bizi zana, len esandako Mari Gabonen gizona. Lelengo, estudia daigun komediaren aria, eta gero bire karakterrak edo *dramatis personae*..»

Ale berri zaharrik ere jar daiteke, baina oraingoz esan dezagun, Aitzol eta Lekuonaren erakutsiei jarraiki⁶, kopla zaharretako irudi/pentsamendu jokoak agertzen dela. Irudian askotan errepikatzen diren egitura egin edo finkatu zenbait ere aurkitu ohi dira, esaterako, *Zer+eder+Non/Zer+Non* edo *Non +eder+Zer/Non +Zer*, kasurako:

Echean eder guerrena
ardanzean da aiena
orra bada Bicario Jaunableori
baradizuan goena.⁷

Adibide hau ere «Zeruan eder lizarra» bezalakoa dugu, hots, *Non+eder+zer* baina aldaera ttipi bat du bigarren bertsolerroan: *Non da Zer*. Iruzingai dugun «Berkok eder aoan(/) orapiloa golkoan/Leen legez»...egituraz kopla zaharren teknikakoa dela esateaz gainera bada besterik ere: *berbok eder aoan orapiloa golkoan* erretraua ere izan daiteke. Zehatzago esan, badira zenbait erretrau edo esaldi egin kanta zaharretako lehenburuan *irudi* jokoak egiten dutenak, gero agertuko den *pentsamendua* indartzekoa. Kopla zaharren «teknika» bera, dakigunez, bestetara ere hedatzen da: balada, amodio kantu, bertsoen lehen bertsolerroetara... Azpimarratu beharra dugu, kanta baten hasierako lehenburua kantarekin *irudiaren* jokoak egiten duena, bereiz ere erretrau moduan ager daitekeela. Adibideak zenbatnahi eman ditzakegu baina hona hemen batto. Beotibarko guduko kanta dakigunez *Mila*

⁶ Aitzol eta Lekuona aipatu ditut bide-urratzaile izan zirelako gure artean. Biek irudi/pentsamendu erabiltzen zuten. Azterketa berriagoetan beste era batera formulaturik ere ikusi dugu. Esaterako hona hemen nola formulatzen duen Mitxelenak «Tradición viva y letra muerta» in *Homenaje a don Jose Miguel de Barandiarán*, Bilbao, 1967, t. II, 121-145or.

«Como en tantos otros cantares tradicionales, y no es esta ninguna propiedad exclusiva de la poesía vasca, se tratará de la tan conocida imagen introductoria que no tiene más que una tenue relación, más metafórica que lógica, con el tema principal, es decir, de la "imagen suplementaria" según la terminología de Thomas A. Sebeok («Soun an Meaning in a Cheremis Folksong Text» en *For Roman Jakobson* 1956, p. 430 ss.) unida por los misteriosos senderos de la poesía con la «imagen focal». No de otra manera se salva en el poema de Bereterretche, para citar un ejemplo medieval, la transición de los dos versos iniciales (*Haltzak eztü bihotzik/ ez gaztanberak ezürrik*) a los siguientes (*enian üste erraiten zialaitunen semek gezürrik*)

⁷ URDIROZ PÉREZ, Juanxo: «Abaurrepeko bikario jaun noblearen bertsoak» in *FLV* n.º 75, 1996, 136 or.

Aldaketa ttipi bat sartu dugu. Aipatu artikuluan *Echean eder guerrena/ardanzean da goiena/ Orra bada Bikario Jaunableori/ baradizuan goena* dakar, hots, goiena hitza aihena hitzaren gaizki ulertze edo erratua dela uste dugu. Horrela hobeto ulertzen dela uste izatekoa da: gerrena etxean eder den bezala ardantzean da (eder) aihena.

urte ygarota /Vra bere videan/Guipuzcoarroco sartu dira/Gazteluco echean/Nafarroquin batu dira/Beotibarrê pelean. da baina Garibaik berak biltzen duen errefrauaren arauera:

A 25: «Por significar que todas las cosas de esta vida tienen naturalmente un curso, aunque sea después de pasados muchos siglos, dicen:

Mila urte iragota, vra vere bidean
Aun pasados mil años ba el agua su camino.»

B 6: «Por los que dicen en la lengua castellana: "A los años mil, Buelve el agua á su cubil", dicen en la bascongada:

Mil año pasado y agua suyo camino en
Mila urte ygaro eta ura vere vide-an.

"Urtea" es "año", y, aunque está en singular, tiene el sentido plural en este lugar, y la conjunción "eta" se pone por modo de elegancia, aunque no avia necesidad della»⁸

Ikusten dugunez kanta bateko *irudia* bereiz dabilen errefrau ere izan daiteke. Ez da gure egitekoa hemen argitzea berez errefrau dena kantaren lehenburuan txertatu den, edo, kantaren lehenburua denborearen poderioz errefrau bihurtu den. *Berbok eder a(h)oan, gorapiloa golkoan* delakoak errefrau bezala ere korritu duela frogatzen ahaleginduko gara, beraz. Bila ditzagun antzeko errefrauak. Garibaik berak dakar antzeko bat:

B 15: «Por los que tienen palabras hermosas, y las obras no tales, dicen:

Palabras las hermosas, cosas las no
Yç-oc ederr, guei-oc eç.»⁹

Ohart gakizkion egiturari: Zerok+eder/ Zerok+ez. Antzekoak ere baditu Garibaik bilduak A 55 *Vichioc eder, berori ez, hots, Zerok+eder/ zera ez.* Konturatzen bagara egitura berekoak dira bi-biak. Garibairen *(h)itzok eder, geiok ez* errefrauaren lehen zatiko *(h)itzok eder* delakoak

⁸ ZUBIAUR J. R. & ARZAMENDI J.: «El Léxico vasco de los refranes de Garibay» in *ASJU* 1976 X, 60or.

Berdintasun edo bateratasun honezaz eta balada zaharraz beraz argitasun gehiago nahi duenak jo beza JUARISTI, Jon: «El cantar de Beotibar. ¿Un romance noticioso vasco? in *ASJU* XX-3 1986, 845-855OR.

⁹ Aip. lana. 70or. Esan beharra dugu Joseba Andoni Lakarrak ere agertzen duela Garibairen errefrau honekin Barrutiaren pasarteak duen antzekotasuna.

berdintasun handia du azterkizun dugun *berbok eder ahoan* Barrutiaren pasartekoarekin, azken honek bistakoa denez *ahoa* baitakar. Antzekotasun gehiago ere aurki daitezke errefrau bilduma zaharrarretan. Arakistainek Larramendiri bidaliriko errefraueta, esaterako, ale hau agertzen da: «Del que disimula virtud; *errosarioa escuan; tadeabrua colcoan.*» Errefrau honen lehen zatiak ez du zerikusi handirik guk iruzkintzen dihardugun *berbok eder a(h)oa*n zatiarekin baina oraingoz esan dezagun bi-biak badutela berdintasun nabari bat Zer (eder) Non/Zer + Kolkoan. Datozen orrialdeetan beste errefrau batzuk aztertzean berriz ere helduko diogu oraingo honi. Oraingoz, gure matazako hari nagusia nahas ez dakigun, eman dezagun Nafarroan Damaso Intzak bildu zituen zenbait erran zaharren zerrendatxoa:

2169: Itzak ederrago egiñak baño. *San Juan apostoluak esan digu «Maita dezagun Jainkoa ez itzez ta mingañez, baiñan egiñez eta egiaz»* (1 lo 3, 18).

2280: Baztandar tuku-tuku: kolkuan mill marrakuku. *Batari ta besteari ziria nondik sartu dabilenaz esana.*

2127. Baztandarra tuku tuku, gazna erre-yale: *sura gan (joan) ta bat ere gabe. Gazta zotz baten muturrean jarrita su gaiñean erretzen ari denean, askotan sutara erori, ta baztandarra gabe gelditzen (Azpilkuetan artua).*

1542: *Baztandarra ta errigonesa, idi ta mando zarraren sal-erostean Baztandarrak:*

Otzekin otz-bera, beroakin gelbera, guaie, Martin, ire idiarekin Erriberan bera.

Errigonesak: *Baztandarrak itz ederrak, almotea kolkoan; billa izkiok mando orreri, zenbat ortz dituen agoan. Errigonesak deitzen dituzte Erriberakoak.*¹⁰

Hona aldatu ditugun errefrau guzti hauek badute beren artean antzekotasunik. Azken hiru errefrauak baztandarrari egozten diote, besteak beste, hitzeder izanik egintzak bihurri izatea. Gutti daude era honetako errefrauak. Euskaldunek dituzten lurralde bateko edo besteko euskaldunei buruzko aleak bakanak dira. Esaterako *zuberotarrak oinez arin buruz berdin* edo *arabarra jan da poz, bizkaitarra jan da hotz beza-*

¹⁰ DÁMASO, Intza: *Naparroa-ko euskal-esaera zarrak* Diputación de Navarra 1974. Azkuek bere *Euskalerrriaren Yakintza*-n ere badakar 148 *Baztandarrak tuku-tuku; gasna erretzale, autsera gan ta bat ere gabe*. Baztanés tucu-tucu, quemador de quesos; va a la ceniza y queda sin nada (AN-Baztan)

lako aleak urriak dira¹¹. Gakizkion, bada, artikuluxka honetan guretzat interesgarrien den ponduari: *itz ederrak, almotea kolkoan* delakotik ez ote dago oso tarte gutxi azterkizun dugun *berbok eder a(h)oa gorapiloa kolkoan* delakora? Ez da begi argiegirik eduki behar dauden bateratasun ikaragarriez konturatzeko. *Almote* eta *gorapilo* hitzen esanguraren artean badago berdintasunik? Almote edo malmote erdarazko almud¹² da, hau da, imina, zelemen eta abarren moduko laboreak neurtzeko neurri bat. Almote eta gorapilo hitzek esangura desberdina izan arren, metaforikoki bat izatera datoz *almotea golkoan* eta *gorapiloa kolkoan* erramoldeetan¹³. Nola dakigu baieztatzen duguna? Oihenartek Pouvreau-ri azken honen eskariz honelaxe ziotsan: «*Almute*, vne mesure pourlegrain, picotin. *Almutea golcoan*, cest vne façon de parler prouverbiale de quelqu'un qui couue quelque dessein en son coeur»¹⁴, hau da, batetik laboreak neurtzeko ontzia edo neurria, eta, bestetik *Almutea golcoan*, norbaitek bere barrene(a)n desira bat gordetzen duela ere hitzetan agertzen ez denean. *Almutea golkoan* berez esapide bat da, erramolde bat eta pentsatzekoa da Pouvreau-ren garaian esapide edo erramolde moduan

¹¹ Azken errefrau hau Roger Iriart Zuberoako Zalgiz herri politean apaiz egondako euskaltzale jator bati egindako elkarrizketa batetik aterea da. Baztandarren gaineko errefrauak mingarriak dira, dudarik gabe, baina guk lan honetarako darabilgun asmoa besterik da. Badago, zilegi badakit hemen jartzea, korritzen duen beste errefrau bat ere baztandarrez: *Asto handi Baztango*. Horrekin lotura handiegirik izan ez arren, baina beharbada zerbait bai, subliminala edo oso oharkaitza bada ere EY-349 *Asto handiak basta handia* edo are argiago *Asto handi, basta handi*. Azken horretan ez ote da ulertzen *Asto handi Baztandi(k)ere?* Beraz lehenagora jota, ulergarriago da —eta ez hain ezkutukoa— *Asto handi Baztango*.

¹² Almute hitzaren euskal aldaera da *malmute* edo *malmote* delakoa. Malmote hitzaren lehen m-asimilazioz sortua da. Mitxelenaren *Fonética histórica vasca*-n honako pasarte hau dator (14) Aunque en vasc. *alkate* «alcalde», *almute* «almud», podría verse en la oclusiva sorda un reflejo de la adaptación de ar. d y dd, paret «pared» (Añibarro paretea «la pared» debe interpretarse al parecer suponiendo que la vocal final se ha agregado a una forma romance cuya oclusiva se había ensordecido en posición final 134or. 2. edizioa.

Hitz hau berez jatorri arabekoa da. Azkuek ere badakar bere hiztegian Almote (AN), Almute(BN-s). Hona erdal hiztegiko definizioa (Del ár. ao-mudd, la medida para áridos.

Medida de áridos que en unas partes corresponde a un celemin; en otras, a media fanega, y en Navarra, a 1/18 del robo, o sea un litro y 76 centilitros aprox.

¹³ *Erramolde* hitza Gotzon Garatek darabilen esanguran erabiltzen dugu guk ere, hau da, erdarazko *modismo* esanguran. *Refrán* beste zerbait izango litzateke.

¹⁴ MICHELENA, Luis: *Estudio sobre las fuentes del diccionario* de Azkue 1970., n.º 433, 104-105or.

Mitxelenak ere ikusi zuen bi erabilerez landa baztandarrei egozten zaizkien errefrauetan ere agertzen dela, honelaxe baitio: n.º 433. Motivo, almutea. Es esta una indicación enigmática, ya que almute es «almud». Cabría quizá pensar en la expresión almutea kolkoan que suele aplicar a los baztanenses.

ezezik errefracuan txertatua ere korrituko zuela. Silvain Pauvreau-k egin zuen hiztegia agertzen da esandako guzti honen harira datorren errefracu bat *Iduri on egitea eta malezia golcoan*. Ikusten denez *iduri on, berbok eder a(h)oa*n horren baliokidea litzateke eta bigarren zatia *gorapiloa kolkoan* Pauvreau eta Damaso Intzaren testigantzak ekarri, berdindu eta iruzkindu nahi izan ditugu, baina badago bien bitartekorik ere.

Juan Ignazio Iztuetak bere *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia* liburuan gipuzkoarren eta baztandarren arteko pelota-partidu baten gaineko iruzkin eta bertsoak dakartza. Gipuzkoarrek nafarrei Hernanin irabazi omen zioten pelota partiduaz hitz hauek esaten ditu:

lcendatu dedan pillota-partidu Hernanicoa irabazitacoan, Guipuzcoatarrac ifini izan cituzten bersoetaco iru ezarrico ditut emen, Provincia onetaco edozein atsoc gaurco egunean ere cantatzen dituenac, eun ta aimbeste urteren buruan, atzo aterataco berri berriac baliraque bezalaishen. Berso oec dira iruna puntucoac, eta beren ocasta edo tonu berecitu ederrean, chit egoqui datocenac.

Amar jocu ta sein ceudenean
 Erribera-ren copeta,
 Bacirudien bacecarrela
 Elurrarequin tormenta;
 Elizaraño sacatzen ceban
 Zortzi onzaco pillota.

Baztandarrac itzac eder
 Malmotea colcoan
 Erraz irabaci uste zuten
 Partida galdutacoan,
 Negarra mardul eguiten zuten
 Hernanin Eliz-ondoan.

Astigarraga mutil chiqui bat
 Probestuaren semea
 ¿Non billatzen da errestoraco
 Bera dan baino obea?
 ¡Icaraturic biraldu bait du
 Nafarroaco gendea!

Pillotara ezezic beste apostu mueta ascotara ere zaleac dira chit Guipuzcoatarrac. Eta batez ere, idi-tema, aizcol jocu, balenca-partidu, ari-jocu, pulsuan, saltoca, lasterca, eta beste onelaco apustu, gorpuztaren azcardade, arintasun, eta indarleiarri dagozquionetara¹⁵.

¹⁵ IZTUETA, Juan Ignacio de: *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia ceñetan jarritzen diraden arguiro beraren asieratic orain-arte dagozquion barri gogoangarriac*. Donostian Ignacio Ramon Baroja-ren moldizteguien 1847 garren urtean eguina.

Gauza harrigarri asko esaten ditu Iztuetak. Iztuetaren liburua 1847 argitaratu bazen bertsoak ehun eta hogeitaz urte lehenagokoak omen dira, eta hain ziren famatuak non edozein atsok kanta baitzitzakeen. Bertsoak 1727 urte ingurukoak izango ziren beraz. Hona aldatu dugun bigarren bertsoaren hasieran *Baztandarrac itzac eder/Malmotea colcoan* agertzen da. Orain arteko esan guztiak laburbilduta *Malmotea colcoan* esaera txertatua dago *Baztandarrac itzac eder/Malmotea colcoan* atsotitzean, eta, era berean, erretrau bera bertsoaren lehen buruan. Kontu bera, beraz, gertatzen zen Beotibarko batailako alean eta beste hainbatetan.

Bateratasun guzti hauek erretrau beraren erabilera eta kokapen bereziak emateko azken ahalegin gisa bihoa, Damaso Intzak berak dakarren beste hau:

348: Baztandarrak hitzek eder, baño opille kolkoan.
*Itz ederren ondotik besterik egin.*¹⁶

Adibide honetan ezin argi eta garbiago ikusten dugu orain *orapiloa kolkoan* eta *almute kolkoan* duten bateratasuna *opille* delakoa (*g*)*orapilo* hitzaren aldaera bat baita. Gauzak horrela, Mari Gabonek bere senarrari, Txarles Tripazabali, ematen dion erantzunaren esangura hobeto ulertzen dugu, hots, hitz ederren ondotik besterik egitea. Azkenik esan dezadan esangura kontrakoa duten erretrauak badirela, bihoa, adibide gisa Azkuek bildu zuen *EY-Biotzaren giltza miina*.

Barrutiaren antzerkiak badu bere golkoan erretrau eta esapide egin gehiago ere, agiri-agirikoa da esaterako Txarlesekin dioen *81-Chacurrac eurac egiten dabe dantza diruagaitic* ere. Joan gaitezen bada pasarte izkutuago batera. Deabruak Graziosoari egursaltsa ematen diotenean honek bere emazte Mari Gaboni minez deitzen dio:

258 Auxe dala Zeledon, artu bai ta ez emon
Mari Gabon, nun aiz ene Mari Gabon

260 Neure azurrak pedazatuta emeti jagi ezin non

Pasarte hau gorago iruzkindu dugunaren aurre-aurrettoa da, Txarles Ardantza makilatzen dutenekoa. *Zeledon, artu bai eta ez emon* ez ote da esapide egin bat, erretrauaren tankerakoa? Azkuek eman zizkigun

¹⁶ Azkuek Baztanen bildu zuen beste erretrau bat ere badago, ezdu gainerakoak duten gatza eta indarra baina merezi du aipatzeak *EY-2564: Itzak ederrago inak baino*. Las palabras más hermosas que los hechos (AN-b). Guk artikulu honetan jarri dugun ale ederrago batzuen aldaera berri bat dateke, hau da, erretrauaren indar metaforikoa kendu ondoren gelditzen den «eduki zuzena». Azkuek berak Gipuzkoan bildu zuen sail bereko beste bat *EY-2563 Itzak ederrak eta putzak minak*. Hermosas palabras y amargos pedos (G-at). Se dice de personas falsas.

esaera horretatik oso urruti ez dagoen honako hau da: EY 272. *Zeledon: ezin duenak ezin emon*, Celebon: quien no puede no da (B-oñ, F. Segura, Ms, Otx, pág 70). Azkueren iturri hirukoitza bi eratakoa da, batetik eskuizkribuetakoa, hau da (Ms Otx) Otxandioko eskuizkribua berak hiztegirako erabilitakoa, eta, F. Segura, Francisco Antonio Justo Segura (1808-1894) Oñatiarrarena, eta, azkenik, berak ahozko testigantzen bitartez Oñatin bertan bildutakoa. Zer esan nahi du delako errefrau honen? Gure ustez (*h*)artzeko *pronto eta emoteko tonto* delakoaren esangurakoa da, hau da, pertsona gehienei gauzak hartzea gustatzen zaie baina ematea...Gure errefrautegirik zaharretan agertzen dira errefrau kidekoak, esaterako, RS 277 *Adicazenda emuyllea ta ez arçayllea*. Cansase el dador y no el tomador eta berdin errepikaturik 357 *Adicaçenda emallea, ta ez arçallea*. Cansase el dador, y no el recibidor RS 277)¹⁷. Ikusi dugunez Azkuek bildutakoak eta Acto-an agertzen denak badute ikuskizunik. Ba ote dago errefrau antzerakoagorik? Eginahalak eginahal, hona Vicente Aranak bildutako urregorritzko ale bat: *Zelemiña zeledon artu bai eta ez emon*.¹⁸ Oraingo honetan bateratasuna goitik beherakoa da. Badu errefrau horrek bere esangura bitxia agertzen den testuinguruan agertzen dela. Txarles Ardantza ez da gauza astintzen duten deabrueri golpe bat bera ere emateko edo, gaur esan den bezala, itzultzeko. Gizarajoak lastazaku¹⁹ bat balitz bezala- konparantza ez da nirea Barrutiarena baizik- harrotu egiten dute kolpeka eta berak ezin bat bera ere eman, hain dago edanak eta janak sorturik...Ezintasun hori are barrengarriago egiteko errefrau deskontestualizatu hori jartzen badu egileak.

Zer da, behin honetaraz gero, Zeledon delakoa? Ez dugu inongo hiztegitan argibide handirik aurkitu. Zeledon hitzaren aldaera Zeledon dela kontutan hartzen badugu, argibide gehien aurkitu dugun hiztegian adibide pare bat izan da inongo itzulpenik gabe²⁰. Berriki argitara den Iztuetaren eskuidatzian *Quiebra, malquirrota Celemon, cer*

¹⁷ Antzekoak dira, edo behintzat badute zerikusiren bat, apurren bat urrutikoa bada ere, baina ez erabat berdinak zentzuz, Isastiren 29-*Egiok egilleari ta emaiok emalleari*. Ohienart 497 *Deus eztuena, balu, emaile handi*

¹⁸ ARANA, Vicente: «Refranes éuskaros» in *Revista de Vizcaya*, 1888, VI, 30-32, 67-69, 113-114, 153-155, 196-197 or.

¹⁹ Hemen ez ote dago errefrau are izkutuago baten zeharkako aipamena? Bada RS 390 *Edo guizona guizon / edo lasta çacu* O el hombre hombre o costal de paja. Txarles Tripazabal astintzen dutenean ez du erakusten ez du erakusten gizontasun handirik. Lastazaku bat bezala erabiltzearen azpian ez ote dago ezkutuko errefrau honen aipamenik?

²⁰ DRAE Zeledon: *Emakumezko zenbaitek zeledon ere egingo lukete ez ditzaten naasi jende arrunta eta xeakin, naiz berak aien artekoak izaki*. IBALAN. Euzko-Gogoa, 1958, 77. *Au dezute pekatuak larriena...eta ortan ez erortzeagatik egingo lukete «zeledon»...edo salduko guztia*. Egan, 1955 (5-6), 56

*emon*²¹ dator. Zeledon hitzak berak *queibra* hitzarekin zerikusia badu atsotitza hobeto ulertuko litzateke, hau da, neurri batean: hartu eta ematen ez duenak ez luke inoiz kiebra joko. Azkuek bere errefrau bil-duman egin zuen sailkapenean, itxura guztien arauera, beste zerbait ulertzen zuen: Zeledon pertsona izen bezala²². Gauzak horrela Vicente Aranak bildu errefrauean bada elemendu harrigarri bat: *Zelemina Zeledon*. Dakigunez-eta honetan ere ez dakigu askotzarik baina daki-guntzua esango dugu-hitz bikote ihartu bat izango lirateke *zelemina zeledon*. Hitz bikote ihartua diogunean erramoldera ere iristen ez den zerbait esan nahi dugu, tankera horretakoak dira *negarra begian* bezalakoak. *Zelemina (eta) zeledon* delakoa Piarres Lafitte²³ dioskunez Ataungo artazuriketetan egiten ziren neska-mutilen elkarrizketak ziren²⁴.

Antzerki lan batean txertaturik dauden bi errefrauen esangura eta aldaerak ematen ahalegindu gara. Errefraua ezer bada herri-jakintza trinkatua da, eta bere lekua biper eta gatza duten elkar-hizketan du. Zer egokiagorik, beraz, Mari Gabon eta bere senarraren autua baino? Badira herri-sineskizun eta herri-ohiturak ere, esaterako, hor dago askok iruzkindu duten Graziosoak Jesus haur jaio berriari kutuntzat azkonar-erpea ematen dioen harako pasartea.

264 Azkonarraren azamartzua ekarriko dot menditi, Begizkorik eztegiuzen bularchorean isegi.

²¹ IZTUETA, Juan Ignazio: *Vocabulario de vascuence*, Iztueta fundazioa. Patri Urkizuren edizioa. Leku bitan behintzat agertzen da , 139,188 eta 203 orrialdeetan.

139 *Malquirrota Celemon, cer emon* 188 *Queibra, malquirrota Celmon, cer emon*. Eta beharbada inportanteena dena adibidea osoagoa agertzen duelako: 203 *Se quebro Eten zen. Hizo queibra Celemon (cer-emon) eguin ceban*.

²² Azkuek «Langintzadunak» sailean EY-154 *Bizente: txapela tente, popan doia almirante* bezalako atsotitzat zuen iruzkingai duguna. Tankera honetako atsotitzetan persona izen batek ematen dio hasera (Bizente, Belasko, Gilen...) eta ondoren datorrena lehen buruko hitzarekin hoskide den beste zerbaitekin: 150-*Belasko, okela gitxi ta salda asko* 179-*Gilen: bihar hilen, etzi ehortziren, etzidamu ahantziren*

Sail honetan berean sartzen ditu gorago iruzkindu dugun *Baztandar tuku tuku...*

²³ LAFITTE, Pierre: «Herri literatura» in *Lur eta gizon*. Euskal Herria Jakin 9. Oñati 1974, 263 or.


Liho-kardatze eta arto-xuritzetan ere, jostatzeko egiten ziren alegiazko aharrak, ala bertsuz, ala hitz laxoz; gai zer nahitaez hartzen zuten: doteaz, gizon-gai baten hautatzeaz, etxeko lanez, moda berriez. Elkar-hizketa honek Baxenabarren *disputak* deitzen zituzten, Nafarroan errandoan, Ataunen *Zelemín eta Zeledon*

²⁴ Ahalegindu gara datu hau zehaztasun gehiagoz Jose Migel Barandiaranen lanetan bilatzen. Lehen eskuko iturria aurkitu uste genuen Ataungo datuak zirelako, baina, egia esan ez dugu ezer aurkitu.

Badira hain deigarriak ez diren pasarteak ere, esaterako, deabru bategen besteari esaten dionean:

246 Ardan truke saldu xok egun emaztearen moldea.

Herri-literaturan sarri erabiltzen den motiboetako bat ardoa erostearren galtzak saltzea da. Urrutira gabe gure artean, esaterako, Lauaxetak ere erabili zuen «Ardua ta atsua» poeman. Kontu honetan ere badago, gure uste apalean, barregarriago egiteko darabilen paperak aldatze bat. Herri literaturako adibideetan gehinetan andrea da gizonaren frakak saltzen dituen ardan truke. Azkuek bildu eta bere kantutegian agertutako «89-Andre bat ikusi det»: *Andre bat ikusi det / biruntan tan tan biruntena, / andre bat ikusi det / yoan den astean, / yoan den astean, / gizonaren galtzakin / biruntan tan tan tena / gizonaren galtzakin / taberna batean delakoa*. Gizonak inoiz edo behin ere osten dio andreari «101-Atsoari ostu»: *Atsoari ostu diot / uleko petea / salduta edan daigun / aguardientea...* Barrutiaren kasuan senarrak saldu duen delako moldea zer ote da? Argiegi gelditzen ote da besterik ezean? Erabat argitu gabeko auzia dirudiela ezin uka.



Tiempo de silencio eleberriaz

Anjel Lobera Revilla

Aurkibidea: 1. IDAZLEAREN BIOGRAFIA LABURRA.—2. IDAZLEAREN LIBURUGINTZA.—3. LIBURUAREN ARGUDIOAREN LABURPENA.—4. PERTSONAIAK.—5. ELEBERRIA IDATZI ZEN DENBORAREN INGURU HISTORIKOA.—6. LEKUA, DENBORA ETA EGITURA ELEBERRIAN.—7. ELEBERRIAN DITUGUN AITAMEN HISTORIKOAK.

1. IDAZLEAREN BIOGRAFIA LABURRA¹

Luis Martín-Santos de Ribera Larachen jaio zen 1924.urtean, hiri marokotar hori Espainiaren Babesgunekoa zelarik; Larachen zuen destinoa haren aitak, zein mediku militarra zen; berau ondoren jenerala izango zen.

Hala ere, ia bizitza osoa Donostian eman zuen, ikasketengatik kanpoan egin zituen egonaldiak izan ezik.

Familia Donostian 1929. urtean finkatu zen, eta bertan ekin zien idazleak bere ikasketei Aldapetako Anaia Maristen ikastetxean. Agienez, denboraldi bat eman zuen bere amaren aldetiko amonarekin Gaztelan; horren arrazoia hau izan zen: Luis Martín-Santosen anaia gazteena zen Leandro jaio zela eta, amak buruko gaiso bat pairatu zuen denbora batez. Martín-Santostar senar-emazteen hiru seme-alabak Luis, Rocío eta Leandro izan ziren.

Lusek batxilergoa 1940. urtean amaitu zuen. 1945. urtean, 21 urte zituela, *Grana gris* olerki liburua idatzi zuen eta berarekin ekin zion bere literaturgintzari.

1946. urtean medikuntza ikasketak Salamancan amaituta (bertan Aparteko Saria lortu zuela), Donostiara itzuliko zen.

1946 eta 1949. urteen artean Madrilén egon zen, eta 1947. urtean lortu zuen doktoretza Madrilgo Unibertsitatean. Kirurgi praktikak egin zituen *Consejo Superior de Investigaciones Cientificasen*, eta esperien-

¹ ASTILLA DEL PINO, Carlos: *Libertad, temporalidad y transferencia en el psicoanálisis existencial*, 9-24. orrialdeak, in Bliiblioteca Breve del Bolsillo. 1. argitaraldia. Seix Barral. Bartzelona. 1975.

tzia horretan eriden liteke *Tiempo de silencio*ren hazia: eleberria Madril-en gorpuzten da, 1949. urteko udazkenean, eta pertsonaia nagusia «*Instituto de Investigación*» bateko bekaduna zen.

Oposizio bat atera zuen Ospitale Klinikoko goardiako zirujau legez, baina pixkanaka-pixkanaka aldatzen joango zen kirurgiatik psikiatriara. Garai hartan, Juan José López Ibor (sasoi hartan psikiatria espainiarraren maisua) eta Pedro Lain Entralgok (Medikuntzaren Historia katedraduna) bultzatuko zuten Luis Martín-Santos.

*Tiempo de silencio*ren zenbait pasarte eta jakingarri Madril-en egindako egonaldi horretatik atera bide dira: apopilo-etxeke giroa, gau-irteera.

1949an, eta hiru hilabetez, Martín-Santos Guadalajarako zoroetxeke zuzendaria izan zen. Hurrengo urtean, Alemaniara joan zen; Heidelberg-en Carlos Barral ezagutu zuen; olerkari eta argitaratzaile horren etxean urtengo zuten argitara Luis Martín-Santosen idazlan gehienek.

1951n, Donostiako sendategi psikiatrikoko zuzendari plaza irabazi zuen, eta hiri horretan biziko zen harik eta hil zen arte.

1953an Rocío Laffónek in ezkondu zen, eta hau ere hilgo zen kotxe istripu batez, senarra baino urtebete lehenago.

1955ean *Dilthey, Jaspers y la comprensión del enfermo mental* argitaratu zuen, zein Martín-Santosen lan teorikoen lehenengo bilduma izango zen.

1957an atxilotu zuten lehenengoz, PSOEkoa izateagatik; beste hiru bider atxilotu zuten, eta lehenengo arrazoi beragatik: 1958an, 1959an eta 1962an. Kartzelaldi horietarik batean, 1958an, Carabanchelgo kartzelan zegoela, katedrarako oposizioetara azaldu zen.

1962an *Tiempo de silencio* argitaratu zuen. Itxura denez, eleberria 1959an edo 1960an idatzi zuen, eta idazleak *Pío Baroja* literatur sarira aurkeztu zuen, eta finalista gelditu zen, baina lehiaketa eman barik gelditu zen².

1964ko urtarrilaren 24an, alderdiaren bilera batetik bueltan omen zertorrela, Luis Martín-Santos hil zen Gasteizen, kotxe istripu baten ondorioz.

2. IDAZLEAREN LIBURUGINTZA

Juan Luis Suárezekin batera³, Luis Martín-Santosen idazlanak multzo bitara bil genitzake: sorkuntzako lanetara, eta saio eta artikuluetara. Atal bakoitzaren barruan, berriz, idazlanak denboran sortu ahalako

² Jesús María Lasagabaster irakaslearen ustez, saria ez emateko arrazoia idazlearen buruera politikoa izan zen.

³ SUÁREZ GRANDA, Juan Luis: *Tiempo de silencio, Luis Martín-Santos*. Alhambra. Madril. 1989.

antolaeran emango ditut. Ondoren, lan hau egiteko erabili dudana *Tiempo de silencio*ren argitalpenaren berri ageriko da.

1. Sorkuntzako idazlanak

Grana gris. Afrodísio Aguado moldiztegia. Madril. 1945. Berau olerki liburua da, eta orduz gero ez da atzera argitaratu.

Tiempo de silencio. Seix Barral. Bartzelona. 1962.

«Tauromaquia». *Triunfo* aldizkaria (1963ko apirilaren 6an). Idazlan hau *Apólogos y otras prosas inéditas*en ere ageriko da.

«Condenada belleza del mundo». *Griffith* aldizkaria, 3 eta 4. zk.ak, 1964ko abendua eta 1965eko urtarrila. *El Urogallon* atzera argitaratu zen, 1. zk.an, 1986ko maiatzean, 30-44. orrialdeetan. Idazlan hau, ostera, ez da ezein liburutan argitaratu.

Apólogos y otras prosas inéditas. Seix Barral. Bartzelona. 1970. Liburu honetan, zenbait idazlan, idazkizunen haziak direnak, taxuera kafkazalea duten testuak daude; *Tiempo de destrucción*en hitzaurrea ere dakar, hitzaurre hori, baina, ez da eleberrian ageri. Liburu honetan ageri da «Tauromaquia» ere. Argitalpena eta hitzaurrea Salvador Clotasen esku daude.

Tiempo de destrucción. Seix Barral. Bartzelona. 1975. Martín-Santosen bigarren eleberria da, burutzeke utzitakoa. Argitalpena José Carlos Mainer-en esku dago, eta berak ere egin zuen hitzaurrea.

2. Saio eta artikuluak

Dilthey, Jaspers y la comprensión del enfermo mental. Paz Montalvo. Madril. 1955. Liburu honen hitzaurrea López Ibor irakasleak egin zuen.

«Noticia del coloquio sobre realismo y realidad en la literatura contemporánea». *El mundo en español*. UNESCOk Parisen, 1963ko abenduan, argitaratu zuen *El mundo en español*en prentsa-bulegoaren informazio orria da.

Libertad, temporalidad y transferencia en el psicoanálisis existencial. Seix Barral. Bartzelona. 1964. Bertan Carlos Castillaren hitzaurrea dago, bai eta Martín-Santosen hamabost artikulu baino gehiagoren aitamena ere.

3. Lan hau egiteko erabili dudan argitalpenaren zehaztasunak

Erabili dudan argitalpenak honela dio: *Tiempo de silencio. Edición definitiva* (hogeita hirugarren argitaraldia). Ondoren zenbait argitaraldi-
ren aitamena egingo dut:

«Primera edición: 1961
Decimosexta edición, definitiva: octubre 1980
Decimoséptima edición: abril 1981
Decimooctava edición: noviembre 1981
Decimonovena edición: octubre 1982
Vigésima edición: febrero 1983
Vigesimoprimera edición: abril 1983
Vigesimosegunda edición: septiembre 1983
Vigesimotercera edición: marzo 1984»

Goian aitaturiko jakingarrietarik honako ondorio hauek atera ditzakegu:

Lehenengo argitalpena, Suárez Grandak esan aldera, 1961ekoa da. Gogora dezagun Suárez Grandak 1982. urtea aitatu zuela argitalpen urtetzat.

Argitaraldi asko ezagutu duen idazlana da, barbarako, 1983. urtean hiru argitaraldi egin ziren.

Azkenik, hamaseigarren argitaraldiaz gero erantsitako adjektiboa ondokoa dugu: behin-betikoa (*definitiva*). Honi dagokion bezanbatean, hogeita hirugarren argitaraldian, azkenengo azalean ageri den testua hona aldatzeari komeni deritzot:

«La primera edición de *Tiempo de silencio* apareció en Biblioteca Formentor, Seix Barral, en 1961 y alcanzó casi inmediatamente una extraordinaria resonancia crítica. Ha sido traducido al inglés, al francés, al italiano, al alemán, al holandés, al portugués, al sueco, al checo, al rumano, al finlandés, al danés y al polaco. Dondequiera ha sido señalada como una obra excepcional. La presente edición tiene carácter definitivo, por cuanto en ella se han restituido al texto la plena totalidad de las supresiones que había forzado a introducir en él la censura del anterior régimen español en sus diversas formas. Parte de tales supresiones habían sido ya subsanadas de modo paulatino en precedentes ediciones; pero sólo en la presente el lector tendrá acceso a la integridad del texto tal como fue originariamente redactado por el novelista.»

Suárez Granda ez dago arrainean, eta badio «definitivas» bezala azaltzen diren argitaraldietan badaudela moldiztuts batzuk, argitalpen-nekoak direnak bezala eskuizkribuan egon zitezkeenak.

Nolanahi ere den, nik argitaraldi hori erabili dut, eta bertan ageriko diren aitamen guztiak haren arabera egingo dira.

3. LIBURUAREN ARGUDIOAREN LABURPENEA

Pedro ikertzaile gaztea, probintzietatik etorria, apopilo bizi da ostatu batean eta ikerketa erakunde batean egiten du behar; ohartzen da ezen laboratorioan saguak falta direla minbiziaren aldaera bati buruz ikertzen segitzeko. Sagu horietarik zenbait «El Muecas»ek ostuak dira. «El Muecas» aldirietako pertsonaia da, txaboletan bizi dena, eta saguak ostu zituen, ikerketa erakunde horretan saguak behin amaituta, bertara saltzeko. Amador ikerketa erakunde horretako atezaina da eta «El Muecas»en ugaz-senidea, agi denez; Amadorrek eroango du Pedro haren txaboletara. «El Muecas»en alabek euren titien artean hazten dituzte saguak, gainera, modu horretan erdietsi dute saguak umeske jarri eta ugaltzeko.

Ekintzaren haria etenaz, bi bakarrizketa sartuko dira: apopilo-etxe-ko andreak bere bizitza oroitarazten du, eta gogoa azaldu, ostatuko apopilo garrantzitsu horren ahaide izateko, izan ere, Pedrorena, berak gogoa baitu bere iloba Doritarekin ezkon dadin Pedro. Beste bakarrizketa batean, *lumpeneko* pertsonaia batek, «Cartucho»k, azaleratzen ditu gizarte mailako bazterrik txarrenak.

Pedro, Matías lagunarekin batera, gau txori dabil Madrilen zehar: literatur kafetegia, margolari alemaniar baten lan-lekua, putetxe batera egindako bisita eta, dagoeneko goizaldean, ostaturako buelta. Erdi mozkorturik dagoela, Doritarekin oheratuko da, nahiz eta egoera hori argi-ilunetan eta lozorroan harrapatu bailegoen bizi izan, maitasun-sexua dela bide, eta famili giro eskasaren amoreagatik.

Goizalde berean, Floritari, «El Muecas»en alaba nagusiari, abortua egingo zaio; «El Muecas» ahaide-hobendun aita da. Nahiz eta Pedrok jardun ez elkargoko mediku legez, «El Muecas» haren bila doa; baina Pedrok ezin du neska salbatu, hara joan zenean odoletan baitzegoen; nolanahi ere den, legearen aurkako ekintza batekin du zerikusirik. «Cartucho», Floritaren lehengo laguna, barrendatzen dabil txabola, zein kirofanoa bihurtua den, eta ondorio legez ateratzen du Pedro dela neskaren heriotzaren erruduna, Amadorrek horrela aitortu baitio mehatxupean.

Ondoren, bigarren mailako ekintza batzuk sartzen dira tartean: Pedro Matíasenean, izen handiko intelektual (José Ortega y Gasset) baten

hitzaldiaren giroa azaltzen da; eta azkenik, Floritaren lurperaketa, hari nagusira bihurtuta.

Atxilotuko dutelakoan, Pedro beldur da, eta putetxean ezkutatuko da, baina buruan polizia helduko da hura atxilotzera. Matíasek bere ezaupideak darabiltza laguna askatzeko; hala ere, «El Muecas»en andreak esaten duena izango da, azken buruan, Pedro askatuko duena; kalera urtenez gero, Pedro laboratoriora itzuliko da, bertan zuzendariak jaso baina badiotso ezen jazokizun horrek eragin diola beka galtzea, eta ezin izango duela ikertzen segitu.

Apopilo-etxeko andrazkoek, Dorita, ama eta amonak, ospatzen dihardute apopilo garrantzitsuaren itzulera, eta iragarriko dute laster ezkonduko direla Pedro eta Dorita. Sainete tankerako askaria egingo dute, bertara ostatuko beste apopiloak ere joango dira, eta askari horrek azaleratuko du zelan irentsi duen Pedro sendi giro motel eta irentzaile horrek. Eta Pedro erabat suntsitua dela adierazteko, adibiderik garbiena *revista musicalera* joatea da, Dorita, ama eta amona lagun dituela. Herri berbena errematea da Pedrok ikertzen segitzeko duen eraspenaren akaberarena; berbenan bertan hilgo du «Cartucho»k Dorita labanaz, Floritaren heriotzaren mendeku gisa.

4. PERTSONAIK

Luis Martín-Santosek pertsonaiak darabiltza buruerak islatzeko, eta batzuetan pertsonaien jarreraren bat-batekotasuna moztuta geldituko da, idazlearen gorpuztearen zorretan daudenez.

*Tiempo de silencio*ren buruera hau izan liteke: gizakume batek ezin du bere burua askatu jaioa den gizarteko taldearen indarretatik. Horrela, bada, Pedoren jokaera teoria haren gorpuzte bihurtzen du arauz; horregatik ageri da gizakume argi baina indarge gisa, Doritarekin dituen sexu-harremanei ezin jarki dakiekeena, eta zuzendariaren ebazpena txintik esan barik onartuko du, beka kentzen dionean; ez da gauza apopilo-etxean beraren alde egiten diharduten ospakizunetik urten eta Matíasekin joateko; ezin jarki dakioke *revista musicalera* joateari. Beraren jokieran men egiten du arian-arian.

Edozelan ere, Martín-Santosek ez ditu pertsonaia guztiak era berean erabiltzen, berbarako, Amador, «Cartucho» eta «El Muecas» euren buruaren jabe direla esan liteke.

Pertsonaien ezaugarriak finkatzeko, darabiltzan eskuarterrik usuenak honako hauek dira⁴: 1) nork bere buruerak adieraztea; 2) ikusmol-

⁴ REY, Alfonso: *Construcción y sentido en «Tiempo de silencio»*. José Porrúa Turanzas. Madril. 1980.

dea ikuspegi ezberdinetatik ematea; 3) norberari bakarrik datxezkion berezitasunak agertzea; eta 4) jokaera bat, zeinek gizabanakoa zer den ezarian-ezarian adierazten duen.

Lehenengo eskuartearen barne bakarriketetan ageri da: apopilo-etxe-ko andrearena, «Cartucho»rena, Pedrorena berarena, Similianorena (poliziarrena, alegia), Amadorrena eta Matíasena. Bigarrena, berriz, apopilo-etxe-ko andrearengan aurkitzen dugu; beraren nortasunak honako osagaiok izango ditu: a) beraren berbak [20-29 eta 96-99. orr.], b) idazleak pertsonaia bati buruz duen iritzia emateko oguzten dituen berbak [118-119. orr.], c) idazleak epaitzen dituen pertsonaiaren ekintzak [41-49. orr.], eta d) jarduera orokorra.

Kritikak irakasasmoko bakarriketa (*monólogo dialéctico*) legeztotzen duena ere ageri da; horietan Martín-Santosek pertsonaiari osten dio askatasuna, honek bere kasa jardun ez dezan; horrela egiten du, barbarako, apopilo-etxe-ko andrearen bakarriketetarik batean, non berba nabarmen jasoak erabiltzen dituen; berba horiek azalartzen dute, izan ere, idazleak noraino hartzen duen esku istorioaren harian.

Idazleak, bestalde, ez du ezetariko kupidarik pertsonaiekin: sorraio agertzen zaie, eta batzuetan anker jokutzen du beraiek maiseatzen; ikuspegi horretatik aske gelditzen den bakarra Encarna-Ricarda da, «El Muecas»en emaztea, bai eta beraien alaba Florita ere, zein baita errurik gabeko hila, eta bat-batekotasunez jokutzen duen.

Errukieza uztartu egingo zaio idazleak pertsonaien aldetik duen nagusitasunari. Bestalde, Pedro eta Matías dagokien bezanbatean, idazlea bezain jakitunak diren adinean, gaitz da jakiten noiz jaurtitzen dituzten euren iritziak eta noiz idazlearenak; egiatan, ahotsen tolesduren aurrean gaude.

Pertsonaiak eta gizarte taldeak

Zenbait kritikok esan duenez, ez dago eleberrian langileriako pertsonaiarik. Badirudi hau egia ezezik barrenloturazkoa ere badela, ezik idazleak gizabanakoaren eta gizartearen arteko gatazka azalartu nahi du: Pedro eta Madrilgo gizartearen artean (zenbaitetik dio Madril irakurtzen den tokian, Espainia irakurri behar dela).

Langileria eleberrian ageri ez denez gero, eleberritari, gizartezko barrik, izatezko iritz dakioko. Horrela, bada, pertsonaiak gizarte maila ezberdinetakoak izatea eta bakoitzaren nortasuna ez dira eleberraren oinarrizko ezaugarriak.

Zenbaiten aburuan, gizarte maila barik, gizarte taldeak ikusi behar dira; horrela, bada, Ramón Buckleyren ustez⁵, hiru talde daude, baina Alfonso Reyren arabera bost daude: goi burgesia, maila ertaina, behe burgesia, azpi proletario behartsua, eta enplegatu eta langileak. Edoze-lan ere, ez du ematen arazo honek berebiziko garrantzirik duenik lan honen helburuari begira.

Azter ditzagun banan-banan pertsonaiak:

Pedro

Pedroren istorioa porrot argitsu batena dela esan liteke: beraren asmoak hondorutzen dituzte, eta berak badaki; baina ez zaio jarkitzen, eta ez du bere «isiltasun denbora» antsiaz bizitzen. Azken buruan, Pedrok ez du nahi duena egiten, besteek nahi dutena baizik: apopilo-etxeko emakumeek harrapatzen dute, ezkongai legez; «El Muecas»ek bere alabaren abortuan nahastzen du, bai eta justiziarekin izango dituen arazoetan ere; ikerketa erakundeko zuzendariak beka kenduko dio, eta probintzietara joan eragin; lanbidean bezala bere bizitzan porrot egingo du. Hala ere, ez da pertsonaia larritua. Martín-Santosek bere *Apólogosen* [1970, 127. or.] dioenez: «Sólo en la angustia el hombre capta la totalidad de su ser».

Edozelan ere, Pedro bere porrotaren jakinaren gainean dago; hori gorabehera, ez du argitasun horrek sortarazten duen antsia pairatzen.

Pedroren nortasunaren ezaugarri nagusiak bi dira: argitasuna eta indargetasuna.

Pedro eta idazlearen arteko tolesdura zenbaitetan ageri da, berbarako, Pedrok Cervantes oroitarazten duenean [74-77. orr.], edo 78. or. an ondokoa irakurtzen dugunean: «él prefería haber seguido evocando fantasmas de hombres que derramaron sus propios cánceres sobre pa-peles blancos».

Pedrok sexuaren aldetik duen jokaera ñabardura askorekin ageri da zedarriturik, zeren eta haren porrotaren ardatzetarik bat baita; hor ere okertzen da.

Alfonso Reyk Pedro eta gizuren izakioen arteko ahaidetasuna azalera-tzen du. Halaber, badirudi pertsonaia hori uztartzen dela gizaldiaren hasierako eleberriko literatur ereduekin: Baroja, Azorín, Pérez de Aya-la... Fernando Moránek⁶ azaleratu du, berbarako, *El árbol de la ciencia*-ko Andrés Hurtado eta Pedroren arteko antzekotasuna.

⁵ BUCKLEY, Ramón: *Problemas formales en la novela española contemporánea*. Ediciones Península. Madril. 1973. 195-209. orr.

⁶ MORÁN, Fernando: *Novela y semidesarrollo*. Taurus. Madril. 1971. 386. or.

Suárez Grandak, berriz, badarabil Martín-Santosek Cervantesi dion eraspina; horren arabera, Pedro-Amador bikotea Quijote-Sancho biko-tearekin elkartzen du: bata idealista, bestea lurrekoa; bata nagusia, bestea laguntzaile-ezkutaria. Haren arabera, Pedro-Amador bikotean espainiar antzerti klasikoan eta zaldun-edaskuntzan ageri diren pertsonaien bitasunaren eredu orokorra aurki daiteke.

Berriro eutsiko diogu Pedro-idazlearen arteko tolesdurari: idazlea Pedoren ahotik mintzo da, beti ere eleberriko gai garrantzitsu eta mui-netakoei dagokien bezanbatean; baina ahots berbera islatzen da berbaro arranditsuetan, literatur aitamen barregarrietan eta «galimatías de Matías»enetan. Pedro garrantzi handikoa (hausnartzailea) da, eta Matías garrantzi gutxikoa.

Lerroalde batzuk aletzekotan, Pedoren bilakaera azter dezakegu eleberrian barrena. 19. orrialdean, honako hau irakurrieran: «el hombre aquí ya no es de pueblo, que ya no pareces de pueblo, hombre», edaskizuneko pertsona nahita aldatu ezezik, Pedoren jatorria bestela baitakoan azaltzen da; beste pasarte batean probintziako moda zalan-tzakorraren arabera jantzita heldu zen eguna ere aitatzen da, izan ere, 141. orrialdean.

Apopilo-etxean duen bizimodua etxe horretako mundu motzaren ikur da, eta gurpil zoroa («la pescadilla mordiendo la cola», [72. or.]) darabil hori adierazteko. Ezin zaio bizigiro horri jarki, eta ezintasun hori Matíasi itsatsiko dio. Eta Pedoren argitasuna eta buru-ekandu irentzaileak behin eta berriro ageri dira, hala nola, 87. orrialdean ageri den pasarte honetan:

«El número de desnudos que pinta indica el nivel alcanzado por la represión de un pueblo —opinó confusamente Pedro pensando en sus propias represiones. Resultaba grato permanecer en el vasto invernadero de opulentas peonías, en lugar de caminar hacia un presunto Dachau masturbatorio.»

Pedoren nortasunaren zorren aldean, ereduzko bizitza, gizartean garrantzia duena eraikitzeke jartzen dituen argitasuna eta jorana daude, hala nola, 112-118. orrialdeetako pasartean nahi hori uztartuko da maitasun-sexuzko iruzurrean ez jaustearekin.

Emeak «seno pitónico»a du [198. or.an], hau da, sugeak bezala iresten du: «Osado el que penetra en la carne femenina, ¿cómo podrá permanecer entero tras la cópula? Vagina dentata, castración efectiva, emasculación posesiva».

Pedro ziegan dagoelarik, hau da, kinka larrian, gai da arrazoimena erabiltzeko, berak bera den bezala irauteko, berak baitaki askatasuna ez dela mozten gorputz atxilotzearren; horregatik diotso bere buruari 221. orrialdean: «tu libertad sigue existiendo también ahora».

Eta Pedrok gero eta antz gehiago du bera iresten diharduen taldearena: Dorita haren itaunez doa atxilotuta dagoelarik.

Ikerketa erakundeko zuzendariak horrela diotso: «Váyase a una provincia» [259. or.an], eta Pedrok, men eginez horrela diotso Amadorri: «Ahora podré casarme y ganar dinero» [261. or.an].

Gizabanakoa gero eta kamutsago dagoela garbi ageri da, batez ere *revista musicaleko* pasartean.

Berbenan daudelarik, «Cartucho»k Dorita hilgo du eta, irteera barik, Pedrok ekingo dio azken bidaiari, probintzia batera joateko. Bakarrizketa horretan, Pedrok zortzi aldiz itaungo dio bere buruari zergatik, edo baiez-tatu ez dagoela etsita. Amaierako pasarte osoa ikurrez josita dago, eta ikur horiek gizon irendua adierazi nahi dute; baina Pedroren etsipena ez da pairamenak sortua, baizik, kinka larria gorabehera, etsita ez egoteak.

Eleberriaren amaieran San Lorenzoren irudia barneratzen da, eta martiriaren gelditasunaren ikurra da.

Amador

Pedroren antitesia da, *antagonista*, protagonistaren erakuntzaren aurkakoa baita: Pedro jakin hilduratua da; Amador, berriz, ezjakin zorionsua, herriaren gorpuztura, jakinduria gutxikoa, otzana, bere biziaren gorengo muga biziraupenean jartzen duena. Horrela irudiztatzen du Martín-Santosek 190. orrialdean:

«Era el de Amador un carácter generoso. Lo mismo era capaz de regalar su tiempo sin mirar minucias a un investigador especialmente activo, como de comprar sin previo aviso un bolso de plástico color café con leche a su mujercita adorada.»

Amador erabat pozik dago bere bizimoduarekin, Madrilen jaio delako; Tetuán de las Victoriasen bizi da, Madrilgo auzo batean.

Apopilo-etxeko hiru belaunaldiak

Amonak, amak eta alabak, elkarrekin, batasuna osotzen dute ekin-tzari dagokionez: nahiz eta nork bere nortasun berezia izan, interes bera dute, izan ere, Pedro harrapatzea. Honela deritze idazleak: «trimurti de disparejas diosas» [43. or.], «las tres diosas» eta «aquellas tres vulgares y derrotadas mujeres» [46. or.], «las tres parcas» [49. or.] etab. Euren bizimodua apopilo-etxea da, harik eta Dorita Pedrorekin ezkondu arte.

Beraietarik amonak bakarrik du nortasun islatua eleberrian, beraren bakarrizketa batzuk direla bide, bai eta beraren gainean egiten diren deskripzio batzuei esker ere; beste andrazko biak nahikoa ilunak dira, eta bizimodu ilaun eta giltzaperatu baten gorpuztura legez hartzen dira.

Matías

Amador Pedroren antitesia den ginoan, Matías haren osagarria da. Zenbait pasartetan elkaturik ageri dira, eta bien arteko aldea nabari da, hala nola, 91-92. orrialdeetan:

«El golpe de aire frío en la cara les devolvía a un tiempo la conciencia alerta de Pedro de ser libre, la conciencia particular de Matías de ser omnisciente»

Lerroalde horretan argi eta garbi ageri dira bakoitzaren ikuspegiak: Pedrok askea izan nahi du; eta Matíasek, berriz, orojakilea.

Matías jakitsu, barre-eragile eta burutsua da, eta badirudi idazleak pertsonaia hori gustuko duela, batez ere, kontutan hartzen bada Martín-Santos eta Matíasen artean dagoen ageriko idetasuna. Irakurleak Pedro-idazlearen ahotsa ezagutzen badu, barre-agertokietan, aldiz, ganorarik gabeko berbaroetan eta hitz-jokoetan, Matías-idazlea ageri da.

Martín-Santosek Matíasi barre egiten dionean ere, onberatasunez egiten du; literatur kafetegian neska batekin lotzen ahalegintzen da, bere argitasun eta literatur ezaguerak erabiliz, baina ez du ezer erdies-ten; geroxeago, honela dio 82. orrialdean:

«Y el galimatías literario-sentimental de Matías no significaba sino la falta del ángel viajero que le ayudara a sacar el pescado por las agallas.»

Martín-Santosek hitz-joko hau darabil: «galimatías»-Matías; eta «ángel»en esangura bikoitza jasotzen du, zeren eta berba horrek Espainiako hegoaldean esan nahi baitu pertsona batek bere burua begiko egiteko duen gaitasuna, eta aingeru batek lagundu zion Bibliako pertsonaia bati arraina ateratzen beroni zakatzetatik helduz (eta Matíasek neskari lagundu nahi dio).

Matías bere sendiaren etxean bizi da, etxetzar aberats batean, zein zehatz-mehatz azaltzen den Pedro bere lagunaren etxera joaten denean.

«El Muecas» eta beraren familia

Amadorrek diharduelarik, eleberriaren amaieran, txabolek Pedro galbidean ipintzearen gainean, honela dio 259. or.an:

«Amador lo sintió mucho. Sabía que era responsable de haberle puesto [a Pedro] en contacto con aquel mundo infernal de las chabolas que contaminan a cuantos tocan.»

Ata horretan azaltzen da Bibliako madarikazioa, eta txaboletako bizilagunen izaera txarra ez bada ere «El Muecas» edo «Cartucho» izan ezik, mundu horretantxe sortuko da pertsonaia nagusiaren galera.

«El Muecas» Pablo González-en izengoitia da, eta Amadorren erdi lehengusua eta garaikidea da; Amadorrek «El Muecas»i zakar baina zuri deritzo. Horrenbestez, «El Muecas» «Gentleman-farmer-Muecas-thone», «ciudadano Muecas» etabar legez ageri denean, barre eragiteko baino ez da.

«El Muecas»en alaba bietarik batek bakarrik du zelanbaiteko isla, pertsonaia legez, Florita alegia. Hirugarren pasartearen [19-20. orr.] hemezterzi urtekoa dela esaten da, Florita bera beren beregi aitatzan ez bada ere, zeren eta testuingurutik nahikoa garbi gelditzen den. Floritaren gorpua, abortua egin ostean hila baita, sinbolismo samur batez azalduko da 134. or.an: «Los muslos de la muerta habían caído como grandes pétalos».

Ricarda-Encarna da idazleak biguntasunez darabilen pertsonaia, Florita, Matías eta Amadorrekin batera. Idazleak beti deritzo Ricarda, salbu eta behin, non Encarna deritzon. Zenbaiten iritzian, azken izendazioan Cervantesi egindako omenaldia dago, baina oso litekeena da, beste barik, hutsa izatea. Martín-Santosek Ricarda-Encarnari dion nahitasuna, batez ere, alaba hilaren gainean negar dagienean ageri da, eta odolezko gizaki legez azaleratzen da, ezjakina dena, jende artean egoten ez dakiena, gizartearen azken katemaila: ihaulien artean ihaulia.

«Cartucho»

Kritikak ikusi duen ikurgintzan, «Cartucho» mitologia greziarreko ziklopea da, hala nola, 148. or.an: «No podía adivinar de dónde ha salido aquel hombre negro, como llovido del cielo o vomitado de una mina...»; berbenaren pasartearen, «Cartucho»k Doritari labana sartzen dionean, beraren jazkera beldurgarria aitatzan da 279. or.an: «Entonces entró Cartucho por la puerta vestido de negro...»,

283.ean: «...mientras al lado de ella, justamente a su lado pero sin tocarla, se colocaba el hombre de pueblo vestido de negro...», eta 284.ean: «Te va a sentar mal, dijo el hombre de negro...».

Horrezaz gainera, beraren bakarrizketetan, batez ere lehenengoan, 54-57. orrialdeetan, nortasun itsutu eta erabatekoa islatzen du: beraren seta da, txaboletako munduan duen bizigiroa aldarrikatu eta Floritaren erruduna nor den jakitea.

«Cartucho», zalantzarik ez, gizartearen azken katemaila da, ezik «El Muecas» berak ere badu maila eta estatusa, bere ezbeharrak gora-behera; «Cartucho», ostera, txaboletako barrutietako aginpide negargarrienetarikoa da.

Beste pertsonaia batzuk

Andere Luisa, putetxeko jabea; Similiano, polizia; Matíasen ama; eta beste banaka batzuk izan ezik; enparauak irudi hutsak baino ez dira. Areago, aitatu berri ditugunek ere ez dute hortik askoz harantzagoko garrantzirik. Ez dituzte erabakitzen hariaren nondik-norakoak, ez diete eragiten pertsonaia nagusiei, ez eta beraien bizigiroari ere.

Hala ere, zenbaiten aburuz, herria gogoan hartu beharko litzateke talde-pertsonaia bezala, gizaldrak, kaletik zehar dabilen jendea, espainiar herria, *revista musical*eko jendea eta, jakina, zezenetan dagoena.

5. ELEBERRIA IDATZI ZEN DENBORAREN INGURU HISTORIKOA

Tiempo de silencio 1949an lekutzen da, eta Madrilén. Idazleak, alabaina, 1959 edo 1960aren inguruan idatzi zuen, hogeita hamabost urte zituela. Garai hartan, eleberria idatzi zuen denboran alegia, jazoera politiko garrantzitsuak gertatzen ari ziren Espainian, bai eta kultura eta ekonomiaren aldetik zirenak ere. Jazokizun horiek guztiak eragin izugarria dute eleberria ulertzeko, bai eta bera idatzi eta argitaratzeko izan ziren eragozpenen neurria gogoan hartzeko ere; hala nola, 1959an hirugarren aldiz kartzelaratu zuten, eta 1961eko argitaraldia zentsurak moztua izan zen.

Berrogeietako hondarretan, Espainia oso herri behartsua zen, barru migrazio izugarria zuena, gizartean ezberdintasun nabariak zituena, eta baserrikeriazko kulturaz blai zegoena. Autarkiaroko Espainia zen; autarkia berbak, ekonomia eta diplomaziaren aldetik jasaten zuen isolamendua adierazteko ezezik, kulturaren egoera ere ematen du aditzera. Garai hartan Francoren erregimenak isolamenduan iraun zuen ekonomia,

politika eta kulturaren aldetik, lehen esan bezala, horrezaz gainera, eragozpen ia gaindiezinak zeuden pasaporteak lortzeko eta, horrenbestez, atzerrira joateko; beraz, ezinezkoa zen kultur joerarik berrienak berehala ezagutzea.

Bestalde, Espainiaren barruan zentsura negargarria zegoen, eta berak eman zion buru, Guda Zibilak ekindako kulturaren hondamendiari; gogoan har bedi irakasle, zientzialari, idazle eta artista askok atzerrira joan behar izan zutela. «Páramo cultural» adierazpenak egundoko arrakasta erdietsi zuen⁷, Espainiaren egoera 1939az geroko bi hamar-kadetetan islatzeko. Honetara ezkerro, merezi du Juan Goytisoloren ondorengo lerroaldea erasteak:

«Hasta 1955 aproximadamente la inmensa mayoría de los españoles no tenía la posibilidad real de abandonar el país: las autoridades exigían un salvoconducto, exclusivo de una afortunada minoría. Una campaña psicológica bien orquestada ponía en guardia contra la influencia nociva del extranjero. La cuarentena impuesta al Régimen por los acuerdos de Postdam, el cierre de la frontera francesa, la retirada de embajadores, favorecía la natural xenofobia de las clases conservadoras, xenofobia alimentada por el recuerdo de las hazañas gloriosas del Siglo de Oro [...]. En esta época se prohibía el empleo de nombres extranjeros en comercios, cines, bares, etc., y la prensa subrayaba las diferencias «insalvables» que, según ella, existían entre España y las demás naciones de Europa.»⁸

1936ko abenduaren 23an, zentsura zelan egingo zen arautu zuen legezko xedapena argitaratu zen; horrenbestez, egunkari, liburu eta aldizkarietan, irratian eta, heldu zenean, telebistan agertzen zen oro zentsuragileak ikusi behar izaten zuen. Gauzek horrela iraun zuten, harik eta 1966an «Ley de Prensa e Imprenta» agertu arte.

Horrekin batera, kultura ofiziala bultzatu zen, Francoren erregimenaren aldekoa zena, eta honako helburuok zituen: askatasun politiko eta sindikalak debekatzea, erabateko katolizismoa, familiaren laudorioa, zenbait ikuskizun galaraztea, espainiartasun bereizgarria goratzea.

Zentsura dela eta, berarekin arazoak izan zituzten zenbait idazlan aipa ditzakegu, hala nola, *La colmena* (Celarena; 1951koa, lehen argitaraldia Buenos Airesen egin zen), *Año tras año* (1962koa, López Salinasena), *Señas de identidad* (1966koa, Juan Goytisoloren), *La hoja de parra* (1973koa, López Pachecoren).

⁷ ABELLÁN, José Luis: *La cultura en España*. Edicusa. Madril. 1971. 9. or.

⁸ GOYTISOLO, Juan: *El furgón de cola*. Seix Barral. Bartzelona. 1976. 260-261. orr.

Tiempo de silencio berak zenbait zati ikusi zuen moztuta: lehenengo argitaraldian, lau pasarte kendu ziren, eta horietarik batzuk atzera jarri ziren 1965eko argitaraldian [urte honetako argitaraldiko 82. or.tik 92.era eta 147.etik 155.era doazenak]; 1965ekoan, berriz, lerroalde bat ezabatu zen, zeinetan Matíasek, Pedroren lagunak, Aita Saindua barregarri uzten duen. Testu osoa 1980ko argitaraldian sartu zen. Jarraian behin-betiko argitaraldian agertu baina 1985ekoan isildu zen lerroalde osoa aldatuko dugu bertara, eta taket artean adieraziko da zein den isildutako zatia:

«Esta breve ruptura de lo habitual, conseguida a tan bajo precio, le llenó de una convicción de infalibilidad [semejante a la de otros ocupantes de sillas gestatorias más trabajosamente conquistadas a lo largo de los siglos y gracias a ritos tradicionalmente estipulados entre los que la castidad con mantenimiento de integridad glandular no le parecía en aquel momento el menos molesto]. A su descenso, el todavía-no-loco-pintor seguía aplicando el método constatorio a materialidades de gran importancia social.»

Hori guztia ezezik, atzerriraturiko eleberrigileen idazlanak ere berandu ezagutuko ziren, eta arazo asko izan zuten bertan argitara zitezten (Francisco Ayala, Ramón J. Sender, Arturo Barea).

Berrogeita hamarretako hamarkadan, ostera, kanpotiko isolamendua eteteari ekin zitzaion, eta harremanak normaltzen hasiko ziren beste herrialde batzuekin: 1951n, Aulki Sainduarekin sinatu zen Konkordatua; 1953an, Estatu Batuekin Itunbena sinatu zen; eta geroxeago sartuko zen Espainia Nazio Batuen Erakundean.

Hurrengo hamarkadan etorriko ziren turistak samaldaka, eta espainiarrek Europa ertainera joaten ekingo zioten. Jazokizun hauek guztiak, baina, *Tiempo de silencio* argitaratu ondorengo denborakoak dira, izan ere, Luis Martín-Santosen bizitzaren azken urteetakoak dira.

1962. urtea urte mugarri gertatzen da, ezik zenbait jazoera garrantzitsu gertatzen dira: Fraga Iribarne Informazio eta Turismo ministro bihurtu zen, izan ere, zentsuraren arduraduna; negoziatzeari ekin zioten Espainia Europako Ekonomi Elkartean sartzeko; Mario Vargas Llosaren *La ciudad y los perros* eleberria agertu zen.

Urte horretan bertan, amaiera aldean, hirurak eleberri garrantzitsu argitaratu ziren, Martín-Santosen idaztinkeraren antzekoak direnak: *Dos días de setiembre*, Caballero Bonaldena; *Tormenta de verano*, García Hortelanorena; eta *Fin de fiesta*, Juan Goytisolorena.

Garai hartako eleberrigileak. Berrogeita hamarretako urteen erdialdera, eleberrigile batzuen idazlana sendotzen hasi zen; eleberrigile horiek ez zetozen bat Espainiako egoerarekin, eta literatur langintza gizartearekin hartu beharreko konpromezu legez ulertzen zuten; beraiek

ohi darabiltzaten gaiak zurrupatzaile eta zurrupatuen arteko gizartean lekutzen dituzte, beraz, eleberria hartzen dute ezberdintasun horiek satatzeko modu legez. Beraien eleberrietako pertsonaiak garrantzitsuak dira ekoizpen-sisteman duten lekuagatik, gizabanako legez dute-nagatik baino; sarri askotan, talde-pertsonaiak agertzen dira.

Edaskerarik usuen errotiko errealismoa da, ezik, beraien iritzian, errealitateak berez nahikoa esangura du, eta eleberrigileak hura kontatu baino ez du egin behar. Idazlearen zeregina, horren guztiaren ondorioaz, gizarteko jazoerak bildu behar ditu, ezen ez asmatu edo fikzio bihurtu, eta pertsonaiak eurak dira, sarritan, euren arazoak aldarrikatzen dituztenak: hortik sortzen da eleberrri mota honetan elkarrizketek duten garrantzia.

Belaunaldi horretakoak dira, barbarako, Antonio Ferres, López Salinas, Ignacio Aldecoa, Carmen Martín Gaité, Medardo Fraile, Caballero Bonald, Fernández Santos, Ana María Matute, Fernando Morán, Rafael Sánchez Ferlosio, Mario Lacruz, F. Guillermo de Castro, García Hortelano, Alfonso Grosso, López Pacheco eta Juan Goytisolo. Urte horietako eleberrien ikurtzat *El Jarama* (1956) hartzen da, ia-ia eleberrri mota horri hasiera ematen diona. Bertan, Sánchez Ferlosiok gizarte-eleberriaren hastapenak bere egiten ditu, baina irudimenezko osagai asko sartzen du, bai eta ikur-osagaiak ere.

Luis Goytisolo, Juan Marsé eta Juan Benet sarkaitzak dira talde horretan, eta sartzekotan ere, tentu handiz egin behar da.

Beste horrenbeste esan liteke Martín-Santosi buruz; 1924an jaioa denez gero, beste guztien garaikidea da; edozelan ere, *Tiempo de silencio* gizarte-eleberriaren ezaugarriak baztertu ezezik, beraren pasarte barregarriak sartzen ditu. Gaiak gizarte-eleberrikoak dira alde, beste alde batez izan-arazoak ditu, eta bestetik berrogeita hamar urte lehenagoko eleberriaren abangoardiaren ezaugarriak biltzen ditu: Joyce (zenbait kritikarik aitatzten du *Ulysses* eta *Tiempo de silencio* arteko antzekotasuna), Kafka eta Faulkner, batez ere. Prousten gaineko aitamena ere eskura daiteke 80. orrialdean Matíasen ahoan. Aitamenik nabarmena *Ulysses*en gainekoa da, barbarako, 81. orrialdean, Pedoren gorabehera batzuk aitatuera, *Ulysses* irakurri behar dela esaten zaigu, bai eta amerikar eleberrigintza osoa berarengandik sortua dela ere.

6. LEKUA, DENBORA ETA EGITURA ELEBERRIAN

Leku hiritarra

Eleberriaren amaieran, Pedrok bakarrizketan diharduela, trenetaz probintzietako medikua izateko duen helbururantz doanean, «Monasterio»a aitatzten da [294. or.], *El Escorial* alegia. Une honetan bakarrik uz-

ten dio *Tiempo de silenciok* eleberri hiritarra izateari. Ordura arte, edatsi diren pasarteak zenbait leku madrildarretan jazoak dira: apopilo-etxea, «El Muecas» en aldiria, ikerketa erakundea, tabernak, zinetoki bat, lagunen etxea etab. Beste zenbaitetan, kaleak dira gertaguneak, zein euren izenez aitatzen diren, eta pertsonaiaren baten ibilbidearen harira datoz, edo zenbait aitamen dela medio. Hona hemen, eleberrian aitatzen diren kale, plaza eta toki publikoen zerrenda:

«calle de Atocha» [31. or.], zenbaitetan ageri da; «calle de la Reina», [113. or.]; «calle San Marcos» [95. or.]; «calle de Sevilla» [113. or.]; «calle del Nuncio» [17. or.]; «calle del Pez» [266. or.]; «calle de la Bola» [17. or.]; «calle de la Montera» [233. or.]; «calle Infantas» [86. or.]; «esa calle que desciende directamente al corazón de la ciudad» [222. or.], bertan Carretas aitatu nahi delarik; «la gran avenida» [232. or.], bertan Gran Vía aitatu nahiz; «el Rastro» [50. or.]; «los altos de Antón Martín» [31. or.]; «la Glorieta» [de Atocha] [32. or.]; «la Glorieta» [de Cuatro Caminos] [191. or.]; «la plaza con una fuente tirada por leones» [77. or.], izan ere, *Cibeles*; «Paseo del Prado» [140. or.]; «una plaza grande» [17. or.], *Plaza Mayor* aitatur; «plazuela de Tirso de Molina» [73, 113 eta 222. orr.], kale honi izen zaharrez ere deritzo: *Progreso* alegia; «Viaducto» [Bailén kalekoa Segovia kalearen gainekoa] [121. or.]; eta «Retiro»ko parkea [140. or.]; behin eta berriro aitatzen da *Tetuán de las Victorias*, 37. or.an, barbarako, zeren eta leku honetan Amador jaiotzen, izan ere, Pedroren laguntzailea.

Bestalde, antzokiak, zinetokiak, solastokiak eta herri erakundeen etxeak aitatzen dira, hala nola:

«Eslava» [antzokia] [188. or.]; «Monumental» [antzokia] [191. or.]; «Barceló» [zinetokia] [158. or.], zeini «cónclave de Barceló» [158. or.] eta «un cine de baja estofa» [161. or.] ere deritzon; «Callao» [zinetokia] [267. or.]; «café literario» bat [79. or.], [zalantza barik, *Café Gijón*]; «Ministerio» [Ejerzitoarena] [85. or.] bertan *Cuartel General del Ejército* dago; «Villarosa, Tudescos, Echegaray» [dantzatokiak] [127. or.]; «Príncipe Pío» [geltokia] [286. or.] *Iparraldeko geltoki* legez ezagutzen dena.

Horiezaz gainera, Madrilgo beste leku batzuk azaletik aitatzen dira: *Palacio de Oriente*, *Almudena*, *Sierra de Guadarrama*. Horrek guztiak bide ematen du pentsatzeko ezen Martín-Santosek ez duela bere eleberria asmatu tuki batean lekutzen, eta ez duela ezkutatu nahi «cogollito de España»ren gaineko eleberria egin nahi izana. Madril «cogollito de España» legez aitatzen bada ere, Madrilgo hiria ez da sekula ere beraren izenez aitatzen.

1949ko udazkena

*Tiempo de silencio*ren gertaunea «en esta época, donde hay árboles rojo-dorados de otoño»n lekutzen da [294. or.]. Beste une bitan ere aitatzen da urtaro hori. Denborari dagokionez, poliziak Pedrori itauntzen dionean, egiten da adierazpenik zehatzena:

«[...] No fue usted en la noche del trece al catorce a la chabola con sus instrumentos quirúrgicos [...]» [243. or.]

Badago beste jakingarri bat, eleberraren denbora zehatz-mehatz erabakitzen duena: Ortega y Gasseten hitzaldia alegia; hitzaldi horiek Barceló zinetokian eman ziren, eta antolatzailea *Instituto de Humanidades* izan zen; lehenengo hitzaldiak aurreko ikasturtean egin ziren, beste toki batean, baina 1949-1950eko ikasturtekoak «tienen que darse ante la gran asistencia de público en el cine Barceló, totalmente abarrotado».

Bertan azaltzen den Madril hori hiri izugarri eta hitsa da, beharra eta barru migrazioa jasaten dituen; Madril bera azaltzen du Celak *La colmenan*.

Edaskizunaren lerrozko denboratasuna

*Tiempo de silencio*ren edaspen-arkitektura erraz-erraza da, haren hitz lauen barrokotasun izugarria gorabehera. Hona hemen haren baktentasuna adierazten duten jakingarriak:

1. *Tiempo de silencio* hauek edatsi ditu: lerroan-lerroan datozen jazoerak (atzerantz begira dagoen urrats bakarria dago, izan ere, 41 eta 49. orrialdeen artean, zeinetan maiztasun-pasarteak azaltzen den: Pedrok apopilo-etxean duen bizimodua eta hiru belaunaldietako andrazkoekin dituen harremanak).
2. Edaspenezko pasarteak elkarren alboan daude, eta eurak lotzen dituzten korapiloak bi baino ez dira: lekuaren aldetik elkarrengandik duten hurbiltasuna eta euren antolaerak irakurleari iradokitzen diona (honela, bada, *Scène de sorcelleriek* 155 eta 159. orrialdeen artean, Barceló zinetokiko hitzaldia azaldu aurretik 159-163. orrietan, ikurren bidez irakurtzeko bidea baino ez du ematen: *Gran Buco* «el gran matón de la metafísica» da, edo alderantziz).

Edaspenaren baktentasun hau gauzatzeko, edaspenaren orekari eusten dioten hastapen batzuk behar dira, zelan diren ondoko hauek:

eleberrriaren hasiera eta amaiera pertsonaia nagusiaren bakarrizketa biek in mamitzen da; hasierako eta amaierako pasarte horiek istorioaren irekiera eta itxiera dituzte, kontutan hartu barik norbere lekuak zein toki ematen dion bakoitzari.

Eleberrian aitatzen den denbora ez igarora, luzeagoa baita, bospasei egunekoa, eta ia beti zehaztu daiteke zenbat denbora igarota den pasarte batetik bestera. Berbarako, lehenengo pasartearen amaieran hauxe irakur dezakegu: «Iremos *mañana* a su chabola» [15. or.]. Izan ere, pasarte horretan esaten da zelan jotzen duten Amador eta Pedrok arratoinen bila «El Muecas» en txabolarantz. «El Muecas» en familiaren bizimodua esaten zaigu, amonak [20-29. orr.etan] eta «Cartucho» k [54-57. orr.etan] euren burua aurkezteko egiten dituzten bakarrizketak sartutakoan [20-29. orr.etan], bai eta atzera-begirakoa egindakoan, zeinek balio duen Pedrok apopilo-etxean egiten zuena esateko [41-49. orr.etan], Pedro eta Matíasek gau-pasa egiten dutenera igarotzen da, eta pasarte honen hasiera hau da: «Como *noche de sábado*, Pedro comió rápidamente» 72. or. an. Ageri denez, beraz, denbora adierazten duen osagaia zehatza da. Zenbat denbora igarota da «El Muecas» txabolara itzuli denetik gauean egiten den irteerara arte? 73. orrialdean, «la limonada agria que había tomado *días atrás*» gogoratzen da. Orrialde berean azpimarratzen da: «al día siguiente fuera *domingo*». Larunbateko gau-pasa luzatu egiten da: «[...] Vaya, si no se quedan, tendrán que irse, porque *son las cuatro*». Pedro apopilo-etxera igande goizaldean iritsi zen, eta une horretan doa «El Muecas» en txabolara, Floritari abortua egiteko. Florita hiltzen da, amak aurrera egiten du igande horretako goizean. Pedro atzera etorri zen etxera eta «durmió toda *aquella mañana* sin interrupción» [140. or.]. Ageri denez, «Cartucho» k ikerketari ekin dio, jakiteko zeinek eragin dion heriotza Floritari, eta ikerketa hori, barren loturaz, heriotza horren ondorengoa da [143-148. orr.]

Pedro Matíasenera doa, eta han beronen amak hau itaundu zion: «¿Irá usted *mañana* a la conferencia?» [154. or.]. Eta ondoren erantsiko dio: «Venga usted *luego* a casa.» [154. or.]. Hau da, harrera eta hitzaldia egun berean jazozen dira, izan ere, Pedro Matíasenera doan egunaren biharamunean.

Harrera edo kopau horretan, Pedrok aitatzen du esku hartu zuela Floritari egindako abortuan: «*Ayer noche* he estado operando» [172. or.]. Hau da, Floritari abortua igande goizaldean egin zitzaion, eta Ortegaren hitzaldia aste berbereko astelehenean izan zen, biharamunean alegia.

Florita hilobiratuko dute eta Pedro putetxean ezkutatu da; baina aurrekoaren ondoren, nahiz eta denboraren aldetik topabiderik zehatz-

mehatz eman ez. Gauza bera esan liteke Matías-Amador-Cartucho-Similianoren jarraigoaren gainean; eta aurrekoaren ostean atxilotuko dute Pedro, ondoren itaunak egin, eta azken buruan, ziegan sartuko dute.

Guztira, hitzaldia ematen denetik Pedro askatu arte, aste bat gutxi gorabehera igarotzen da. Matíasek bere ezaupideak darabiltzanean, Pedro askatzeko, ondokoa aitatu da: «un niño abretaxi clandestino vendedor el *domingo por la noche* de la goleada» [233. or.].

Ez da zehazten noiz urteten duen Pedrok kartzelatik; baina une horretaz gero zehaztasun ugari dago denborari dagokion bezanbatean, berbarako:

Matíasek badiotso Pedrori, etxera laguntzen dionean kartzelatik: «Vendré a buscarte *mañana*. Estás invitado a cenar conmigo» [253. or.]. Haatik, Pedrok ez du bere lagunarekin afalduko, *revista musicalera* eta berbenara joango baita bere emaztegai eta amaginarrebagaiarekin; apopilo-etxean egiten den askarian, ostera, Matías agertuko da. Jazokizun horiek guztiak egun batean jazotzen dira.

Berbenan, «Cartucho»k Dorita barrendatu eta hilgo du. Doritaren heriotzatik Pedro *Príncipe Pío* geltokira joan arte igarotzen den denbora ez da zehazten. Azken pasartearen, zeinetan Pedroren barne bakarrikzeta edasten den, luzeen jota ordubetearen edo ordu eta erdian gertatzen dena esaten da.

Lerrozkotasuna ia erabatekoa da eleberri osoan barrena, baina lehenengo zatian patxada izugarria dago, zeren eta eleberriaren erdian egun bat baino ez da igaro. Horrezaz gainera, Martín-Santosek jazoera bakanak edasten ditu, istorioaren hariari ez datxekiona alde batera lagata.

Hala ere, edaskera osoa nahikoa erraza da, *Tiempo de silencio* azaltzen den berba-abileziaren aldean. Egiatan, alde izugarria dago eleberrian edasten den istorioaren lerrozkotatunaren eta berbaroaren artean. Zenbait kritikariren iritzian, axolagabekeria barik, beste zerbait ageri da: estiloaren aldetik dagoen gaitasuna handiagoa dela edasmen bano.

Eleberriaren pasarteak

Alfonso Reyren arabera, eleberriak bost ekinaldi ditu, horrezaz gainera, ekinaldi bakoitzak zenbat dirauen azaltzen du:

1. Arratzen bila (minutu batzuk eta biharamuneko goiza).
2. Pedrok zapatuan ematen duen gaua (gau bat).

3. Poliziari ihesa (Egun eta erdi edo egun bi).
4. Atxilotu eta kartzelara sartzen dute (hirurogeita hamabi ordu baino gehiago).
5. Madril uztea (askatzen dutenetik berbenara, egun bat; hortik amaierara, ez da zehazten).

Tiempo de silencio ez dago zatiturik kapitulutan, 63 pasartetan baik; edaspen-pasarte horiek honela banatzen dira: euren artean tarte bat dago, zuriz. Ondokoak dira pasarte horiek, beti ere, hogeita hirugarren argitaraldiko aitamenak direla kontutan hartu behar da:

Zenbakia	Orrialdeak	Hitzarmenez ematen zaion izenburua
1	7-15	Arratoiak falta dira.
2	15-19	Katedralik gabeko hiriak.
3	19-20	Jende behartsua.
4	20-29	Apopilo-etxeko alargun-jabearen bakarriketa.
5	29-37	Txaboletarantz (I).
6	37-41	Txaboletarantz (II).
7	41-49	Pedroren bizimodua apopilo-etxean.
8	50-54	Txabolen ikuspegia.
9	54-57	«Cartucho»ren bakarriketa.
10	57-64	«El Muecas» eta beraren familia.
11	65-72	«El Muecas»en bizitza.
12	72-78	Pedrok 112,8 kafetegirantz urtetan du.
13	78-82	Bigira kafetegian. Matías ageri da.
14	82-86	Bigira aurrera doa. Alemaniar margolaria.
15	86-91	Alemaniar margolariaren lan-lekura egindako ikustaldia.
16	91-96	Pedro eta Matías mozkortu dira.
17	96-99	Apopilo-etxearen alargun-jabearen bakarriketa.
18	99-104	Putetxera iritsi dira.
19	104-106	Putetxeko bisitarien gela.
20	106-111	Pedro eta Matíasek prostitutekin dagite berba.
21	112-118	Pedro atzera dator apopilo-etxera.
22	118-119	Apopilo-etxeko alargun-jabearen bakarriketa (idazleak bere iritziak tartekatzen dituela).
23	119-122	Pedro bere gelara dator atzera.
24	122-127	«El Muecas» Pedroren bila doa.
25	127-129	«El Muecas»en txabolaren ingurutik dabil «Cartucho».
26	129-133	Floritaren abortuaren aurretikoak.
27	134-136	Floritaren heriotza.
28	136-139	Amaren ondorenak.
29	140-143	Pedro atzera dago apopilo-etxean.
30	143-148	«Cartucho»k ikerketan dihardu.
31	148-155	Pedro Matíasenean.

Zenbakia	Orrialdeak	Hitzarmenez ematen zaion izenburua
32	155-159	Goyaren koadroaren azalpena.
33	159-163	Barceló zinetokiko hitzaldia.
34	163-165	Arazoak heriotza ziurtagiria lortzeko.
35	165-173	Harrera, hitzaldiaren ostean.
36	173-179	Ekialdeko hilerria.
37	180-185	Pedro putetxean ezkutatuko da.
38	185-190	Matías Amadorren bila dabil.
39	190-193	Amador eta beraren emaztea.
40	193	Pinu-zomorroa eta lau pertsonaia.
41	193-200	Lau dabilta Pedoren bila.
42	200-205	Pedro atxilotuko dute.
43	205-208	Kartzelan. Lehenengo itaunak.
44	208-210	Ziega (I).
45	210-215	Ziega (II).
46	215-221	Pedoren bakarriketa ziegan.
47	221-223	Dorita Pedroz arduratuko da.
48	223-225	Tauromakiaren teoria.
49	225-228	Kartzelako zaintzaileak.
50	228-231	Matíasek bere ezaupideak erabili nahi ditu (I).
51	231-234	Matíasek bere ezaupideak erabili nahi ditu (II).
52	234-237	Matíasek bere ezaupideak erabili nahi ditu (III).
53	237-239	Floritaren ama hilerrian.
54	239-244	Pedrori berriro egingo zaizkio itaunak.
55	245-249	Floritaren amaren adierazpenak.
56	249-253	Pedrok kartzelatik urtengo du.
57	253-259	Pedro hizketan ikerketa erakundeko zuzendariarekin.
58	259-262	Pedro berriketan Amadorrekin.
59	262-269	Famili giroko jaia apopilo-etxean.
60	269-276	<i>Revista musicala</i> .
61	276-285	Berbenan. Floritaren heriotza.
62	285-286	Pedoren bakarriketa.
63	286-295	Pedoren azken bakarriketa.

7. ELEBERRIAN DITUGUN AITAMEN HISTORIKOAK

Atal honetara aitamen historikoak bilduko ditugu: lehenengo eta bat, testuan agertu ahalako zerrenda agertaraziko da; ondoren, pertsonaia bakoitzak iradokitakoa (zeren sarritan aitamenak ez diren beren-beregikoak, albotikoak baizik) argitzen ahaleginduko gara; eta azkenik, zuzenbideari buruz egiten diren aitamenak azalduko dira, zeinek osotzen duten idazleak zuzenbide eta legelarien gainean duen iritzia.

a) Agertu ahalako zerrenda

Pasarte eta orrialdeak	Pertsonaia	Testua
1/12-13	Pedro	«Pero no comprendes que es un ladrón, que no vamos a poder comprar a un ladrón lo que a nosotros mismos ha robado y que no es posible que la institución robada acceda a adquirir de nuevo a precio oneroso lo robado o lo que desciende de lo robado (por cierto, ¿qué garantía?) estando como estamos en un estado de derecho donde existen cosas tales como policía, jueces y capacidad denunciante del ciudadano libre?»
1/13	Amador	Pero hay en él un cierto estupor ante los recursos maravillosos por medio de los que la ciencia llega a ser constituida y por los que, como subproducto apenas atendido pero importante, los investigadores pueden contraer matrimonio y habitar en pisos construidos por el Estado y hasta él —Amador— vivir con la parva adición de propinas de los susodichos investigadores al sueldo mezquino.
2/18	Idazlea	... a intentar imaginar cómo —Dios mío— cómo vivía todo este pueblo en los que ellos mismos dicen —ellos sabrán por qué— que fueron los años del hambre .
4/20	Amona	Había también algunas figulinas de China, que él había traído de su campaña de Filipinas que hizo tan joven y en la que no obtuvo medallas por culpa de las envidias.
4/21	Amona	..., pero no hubo nada que hacer y nos quedamos sólo con mi Carmencita que tenía ya veintiocho años cuando él cayó definitivamente a manos de moros, cuando la catástrofe .
4/22	Amona	... y como entonces vinieron los años difíciles de la desmoralización total cuando todo estaba bien visto hasta unirse por lo civil sólo y divorciarse y luego los del hambre...
6/38	Amador	Pero a él [«El Muecas»] le había entrao el ansión porque estuvo aquí en guerra .
6/40	Amador	Yo me entiendo con él. Desde que estuvimos juntos en guerra .

Pasarte eta orrialdeak	Pertsonaia	Testua
7/48	Pedro	—Recuerdo que mi madre me hablaba de esos tés danzantes a beneficio de la Cruz Roja.
8/50	Idazlea	..., con fragmentos de la barrera de una plaza de toros pintados todavía de color de herrumbre o sangre, con latas amarillas escritas en negro del queso de la ayuda americana , con piel humana y con sudor y lágrimas humanas congeladas.
8/53	Idazlea	Como si la creencia en un ser supremo no correspondiera aquí con un temor reverencial más positivo ante las fuerzas del orden público igualmente omnipotentes .
10/60	«El Muecas»	—¡Dásela!— ordenó el padre más consciente de los lazos de tipo económico aseguradores de la subsistencia de la honrada familia que le unían con un miembro de la plantilla del Instituto, al que por otra parte debía no especificados favores y con el que había mantenido en guerra relaciones de camaradería que más tarde habían procurado los dos dejar sumidas en un profundo silencio, pero que no habían olvidado.
11/69	Idazlea	Muecas, además del terreno edificado, tenía otros terrenos edificables y un como parque o jardín que rodeaba todo aquello. Un derecho consuetudinario en el que la res nullius había vuelto a surgir por intususcepción en las propiedades de un prepotente...
11/71	Idazlea	Más desgraciados que en otros países, tales conciudadanos del Muecas y Muecas mismo junto con los notables de la República...
11/72	Idazlea	Si luego, en el momento delicioso de conciliar el sueño, aún llegaban los píos de los yearling, el Muecas se dormía no sólo feliz, sino hasta con una sonrisa de felicidad refinada en los ángulos de su recia boca trabajada por el tiempo y por la intemperie de una guerra y de dos paces dichosamente separadas .
14/83	Idazlea	... podrían hacerse cargo de la ninguna necesidad de atractivos sensoriales en la obra de un alemán para expresar el pathos atormentado de un pueblo culpable y en derrota .

Pasarte eta orrialdeak	Pertsonaia	Testua
15/87	Pedro / Matías	—El número de desnudos que pinta indica el nivel alcanzado por la represión de un pueblo _jopinó confusamente Pedro pensando en sus propias represiones. Resultaba grato permanecer en el vasto invernadero de opulentas peonías, en lugar de caminar hacia un presunto Dachau masturbatorio exclamó Matías: —Nada me ha recordado más las cámaras de gas .
17/98	Amona	Un hombre se tiene que foguear como los soldados y más éste que nunca ha ido a la guerra... Es lo que les pasa a los hombres de ahora. No llegaron a tiempo a la última guerra y con tanta paz y la alimentación floja que han tenido en la infancia...
20/110	Doña Luisa	—Ya está. La restricción —dijo Doña Luisa—. Voy por la luz.
23/121-122	Pedro/Idazlea	Y este pueblo en que no llueve... Más agua, más para borrar la huella de la boca. Agua traída desde la lejana sierra con largos canales que han pagado los hombres que sudan a lo lejos...
33/160	Idazlea	En ella, indiferente a que más arriba el Maestro hablara...
33/160	Idazlea	Por lo que hace al olor, el que la esfera media poseía era una mezcla de diversos perfumes caros (algunos importados directamente de París a despecho de las dificultades de la balanza de pagos)...
33/161	Idazlea	Esta tercera esfera no tenía una existencia sino virtual o alegórica hasta el momento preciso en que el Maestro ocupara su docente picota y el acto diera comienzo así mismo.
33/162	Idazlea	Balenciagamente vestida, tocada con un sombrero especialmente elegido para el acto...
33/162	Idazlea	Pero ya el gran Maestro aparecía y el universo-mundo completaba la perfección de sus esferas... envuelto en la suma gracia, con ochenta años de idealismo europeo a sus espaldas...

Pasartea eta orrialdeak	Pertsonaia	Testua
35/168-169	Idazlea	... ¡Eh! ¡Matilde! —y con agilidad poco creíble dado su aspecto, se levantó y fue tras la dueña de la casa que, haciendo como que no la oía, tendía su vuelo hacia un notable jurisconsulto que pontificaba rodeado de señoras más próximas a la edad ingrata de lo por ellas admitido, acerca de los derechos de las mujeres en el matrimonio cuando no se ha firmado en su día el contrato de separación de bienes.
38/188	Doña Luisa	... cuando se exhibía —torpe tonadillera— en los barracones libres de la república , cuando —querida de un concejal— ocultaba suntuosos argentés...
42/200	Idazlea	Matías hablaba con Doña Luisa en el saloncito reservado, explicándole el caso, que no había podido convencer al testigo de descargo y que lo mejor era esperar hasta que llegara un su amigo hábil abogado, ardilla jurídica , corazón generoso, incapaz de negarle favor alguno.
42/203	Idazlea	En efecto, calzando un completísimo maillot de goma, embutidos los dedos en gruesos guantes quirúrgicos, obturados los orificios de la nariz y de la boca por capas de algodón hidrófilo y cubiertos los ojos y el rostro entero por una máscara residual del año 18.
42/204	Idazlea	... del tiempo que ha hecho, de lo guapa que eres, de qué lindos ojos tienes, de cada vez está todo más caro, de me gusta mucho Humphrey Bogart...
45/210-214 47/223	Idazlea Polizia bat	Descripción de la cárcel. —Todos están incomunicados las setenta y dos horas. —Sí, setenta y dos horas.
48/224	Idazlea	Si este odio ha podido ser institucionalizado de un modo tan perfecto, coincidiendo históricamente con el momento en que vueltos de espaldas al mundo exterior y habiendo sido reiteradamente derrotados se persistía en construir grandes palacios para los que nadie sabía ya de dónde ni en qué galeones podía llegar el oro... , Que el acontecimiento más importante de los años que siguieron al gran desastre fue esa polarización contra un solo hombre...

Pasarte eta orrialdeak	Pertsonaia	Testua
48/225	Idazlea	Tal vez sí, tal vez sea eso, tal vez, puesto que la fuerza pública, la prensa periódica, la banda del regimiento, los asilados de la Casa de Misericordia y hasta un representante del Señor Gobernador Civil colaboran tan interesadamente en el misterio.
50/229	Idazlea	... y en todas ellas se adivinaba un esfuerzo para vencer el momentáneo mohín de auténtica repulsa no fingida que la palabra aborto ⁹ ...
51/231	Idazlea	Pero la ardilla había abandonado...
52/235	Idazlea	Matías explicó al abogado la misma historia que a sus conocidos prepotentes,... su mismo amigo ardillesco podría negarse...
52/235	Abokatua	—No se puede hacer nada hasta las setenta y dos horas.
52/235-236	Abokatua	—Nada. Tú entérate de cuando sea puesto a disposición judicial. Hasta que el juez le interroge y decrete su prisión, el abogado no puede actuar... Habrá de presentar solicitud de libertad provisional y depositar la fianza si es que el juez considera que puede señalarla. Hasta tanto, nada. De momento ni siquiera está procesado. Si un hombre no está procesado no hay quien le defienda. En rigor nadie le defiende hasta el mismo juicio oral. Hasta ahora no se trata sino de una simple indagación policiaca. La defensa, lo que se dice defensa, no puede iniciarse ahora. Las ruedas de la máquina giran solas. No hay nada que hacer. Tenemos que esperar a que empiece la instrucción propiamente dicha. Tú estate atento y avísame y cuando pueda yo actuaré solicitando libertad provisional. Si es posible, que no lo será, recurriré contra el auto de procesamiento. Pero no será posible... Toda esta facundia de procedimiento, plazos y actuaciones...

⁹ Letra etzanez jatorrizkoan.

Pasarte eta orrialdeak	Pertsonaia	Testua
54/244	Polizia bat	¡Escriba! Preguntado si conocía a la fallecida, contesta que sí que la conocía así como a su familia y a la casa en que habitaban por intermedio de su ayudante de laboratorio llamado Amador. Punto. Preguntado si había tenido algún contacto íntimo con ella, contesta que efectivamente había comprobado que no se le habían producido unas tumoraciones en la ingle que él creía que podrían desarrollarse a causa de un contacto fortuito con los ratones de experiencia de que regularmente se proveía en aquella familia y que él utilizaba para sus investigaciones sobre cáncer. Punto. Preguntado sobre si el día de la muerte él había acudido a la chabola y utilizado sus instrumentos quirúrgicos, contesta que... ¹⁰
55/246	Encarna	... ella misma pariendo otra vez en otro sitio, cuando iban corriendo por esas carreteras de la Mancha y hubo que parir en cualquier sitio, pensando en los moros que podían llegar de un momento a otro;...
57/258	Ikerketa erakundeko zuzendaria	No puede usted pedirme comprensión para unos hechos que rozan, si es que no están de lleno incluidos, con el articulado del Código Penal.
57/259	Ikerketa erakundeko zuzendaria	Métase ahora en su casa y prepare las oposiciones de la Asistencia Pública. Tiene usted buena memoria. Las ganará sin esfuerzo. Yo diré una palabrita al Tribunal... Dígame cuándo sean los ejercicios para que yo hable con el Tribunal.
58/259	Amador	... y que él mismo había procurado mantener lejos de su casa desde el día de la postguerra agraria...
60/273-274	Idazlea	... cuando dice con la boca roja y con todos los gestos de su cuerpo rodeado de escama de pez Eugenia —de Montijo—... voy a hacerte —de la Francia— emperatriz, sin que nadie pueda llamar compra o mercado o cambalache a una negociación de tan elevado tono poético, tan esperanzadoramente fornicatoria, tan felizmente alumbradora de canales de suez y de dividendos al trescientos dieciocho por ciento?

¹⁰ Letra etzanez jatorrizkoan.

Pasarte eta orrialdeak	Pertsonaia	Testua
60/274	Idazlea	Que esta imagen de la que fue, que triunfó con las mismas artes, que cualquier mujer del pueblo podría emplear su [sic] tuviera ocasión para ello, del descendiente del águila de la guerra y destructor de cuantas bibliotecas habían osado distribuir por la piel de toro los venales ministros de Carlos III , conforte y regocije y haga sentirse vengado al vencido pueblo que retrató el sordo a la luz de un farol entre mameluco y mameluco...
60/274	Idazlea	Por eso el buen guardia de servicio puede reír con el pueblo ese chiste procaz...; por eso el mismo policía de la secreta puede reír alegremente... sabiendo que en tal momento de risa el criminal y el policía y hasta el juez... no son más que cristóforos... ; por eso nada puede ni quiere el severísimo censor contra...
61/279	Idazlea	Los músicos pobres, que con permiso del sindicato , algunas noches actuaban en aquel tablado... ordenan el estrujarse las parejas y seducen reposos ensoñadores de los números de la guardia civil...
61/281	Idazlea	... sino que también ése cariacontecido y serio, digno y pesaroso, manejaba los instrumentos esféricos con su rostro de caballero en sepe-lio de conde de orgaz.
61/282	Idazlea	... establecida por los cuidados de la tenencia de alcaldía para solaz del pueblo bajo y que no se diga que el Excmo. Ayuntamiento nada tiene que ver...
63/289	Pedro	La corona de laurel y mirto, símbolo de la gloria en los juegos olímpicos, subido sobre el podio y alzando el brazo en el saludo romano que luego fue resucitado.
63/289	Pedro	Recibir los parabienes del rey de Suecia...
63/291	Pedro	Cuando castraban los turcos sus esclavos en las playas de Anatolía...
63/291	Pedro	La bomba no mata con el ruido sino con la radiación alfa...
63/292	Pedro	Pero no somos negros, no somos negros, los negros saltan, rien, gritan y votan para elegir a sus representantes en la ONU.

b) Aitamen bakoitzari dagozkion zertzeladak

Bertan pertsonaia bakoitzak iradokitakoa argituko dugu, ahal den ginoan, zeren aitamenak ez diren zuzen egindakoak, zehar bidez iradokitakoak baizik, gorago esan bezala.

Honela, bada, aitamenak bi esparrutara bildu ditut: a) Espainiaren historiaren inguruko aitamenak; eta b) mundu zabalean jazotako gertakarien gainekoak. Ondorengo atalerako lagako ditut, lehen esan bezala, zuzenbide eta estatuari buruzkoak.

a') *Espainiaren historiaren inguruko aitamenak*

Horiek guztiak historian barrena eta denboraren ildotik kokatu behar izanez gero, honela sailkatuko genituzke:

Lehenengoa. Pedrok 63. pasarteko 291. orrialdean dagiena dugu lehenengoa: bertan, Espainiatik landako lurraldea aitatu arren, garbi ageri da **Cervantesen** gatibualdiaren aitamena, zein **1571. urtean** atxilotu baitzuten turkiarrek, Lepantoko hondamendiaren ostean, Napolitik zehar zihoala Espainiara bidean. Bost urte eman zituen gatibu.

Bigarrena. Idazleak berak dago 61. pasarteko 281. orrialdean ondokoa dioenean: «sino que también ése cariacontecido y serio, digno y pesaroso, manejaba los instrumentos esféricos con su rostro de *caballero en sepelio de conde de orgaz*». Argi dago **Domenikos Teotokopulos, El Greco** izengoitiduna, aitatzen dela, eta agi denez, *Orgazko Kondearen Ehorzketa 1586 eta 1588. urteetan barrena* margotu zuen.

Hirugarrena. Idazlearen ahotik ere isuri da aitamen hau 60. pasarteko 274. orrialdean, **Carlos III eta beraren ministroak** aitatzen dituenean, hau da, **XVIII. gizaldia (1716-1788)**. Berau izan zen Espainian *despotismo ilustratua* sartu zuena, eta bertan ageri diren ministroak **Aranda, Campomanes, Esquilache eta Floridablanca** izan litezke. Segidan, **Espainiako Independentzia Gerrako** jazokizun garrantzitsua ageri da, zelan den **Madrilgo Maiatzaren 2a**. Bide batez, **Francisco de Goya y Lucientes** ere ageri da, *sordo* izengoitiarekin.

Laugarrena. Idazleak badiosku 23. pasarteko 121 eta 122. orrialdeetan eleberriaren gertagunean ez dela euririk izaten eta ura ekarri behar dutela «*con largos canales que han pagado los hombres*». Madrilgo urak bideratzen dituen kanala *Canal de Isabel II* dugu, eta kanal hori **Juan Bravo Murillok** zabaldu zuen 1850. urtean, lehenengo ministroa **Narváez** zelarik. Zenbaitetan ministroa izanik, Ogasun ministroa zen Narváezen gobernuan, beronek karguari utzi zionean. Horren

ondorioz, bera izendatu zuten gobernua osotzeko arduradun. Zenbait gorabeheraren ostean, 1852. urtean Erreginak bere konfidantza kendu zion.

Bosgarrena. Honako aitamen hau, izan ere, 60. pasarteko 273 eta 274. orrialdeetan ageri dena, idazlearen mintzotik ere dator. Lehenik esan behar da ezen Espainiaren inguruan sartuagatik mundu zabaleko eta areago, Frantziako historiaren atalean sartzeko moduan dagoela *canales de sues* eta beste zenbait aitamenek aditzera ematen dutenez. **Eugenia María de Montijo** (1826-1920) Frantziako **Napoleon III.**aren emaztea izan zen, eta beronen agintealdian zehar (1852-1870) *Suezko kanala* zabaldu zen, Ingalaterra haren akziodun nagusia zelarik. **1852** eta **1859.** urteetan zehar absolutismoa ezarri zuen.

Seigarrena. **Espainiaren Inperioaren galera.** Hondamendi hori bi bider aitutzen da: lehenengoz, amonaren ahotik datorkigu 4. pasarteko 20. orrialdean, beraren senarraren *campaña de Filipinas* aitutzen denean; bigarrenik, eta idazleak diharduela, 48. pasarteko 224. orrialdean ageri da, zeinetan hondamendi horren ondorioak latz ageri baitira. Beraz, **1898. urtea** da oraingo honetan eleberrian barrena isuri dena. Filipinen inguruko aitamena beren-beregikoa bada ere, *Kubarena* ondoko esalditik atera daiteke: «*palacios para los que nadie sabía ya de dónde ni en qué galeones podía llegar el oro*».

Zazpigarrena. Amonak dagi 4. pasarteko 21. orrialdeko hurrengo aitamena, eta oso aitamen historiko zehatza dagi, zeren eta berak baitio ezen senarra hil zela «*cuando él cayó definitivamente a manos de moros, cuando la catástrofe*», eta beraren alaba, Carmencita, hogeita zortzi urtekoa zela. Dakigunez, eleberria 1949. urteko udazkenean gorpuzten da, eta aita hil zen, beraz, **1921eko uztailaren 21ean Annualen.** Egun horretan, Melillaren mendebaletik 80 km-tara dagoen Marokoko herri horretan, Annualen alegia, espainiar gudarostea, Silvestre jeneralaren agintepean, Abd-al-Krim-en gudarosteak sarraskitu zuen. Beraz, amonak gogoratzen dituen jazokizunak hogeita zortzi urtekoak dira, eta orduan beraren alabak 28 urte zituen, horrenbestez, Doritaren amak eleberriaren garaian 56 urte ditu.

Zortzigarrena. **Errepublikak (1931-1936).** Horren gaineko aitamenak hiru dira: bata amonak dagi, eta oso itxura kaxkarrean azaltzen du orduko giroa, 4. pasarteko 22. orrialdean, zeren eta «*años difíciles de la desmoralización total cuando todo estaba bien visto hasta unirse por lo civil sólo y divorciarse*»; bigarrena, berriz, idazleak dagi 11. pasarteko 71. orrialdean, non Errepublikak aitamenera dakar «El Muecas»ekin batera; eta azkena Doña Luisak, putetxeko nagusiak, dagi, eta sexu-munduaren beste aitamen bat ere dakar 38. pasarteko 188. orrialdean, «*se exhibía querida de un concejal*».

Bederatzigarrena. **Gurutze Gorriaren aldeko dantza-tealdiak.** Hau Luis Martín-Santosen bizitzaren beraren jakingarria izan daiteke. Badaude arrazoiak horrelako baieztapena egiteko: lehenengo eta bat, Luis Martín-Santosen aita jenerala izatera heldu zen armadan, eta gainera osasun kidegokoa; eta bigarren, armadako kideak oso sarturik egon ziren Gurutze Gorriaren barruan. Honela, bada, badakizkigu jakin, *Cruz Roja* aldizkariak 1930etako urteetan ematen dituen bi jakin-garri:

- a) 1932. urtean, Madrilen, Miss Carter-ek, zein Gurutze Gorriko erizainen zuzendaria zen, tealdi batean hartu zuen esku.
- b) Aldizkari berean¹¹, ospatutako jai handi baten aitamena dator, eta bertan esaten da Ricardo Burguete jaunak, Gurutze Gorriko batzorde nagusi berriaren lehendakaria baitzen, berba egin zuela Ritz hotelean egindako *lunch* (kopau) batean. Aldizkariaren ale berberorretan irakur daitekeenez, armadako kargurik nagusienak azaldu ziren ospakizun horretara.

Hamargarrena. **Gerra Zibila (1936-1939).** Gerra Zibila gomutazten dutenak Amador, «El Muecas» eta Encarna dira, bai eta idazlea bera eta Doritaren amona ere. Badirudi lehenengo hirurak galtzailleen alderdikoak izan zirela, ondorengo aitamenetatik aterako denez. Lehenengo aitamen biak Amadorrek egingo ditu 6. pasarteko 38 eta 40. orrialdeetan; bigarrena «El Muecas»en eskutik dator 10. pasarteko 60. orrialdean; eta azkena Encarnak dagi 55. pasarteko 246. orrialdean, non dioen ezen «...*hubo que parir en cualquier sitio, pensando en los moros que podían llegar de un momento a otro...*». Beraz, errepublikazaleak ziren, moroei iheska zebiltzanez. Idazlearen aitameneri dagokionez, «El Muecas»en gainean dihardu 11. pasarteko 72. orrialdean, eta badirudi bestela baitakoan egindako aitamena dela, honela dioenez: «...*intemperie de una guerra y de dos paces dichosamente separadas*». Doritaren amonak 17. pasarteko 98. orrialdean gerraren goraiamena dagi: «Un hombre se tiene que foguear como los soldados y más éste *que nunca ha ido a la guerra...* Es lo que les pasa a los hombres de ahora. *No llegaron a tiempo a la última guerra y con tanta paz...*».

Hamaikagarrena. **Gosetea eta gerraondoa (1940-1945).** Gosetea bi bider aitazten da: idazleak dagi lehenengoa 2. pasarteko 18. orrialdean, «*los años del hambre*»; bigarrena, berriz, amonak dagi 17. pasarteko 98. orrialdean dugu, non berak gogorarazten baitu ezen haurtza-

¹¹ Espainiako Gurutze Gorria: *Cruz Roja*, 1933ko azaroko alea. Madril. 1933.

roan jateko kaxkarra izan zutela. Gerraondoari dagokion bezanbatean, Amadorrek dakar bera gomutara 58. pasarteko 259. orrialdean, bertan *postguerra agria* ematen baitu aditzera.

Hamabigarrena. **1949. urtea.** Ugariak dira garai hau zedarritzen duten aitamen historikoak, eta gehienen ardatza José Ortega y Gasset da. Ortega filosofoa izanik, oso jarrera eztabaidatsua izan zuen. Edozelan ere, 1936. urtean gerra piztu zenean, atzerriratu zen eta 1945. urtera arte egon zen atzerrian. Beraren gaineko aitamenak idazleak egingo ditu, hirurak 33. pasartean, 160. orrialdean, 161.ean, eta hirugarrena 162.ean. Zergatik 1949. urtea? Gorago esan bezala, badago jakingarri bat hura xedatzen errazten diguna, zelan den José Ortega y Gassetek *Barceló* zinetokian egin zuen hitzaldi saila; hitzaldi sail hori *Instituto de Humanidades*ek antolatu zuen; esan beharra dago, aurreko urtean, 1948. urtean alegia, hitzaldiak beste toki batean egin zirela; baina 1949-1950eko ikasturtekoak *Barceló* zinetokian egin behar izan ziren, zeren eta jende asko joan baitzen beraietara.

Aitamen berezi horiekin batera, eta pasarte berean, izan ere, 33. ean, hitzaldiaren aroan, garai haren beste ezaugarri bi adierazten dira: lehenengoa, lurrin oso garestiak daudela; eta batzuk Parisetik ekarriak direla, ordain balantzan arazoak izan arren.

Pasarte berean, eta 162. orrialdean, *Balenciaga* aitatzten da, beraren izenez osoturiko moduzko adberbio batez. Cristóbal Balentziaga 1895eko urtarrilaren 2an jaio zen Getarian; 1937an atzerrira joan zen eta bertan erdietsi zuen egundoko sona bere joskintzari esker.

Badago beste aitamen bat, baina honek ezin du berez zedarritu urte hori. Aitamen hori 20. pasarteko 110. orrialdean dago Doña Luisak, *restricción* eta *luz* berbak elkartuz. Gerra amaitutakoan, eta hirurogeietako urteak ondotxo sartu artean, argia maiz kentzen zen.

Hamahirugarrena. **Amerikar aitamenak.** Oso bereziak dira, eta bakoitzak beren-beregiko azterketa behar du:

Humphrey Bogart. 42. pasarteko 204. orrialdean ageri da, putetxean Pedrok eta prostituta batek elkarrekin dihardutelarik. Kontutan hartzen badugu beraren filmerik garrantzitsuenetarik batzuk, hala nola, *El bosque petrificado* (1936), *El halcón maltés* (1941) eta *Casablanca* (1942) Espainian 1949. urtean baino urte batzuk lehenxeago ematen hasi zirela, jakingarri hau beste eragile garrantzitsua izango da eleberriarren gertaunea finkatzeko.

Ayuda americana. Idazleak dagisku aitamen hau 8. pasartean, 50. orrialdean: «*con latas amarillas escritas en negro del queso de la ayuda americana*». Nire aburuz, bertan **anakronismoa** dago. Zergatik? Espainia gerra zibilaren ostean, historiaren aldetik, hiru garaitan bana deza-

kegu¹²: lehenengo aroan, 1939-1944/45eko epealdian, Espainia loturik dago Alemania eta Italiarekin; bigarrenaldian, berriz, urte horretatik 1953ra arte luzatuko zen. Eta egia bada ere iparramerikarrek eta britainiarrek egindako bultzadari esker altxatu ziotela Espainiari Nazio Batuen Erakundeak 1946an erabakitako isolamendua; egia bada ere Estatu Batuetako Ordezkarien Ganbarak Espainia Marshall Planaren barruan sartzeko 1948ko martxoan sartzeko onetsi zuela, iparramerikarren laguntza ez zen gauzatuko 1953ko irailera arte. Zergatik iragazi zitzaion hori idazleari? Alde batetik, eleberria 1959. urtean idatzi zuelako; eta bestetik, Munduko Bigarren gerra amaitu ostean, eta Argentinaren bitartez, Eva Peróni esker, zenbait laguntza jaso izan zelako. Horrenbestez, *ayuda americana* esangura hertsian ulertuz gero, anakronismoa dago; bestela, esangura zabalean, erabilera ezohizkoa gertatzen da.

b') *Mundu zabalari dagozkion aitamenak*

Egia esan, arlo honetako aitamenik gehienak politikoak dira, eta gehienbat nazismoari dagozkionak dira, nahiz eta beste aitamen bana-ka batzuk agertu. Joan gaitezen atalka:

Lehenengoa. **Munduko Lehenengo Gerra**. Idazleak dago 42. pasarteko 203. orrialdean, honako hau dioenean: «*máscara residual del año 18*».

Bigarrena. **Alemania**. Hiru bider aitaten da Alemania; hiruretarik bitan, margolari alemaniarren pasarteetan gorpuzten dira, izan ere, 14 eta 15.etan. Lehenengo aitamenean, 83. orrialdean, alemaniar herriari buruzko iritzia ematen du idazleak: «*pathos atormentado de un pueblo culpable y en derrota*»; bigarrenean, berriz, 15. pasarteko 87. orrialdean, naziek egindako sarraskiaren aitamena dagite Pedrok eta Matías-ek elkarrekin duten elkarriketan, hala nola, *Dachau masturbatorio* eta *cámaras de gas*. Azken aitamena Pedoren bakarrizketaren haritik dator kigu 63. pasarteko 289. orrialdean: Munduko Bigarren Gerraren aurretiko Joko Olinpikoak iradoki nahi dira ereinotzeko erramuaren aitzakian.

Hirugarrena. **Munduko Bigarren Gerra**. Aitamen hau Hiroshiman amerikarrek jaurtikitako lehergailuari dagokiolakoan nago. Lehergailuaren ondorioak zehatz-mehatz adierazten dira: «*la bomba no mata con el ruido sino con la radiación alfa*». Dakigunez, 1945eko abuztuaren 6an jaurti zen lehenengoz lehergailu atomikoa, eta horren jasotzailea hiri japoniar hori izan zen. Aitamena 63. pasarteko 291. orrialdea dago Pedrok bere bakarrizketan.

¹² VIÑAS, Angel: «Política exterior», in *Historia de España* 12. Historia16. Madril. 1982. 80-92. orr.

Laugarrena. **Nazio Batuen Erakundea (NBE/UNO)**. 63. pasartean dago, 292. orrialdean. Aitamena gutxiagotasun arazoak eragindakoa da, eta espainiarrak beltzekin erkatzen ditu, haiek hauek baino toki txarragoan gelditzen direlarik.

Bosgarrena. **Nobel saria**. Pedro da aitamen hau dagiena, eta 63. pasarteko 289. orrialdean ageri da, nahiz eta beren-beregiko aitamena ez izan, idazleak behin eta berriro egiten duen bezala: «*recibir los parabienes del rey de Suecia*...». Nobel saria Suediako Erregek ematen du, Alfred Bernhard Nobel kimikari eta ongile suediarren omenez. Sari hau 1901. urtean hasi zen ematen Fisika, Kimika, Fisiologia eta Medikuntza, Literatura, eta Bakearen alorretan; 1969. urteaz gero, Ekonomi Zientzien alorrekoa ere ematen da.

c) Espainiaren giroa eleberriaren gertaunean

Atal honetan bi ezaugarri azpimarratu nahi ditut: a) Francoren Espainiaren soziologiaren aldetiko ezaugarri ospetsu batzuk; eta b) idazleak zuzenbideari buruz eta legelarien gainean duen iritzi txarra, Quevedorekin uztartzen dena, berbarako.

a') Soziologiaren aldetiko ezaugarriak

Estatuaren botere erabatekoa agertarazten dute jarraian adieraziko ditudan aitamenek:

1. Pedrok 1. pasarteko 12 eta 13. orrialdeetan dago, eta maiseatu egiten du ironiatsu *estado de derecho* azaltzen duenean, zeren eta *policía*, *jueces* eta *capacidad denunciante del ciudadano libre* aitazten baititu estatu horren ezaugarri legez.
2. Pasarte berean, Amadorrek botere horren beste ezaugarri bat azaltzen du estatua *etxagin* bihurtzen duenean, izan ere, *los investigadores pueden contraer matrimonio y habitar en pisos contruidos por el Estado*.
3. Idazleak 8. pasarteko 53. orrialdean biribilagotzen du estatuaren indar hertsatzailea, zein azaltzen den oro-hartzaille eta oro-agintzaille legez, aldi berean hiritarrek indar horri dioten beldurra agertzen dela: *ante las fuerzas del orden público igualmente omnipotentes*.
4. Estatuaren agerkaririk garrantzitsuenetariko bat kartzela denez, kartzela hori azalduko du goitik behera, eta oso zehatzak dira 45. pasartean, 210 eta 214. orrialdeetan, egiten diren aitamenak.

5. Edozelan ere, estatu guztiek, bai eta agintekeriazkoek ere, horiek bereziki, euren indarra legezkotasunez jazten dute, eta lege-bermeak ematen dituelako itxurak egiten ditu, eta hori guztiori ondorengo pasarteetan azaltzen da: 47.eko 223. orrialdean eta 54.eko 244.ean poliziaren ahotik, 52.eko 235 eta 236. orrialdeetan abokatuaren ahotik.
6. Horrenbestez, argazia osotzen doa, eta oso erretratu zorrotza dago idazleak 60. pasarteko 274. orrialdean.
7. Baina estatuak beharrezko du beste erakunde edo sasierakunde batzuen laguntza, hala nola, beraren mendean dagoen sindikatua, zeinen baimena beharrezkoa den, musikariek jo deza-ten; beti ere, *goardiazibilak* bertan daude, nahiz eta oso gogor ez ekin, idazleak 61. pasarteko 279. orrialdean ageri digunez.
ro beguijetatic, laster aaztuten da gogotic bere: Cum sublatus fuerit ab oculis, cito transit à mente. Dacusee¹⁴⁹ euracan anchina David Erregue Santubac¹⁵⁰ Soldau¹⁵¹ <zauriz illeen irudijan> negarrez ciñuana: Sicut vulnerati dormientes in sepulcris, quorum non est memor amplius.Ps.87. Obi edo sepultureetan etza<za>nac, iñor euracaz gomuntau baga. ¿Eta noc imiñi daique naibague onen irudi ego_quiric? Nic ez beintzat, guichiagoric bere; baña, al baneu ecarrico neuque orain Job Santuba bere samurtasun guztijagaz adie_razotera eureen orde. Dereliquerunt me propinqui mei; et qui me noberant¹⁵², obliti sunt mei. Job.19. Ychi nindubeen neure senide ta urcuenac; adisquide ta ezagunac aztu¹⁵³ ciran nigaz. Arindu leijeez nire penaac, atera nenguijee euretatic Jangoicuaren onta_(11.a.)

L.] ete gara ceruco edertasunetan sartuteco duiñian? Emen igaroco da naibaguiaren desbardintasuna bacocharen zorreen neurrijan¹⁵⁴. Baldin egun bacar bat igaro biar dabenari bere, aiñ samin ta gogor eguingo bajaco ¿cer eguingo ez jaco biar bada urtiac ta guizaldijac igaro biar ditubanari? ¿Eta, noc emen sartuco ez dau escuba bere colcuan? Au da, ¿noc sartuco ez dau bere gogua conciencija barruban itanduteco¹⁵⁵ ¿cembatecua izango ete da nire purgatorijua, baldin egunoro, ta aiñ erraz pecatu benialetan jausi, ta aiñ penitencija guichi eguiten badot?

Baña oraindic badauquee arima gaissuac beste naibague bat chito saminduten ditubana. Ez aurquituric, eureentzat erregutu ta Jangoicuaren justicija arinduteco bidian, ta jaquiñic munduban bici diranac aimbeste modutara lagundu leijuela egoera izugarrija laburteco¹⁵⁶ baita bere

¹⁴⁹ Irakurlea ohartuko den legez aditzak askotan hasieran datoz, _gaur ez dira onartzen baina_ egileak erabiltzeko maiztasuna esango liguke orden hau arrunta zenentz XIX. mendean.

¹⁵⁰ Izkribuak «bere» posesibo ezabatu bat erakusten digu, lerro artean zetorrena.

¹⁵¹ «zauriz hildako soldatuen artean». Alde batetik, Leioako 1994ko Euskaltzaindiaren biltzarrean, Patxi Altunak, ikerketa taldeko buru bezala, zenbait erabilera oker azaltzean (zorigogorreko prezeptibismo Port-Royalista hura) borobil-borobil bota zuen bizaieraz instrumentala, komitatiboarekin nahasturik, galduta zegoela, edo forma zaharretan fosilizatua. Formazio honek kontrakoa diosku, argi da. Beste alde, gaur egun, izenlaguna adjetiboaren kaltean hedatzen ari da, segurutik prezeptoen eraginpean: «Soldadu zauriz hilak» vs. «zauriz hildako soldaduak» (Cf. «ondo esanak.../»ondo esandakoak»). Hirugarrenez pasibaren arazoan sartzen gara, instrumentala ajentetzat, pasiba zaharra edo ustez erromanikoa.

¹⁵² sic (mobeo)

¹⁵³ Egileak ez du «a» bikoitza idatzi oraingo honetan. Agian erre realizazio baten bukaeretan geundeke.

¹⁵⁴ Izkribuak koma dakar berez, baina hurrengo hitza letra larriaz hasten denez zuzena deritzogu editorearen erabakiari.

¹⁵⁵ Bai izkribuetan bai inprimatuan zeinu diakritikoa falta da.

¹⁵⁶ Autoreak koma argi bat idatzi zuen hemen, ez dakigu zergatik ez den traskribatu, menturaz iritzi estilistikoren zela zio.

carcela atatic aterateco¹⁵⁷ zucendu gura leuquee gure erruquija biztutera, baña dacusee gueijeenez eguijzaturic Kempis veneragarrijaren¹⁵⁸ esacunia: Gaur bici da guizona, ta bijar ez dogu icusten; barriz ez taldu ezquero beguijetatic, laster aztuten¹⁵⁹ gogotic bere: *Cum sublatus fuerit ab oculis, cito transit a mente*. Dacusee euracaz¹⁶⁰ anchina Dabid Erregue Santubac soldau zauriz illeen irudijan negarrez ciñuana: *Sicut vulnerati dormientes in sepulcris, quorum non est memor amplius*. (Ps. LXXXVII.) Obi edo sepultureetan etzazanac, iñor euracaz gomuntau бага. ¿Eta noc imiñi daique naibague onen irudi egoquiric? Nic ez beintzat, guichiagoric bere; baña, al baneu ecarrico neuque orain Job Santuba bere samurtasun guztijagaz adierazotera eureen orde. *Dereliquerunt¹⁶¹ me propinqui mei; et qui me noverant, obliti sunt mei*. (Job. XIX.) Ichi nendubeen¹⁶² neure senide ta urcuenac; adisquide ta ezagunac aztu ciran nigaz. Arindu leijeez nire penaac, atera nenguijee eureetatic Jangoicuaren on_(205)_ta

A.] _suna billaturic daquíjeen leguez, ¿baña cer eguiten dabee ni onan¹⁶³ erreetan ta Jangoicuaren arpegui ederraren aurretic aldendu_ric

¹⁵⁷ Aurreko ohar berbera. Bi aldiz agertzeak editorearen apropos egitea azpimarratu lezake.

¹⁵⁸ «v»z dator harrigarriro; orain arte editoreak, nahiz eta kultura hitza izan, «b»-ez eman dizkigu honelako kasuak. Autografoak «V»z. Baliagarriago zaigu eskuizkribua argitaratua baino, maileguen integrazio maila neurtzeko.

¹⁵⁹ Haserako bokale bikoitza faltan.

¹⁶⁰ Guk uste izkribuek dakarkigutena «-n» dela, zaila litzaiguke egiaztatzen, baina ziur esan genezake «-z» ez dela. Eurak + gan.

¹⁶¹ Gure traskribaketak «-i» bako forma jasotzen du, izkribuetan bezala.

¹⁶² Aditzetan editoreak konszienteki hartu du esku: nin-/nen-

¹⁶³ Analogiaz eraikitako adberbioa, lehen graduko erakuslearen gainekoa delakoan: «así» AZKUE *Morfología vasca*, Bilbao La gran enciclopedia Vasca, 1969. 440orr. Baita IRIGOIEN, A. «Haur ola zirola», *Euskera* 1959.

Sistema zaharra	Erdi eta ekialdeko euskalkietan (orokorra)	Bizkaieraz (orokorra ez dena)
(h)au(r) (artikuluetan au> -o)		
	(h)aur+i (dat. // en+i) > hori	
(h)a (artikuluetan -a)	(h)aur+ha (1. eta 2. artikuluaren konp) > hura	
(h)au+la+n > (h)o+la+n	1.erakuslea genitiboan (h)on+e+la	(h)on+la+n (genitibo «e» barik, «n»- rekin identifikatu eta gerokoa) > <u>onan</u>
	1'.erakuslea + genitibo (h)or+(r)e+la	(h)olan (berdistribuzio semantikoa)
(h)a+la+n	hala[-n] «n» galdu edo inoiz eduki ez	(h)alan

naguan artian? Cer esquintzen deutsee Ceruco Justicija zu_cenari neure zorreen orde? Ay, ta gogoratuco balira cembate_raguiñoco samintasunac inguratuten dabeen nire arimia, icusi_ric allaguiña aazturric neure seme alaba maite, lagun ta adiqui_de anditzat neucazanac! ¿Celan uste neuquian onelaco esquer_gabetasunic aimbeste costataco seme alabeetatic: Yzattia emon eusteen gurasuetatic; neure odoleco senidiac ganic, ezta bere alaco abeguija eguin oi eusteen lagun

Hiru adinontze egin behar ditugu: sistema zaharra diogunean ez diogu desagertu denik; ez dugu asteriskorik erabili forma guztiak edo dokumentaturik edo erabiliak direlako. Gure ustez puntu honetan mendebaldeko bizkaiera da arkaikoena: «auri», «aur» «aulan» eguneroko formak dira, agian ikutu berri bat duketelako, forma indartuena. Bigarren zuzenketa «erdi eta ekialdeko» diogunean oso grosso modo gabiltza; zutabe horretako zenbait forma mendebalekoak ere badira, horregatik esan dugu «orokorra». Hirugarren zutabeen bizkaiera diogunean, bizkaieraren zenbait aspieskalki edo, areago, erabileraz gabiltza. Guk geuk ez dugu inoiz «onan» erabili, esate baterako.

Azalpenen bat ere eman behar dugu _argi da hau askoz ere zehatzago dagoela aipatu Irigoienen obran, eskematxo hau ez da argibide bat baino_:

«aura» bezalako formak inoiz agian orokorrak izan arren, diptongoaren murrizketa bat erakusten dute: au>u ekialdekoagoa da (ikus Irigoienen dokumentazioa). Mendebalean, zentzu zabalean, «aura»k «*ora» emango luke [Cf. «orain» berm. (h)on eta (h) aun+txe+k; ez dugu uste «orain»etik datozenik > o(r)ain > oain > oin/oiñ > on, zeren bokale arteko «r»aren galera Bermeon aspaldi itxi zen; «orain» eta «auntxek» biak bizi dira elkarrekin, «zeiñ dan...» erlatibo eta kausalak –ze(r)en– prozesu zaharra eta itxia erakusten du. Gure ustez lehen graduko erakusle genitiboaren gainean eraiki dugu: (h) aun/on eta ez erakusle bikoitzaren gainean *(h)aur/or+ha+(r)en] eta horrexegatik esan genezake «aura» ekialdekoagoa dela; berdin deduzitu genezake, «orain» baino ibilbide errezago batetik, «(h)ura» ez dela mendebaldekoa izan eta honen orde «(h)a» mantendu izan dela.

«-la»ren ostean dagoen inesibo marka zaharra izan arren ez da, segurutik, orokorra izan (Cf. «ze+lan» eta «no+la» baina «ze+la» eta «no+la-tan».)

«auri» mendebalekoa da (ez bakarrik, ikus Irigoien, nahiz eta egun Bermeotik Bilbora ezaguna eta erabilia den), baina «(h)ori» orokorra. Notazio honekin «(dat.) // en+i» esan nahi izan dugu lehen pertsonako izenordearen erara sortu dela: genitiboa gehi datiboa «e(n)+i» baten, hemen erakusle erromanikoaren paraleloa “ese” (h)au(r)-i datibo marka erantsirik lortu da. Ez dakigu ordurako «(h)aur/»(h)or»-ek inesibo kasurik zainalatzen zuenentz, eta zein filiazio daukan inesiboa genitiboarekin, baina zeozer bada (segurutik sustantibatze ahalmena izango zuten lehen, gero batak adberbializatu eta besteak sustantibatze gorde). Horren harian esan genezake «horrela» eta «honela» behin bigarren graduko erakuslea sortu eta gerokoak direla; halan «(h) or» ez litzateke jada lehen graduko («this/that»), bigarren graduko baino («este/ese»). Horrexek azaltzen du zergatik (h)o–ne–la eta (h)or–re–la, hau da, ez *erakuslea gehi genitiboa* baizik eta *erakuslea genitiboan*. Bestela esan, ordurako genitiboaren kontzientzia «re» edo «ne» zen. Dena den, esate baterako «onan»en kasuan, agian, genitiboaren kontzientziaren birtetz azaldu duguna sinkopo sinple batez ere azal zitekeen. Azkenik esan behar dugu, «onan» bezalako formarik ezagutzen ez dugunok ez dugu «(h)orrela» ere ezagutzen, eta beraz, «(h)olan» (edo «(h)aulan») eta «(h)alan» baino ez darabilgula, eta ezagutzen dutenek erredistribuzio semantikoa egin behar izan dutela.

adisquiaganic¹⁶⁴? Baña, dacust uste ez nebana: obliti sunt mei <aaztu dira nigaz>¹⁶⁵; ta, ez daucat beste bideric esatia baño; Jangoicuaren justicija zuzena¹⁶⁶, neuria dà erruba, ta garvitu naizu¹⁶⁷ ceure erabaguijeen neurrijan zure arpe_guijaren aurrian aguertuteco diñu jarri nadin artian.

Esan dane_tic ezagutu deiteque ascoc uste oi daben baño biarragua dala Pur_gatorijuaren gomuntia, ez bacarric erruqitu gaitian orain an aurquituten diran arima gaissuacaz, baita bere gueure buru_bacaz. Yzanic gauza ciurra, guichi dirala justubeen artian bere zucen Cerura duazanac, allaguiña cè, altareetan dagozan San_tubetatic bere, dirauscubeen, batzuc andic igaro cirala, nor izan leite gure artian vici_tzaric oneena ustez euqui arren an sartute_co billdurra euquico ez dabenic? Bada oraiñ, Purgatorijoco pe_na icaragarriac goguan sarri ta ondo euquiric iguituco gara edo ez juateco bidia eguitera, ez dalaco ecin guiñaijan gaucia Jangoicuaren gracia ta gueure aleguiñacaz, edo ascoz laburtu_tera ango egoera negargarrija. Onetara bertara lagunduco deuscu gomunteetic, ceiñ laster aaztuc diran gugaz Munduban vici_(11.)

L.] _suna billaturic daquiheen leguez, ¿baña cer eguiten dabee ni onan eureetan¹⁶⁸ ta Jangoicuaren arpegui ederraren aurretic aldenduric nagan artian? ¿Cer esquintzen doutsue¹⁶⁹ ceruco justicija zucenari neure zorreen orde? ¡Ay! ta gogoratuco balira cembateraguiñoco samentasunac inguratuten dabeen nire arimia, icusiric allaguiña aazturic neure seme alaba maite, lagun ta adisquide anditzat neucazana! ¿Celan uste neuquian onelaco esquergabetasunic aimbeste costataco seme

¹⁶⁴ Lehen hitz autonomo gisa ageri zaiguna orain, berriz, berrekailu modura. Bestalde aditzak ergatiboa pluralean badakar ere singularrean agiri zaigu sujetoa: cf. «eustan» edo «adisquiacganic»

¹⁶⁵ Itzulpena, irakasle funtzio berreskuraturik, lerroaren gainean itsatsirik dakar. Honelakoak balia zaizkigu idazleak uste zuen hartzailearen maila kulturala neurtzeko.

¹⁶⁶ «zuzena» / «zucena», aldakiak. Gehienetan «ce» erabiliko du hurren ematen ditugun salbuespenak kenduta: artezeraco (1) (zerez kasuan dagoelako, honek ez du *artezeraco»rik), baciñuazee (1) (aditza, eta horrela bakarrik), ecerezera (1) (hauxe da alda-kidun formarik ugariena), edozeñi (1) (hau ere horrela bakarrik), ezece (2) (honek ezagutzen du «ecece» aldakia ere), ezereztzat (1) (lehengo bera), ezetza (5) («ez»eren eratorrietan «z»), zematu (1) (hauxe salbuespena da, gehienetan «cemai»), zuzena (1) (hau ere salbuespena, «zucena» usuago)

¹⁶⁷ «nazazu»: «na(g)izu». Azkueren ipuin batean (*Kukubultxo*) «lotu nagiozue ardatz garbi bati» bezalako forma irakurri genuen; ezin itzuli batuerara Leizarragaren eskutik ez bada.

¹⁶⁸ Izkribuetan «erreetan».

¹⁶⁹ Inprentako erratua suposa genezake. Mogelek ondo desberdin idazten zituen «e» eta «o».

alabeetatic; izatia emon eusteen gurasuetatic,¹⁷⁰ neure odoleco seni-diac ganic; ezta bere alaco abeguija eguin oi eusteen lagun adisquiaganic? Baña dacust uste ez nebana: *Obliti sunt mei*. Aaztu dira nigaz ta ez daucat beste bideric esatia baño: Jangoicuaren justicija zucena, neu-ria da erruba, ta garbitu naizu ceure erabaguijeen neurrijan zure arpegi-jaren aurrian aguertuteco diñu jarai¹⁷¹ nadin artian.

Esan danetic ezagutu deiteque ascoc uste oi daben baño biarragua dala purgatorijuaren gomuntia, ez bacarric erruqitu gaitian orain an aurquituten diran arima gaissuacaz, baita bere gueure burubacaz. Iza-nic gauza ciurra, guichi dirala justubeen artian bere zucen cerura dua-zanac, allaguiña ce, altareetan dagozan santubetatic bere, dirauscu-been, batzuc andic igaro cirala, nor izan leiteigure¹⁷² artian bicitzaric oneena ustez euqui arren an sartuteco billdurra euquico ez dabenic? Bada oraiñ, purgatorijoco pena icaragarrijac goguan sarri ta ondo eu-quiric iguituco gara edo ez juateco bidia eguitera, ez dalaco ecin guiñaijan gaucia Jangoicuaren gracia ta gueure aleguiñacaz, edo ascoz laburtutera ango egoera negargarrija. Onetara bertara lagunduco deus-cu gomunteetiac, ceñ laster aaztuc diran gugaz munduban bici

A.] _ric isten¹⁷³ ditugunac.

Nor berac ezagutu daique errazto¹⁷⁴ cetatic orangui_ño¹⁷⁵ sartu izan jacon pecatu ariñetan aiñ erraz jausi, ta penitenci_jaco eguite one-

¹⁷⁰ Egileak zaindu duen zeinu diakritikoen parekotasuna ez du onetsi editoreak, ba-koitzak bere arrazoiengatik, biona baliagarri.

¹⁷¹ Egiatzatzeko geure traskribapen hau, orrialdea ez baitago besteak bezain ondo inprimaturik, «a» bat sumatzen dugu hala ere. Izkribuak, berriz, argi dakar «jarri», zen-tuz legokiokeen legez.

¹⁷² Inprenta hutsa dirudi honek: espazio beharrean «i» sartu dute izkribuari jazarriz.

¹⁷³ Hitz hasierako *i/u* txandaketetarako, azpieuskalki batzuetan *imié, upiñé, uzena*, bes-teetan *umea, ipuina, izena* Mitxelenak *eu- diptongoa suposatzen du: *urten, erten, irten* < **eurten*. [Luis Michelena; *Fonética Histórica Vasca*, San Sebastián, Publicaciones del Semi-nario Julio de Urquijo de la Excma. Diputación Foral de Guipúzcoa, 1985. 3.ed.] halaxe dio:

«2.7. La misma acción ejerce una consonante palatal [bokaleen itxiduraz ari da]; (...) guip. vizc. *itxi* "cerrado", mer. y vizc. ant. *itsi* (RS, Mic.) cf. a.-nav. guip. vizc. *es-tu* "apretado", or. (*h*)*ersi*, (*h*)*ertsi*, (*h*)*erstu*, infra.18.13 (hay todavía *echi-* "cerrado" en PAMPL. 1610); mer. y vizc. ant. *etxi* "dejado" (Bet. RS, Mic., Cap., etc.; vizc. Cigoitia *etsi*) vizc. mod. *itxi* < **eu-* (vid. infra, 4.7.) [67.orr.]

«3.1. Los ejemplos de permutación de *i* con *u* son abundantes y su clasificación por con-textos, que permitiría acaso precisar las causas, no siempre fácil; (...) Entre los primeros han merecido siempre particular atención aquellos casos en que a *i-* inicial en los demás dialectos corresponde *u-* en vizcaíno, o al menos en algunas zonas vizcaínas, ya que las áreas no están determinadas con exactitud. No hay una explicación de conjunto de esta correspon-dencia, aunque no parece que ni el número de ejemplos ni su distribución geográfica basten a justificar la admisión de un sexto fonema vocálico para un estudio antiguo de la lengua.

(...) [73.orr.]

«Hay distintas posibilidades de explicar por separado algunos de estos ejemplos.

1–Si *ule/ile* tuvo una consonante labial inicial (vid. nota 2), podría compararse con guip. vizc. *birao*, *birago*, guip. Gaviria, Iciar *irao* “maldición”. ronc. *irago*, *idago*, “grito, clamor” («*virao* significa maldición rigurosa dicha a voces por el agraviado», Gar.), a.–nav. *bur(r)o*, b.–nav. lab. *bur(h)o*, sul. (Gèze) *burhau*. [Honen ildotik A.Irigoienek: *ere, bere, beure, bihur* ikusi in *De Re Philologica Linguae Uasconicae–II*, Bilbo 1987, «Erakusleez» 107–133]

2–O alternativamente el cambio pudo estar determinado por la lateral palatal siguiente que, a juzgar por el testimonio vizcaino (cf. también a.–nav. *elle*), puede ser antigua

3–En *irten* (*erten*) / *urten* lo primitivo pudo ser el diptongo *eu*

4–Hay finalmente varios casos de permutación ante sibilante y ante *l* o *n* más sibilante, precisamente donde la nasal o líquida puede ser secundaria (...) Como también para *untxaur/intxair* se conocen variantes con *l* en vez de *n*, acaso se le pueda atribuir alguna vez una acción velarizadora a *l* implosiva, (...) [74–75.orr.] [enumerazio eskematikoa geurea da]

«Guip. ant. sal. *eutzi* “dejar, dejado”, a.–nav. *iutzi* (Mend.), ronc. Vidángoz *eitzi*, *eitzu* < **eutzi*: a.–nav. b.–nav. guip. lab. *utzi* (Dech., Leic., etc.), dul *ú'tzi*, ronc. Isaba Uztároz *útz*: vizc. ant. *etxi* (Land. 1.^a mano *echi*, 2.^a *vzzi*), mod. *itxi*. [100.orr.]

Ikusi, beralan: Manuel Agud, Antonio Tovar; *Diccionario etimológico vasco–VI*, Donostia, Anejos del *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, XXXIII, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1993. 648.orr. [76.orr.]

Bestalde txistukariaren dentalizazioa daukagu; partizipioa «*ichi*» dugu baina «*isten*» ez *ixten* («*issten*»). Aukeran bi bide ditugu, edota dentalak ez dio sabitzen utzi txistukariari, edo behin sabaituz gero haren eraginez despalatalizatu da. Arazoa tribiala izan daiteke.

¹⁷⁴ –to mendebaleko adberbializatzaile zaharra, –ki ekialdekoa; Irigoienek Mungialdeko «bizaro»/»bizardun» dauka ikertuta (Cf. *De Re Philologica Linguae Uasconicae–III*. Bilbo, Wilsen ed. 1990. «–Di < –*dui* < –*doi* berrekailu kolektiboaz eta *Lapurdi*, *Ilurdoz*, *Loidi*, *Lo(h)iola* toponymoen eta *idoia/udoia/iduia* hitzaren etymologiez.» 47. eta hur. Honen harian Quevedok «Belardo» _»belarri–to»_ Loperen lepotik barrez, K.J.Garai; «A tus ojos y a tu boca...» *UD–Berriak–42* (1994–2) 18–19.orr.

¹⁷⁵ Esku gramatiketan irakatsi ohi da «–ra arte» denborari dagokiola eta «–raino» lekuari. Ondorioz asko urritu da «raino»ren erabilera. Mogelek oso bestetara darabil deklinazio marka hau, adibidez: astunetaraguiño (1)

(97) aurrera ta aurrera | igazi andi ta astunetaraguiño. Lapur guichi azqueneraguiño (1)

(1702) benetan | urratu ta vicitza onian azqueneraguiño oi diraubenac. bardinduteraguiño (1)

(476) izan ebeen | goraago, Jangoicuagaz bardinduteraguiño <ta galdu botateraguiño (1)

(1374) amodijoz, | odolezco icerdija botateraguiño, amaitu orduco cembateraguiño (1)

(701) | Bada, ez daquigu, nos, edo cembateraguiño gueure benetaco esateraguiño (1)

(278) Eta Sn.Cyrilo aurreratuten dà esateraguiño: | baldin isuriteraguiño (1)

(1123) icentauba, bere odola | isuriteraguiño, <ta> eracutsi izateraguiño (1)

(1128) leguez <Curutzian josija | izateraguiño> : Qui etiam orainguño (1)

(1448) negargarri oneen gañian? | Baldin orainguño ichutu bazaituz

taraco naguitasuna, ta autortuco dau, eguija esatera¹⁷⁶, izan dala Purgatorijuan guichitan, ta biar leguez ez penseetatic. Cristinau batec artuco baleu Purgatorijoco peneen benetaco it_zal ta billdur Santuba; ¿Celan vicico litzaate arduraric andi_jeena imini¹⁷⁷ baga pecatu beniale-tan ez jausteco? Celaco pozagaz erantzun guraco ez leusquijo Jangoi-

oranguño (2)

(196) esan añarenac. || Orregaitic, oranguño bere ustez pecatu

(426) ezagutu daique errazto cetatic oranguño sartu izan | jacón samarreraguño (2)

(244) iratzartuteco; eta dà, azqueneengo samarreraguño garvitu ta

(350) sú gori onetan azquenengo | samarreraguño pagueetia baño?

¹⁷⁶ Baldintza. Ez dakigu zergatik jotzen den forma hau «hiper-ekialdekotzat». Ber-garatik ere antzeratsu entzun izan dugu.

¹⁷⁷ Hitz honetan gertatzen diren aldakiak, sudurkaria sabaikoa den ala ez kontutan harturik, ikus genezake nola: a) sabaiduna erregularago suertatzen den testuan zehar, b) oro har hitz honen erabilera urriagotzen doan aurrerago eta halago, agian «jarri» edo antzeko baten alde, c) aldakien estatistetan asko egiten duen eratorrien kopuruak: lau eratorri «imini»rako, sei «imili»rako, horrek berorrek oreka jakina adierazten badu ere, zenbat eta eratorri gehiago forma batek eduki halan eta erregularagoa da.

IMINI: «imini» (5), «iminiric» (1), «iminten» (9), «iminteco» (1)

0-10%	6	_____
10-20%	1	—
20-30%	4	_____
30-40%	1	—
40-50%	1	—
50-60%	1	—
60-70%	1	—
70-80%	0	
80-90%	1	—
90-100%	0	

Denetara: 16.

IMIÑI: «imiñi» (10), «imiñiric» (3), «imiñitaco» (1), «imiñiten» (4), «imiñtera» (1), imiñtia (2)

0-10%	4	_____
10-20%	3	_____
20-30%	4	_____
30-40%	4	_____
40-50%	2	—
50-60%	2	—
60-70%	1	—
70-80%	1	—
80-90%	0	
90-100%	0	

Denetara: 21.

cuaren Justicijari alegui_nezco eguite on guztiacaz pagueeta arren¹⁷⁸ Munduban vicí dan artian bere pecatubeen zorra? Ay! eta celan irudituten jatazan Purgatorijuan ondo penseetan dabeen arimaac gogoric vicije_enagaz dendatuten bacoachac era ta al dituban eguite on guztie_tara. Batzuc ordu erdichu bat luari quendu, ta, asteguna izan arren, Meza bat devocinoez entzuten; bestiac sarrijago compesau¹⁷⁹ ta

¹⁷⁸ Kausala.

¹⁷⁹ Batzuetan, garai eta inguru honetako idazleekin inpresio okerra eramaten da, alegia, guri ezohikoagoa egiten zaigun berba batek berba horren erabilera arruntagoak baino inpresio bortitzagoa sortzen duela geuregan; ondorioz, prest egon ohi gara forma berezi horren erregularitasuna aldarrikatzeko, irregularra izan arren. «*Compesau*» famatuak hauek ditu arau Mogelen darabiltzagun testuetan:

confesau (3)

(341) gueijago, | bestiac guichiago, confesau ta comulgau
(1558) gura ¿eta cegaitic? Ez dozulaco confesau gura lotsaz oi |
(1666) ta bere egunetan, al danian confesau | ta comulgau, ta

confesinoe (3)

(1484) dirala onelacoreen batzuc, ta Confesinoe cintzo ta |
(1718) || Oraiñ arte berva eguiñ dot Confesinoe cintzuac <ustez>
(1854) Refugium peccatorum. zucendu zaizan confesinoe | cintzo baten

confesiñoe (2)

(248) baño icaragarrijaguetan. || Confesiñoe cintzo ta eguijazco
(1646) Batera esateco; ¿eguiñ dozu Confesiñoe cintzo ta |

confesinoiac (1)

(1743) iraitzezco <ta damu bagaco> confesinoiac eguiñ |

confesinuac (1)

(1649) ditubeela ustez cintzoro eureen confesinuac pecatu ta |

«-f-»dun Mogelek darabiltzan berbak hauek dira:

blasfemijaric (1), confiantza (1), Efesoco (1), Efesotaarrac (1), Fariseo (1), fede (5), fedia (2), fedian (1), Filipetaarrei (1), Filipori (1), Filosoforic (1), Filosofuac (1), Filosofuagaz (1), Filosofuaren (1), Francia (1), Sn.Franciscubac (1), frutia (1), frutu (1), frutubac (1), fruturic (1), Lucifer (6), Luciferrec (3), Luciferreganic (1), Luciferreganico (1), Luciferren (7), Luciferri (1), ofensaric (1), ofensia (1), sacrificijo (2), sacrificijora (1), sacrificijoric (3), sacrificijua (3), sacrificijuan (1), Infernuba (1), Infernuco (1), Ynfernuba (2), Ynfernuban (2), Ynfernuc (3), Ynfernuraco (3), Ynfernuracuac (1).

Egia da, guztiagaz ere, berba hauek gehienbat cristau kultura orokorrekoak direla; baina ez diogu ezeini euskalduntasunik ukatuko, horiek eurok ere euskaldunatasuna osatzen bai baitute.

«La situación es diferente en guipuzcoano y áreas próximas alto-navarras y vizcainas. Aquí *f* en préstamos está representado normalmente por *p* (*paltzu* "falso", *peria* "feria" [Cf. Bakioko *Eneperi* auzoa "*Olbizarreta*"], *pesta* "fiesta", *inpernu* "infierno", etc.) salvo en *fede* "fe" y algún otro, y alguna vez alterna facultativamente con *f*, al menos en ciertas localidades: *afari/apari* "cena", *nafar/napar* "navarro", etc. Pero esto no representa probablemente nada antiguo, sino un proceso secundario relativamente reciente. Según toda probabilidad, estaba en lo cierto el P. Añibarro cuando escribía a J.A. Moguel hacia 1800: «Cada vez achica Vd. más el *bascuence* de Marquina ... añade Vmd. *que* en Marquina no aciertan a pronunciar la *f*, y *que* se borre del alfabeto bascongado, y nuestros escritores sucesores si se conforman con esta regla yrán escribiendo *pedea*, *pielac*, *pina*, etc. Es comunísimo su uso en toda Bizcaya; usan de *f* en Navarra y Francia, y Guipúzcoa ha pegado la *p* a Marquina...» L. Mitxelena; *FHV*, op.cit. 263–264.orr.

Comul_gueetan, batez bere Yndulgencijaco egunetan; Oneec, gaisso ta nai_baguiac paciencijaz daruezala Jangoicuac garvituteco bialdu, edo la-quetu oi dituban erregalubac leguez; areec, goissian ta aimbat sarrijeen esquintzen lan icerdijac artu daizan Jangoicuac peca_tubeen zor alde <Beste batzuc limosnaac eguiten>. Eta, noc ezagutuco ez dau, alan eguiñic, edola bere laburtuco litzaatezala¹⁸⁰ Purgatorijoco penaac, ta batzuc elduco litzate_zala¹⁸¹ guztiz lurrrian erantzutera pecatubeen zorrari?

Oh, Ama maite, ta erruquitsuba. Eguizu arren ondo josija guelditu dedilla gu_re gogo ta viotzetan Purgatorijoco laba izugarrijaren gomun_taric vicijeena: baita bere, atera daiguzala beraganic irabaci edo fruturic dontsubeenac, vicitza garvi ta Cristinau¹⁸² eguijazcua_ri

¹⁸⁰ Lireatekeela.

¹⁸¹ Tinta leun tanta bat agertzen da «-te-»ren gainean. Honez gain lerroak adierazi dugun lekutik (litzate/zala) moztzen du. Guztiarekin ere ez dugu ulertzen, gure ezjakintasunean, zergatik goragoko formak /a/ bikoitza dakarren honek bakuna azaltzen digun eran berean _euska prosodia diakronikorako materialea_. (Cf. «zaatezala»)

¹⁸² «Cristo» eta «Cristinau». Kontsonate merovingioa «ch» /k/ dutenak beti izango dira latinetiko aipua, behin ez bada; Behin horrek besteekin honetan kontrastatuko du: «h» bakoak *Jesuren* ostein datoz (*Jesu Cristo*) *Christo* dagoenean izan ezik:

christi (1), christo (1), christus (3) (Latinetiko aipuetan)

christoren (1)

(1770) leguez, ta oraiñ diñot | negarrez, Christoren curutziaren

cristo (2)

(1136) ecin leitianic. || Izanic Jesu Cristo Aita beticuac esquiñi

(1143) bitaarteco | bat, ceñ dan Jesu Cristo, ceñec emon eban bere

cristoc (1)

(39) veritas in nobis non est. Alan Jesu Cristoc | aguiñdu eban

cristogan (1)

(1153) peccatorum. Bai. Cc. Jesu Cristogan | bete ciran

cristoren (1)

(1151) Efesotaarrac | <cirautseela> Jesu Cristoren odolian daucagu

Cristinau behin izan ezik, beti izango dugu sudurkari hobietakoa, ez sabaikoa. Sabai-koa ageri zaigun behin horrek zentzu abstraktoagoa dauka: “kristautu” “kristau egin”. Hobietakoa denean, berriz, kristauak pertsonak dira, sustantziak, ez adjetiboak.

cristinabac (1)

(1009) scandalis. || Berba eguiten dot Cristinabac, guztijoc,

cristinau (7)

(46) oituraz eguitia. | Negargarrija <da> Cristinau ascoren ichutasuna,

(216) bere errubari, ezagutu biar dogu, | Cristinau eguijazco batec

(240) icenac icara eraguiten deutseen Cristinau | epelac; pecatu

(429) ta biar leguez ez penseetatic. Cristinau | batec artuco baleu

(451) dontsubeenac, vicitza garvi ta | Cristinau eguijazcuari jaocan

(652) vicitzia emon arte. ¿Celan, bada, | Cristinau eguijazcuaren

(682) eguiñ biarra. <Bai, tà alan> Cristinau | baten viotzac

cristiñau (1)

(1690) Santubagaz | Jesusen icenian Cristiñau eguiteco ta Munduba

cristinaubac (10)

(662) glorija guztia esquintzia? || Bai Cristinaubac; ta billatu

jaocan¹⁸³ baten bidez, Erbeste onetatic urtetian gozau daigun (12.a)¹⁸⁴ aimbat lasterrean gueure Eguilla, Jaube ta betico Jangoicua. Amen. (12.b)¹⁸⁵

L.] ric usten¹⁸⁶ ditugunac.

Nor berac ezagutu daique errazto cetatic oranguño sartu izan jacon pecatu ariñetan aiñ erraz jausi, ta penitencijaco eguite onetaraco naguitasuna, ta autortuco dau, eguija esatera, izan dala purgatorijuan guichitan, ta biar leguez ez penseetatic. Cristinau batec artuco baleu purgatorijoco penen benetaco itzal ta billdur santuba; ¿celan bicico litzate arduraric andijeena imini baga pecatu benialetan ez jausteco? Celaco pozagaz erantzun guraco ez leusquijo Jangoicuaren justicijari aleguinezco eguide¹⁸⁷ on guztiagaz pagueeta arren munduban (206) bici dan artian bere pecatubeen zorra? ¡Ay! eta celan irudituen jatazan purgatorijuan ondo penseetan dabeen arimaac gogoric bicijeenagaz dendatuen bacoach era ta al dituban eguite on guztietara. Batzuc, ordu erdichu bat luari quendu, ta asteguna izan arren meza bat debocinoez entzuten; bestiac sarrijago compesau ta comulgueetan, batez bere indulgencijaco egunetan; oneec, gaisso ta naibaguiac paciencijaz daruezala Jangoicuc garbituteco bialdu, edo laquetu oi dituban erreagalubac leguez; arrec¹⁸⁸, goissian ta aimbat sarrijeen esquintzen lan

(854) ta irauteco gracia? || Ez, bada, Cristinaubac? Ez dedilla gure

(1107) emon deuscun gomunta garrija, dà | Cristinaubac, aurquitu

(1259) refitiam vos. || Nic eztaquit, Cristinaubac, Cer escatu

(1487) beste | ascoren viotzac? Ara emen Cristinaubac neure erehija. |

(1576) Laster aurquitu biarco dogu | Cristinaubac batian edo

(1595) Apoc.2.1o. || Uste dot, Cristinaubac, aztertu izango

(1617) | condenau arren. Ta ara emen Cristinaubac Jangoicuaren |

(1803) ez | deutseenac. Autortuten dot, Cristinaubac ez daquidala cer

(1856) || Ezagutu izango dozubee, Cristinaubac, cetara, batez

cristinaubac (1)

(647) negargarrijeenagaz? Ay! Cristinaubac! Eta, | celan

¹⁸³ “Dagokion”. –go– > –u– esan daroakigu Shuchardt–ek Leiçarragaren edizio kritikoan, erdibidea /g/ bokalartekoaren galera, cf. «daode»; Larramendik «dagoka». Dati-boak hirugarren pertsonan ko/ka.

¹⁸⁴ Hurrengoko hori beste orrialde batean dator, guk hemen eman arren, orriak aurzteagatik.

¹⁸⁵ 13.a. zuriz dago autografoan.

¹⁸⁶ Kasuan editorearen erratua dela uste dugu, bata «utzi» badator _gero agian bizkaieraren neutralizazioa kautan harturik errealizazio apikala–dental iduritaratuko zukeen forma aukeratzean_ bestea «etsi», «itsi», «itxi» batetik datorke (Landucciren hiztegitik jada Mitxelenak aipatu bi (edo hiru) eskuen arteko ezberdintasun agerria). Mitxelenak eu– ikusi autografoan jarri dugun oharra.

¹⁸⁷ Ahoskabea ahostuna iduritaratzea erratu edo apropos eginik dagoenentz ez gara mozki esaten ausartzen, argi dagoena da izkribuak «eguite» dakarrena.

¹⁸⁸ Inprintako huts sistematikoen artean berau agertzen zaigu bigarrenez, «e»–ren ordeez «r». Lehen aipatu dugu «n»–ren ordeez, eta urriago «m»–renean, «u».

icerdijac artu daizan Jangoicuac pecatubeen zor alde. Beste batzuc li-mosnaac eguiten¹⁸⁹, eta noc ezagutuco ez dau, alan eguiñic, edola bere laburtuco litzaatezala purgatorijoco penaac, ta batzuc elduco litza-tezala guztiz lurrian erantzutera pecatubeen zorrari.¹⁹⁰

¡Oh Ama maite ta erruquitsuba! Eguizu arren ondo josija guelditu dedilla gure gogo ta biotzetan purgatorijoco laba izugarrijaren gomun-taric bicijeena: baita bere, atera daiguzula¹⁹¹ beraganic irabaci edo fru-

¹⁸⁹ Autografoak esaldi hau lerro artean dakar, arazoa da txertatzeko agindua puntua baino lehenago dagoela eta, hala ere, maiuskulaz hasten; Editoreak puntuaren ostean kontsideratu du, baina gure iritzi argalez aurreko enumerazioari dagokio eta ez hurren datorren galderari.

¹⁹⁰ Galdera ikurra faltan du inprimatuak.

¹⁹¹ Erratu honek zeharo aldatzen du aditzaren esanahia, idazleak: ditzagun, editoreak: diezaiguzun. «-e-» datibalaz: Alfonso Irigoien; «Curiosidades y observaciones sobre el dialecto vizcaíno literario» in *Euskera III* (1958), 105–132.orr. *De Re Philologica Linguae Uasconicae-I*, Bilbo 1985, 43–57.orr. –tik hartua: **El elemento vocal e después de la consonante d inicial, característica de dativo en las flexiones verbales.**

«1. Refranes y Sentencias de 1596 usa como sistema, sin titubeo de ningún género, para las flexiones verbales que contienen la idea de dativo la característica e después de la *d* inicial, diferenciándolas de las no dativas, que llevan *a* a continuación de la *d* inicial. (...)

«9. Juan Jose Moguel en «Baserritaar...», hace la diferenciación siempre. (...)

«Severo de Altube en su «Observaciones al tratado de Morfología Vasca» (Bermeo 1934, p.115 y 119), objeta a Azkue como no correctas las flexiones del tipo *dautsat*, cuya práctica recomienda la «Morfología», y defiende las del tipo «*deutsat*» tradicionales, citando a favor de esta afirmación unos cuantos ejemplos de Refranes y Sentencias y de Capanaga, y luchando contra el argumento de permutación de *a* en *e* que Azkue defiende.

«De los textos citados podemos deducir una oposición clara en el vizcaíno antiguo de los fonemas *a/e*, siendo en algunos casos determinantes del valor semántico de flexiones verbales. Refranes y Sentencias, según su sistema, diferencia *dEroat* de *dAroat*... Los autores del siglo pasado que no confunden en el modo subjuntivo la característica que estudiamos, así como también los anteriores, oponen *dEizun* a *dAizun*, *dEigun* a *dAigun*, etc.

«De los autores citados, Moguel, el de «Peru Abarca», Prai Bartolome y Uriarte no usan en las formas de subjuntivo la característica de dativo *e*, confundiéndose algunas formas no dativas con las que lo son. En el modo indicativo siguen utilizándolo, pero se hace necesario suponer que estos autores no tenían conciencia de su valor y utilizaban dichas formas por pura tradición, tanto oral como escrita. Los demás autores estudiados hacen la diferenciación y en el subjuntivo existen formas de oposición.

«Los autores del siglo pasado, exceptuando las flexiones de *eretxi* que solamente se emplean de forma tripersonal, no utilizan flexiones verbales tripersonales no auxiliares, siendo ya arcaicas las que encontramos en los más antiguos. (...)

«El hecho de la pérdida de vitalidad del fonema *a* en algunas posiciones parece un fenómeno más o menos relacionado con la arcaización de las flexiones verbales tripersonales no auxiliares del vizcaíno antiguo.

Oro har ados gaude. Hala ere bi zuzenketa, axalekoak badira ere, egin behar dizkiogu; bata da «erechi»-z gain beste forma hirukoitz bat behintzat badabilela J.J. Mogelen testuetan: «dirauscu» eta abarrak (Cf. «darraiquiozubenac» NOR-Noritzat jo izan dugu guk, baina kontestuak ez dio argi). Gaur egungo euskeran gabiltzala, esan behar dugu, joera murriztearena edo desagertzearena bada zelan azaldu analogiaz sortzen diren aditz hirukoitzak «dakotsut» berm. “daukat zuri” eta abarrak.

turic dontsubeenac, bicitza garbi ta cristinau eguijazcuari jaocan baten bidez, erbeste onetatic urtetian, gozau daigun // aimbat lasterreer gueure Eguilla, Jaube ta betico Jangoicua. Amen. (207)¹⁹²

3. ADITZAK

A] Aditz Trantsitiboak

EDUN-EUTSI

	NIK	GUK	ZUK	ZUEK	HARK	HAIEK
0 (ni)					naben	nabeen nindubeen
0 (gu)			guenduzuzan		gaitu/gaituz gaituban gaitubala	gaitubeenac
0 (zu)	zaitut cendudazana	zaitugula			zaitu/zaituz zaituban zaitubala bazaituz cenduzan ezpacenduz cenduquezala	zaitubee zaitubeenac
0 (zuek)					zaitubeez	
0 (hura)	dot dodan dotala/ /dodala badot nebana baneu neuque neuquian	dogu dogun dogula guenduban baguenduban baguendu guenduquian	dozu dozun dozula badozu ezpadozu cenduban	dozubee/ /dozubee dozubeen dozubeela cendubeena ezpacendubee cenduquee	dau daben dabela badau ezpadau eban beeban ebala euquian baleu ezpaleu	dabee dabeen dabeela badabee ezpadabee eeben/eben eebelaco beeben leuque leuqueen
0 (haiek)	ditut dituban nituban nitubala nituquez	ditugu/ /dituguz ditugun ditugula genduzan/ /guenduzan ezpaguenduz guenduquezan	dituzu/dituzuz dituzunac dituzula	dituzubee/ /dituzubeez dituzubeenac dituzubeela ezpadituzubee	ditu/dituz dituban ditubala ezpadituz cituban bacituban citubala balitu lituque	ditubee ditubeen ditubeela citubeen citubeelaco lituquè lituqueenac
NIRI (s)			deustazu	deustazubee deustazubeela		deustee deusteen eusteen

¹⁹² Irudi bat dago 208. orrialdean.

	NIK	GUK	ZUK	ZUEK	HARK	HAIEK
NIRI (p)					eustazan	
GURI (s)					deuscu deuscun/ /deu(s)cun deuscula euscun euscula leusquegu	deuscubee deuscubeen
GURI (p)					deuscuzan euscuzan leusqueguzanac	deuscubeez deuscubeezan badeuscubeez euscubèzan
ZURI (s)	deutsut/ /deutzut				deutsu deutsun eutsun	eutsuubeeanian
ZURI (p)	deutsudazan				deutsuz deutsuzan	deutsuubeezan
ZUEI (s)	deutsuubee deutsuubèedan					
ZUEI (p)						
HARI (s)	deutsat	deutsagu deutsagun deutsagula gueuntzan bageuntza	deutsazu deutsazula ezpadeutsazu ceuntzanagaz		deutsa deutsan badeutsa eutsan/eutzan beeutsan ezpeutsan ezpaleutsa leusquijo eusquiona	deutsee deutseen badeutsee eutseen eutseela baleutsee
HARI (p)	neutsazanac neusquioz	deutsaguz deutsaguzanac	deutsazuzan deutsazuzala	deutseezubènac	deutsaz eutsazan eutsazala	deutseenac eutseezala
HAIEI (s)	deutsee/ /deutzeet deutseedala	deutseezun deutsagubeela	deutseezu deutseezubeena/ /deutseezubeena ceuntseena	deutsazubeezac deutsazubeela	deutsee deutseen deutseela eutseen	deutsee/ /deutsee deutseenac
HAIEI (p)	deutseedaz	deutseezun			deutseez deutseezan deutseezala eutseezan	eutseezan

EGIN

	NIK	GUK	ZUK	ZUEK	HARK	HAIK
0 (ni)			naizu			nenguijee
0 (gu)					guenguizan	
0 (zu)					zaizan	
0 (zuek)					zajeezan	
0 (hura)	daiquet nei nejjan	daigun daigula daiquegu guiñai guiñajjan baguiñai balequigu	eguizu/eizu ciñai/ciñai	daiquezubee	daijan daijala daique daiquian lei lejjan bei	daijeen daijeala/ /daijeela daiquee leijee
0 (haiek)		daiguzan daiguzala daiqueguz guiñaizan	eguizuz/eizuz daizuzala ciñai baciñai egizuz	daizubeela ciñaijueez	daizan daiqueez daiquezanic leiz leizan	leijeez
NIRI (s)				eguidazubee		
NIRI (p)						
GURI (s)			eguiguzu			
GURI (p)			eiguzuz/eguiguzuz			
ZURI (s)	baneizu					
ZURI (p)						
ZUEI (s)	daijuedan nejjue/nejjué/ /nejjuee					
ZUEI (p)	neizubeezan					
HARI (s)		daijogun guiñaijo guiñajjon	deijozula		deijon egujjon	
HARI (p)					daiquioz beijoz	
HAIKI (s)		deijeegun	deijueúzula eijeezu		deijueñ leijuenari	leijueela/ /leijuela
HAIKI (p)	nejjuee	guiñaijuez	deijueuzala			

EDUKI

	NIK	GUK	ZUK	ZUEK	HARK	HAIEK
0 (ni)			naucazu			
0 (gu)						
0 (zu)						zauqueezan
0 (zuek)						
0 (hura)	daucat	daucagu daucagun daucagula gueuncana	daucazu dauczun ceuncan	daucabeenac dauczubeela	dauca daucan eucan	dauquee dauqueen dauqueela badauquee euqueen euqueela
0 (haiek)	neucazanac	daucaguz	dauczuz dauczuzan		dauczaz dauczazan dauczazala euquezan	dauqueezan dauqueezala

EROAN

	NIK	GUK	ZUK	ZUEK	HARK	HAIEK
0 (ni)						
0 (gu)						
0 (zu)						
0 (zuek)						
0 (hura)					darua daruana	darue daruenac darueela
0 (haiek)					daruazala	daruezala

EKARRI

	NIK	GUK	ZUK	ZUEK	HARK	HAIEK
0 (ni)						
0 (gu)						
0 (zu)						
0 (zuek)						
0 (hura)						decarrela
0 (haiek)			dacartzuzan			

ERAKUTSI

	NIK	GUK	ZUK	ZUEK	HARK	HAIEK
0 (ni)						
0 (gu)						
0 (zu)						
0 (zuek)						
0 (hura)						daracusee
0 (haiek)						

ERETXI

	NIK	GUK	ZUK	ZUEK	HARK	HAIEK
NIRI (s)						
NIRI (p)						
GURI (s)						
GURI (p)						
ZURI (s)						
ZURI (p)						
ZUEI (s)						
ZUEI (p)						
HARI (s)			derichazu			
HARI (p)						
HAIEI (s)						
HAIEI (p)						

ESAN [*INO eta ERAUSI]

	NIK	GUK	ZUK	ZUEK	HARK	HAIEK
0 (ni)						
0 (gu)						
0 (zu)						
0 (zuek)						
0 (hura)	diñot		diñozu		diño diñuan badiño ciñuan ciñuana baciñuan	diñue
0 (haiek)			diñozuzan			
NIRI (s)						
NIRI (p)						
GURI (s)					dirauscu dirauscun dirausculaco	dirauscubee dirauscubeen
GURI (p)					dirauscuzan	
ZURI (s)					dirautsun	
ZURI (p)						
ZUEI (s)	dirautsubeet					
ZUEI (p)						
HARI (s)					dirautsanagaz dirautsala cirautsan cirautzarian	dirautseen dirautseela
HARI (p)						daautseen
HAIEI (s)					cirautseen/cirautzeen cirautseela/cirátseela /cirautzeela	
HAIEI (p)						

EZAGUTU

	NIK	GUK	ZUK	ZUEK	HARK	HAIEK
0 (ni)						
0 (gu)						
0 (zu)						
0 (zuek)						
0 (hura)	dazaut					
0 (haiek)						

IKUSI

	NIK	GUK	ZUK	ZUEK	HARK	HAIEK
0 (ni)						
0 (gu)						
0 (zu)						
0 (zuek)						
0 (hura)	dacust	dacuseu dacuscula			dacus	dacuseè/ dacusee
0 (haiek)		dacuscuzan		dacustzubeez		

IRAUN

	NIK	GUK	ZUK	ZUEK	HARK	HAIEK
0 (ni)						
0 (gu)						
0 (zu)						
0 (zuek)						
0 (hura)						diraubeen diraubeela cirabeen
0 (haiek)						

JAKIN

	NIK	GUK	ZUK	ZUEK	HARK	HAIEK
0 (ni)						
0 (gu)						
0 (zu)						
0 (zuek)						
0 (hura)	daquit daquidana daquidala eztaquit	daquigu baquigu baquenquijan		daquizubee	daqui daquijeela equijan	daquijee daquijeen/ daquijeenac ezdaquijeenac daquijeela equijeen
0 (haiek)			daquizuz		equizan	

B] Aditz Intransitiboak**IZAN**

	NI	GU	ZU	ZUEK	HURA	HAIEK
0	nas nasan nintzan	gara garian bagara ezpaguiñan	zara zarian zariala baciña	zaree zareen zareela	da/dá/dà dan dala bada ezta ezpada zan bazan zaatian zala balitz litzaate litzaatialaco	dira/dirà diran dirianac dirala badira ezpadira ciran ciren baciran cirala zaatezala balira litzaatez litzaatezan litzaatezala
NIRI						jataz jatazan
GURI					jacu jacun	jacuzan jacuzan (i)
ZURI					jatsu jatsun jatzuna	jatzuz jatzuzan jatzuzan
ZUEI					jatzubeen	
HARI		bagachacoz			jaco jacon jacola bajaco jacon/jacòn (i) jacola ezpalichaco	jacoz jacozan ezpajacozan jacozan (i) jacozala
HAIEI					jaquee jaqueen jaqueela	jaqueez jaqueezan jaqueezala

EDIN

	NI	GU	ZU	ZUEK	HURA	HAI EK
0	nadin	gaitian gaitiala guiñaindez guiñaindezala	zaiten zaitian zaitiala zaiten zaitizan zaitiquezan	zaiticeen zaiticezala	dedin dedilla bedi deiteque deitequian deitequiala cedin cedilla leite leitian leitialaco leitequian	ditian ditiala deitequez bitez citian leitezan leitezalaco
NIRI			zaquidaz			
GURI			zaquiguz		lequigun	
ZURI					dequizun	
ZUEI						
HARI	naquijon					lequijozan
HAEI			zaquijuez		lequijué	

JOAN

	NI	GU	ZU	ZUEK	HURA	HAI EK
0		guazan	zuaz	zuaceen baciñuazee	dua doian joiala	duazan
NIRI						
GURI					juacun	
ZURI						
ZUEI						
HARI						
HAEI					juaquee	

EGON

	NI	GU	ZU	ZUEK	HURA	HAI EK
0	naguan		zagoz zagozan/zagozàn bazagoz bacengoz	zagocee bazagocee	dago dakuan dagualla legoque legoquiala	dagoz dagozan dagozala egozan
NIRI						
GURI						
ZURI						
ZUEI						
HARI					jaocan	jaocazan jaocazan (i)
HAEI						

ERION

	NI	GU	ZU	ZUEK	HURA	HAIEK
NIRI						
GURI						
ZURI						
ZUEI						
HARI						erijozan
HAIEI						

ETORRI

	NI	GU	ZU	ZUEK	HURA	HAIEK
0		gatoz			dator datorrenian	
NIRI						
GURI						
ZURI						jatortzuzan
ZUEI					jatortzubèn	
HARI					jatorconian	jatorcazanac
HAIEI						jatorqueez jatorqueezalaco bajatorqueez

IBILI

	NI	GU	ZU	ZUEK	HURA	HAIEK
0			zabiltzana		dabillen	dabiltz dabiltzan dabiltzala

JARRAIKI

	NI	GU	ZU	ZUEK	HURA	HAIEK
NIRI						
GURI						
ZURI						
ZUEI						
HARI				darraiquiozubeenac	darraico	
HAIEI						darraicuenac darraicubeen darraicuela

C] ADITZEN AURKIBIDEA

ADITZ TRANTSITIBOAK38

EDUN–EUTSI (38); EGIN (40); EDUKI (41); EROAN (41); EKARRI (42); ERAKUTSI (42); ERETXI (42); ESAN [*INO eta ERAUSI] (43); EZAGUTU (44); IKUSI (44); IRAUN (44); JAKIN (45)

B] ADITZ INTRANTSITIBOAK46

IZAN (46); EDIN (47); JOAN (47); EGON (48); ERION (48); ETORRI (48); IBILI (49); JARRAIKI (49)



Erronkarierako deklinabidea¹

Guillermo González Zamanillo

Aurkibidea: SARRERA.—1. **Aurkezpena.**—2. **Kokapen geografikoa.**—3. **Erronkarieraren sailkapenaren historia.**—4. **Erronkarieraren galera.**—5. **Mariano Mendigatxa** — DEKLINABIDEA.—**Nominatiboa.**—**Partitiboa.**—**Ergatiboa.**—**Datiboa.**—**Genitiboa.**—**Destinatiboa.**—**Prolatiboa.**—**Soziatiboa.**—**Instrumentala.**—**Motibatiboa.**—**Inesiboa.**—**Ablatiboa.**—**Adlatiboa.**—**Geniti-bo leku-denborazkoa.** —ONDORIOAK.—BIBLIOGRAFIA.—1. **Orokorra.**—2. **Zehatza (Erronkarierari buruzkoa).**

SARRERA

1. Aurkezpena

Dialektologia lan hau burutzeko Erronkariera aukeratu dut. Haran honetako euskera (edo hobeto esanda, «uskara», horko «uskaldunek» zioten bezalaxe) euskalki desberdinen artean oso berezia dela esan daiteke. Zoritzarrez, gaur egun ez da hizkera honen testigantza bizirik geratzen. Arrazoi honek, beharbada, Erronkariera aztergai gisa aukeratzera bultzatu nau.

Behin baino gehiagotan bailara honetako mendietatik ibili banaiz ere, ez dut inoiz uskara entzuteko aukerarik izan. Dena dela, banuen tokiko uskararen zenbait berezitasunen berri.

Uskara bizia desagertu den arren, zorionez testuek haraneko hizkera ezagutzen laguntzen digute. Ikerketa txiki hau mugatu nahian, Mariano Mendigatxak R. M.^a de Azkueri bidalitako *gutunak* hartu ditut. Korpus txiki bat aukeratzearabaki nuenez, postarreman hauetan oinarritu naiz. Beste testu eta ikerketa batzuk ere kontutan hartu badituz ere, Mendigatxa Azkueren laguntzaile izan zen garaiko eskutitzak lanaren oinarria dira.

¹ IRIGOYEN, Alfonso: «Cartas de Mariano Mendigatxa a D. Resurrección María de Azkue», *Euskera* 2, (1957) 119-170 or.

Gutun horiek Alfonso Irigoyenek argitarutakoak dira². Eskuz idatziriko eskutitzak Alfonsok ahalik eta fidelkien transkribitu ditu, akats posibleak barne³. Gutunak zenbaturik daudenez, nire lan honetan adibideak jartzean, dauden eskutitzaren zenbakia ematen dut.

Korpusa mugatu ondoren, gaia ere mugatu beharrean egon naiz, orduan deklinabide arloa aztertzea erabaki dut. Eskutitzetako adibideak jasoz, kasu marka desberdinei buruz lantxo hau burutuko dut.

Lana hasi baino lehen emaitzak ezin dira aurreratu. Dena dela, frogatzen saiatuko naizen hipotesiak zeintzuk diren azalduko ditut. Aurkituko ditugun atzizki eta ezaugarri desberdinen artean armonia bokalikoa azpimarra dezakegu. Beraz, Erronkarieraren kasu marka bezeziak eta armonia bokalikoak eragindako aldaketa fonetikoak ikertuko ditugu.

2. Kokapen geografikoa

Erronkariko harana Nafarroako ekialdean kokaturik dago. Haran pirenaiako honek iparraldean Frantziarekin muga politikoa du, muga hori pasa ondoren Zuberora dugu; betidanik oso harreman estuak izan dituzte mugaz bestaldeko herriekin, batzuetan hizkuntzan ere isladatzen direnak. Ekialdean Huescarekin topo egiten du eta hegoalderantz joz gero Zaragozarekin, hortik eragin erromanikoa handia izan da. Euskal Herriko ekialdean dauden hiru haran pirenaiakoen taldearen barruan kokatu ohi da: Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkari; hirurek hizkera ezberdinak eduki arren. Hauxe da, orokorrean esanda, Erronkariko kokapen geografikoa.

3. Erronkarieraren sailkapenaren historia

—Erronkariara aipatzen duen lehenengoa Sarako J. Etcheberri da⁴. Ez du euskal dialektoen deskribapen osorik egiten, baina garrantzitsua da euskal hizketen artean nabari dituen ugaritasunak eta

² *Euskera* 2 (1957), 119-170 or.

³ Mendigatxak berak 29. gutunean dio:

«Que encontrara mucho defecto, lo mismo en el redactar como en escribir no tengo ninguna duda; pero nada me importa, por que ya sabe que mi inteligencia no es para mas...»

⁴ *Lau-urdiri gomendiozco carta, edo guthuna*, Baiona, 1718; geroago *RIEV II* aldizkarian argitaratu zena (17-39 or.):

«Ezperen bat-bedi Nafarroa-beherearra, edo çuheroarra (sic) Bizcaitarrarequin, edo Alabesarequin, eta Ochagabierra, edo Erroncalesa Baztandarrarequin eta Lau-urtarrarequin;... eta ikhusico duçu, elkhar ecin adi deçaquetela;» (34 or.).

ezberdintasunak. Etcheberrik aipatzen dituen euskalkien artean Erronkaria dugu. Azpimarratzekoa da, garai hartan ez zuelako inork aipatu.

—xviii. mendean, Aita Larramendik trataera dialektologikoan aldaketa nabaria sortu zuen. Dirudienez eta bere *Diccionario Trilingüe*-n dioenez, ongi ezagutu zituen Gipuzkoako, Bizkaiko eta Lapurdiko euskalkiak. Zuberoakoa literaturaren bitartez baino ez zuen ezagutu. Hala ere, Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoako hizkerak ez zituela ezagutuko uste dugu, ez baitzuten literatura idatzirik; eta oraindik euskaldun ziren Nafarroako beste lurralde asko ere ez zituen, ziurrenez, ezagutuko. Bonapartek aurkitu arte itxaron beharko da.

—Aita Añibarrok ez zituen Nafarroako hizketa guztiak ezagutu, eta bereziki ekialdekoak. Misio lan eta bidaietan Gipuzkoa inguruko herrietan ibiliko zen. Hala ere, Erronkarieraren aipamena egiten du, aipamen garrantzitsua gainera, xix. mende hasierako euskeraren egoera eta euskalkiaren bereiztasuna agertzen baititu, hitz laburretan bada ere:

«En este valle ya no se predica el bascuence: y aun el que usaban antes era enteramente distinto del bascuence navarro»⁵

—Bonaparte Printzeari zor dizkiogu irizpide linguistikoz eginiko euskalkien lehen sailkapena eta lehen mapa linguistikoa, herri osoan hizkuntzaren kezka erarazteaz gainera. Laugarren sailkapenean⁶ Erronkaria Zubereraren azpieuskalkitzat jotzen badu ere, geroagoko *Études sur les trois dialectes basques des Vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal*, 1872, Londres, lanean iritzi desberdina agertzen da. Haran horietako euskeraren egoera, aski larria bestalde Erronkarin, oso metodikoki deskribatzen du, herriak banan-banan bereiziz. Lan honek sakonketa haundiagoa suposatzen du bailara horietako hizketetan, eta horren ondorioz bera ere aldatuz joanen da urte batzuen buruan Erronkaria ere ia-ia dialekto bereiztat hartu ahal izateko. Ez du zuzenean esaten euskalki propioak direnik, baina azterketa egin ondoren nortasun propioa dutela ikusten du. Beraz, Erronkaria euskalki propiotzat har daiteke, Zubereratik at.

—Arturo Campión literato eta historialari izateaz gain, gramatikari eta dialektologo ere izan zen. Bonaparte Printzearen miresle haundia izan zenez, bere *Gramática de los cuatro dialectos de la lengua euskara* (1884)

⁵ VILLASANTE, L: «Una lista de pueblos vascongados de Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra, de principios de siglo xix [de P. de Añibarro]», *BRSVAP* XII, (1956) 444 or.

⁶ *Le verbe basque en tableaux*, 1869, Londres, lanean azaltzen du.

lan izugarria eskaini zion. Gramatika horretan sarrera kapitulu oso bat, 15 orrialdetakoa, ematen dio dialektologiari. Bestela ezin izan zitekeen bezala, Bonaparteren jarraile zintzoa legez jokutzen du. Printzeak *Le verbe basque en tableaux* lanean zuen sailkapen dialektal berbera ematen du, hau da, lehenago aipatu dugun laugarren sailkapena. Eta sailkapen horri lotuz, Erronkaria Zubereran sartzen du. Ez du laugarren sailkapenez geroztik eginiko aldaketa aintzakotzat hartzen, ez baitu euskalki propiotzat jotzen.

Honen froga bezala berak idatziriko *Orreaga*⁷ balada dugu. Bonaparteren sailkapenean oinarrituz, lau euskalki literariotara eta Erronkaritik Olazagutira bitarteko beste hamazortzi aldakitara itzuli zuen. Beraz, aldaki nortasuna ematen zion.

—Euskal dialektologian Bonaparteren ondoren Azkue nabarmendu da indar bereziz, alde batetik materialak, ahozkoak nahiz idatziak, biltzen egin duen lan etengabea eta apartagatik, eta, bestetik, oraindik gainditu ez diren idazlan berebizikoak egin dituelako. Eta hain zuzen ere, lan honen korpua Mariano Mendigatzak Azkue berari egindako gutunetatik jaso dut.

Bere *Diccionario vasco-español-francés* (1905) hiztegiaren sarreran, XXVI-XXX orrialdeetan, aldaketa batzuk egin arren, Bonaparteren sailkapenari jarraitzen dio. Aldaketa hauen artean Erronkarierari dagokionna dugu. Erronkaria euskalki propiotzat hartzen du. Azpimarratzekoa da, Erronkarieraren nortasunari dagokionez, aitortzen duena: «Debo á nuestro docto escritor Sr. Campión, en conversación particular, la iniciativa de esta idea».

Azkuerena da Erronkariko uskarari buruz egin den lanik garrantzitsuena: «Particularidades del dialecto roncalés», *Euskera* XII (1931), 207-240 or.

—Esan dugunez, euskalki honen ikerketan gehien nabarmendu dena Azkue dugu. Dena den, beste batzuen izenak ere aipatu behar ditugu:

- Beloki, Elozegi, Sansinea de Elozegi eta Mitxelenak osaturiko taldea.
- Kandido Izagirre.
- Estornes anaiak.
- Koldo Artola...⁸

⁷ Iruñean argitaratu zen 1880. urtean. Edizio faksimila: Ed. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1970.

⁸ Lan honen amaieran dagoen Bibliografian hauen eta beste batzuen erreferentziak aurki ditzakegu.

4. Erronkarieraren galera

—Bonaparte Printzeak 1872. urtean bere *Études sur les trois dialectes basques des Vallées d’Aezcoa, de Salazar et de Roncal* ikerketan idatzi zuen Erronkaria haraneko zazpi herrietan hitz egiten zela, hiru talde linguistikotan banatu zituelarik:

1. Hegoaldean Burgi, Garde eta Bidankotze.
2. Erdialdean Erronkari eta Urzainki.
3. Eta iparraldean Izaba eta Uztarrotze.

Bailara honetako herrigune errepresentatiboentzat Bidankotze hartu zuen, hain zuzen ere, Mariano Mendigatxaren jaioterri eta bizilekua. (Azaldutako banaketa hau sarrera honen amaieran jarri dudatan mapan azter dezakegu)

Printzeak zioenez, jadanik uskara gutxiengo baten hizkera zen, zahar batzuen hizkera. Izaban eta Uztarrotzen gizonzkoen artean bai uskara bai gaztelania erabiltzen zuten, baina beste herrietan gaztelania bakarrik. Emakumezkoen artean uskara besterik ez zen egiten. Printzeak esandakoaren arabera, ohitura hau Otxagabian ere existitzen zen eta gizonen artzain trashumante bizimoduarekin lotuta zegoen, hauek urtero beren artaldeekin Bardeak aldera jeisten ziren, han negua emateko. Beraz, jadanik Bonaparteren garaian uskararen galera nabaritzen hasi zen.

—R. M.^a de Azkuek 1931. urtean bere «Particularidades del dialecto roncalés» ikerketa sakonean esan zuen 1905. urtean argitaraturiko bere *Diccionario* prestatzeko lanei buruz:

«... cuando hice mis buscas y rebuscas, se hablaba aún, más o menos, en cuatro o cinco pueblos: Uztarroz, Isaba, Garde, Urzainki y Bidangoz. Hoy son contadísimas las personas que lo hablan en Isaba, habiéndose reducido estos veinte años a una tercera parte, quizás es-casa, el número de las que hacen algún uso del vascuence en Uztárroz.»

Eta bere laguntzaile izandako Mariano Mendigatxa aipatzean:

«... al morir se llevó consigo el vascuence de su pueblo natal, Bidangoz o Bidankoze, como sonaba en sus labios.»

—Urteak joan urteak etorri, 1952. urtean Beloki-Elosegi-Sansinea de Elosegi-Mitxelena taldeak egin zuen lanean⁹ Izaba eta Uztarrotzeko

⁹ «Contribución al conocimiento del dialecto roncalés», BAP IX, (1953) 499-536 or.

materialak bildu zituzten. Izaban uskaraz mintzatzen ziren bederatzita pertsona besterik ez ziren geratzen, denak oso zaharrak. Dena dela, Uztarrotzen bazegoen euskaldun gehiago eta gainera gazteagoak.

Hortik aurrera egin ziren ikerketa guztietan (Bibliografian ikus ditza-kegu) fenomeno nabaria izan zen uskararen galera. Historian zehar arrazoi desberdinen eraginagatik uskara galduz joan da, arrazoi sozial, demografiko, geografiko... eta batez ere politikoak. Eskolaren eragina, mugimendu demografikoak edo bere kokapen geografiko marginala faktore negatiboak izan dira. Azken lan guzti hauek Izaba eta Uztarrotzeko informanteekin bakarrik egin ziren, hau da, haraneko iparraldean dauden herrietan finkatuz. Ikus dezakegunez, haraneko uskarak erdialde eta hegoaldeko herrietan atzera egin zuen, zahar batzuen buruetan gelditu ziren gauza aprobezagarri bakar batzuk izan ezik.

—1980. urtean, Koldo Artolaren esanetan¹⁰, Uztarrotzen izan ezik, ezinezkoa zen haraneko beste ezein herritan euskaldunik aurkitzea eta aipatu herri honetan ere, zoritxarrez, esku bakarreko hatzamarrekin konta zitezkeen zirenak oro.

—Badakigu 1988. urteko udan R. Gómezek material berriak jaso zituela Fidela Bernat emakumearengandik, 96 urte zituelarik¹¹. Hauxe izan daiteke Erronkariko uskararen azken testigantza, azken uskaldunaren ahotsa bizia. Beharbada, jadanik betirako galdu dugu. Beharbada, gaur egun ezinezkoa izango da Erronkariko uskaldunik aurkitzea. Dena dela, hor ditugu testu idatziak eta zenbait ikertzailek egindako lanak. Gutxienez, garai batean izan zenaren oihartzunak azter ditzakegu.

5. Mariano Mendigatxa

Mariano Saturnino Mendigatxa Bidankotzen sortu zen 1832. urtean. Ogibidez nekazaria zen. Lehen ikasketak baino ez zituen egin herriko eskolan. Hala ere, erreztasun handia erakusten zuen idazterakoan eta baita itzulpen lanetan ere.

Bonaparte Printzeak 1866. urtean bere hirugarren bidaia Euskal Herrira egin zuen. Zenbait hizketa hobeki ezagutzeko beharrak eraginda egin zuen bidaia hau, besteak beste: Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkariko hizketak. Zaraitzutik Erronkarira pasatu zen, eta han laguntzaile paregabea izango zuen, eta gero baita Azkuek ere, Mariano Mendigatxa ezagutu zuen. Bidaia honetan Prudencio Hualde Mayo bidankotzetarra ere, beste laguntzailea, ezagutzeko aukera izan zuen. Ezin izan

¹⁰ «Erronkariko «uskara»ren azken hatsak... oraino're!», *FLV* 34, (1980).

¹¹ Informazio hau lan honetatik jaso dut: «Contribución al conocimiento del dialecto roncalés» *Sobre historia de la literatura vasca-I-Luis Michelena*, Donostia, 1988, 247 or.

zen, ordea, berak nahi izango zukeen bezala, haranean barna sartu, elurte haundia egin omen zuelako. Beste ikustaldi bat aginduz alde egin zuen, baina haxe izan zen Erronkariko haranera egin zuen azkena.

Printzeak bosgarrena eta azkenengo bidaia 1869an egin zuen. Erronkarira itzuli nahi izan zuen, agindua zuen bezala, toki horretako hizketa aztertzen jarraitzeko asmoz, baina Espainiako egoera politikoak ez zuen gomendatzen Hegoaldera etortzea. Orduan Donibane Lohitzunen finkatu zen. Hara joanarazi zituen Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkari haranetako informatzaile euskaldun bana. Honela, hiru asteren buruan, hiru haran horietako aditz-sistema osoa jaso zuen, eta baita lexiko sail on bat ere.


Zahartzaroan, 70 urte zituelarik, R. M.^a de Azkuerekin harremanetan jartzen hasi zen. Adiskidetasun honen adierazgarri bezala berarekin izan zituen postarremanak ditugu. Gutun hauetan garai hartako kondaira eta bizimoduaren berri ematen zaigu, ikuspegi dialektologikoaren aldetik ere oso garrantzitsuak izanik, jakina. Azkuek Mendigatxarengandik jasotako informazioari esker (hainbat ipuin, kanta, esaera zahar...) bere «Particularidades del dialecto roncalés» argitaratu zuen. Beste datu batzuk *Diccionario vasco-español-francés* ere burutzeko erabili zituen.

Bidankotzen hil zen 1918. urtean, 87 urte zituela. Hiltzean, Bidankotze herriko uskara berarekin batera eraman zuen betiko.

Mendigatxaren biografia txiki hau bukatzeko, Alfonso Irigoyenek eskutitzen sarreran esandakoa azpimarratzea gustatuko litzaidake:

«Es un caso curiosísimo de floración en medio de la decadencia del vascuence de su valle, producido sin duda por el movimiento literario y lingüístico que suscitó el Príncipe y que tendía al robustecimiento y revalorización de los dialectos del vascuence.»

«Mariano Mendigacha encontró en Azkue una persona en quien desahogar la soledad en que llegó a encontrarse en cuanto a la face-ta de su personalidad de raíz euskaldún.»



33. Mapa:

P. de Yrizar-en, «Contribución...», 18. mapatik hartuta, 256. orr.

DEKLINABIDEA

Nominatiboa

Latinaren nominatiboa NOR kasua dugu, absolutua izenaz ere eza-guna dena.

Nominatibo kasu honen ezaugarriak nabarmenena armonia bokali-koa da.

Euskaraz bi bokal elkartzean, aldaketak sortzeko bidea dago. Bokalak kontestu batera egokitu egiten dira, «reglas de acomodación fonética» deitzen dena. Ez da fonetika hutsa, tartean gramatika baitago: morfemak, lexemak... agertzen dira. Armonia bokalikoa fonetika sintaktikoaren barruan sartzen da. Ez dugu guzti hau hia-toarekin nahastu behar. Lexema nominal batek atzizki bat hartzen duenean, gehienetan «-a», aldaketa fonetikoak sortzen dira. Esate baterako:

da + «-en» > den / dan
 da + «-ela» > dela / dala
 baso + uri > Basauri ...

Armonia bokalikoa LEXEMA + MUGATZAILEA dugunean gertatzen da. Deklinabidean «-A» mugatzailea hartzean, aldaketa ugari aurkitzen ditugu. Normalean, aldaketa hauek gehien ematen diren kasuak nominatibo eta inesiboa dira.

Orain, ikus dezagun guzti hau adibideetan oinarrituz:

1) A + «-A» > «-A»

Adibidez: alába + «a» > alabá

Mugagabe eta mugatua berdin egiten dira. Hala ere, Erronkarieraz, eta Zubereraz ere, paroxitonoa izatetik, -A mugatzailea hartzean, oxitonoa izatera pasatzen da.

Baina, nire ikerketa hau testu idatzi batean oinarriturik dagoenez, ezin izan dut azentu aldaketa hau frogatu.

2) E + «-A» > «-IA»

Artikuluaren eraginez lexemaren -E- hori ixten da:

iltia (2), erraitia (9/69), gaztia (86), gentia (6), loria (11), eznia (13), direcionia (14/17), bercia (15), lan egitia (16), mintza moldia (23), elia (23), escribitia (25), gidatia (26), goria (29), borortatia (29)...

Itxidura hau Erronkarieraz ezezik, beste euskalki batzuetan ere ematen da, zenbaitetan eboluzioa aurrerago joanez.

3) I + «-A» > «-IA»

Kasu honetan ez dago inolako aldaketarik, Erronkarieraz -IA mantendu egiten da, eta ondorengo hauetan ere: Ip (GN), Hg (GN), (Z) eta (L).

chikia (6), andia (8)...

4) O + «-A» > «-UA» / «-OA»

Erronkarieraz normalena itxidura («-UA») izan arren, eskutitz hauetan «-OA» mantendu duten kasuak ere idoro ditut. Ahozko hizkeran askotan ez da erreza izaten «-OA» eta «-UA» desberdintzea,

beharbada hori izan daiteke arrazoia. Ikus dezagun Kandido Izagirrrek honi buruz dioena Izaba eta Uztarrotzen egindako ikerketa batean¹²:

«O beste bokal baten aurrean badoa, batzuetan *u* bihurtzen da; baina gehiagotan *o*-ren antz aundiagoa artzen nion eta orduan *o* idatzi nuen»

Gure adibideak:

«-OA»: maistroa (3), ostoa (10)... Aezkera, Zaraitzera, Ip (GN), Hg (GN)... bezala.

«-UA»: erigüa (2), mandua (9)... Mend (B), (Z), (BN)... bezala.

5) U + «-A» > «-UA» > «-UIA» > «-IUA»

Hau Erronkariaren kasu berezia da, beste ezein euskalki edo azpieuskalkitan gertatzen ez dena. Armonia bokaliko honen barruan ezaugarririk errepresentatiboena dela esan genezake.

XVI. mendean Etxepare eta Leizarragak «-UIA» forma erabiltzen zuten. Zihurrenez, forma horren metatesiaren bidez Bidankotzeko

«-IUA» sortuko zen. Bailarako beste herrietan aldaki desberdinak ditugu: Garde «-IOA» eta Izaba, Urzainki, Uztarrotze «-IA».

Guzti hau hobeto ulertzeko hona hemen Mitxelenaen azalpen eta adibideak¹³:

«*u + a* > Vidángoz *-iua* (monosílabo), Garde *-ioa* (Azk., Part. 45), Isaba, Urzainqui, Uztárroz *-ia* ... Ejemplos: Vidángoz *ainguriuak, guziuak* (de *ainguru, guzu*), Isaba, Uztárroz *aingúriak, gúziak*, Urzainqui *aingriak*, Garde *guzioak, burioa* (de *buru*) ...»

«La forma común de que proceden los grupos actuales roncaleses y suletinos puede muy bien haber sido *-uya* que aparece en la variedad b.-navarra en que están escritas las poesías de Dechepare y está atestado por Liçarrague para el ant. sul., en la cual *u* tenía seguramente una pronunciación anterior: de *-uia*, por metátesis, se habrá originado Vidángoz *-iua*.»

Eta R. Lafonek dio¹⁴:

«Tendance à la palatalisation de la sonante *u* dans les parlers basques du Nord Est»

¹² «Erronkariko Euskal-Ondakin batzuk», *BRSVAP* XV, (1959), 281 or.

¹³ «La posición fonética del dialecto vasco del Roncal», *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, Luis Michelena, I, Donostia, (1988), 283 or.

¹⁴ *Revue de Linguistique Romane*, XIII, 73 or.

Azter ditzagun adibideak:

gania (3), guciua (3/6/10), eskiua (6), pentsamentia (9), eskribitua (13), costiua (14), zerbuchiua (14), negiua (14), sendimentia (16), lekiua (18), amoriua (23), venedikatiua (29), frutiua (29)...

—Pluraleko «-AK» kasu marka hartzean, singularrean ikusitako fenomeno berberak gertatzen dira:

- 1) patatak (8), gaizak (14)...
- 2) gaztiak (7), bidiak (11), ygantiak (15), estacioniak (22)...
- 3) goraintziak (6), ortzikaldiak (7), gariak (9), berriak (9)...
- 4) iragoak (6)...
- 5) eltzuiak (8), guciuak (8), contiak (26), prometimentiuak (29)...

—Mugagabe adierazten duten zenbait adibide ere ikusiko ditugu:

1) Zehaztasun eza adierazteko:

caibat elur (3), gente anissko (8), zomait itz, ele franco (12), kontu franco (13), anich peon (14), zomait carta (15), aski sentimentu (16), zomat izpi (17), kainbat alte (17)...

2) Zenbakiak:

borz ilabete (3), kakeria bat (4)...

3) Atributo denean:

chapar dá, indartsu dá (23).

4) Beste batzuk:

«aurten viltudigu cosecha ona: gari, olo, garagar, sseuri eta zalge» (8),

«bagoaren materialaz egiten dra remo ichasoarako, pala, aro eta berze anich» (10).

—Pirineotako euskalkietan (Aezkera, Zaraitzera eta Erronkaria) erakusleen sistema oso berezia da¹⁵:

Aezkeraz: gau, gori, gura.

Zaraitzeraz: kau, kori, kura.

Erronkariaraz: kau(r), kori, kura.

Elkanoko Lizarragak ere «etxegau» idazten zuen, erakuslea lexema nominalizatuarekin lotzen zenean, baina erakuslea soilik erabiltzean ez zuen hasierako belarerik jartzen.

¹⁵ Azkuek berezitasun honi buruz esan zuen: «Casi lo único que se conoce del roncalés, entre vascos que no se han dedicado a su estudio, es el curioso elemento que precede a sus vocablos demostrativos», jadanik aipatutako «Particularidades del dialecto roncalés» lanean.

Esate baterako:

Hau: kaur/caur (3), valle kaur (14), gaiza caur (13), izen caur (22)...

Hori: (kori) ez dut ediren.

Hura: kura (6), cura (14), adesskide cura (23)...

Hauek: arbole kuek (10)...

Horiek: (koriek) ez dut aurkitu.

Haiek: kek (4), / bulto curak (daude) (10)...

Azkuiek izendatzen duen «prótesis de vocablos demostrativos» hau adberbioetan (kemen, kor..., aurrerago aztertuko ditugunak) eta beste partikula batzuetan (kainbat, kainbertze...) ere agertzen da.

—Nominatiboarekin bukatzeko, eskutitz hauetan artikulua hurbila ez dela erabilia izan erran behar dugu.

Partitiboa

Beharbada, kasu nortasuna ematea ez dago oso ondo, NOR sintagmaren bariante hutsa bait da.

Berezia da, kasu marka bakarra duelako: «-(R)IK»

(ez singularrik, ez pluralik; zehaztasun gabekoa, ezezaguna, oro-korra)

andirik (2), lucerik (2), escolarik (3), ssochik (4), nobedaderik (4), lanik (7), minik (7), assolik (9), egunik (13), maistrorik (13), ardaunrik (14), esprantzarik (15), garirik (15), autzik (15), erranik (18)...

—Kasu honen zenbait erabilera ikusiko dugu:

1) Ezezko esaldietan.

«Eztago erremediorik...» (2)

«Eztud ñondik minik sendi...» (7)

«Eztigu esprantzarik» (15)

2) BAGE

«neabe guciua dago escolarik bague» (2)

«zorituzren gariak granorik bage» (15)

3) Superlatiboetan.

«negu guzian ekundigun egunik gasstoena» (13)

4) Kantitatea adierazteko.

«Orren erranik dakadan cartan...» (18) erran, gauza asko.

5) ...

Ergatiboa

Kasu honi ergatiboaz gainera egilea ere deritzogu. Esaldi mota baten bereizgarria da (iragankorra / iragangaitza), baita ere hizkuntza mota baten bereizgarria (hizkuntza ergatiboak / hizkuntza nominatiboak).

Erronkarieraz erabiltzen diren atzizkiak hauexek dira:

Sing.: «-AK» / Plur.: «-EK» / Mugagabe: «-(E)K»

Beraz, Erronkarieraren kasuan, sinkretismoa nominatibo plural eta ergatibo singularraren artean bakarrik sortzen da, pluralerako atzizki desberdina («-EK») erabiltzen delako.

«-EK» erabiltzen duten hizkerak: (L), (BN), (Z), Hg (GN),

Ip (GN) Baztan, Zaraitzera eta Erronkaria.

-AK: besteak.

Nominatiboan armonia bokalikoak eragindako aldaketak hemen ere gertatzen dira:

bertziak (6), semiak (11)...

mundiua (13), guciuek (11/14), Evaren seme desterratiuek (29)...

Eta aldaketarik gabekoak: mitilek (7), zarrek (7), biziek (8), zurginek (10), adesskide anichek (14), lanek (15), arraultzek (26)...

Erakusleak:

sing.: valle conek (14), erri korrek (14), karek (5) / kark (6) / arek (6).

plur.: (nominatiboan bezala: kuek, koriek, kek)

Datiboa

Kasu honetan erabiltzen diren atzizkiak ikusiko ditugu.

—Mugatu singularrean: «-(A)RI»

Hemen ere armonia bokalikoak badu eraginik zenbait kasutan. Ikus ditzagun adibideak:

-A familiari (13)...

-E gaztiari (6), ekustiari (7)...

-I erebereziari (6), nausiari (13)...

-O Jangeikoari (7)...

-U frutiari (10), guciuari (11), benedikatiuari (29)...

-KONTS. Jeinari (2), apezari (6), zunrari (15)...

—Mugatu pluralean: «-ER» Pluraleko atzizki hau Zubereraz eta Ekialdeko Benafarreraz ere erabiltzen da.

merezinerr (4), apezar (6), guzoner (6), santiuer (6), emazter (6), guciuer (6/24), etsekuer (18), umerr (24), zordaikuguner (29)...

—Mugagabe eta izen bereziekin: «-(R)l»
 anich eriri (6/13), adesskide bati (11)... D. Resurrecioni (24)
 —Erakusleei dagokienean oso adibide gutxi topatu dut:

Sing.: gaiza coní (14), (korri), kari (6/12/13)
 Plur.: (kuer, korier, ker)

*** Kasu markak aztertu ondoren, Erronkarietaz datiboaren ezaugarri garrantzitsu batera joko dugu. Beste euskalki eta deklinabidearen beste kasu batzuetan ere gertatzen bada ere, oraingo honetan nabarmenagoa delakoan nago. Adibideak ikertu baino lehen, Azkuek honi buruz bere «Particularidades del dialecto roncalés» lanean dioena ikusiko dugu:

«Entre las anomalías de la declinación expuestas en la página 318 del Tratado de Morfología Vasca figuran estas roncalesas: *etseari abaño* junto a la casa, de Bidangoz, por *etsearen*; *atzoko orduari bazkaltu*, en vez de *orduan*, comer a la hora de ayer; *eguardiari* por *eguardian* al mediodía, y *burtzegiaren ilteari* por *iltean* a la muerte del amo. Las tres últimas locuciones anómalas son de Uztarroz. Tanto estas que aquí se han transcrito, como las que extraemos de los documentos populares que figurarán al final del estudio, no son en realidad otra cosa que solecismos que han brotado por influencia del castellano.

1.º En el proverbio 73 se dice *ariak maiatziarat eltiari* (en vez de *eltean*) *deuri deuri erraiten dau nausiari* el carnero, al llegar el mes de mayo, le suele decir al amo: dinero, dinero. *Xaxteari* dice un proverbio por *xaxtean* al bajar. 2.º En la copla número 4 se dice *pelotara xokatu* «jugar a la pelota» en lugar de *pelotan* o *pelotaka* que decimos en B y G. 3.º Semejante a la anomalía número 15, citada en el trabajo de Morfología (pág. 324), es la que nos ofrece la copla número 23. Allí se cita la locución orozkoana *Alkateari ekosi dotsat* en vez de *Alkatea ekosi dot* he visto al alcalde. Aquí en unos versos compuestos por un estudiante, hijo de Bidangoz, a fines del siglo XVIII, a la señora Farineta, solterona rica muy apreciada en aquella localidad, se dice: *Andre Farinetari nai dei bordalarazu* quieren a la señora Farineta hacerla casar.» (226 or.)

Azkuek izendatzen dituen «anomalías de la declinación» edo «solecismos que han brotado por influencia del castellano» horiek nik ere idoro ditut. Hor argi eta garbi gazteleraren eragina nabaritzen da. Gainera, Bidankotze hegoalde samarrean kokaturik dagoela kontutan hartuz, erdal kutsadura haundiago baten azpira eroria egotea erraz ulertzen da. Hona hemen adibideak:

- 1) «-T(Z)EAN»
 «al tiempo de echar la mano... eskiuaren egos*st*iar*i*» (5)
 «... trastornu ekun cionaz tranviatik ssas*st*iar*i*;» (7)

2) NOR-(NORK)

«batj ecusizaun» (11) «cari issilaraztaco» (11)

3) NORA

«valle coni mitilak eramanbiarrian» (14)

Genitiboa

Oraingoan ere latinaren terminologia dugu, baina forma edo funtzio bi desberdinu behar dira: NORENA / NONGOA. Hemen dagokiguna NORENA kasua da, genitibo edutezkoa, alegia; NONGO kasua aurreago beste sail batean aztertuko dugu eta.

«-REN» atzizkiak edukia, jabetasuna adierazten du: Nork dauka? Norena da? «-KO» atzizkiak, ostera, lekua azaltzen du: Nongoa?

—Singularrean erabilitako kasu marka: «-(A)REN»; aldaketa fonetikoak ahaztu gabe, jakina:

-A uskararen (3), kosecharen (6), mezaren (6), gantzaren (13)...

-E merchediaren (6), salbazaliaren (11)...

-I ilabetiaren (6), corostiaren (10)...

-O secretarioaren (6)...

-U ikasgiuaren (3), eskiuaren (5), Espiritu Saintiuaren (29)...

—Pluralean: «-EN»:

carten (9), printzipalen (10), guciuen (10/13), emaztekien (14), ilen eta bizien (29), saintiuaren (29), bekatiuaren (29)...

—Aurkitu ditudan erakusleak:

Sing.: konen (4/8/15/25), (korren, karen)

Plur.: gaiza kuen (24), (korien, ken)

—Zehaztu gabeak:

ilabete baten (19), ñore hitza (4/6/8)...

—Izenorde pertsonalak:

ene (3), gore uskara (9)... orren (2) / berorren (8/14) (berorika)

—Genitiboa eskatzen duten egiturak:

1) «-RI BURUZ»: ikasgiuaren gainian (3), llobaren gainian (9), gore uskararen gainian (20/22)...

2) Modua, era adierazteko: chori baten gisa (12)...

3) Konparatiboa egiteko: goressima egunbaten bikain triste (14).

- 4) Lekua: parentesisen artian (16), emazte guciuen artian (29), genitiboa erabili gabe: eskiu artetan 17.
 5) Neurria: gatulu baten dina (11)...

*** Genitiboaren barruan sar dezakegun beste puntu bat, beharbada deklinabidearekin baino gehiago sintaxiarekin lotzen dena, genitibo objetiboarena da. Iparraldean bakarrik erabiltzen dela uste bada ere, garai zaharrea Hegoaldean ere erabiltzen zela esan behar da. Mitxelenaren ustez, garai batean euskalki guztietan ezaguna zen eta geroago batzuetan gorde eta beste batzuetan galdu egin zen. Badaude Mitxelenaren tesia frogatzen duten Hegoaldeko testuetako adibideak, orain aztertuko ez ditugunak; bai, ordea, Mendigatxarenak:

- «ervi baten arrapatra» (5)
 «kosecharen biltako tenpran» (6)
 «mezaren erraiteko tenpran» (6)
 «sofaren eratsukitan» (9)
 «ene carten leitako tenpran» (9)
 «ele baten bi aldiz erraiteko» (11)
 «assennaz errespuesten emoiten» (12)
 «gantzaren egiteko» (13)
 «egiaren erraiteko» (18)
 «karta konen eskribitiagatik» (25)
 «ilen eta bizien juzguetra» (29)

Destinatiboa

Genitiboaren gainean eraikita dagoenez, orduan ikusitako atzizkiei «-TAKO» erantsi behar diegu: NOREN + «-TAKO»

Ikus ditzagun kasu markak:

—Sing.: «-(A)RENTAKO»

ssakinnaidionarentako (6), etseko gobernuarentako (9), guciuentako (10), erretioarentako (13), egun andiantako (16), digunarentako (17)...

—Plur.: «-ENTAKO»

arima gucientako (8), abratsentako (14)...

—Mugagabea: «-(R)ENTAKO»

ilabete batentako (9), ogei urterentako (14)...

—Erakusleak: sing. (korentako, korrentako) karentako (6)

plur. (kuentako, korientako, kentako)

*** Iparralde eta Bizkaiko testu zaharretan «-RENDAKO» forma agertzen da, Erronkarieraz bezala. Hala ere, bailara honetako hizkeraz N ondoko T ez da ozendu: «-RENTAKO».

Prolatiboa

Gutun hauetan ezin izan dut prolatibo kasua aurkitu. Hala eta guztiz ere, Erronkarieraren forma zein den ikusiko dugu, adibideetan oinarritu gabe, noski.

«-TAKO» Ipar-Ekialdeko hizkeretan: (R), (Zar), (Z) eta (BN). Beraz, hizkera mintzatuan prolatiboaren forma bakarra eta destinatiboa nahasturik agertzen dira.

Soziatiboa-Komitatiboa

Sarritan kasu hau instrumentalarekin nahasten da, erderaren eraginez edo. Orokorrean esanda, soziatiboa laguntza-konpainia adierazteko eta instrumentala zeozer egiteko, bitartekotasuna- bidea adierazteko erabiltzen dira. Badirudi gaur egun soziatiboa nagusitzen ari dela, batez ere Mendebaldean.

Gutun hauetan ere halako nahasketak idoro ditzakegu:

«... aski sentimentureki» (3) Zentzu modala: sentimentu handiz.

«Anisso ganureki nago...» (7) (gogoz)

...

Soziatiboan erabilitako atzizkiak:

—Mugatu sing.: «-(A)REKI»

sentimentureki (3), tenpreteki (7), lagungiuareki (9), zainareki (9), calakoareki (11), ganu onareki (12),

esprantzareki (12), lumeroareki (22), Jeinaren graciareki batian (18)...

Salbuespen bat: «Eltugra osagarriregi» (16) K/G (Heldu gara osasunez).

—Mugatu plur.: «-EKI»

preteki (6), gazteki (7), leinekueki (14)...

—Mugagabe eta izen bereziak: «-(R)EKI»

bateki (2/8), Bittoreki (2)...

—Erakusleak: sing. conecki (4/8/12), correki (11), careki (11).

plur. (kueki, korieki, keki)

** Mendigatxak «-KI» bakarrik erabiltzen badu ere, Erronkarieraz «-KIN» forma ere ezaguna da (txandaketa: «-KI» / «-KIN»). Bigarren forma hau berriagoa da, eta haraneko azken uskaldunek erabiltzen zutena.

Instrumentala

Instrumentala edo mediatiboa deritzogu, zerbait egiteko bidea edo tresna erabilia adierazten duelako. Zeren bidez? Zeren bitartez? Hala ere, askotan beste kasu batzuekin nahasten dugu: motibatiboa, soziati-boa, inesiboa...

Kasu honen ezaugarriak:

—Sing.: «-AZ»

guciuaz (2), ichasoaz (10), negiuaz (13), mochgiuaz (13)...

—Plur.: «-EZ» / «-ETAZ»

gucieuz (7/10), eskiueuz (13), bekatarieuz (29)...

lanetaz (6), zarretaz (7), cherrietaz (11), guciuetaz (10/29)...

«-EZ» / «-ETAZ» txandaketa gutun berberean: gucieuz/guciuetauz 10.

—Mugagabe: «-(E)Z»

elur anichez (11), tenpra anichez (13)...

—Erakusleetan txandaketak ditugu:

sing. kontaz (23/29), (kortaz), cartaz (11)

plur. (kuetaz, korietaz) ketaz (11)

Baina beste forma batzu ere: ortaz (4/9/15), artaz (2/6/15).

*** Instrumentalaren erabilerak asko badira ere, gure korpusean oinarrituz, ikus ditzagun haietako batzuk:

1) Hizkuntzak eta hizkerak.

«Casilletan isartandazkad erdaraz eta uskaraz...» (24)

2) ZEREZ + KO

maitagarrizko jeina (2), uskarazko lan (2), candeleraizko eguna (13), begiliazko egunetan (13), errespetozko gente (22), erderazko elia (23), misericordiaizko ama (29), glarimazko valle kontan (29)...

3) Lekua adierazteko.

«zunrak emaitendra ugaltiaz bera» (10)

«azkaziz azkazi eta adesskidez adesskiden etsetan...» (11)

4) Denbora.

aldi oroz (2), berce tenpra batez (3), anich aldiz (6)...

S.Pedroez gero (13).

5) ZERI BURUZ?

«Karta kontan isartandaud Yñaute egunaz eta valle kontako bizi moldiaz.» (24)

6) ZEREZ kasua eskatzen duten beste egitura batzuk.
osagarriz beterik (7), graziaz veterik (29).
elurrez tapatruk (8), sotanaz tapatruk (18).
materialaz egin (10), urruchaz egin (12).
lanaz akaitruk (17).
mochgiuaz erran (13). ...

Motibatiboa

Arazoia, zergatiak emateko balio du. Batik bat zentzu kausala badu ere, balioak zabaldu dira beste zentzu batzuk hartuz.

ZEREN galdera eta «-GATIK» atzizkiak osotua.

Erronkarieraz erabiltzen den galdera: cerengatik (11/20)

Oso adibide gutxi aurkitu dut:

egongiuarengatik (6)... korrengatik (9/14/15)/correngatik (15)

Aditzekin ere erabiltzen da eta zentzu kausala du:

cunplitiagatik (4/7), aprobechatiagatik (6)...

TOKI-DENBORAZKO KASUAK: NON-NONDIK-NORA-NONGO**Inesiboa**

Zer adierazten du? Hiru zentzu nagusirekin erabiltzen da:

-Lekua (NON?)

-Denbora (NOIZ?)

-Ekintza (ZERTAN?)

Kasu honetan erabiltzen diren atzizkiak:

—Mugatu singularrean: «-(I)(A)N»

(Armonia bokalikoa hemen ere kontutan hartzekoa da)

-A cartan (3), carrikan (6), espaldan (31)...

-E gorian (9), bakian (13), artian (16), altian (29)...

-O portikoan (13), freskuan (13)...

-U pentsamentuan (2), gucuan (3/11/13), gaztezutuan (6/7), bu-riuan (6), ordiuan (29), pentsamentuan (29)...

-KONTS. izenian (7), lurrian (29), comunian (29)...

—Mugatu pluralean: «-ETAN»
 itzetan (9), carriketan (10), lerretan (10), sierretan (10), errietan (10), lepuetan (11), guciuetan (12), zeduletan (13)...

—Mugagabea: «-(E)TAN»
 «tenpra dago anisso on, eta lurra zazoin ontan eriteko» (8)
 zoin gazetatan (15)...

—Izen bereziak: «-(E)N»
 Parisen (13), Ochagabin (13), Sn. Juan de Luzen (15), Erronkarin (15), San Sebastianen (20)...

—Erakusleak:

sing. valle contan (14), erri kortan (25), (kartan)
 plur. tenpra kuetan (14), (korietan), egun ketan (4)

—Adberbioak:

kemen (3/5/7,) cor (26), kan (6)
 *** Inesiboaren zenbait erabilera:

1) NOLA? Era, modua.
 ganu on batian (4), kalako gisan (6/7), gisa contan (13)...

2) NOIZ? Denbora.
 tenpra berian (3), iltako ordiuari (6), antzineko egunetan (6), aldi bacochian (11), laur aldiz urtian (13), mayatzian (14), igantetan (15), atso rratsen (17), fan den ilabetian (18)...

3) NON? Lekua.
 Beharbada, inesiboan gehien erabilitako atala. Lekua adierazten da, izen bizigabeak ointzat harturik.

4) NOREN BAITAN? (Norengan?) Bizidunak.
 «Ene baitan dagó orren azken ilabetiaren 25co. carta...» (6)
 «berorren baitan erranen du...» (14)
 Orokorrean, Hegoaldean «-GAN» eta Iparraldean «-REN BAIT(H)AN»

erabiltzen dela esan genezake. (GN)-z ere «-REN BAIT(H)AN» aurkitzen dugun arren, joera berria da «-GAN» sartzea eta gaur egun azken hau geratu zaigu. Bere jatorriari buruz iritzi desberdinak daude (Bonapartek: Italieratik, Azkuek: Probenzaletik...). Erabilerari buruz Duvoisinek bi erabilera bereizten zituen: 1)»gizonen baithan» (gizonen etxean) 2)»gizonengan» (gure esanahiaz). Ip (GN)-z bi modu daude baserriak izendatzeko : 1)»Mitxelenea» 2)»Mitxelen baitha».

Ablatiboa

Ablatiboak jatorria adierazten du, bai leku, bai denbora zentzuan. Erronkarietak erabiltzen dituen kasu markak:

— Sing.: «-(E)TIK»

eskutik (2), lurretik (6), tripatik (6), tranviatik (7), valletik (9), bioc-tzetik (10), uskaratik (16), menditik (17)...

— Plur.: «-ETARIK»

guciuetarik (2/8), gaizetarik (3/12), carriketarik (3), bietarik (11), irietarik (14), provincietarik (14), erreketarik (16)...

— Izen bereziak: «-(E)TIK»

Zaitzutik (9), Aragoitik (10), Bilbabetik (13), Londresetik (15)...

— Erakusleak:

sing.: lore kontarik (11), (kortarik, kartarik)

plur.: (kuentarik, korietarik, ketarik)

— Adberbioak:

kementik (2/13/19), kortik (17), kantik (14/29/35)

- NOIZTIK? Denbora adierazteko hainbat adibide:

geroztik (3/6), oraidanik (9), gunetik (15)...

denborazko esaldiak: «... escibitunionetarik» (15)...

- Bizidunetan erabilera berezia soma dezakegu:

«... sortuzen Maria Verginadanik» (29)

«Luis Luciano Bonapartedanik badud bi erretrato» (15)

- Ablatiboarekin bukatzeko, datiboan Azkuek aipatzen zituen solezismo haien barruan hurrengo adibide hau sar genezake:

«ezbaidakiei mendiko lanetarik» (14) «-RI BURUZ» esanahiaz.

Adlatiboa

Adlatiboak helburua adierazten du, nahiz toki, nahiz denbora zentzuan.

Kasu honi dagokionean, Erronkarietak badu oso ezaugarri berezi bat: singularrean forma mugatua erabiltzea «-ARA»

Beraz, honelako egitura osatzen du: LEX + MUGATZAILEA + ATZIZKIA

Mitxelenak bere *Fonética Histórica Vasca*-n forma mugatu hau Zaraitzerako ere aipatzen du. Ekialdeko Behenafarraz eta Zubereraz ere forma mugatua dute, baina hauek -r-duna erabili beharrez, -l-duna darabilte «-ALAV-ALAT». Hala eta guztiz ere, azken bi euskalki hauetan forma mugatuak ez dira erabilienak, besteak baizik: «-LAV-LAT».

Ikus ditzagun adibideak:

escolara (3), pensamentiuara (6), bortara (6), ichasoara (10), berciara (13), karrikara (13), erribrara (16), lekiuara (18), berriara (26), merkatiuara (26), buriuara (31)..

Azkuek mugatzailearen erabilera hau ere solezismotzat hartu zuen. Lan honetan behin baino gehiagotan aipatutako bere «Particularidades del dialecto roncalés» ikerketan zera dio:

«A los oídos de los vascos occidentales y de muchos otros suena como anomalía el uso del artículo ante la desinencia declinativa del caso directivo, como sin duda sonarán como anómalos a oídos roncaleses nuestros *zerura* al cielo, *mayatzera* a mayo, *dagonera* al (lugar) en que está. Ellos dicen *zeuriara*, *ariak maiatzearat elteari* el carnero al llegar a mayo ... (proverbio roncalés antes citado). El proverbio número 88 dice *onki dagoneara krutxea bortara* a la casa en que se está bien (póngase) cruz en la puerta. En el también ya citado proverbio *barrak eta beltzuriak* ... hay dos flexiones de declinación con artículo antepuesto a la desinencia directiva: *onearako* y *gaxtorako*, que la mayor parte de los vascos decimos *onerako* y *gaxtorako*.» 226-227 or.

Adibide hauetatik aldentzen den kasu bakar bat aurkitu dut:

«Eltugra osagarriregi Sn. Pedro gore patronaren eguniarat» (16)

«-(A)RAT» Goinafarreraz ere testu zaharretan agertzen zen forma hau, gaur egun forma klitxetuetan besterik ez da gordetzen. Lafitten ustez, «-RAT» atzizkiak mugimendua amaitu egiten dela adierazten da eta «-RA» markaren bidez ekintza ez dela bukatzen.

Gaur egun, ordea, ez dira desberdintzen, nahastu egiten dira. Esaterako, Mend (BN)-z ez da bereizketerik egiten («-RA/-RAT»), eta Lapurteraz «-RAT» bakarrik erabiltzen da.

—Pluralean: «-ETRA»

lekiuetra (9/10), arrabalettra (13), irietra (14), errietra (14), eskiuetra (19), iburnietra (29), ceurietra (29)..

—Mugagabea: «-TRA»

anich gisatra (6), etse batra (14), verze gisatra (14)..

—Erakusleak:

sing.: (kontra, kortra) kartra (14)

plur.: (kuentra, korietra, ketra)

— Adberbioak:

cona (9), (korra, kara)

- Adlatibo bukatuzkoa: «-ARAINO»

leku adierazteko: soniaraino (6), iriaraino (8), Erronkariraino (9), lekiuetraino (9)...

denbora: Mayatzecuaraino (3), Gorzaraino (9), Sn. Pedroetraino (13)...

- Adlatibo destinatiboa: «-TAKO»

cunplitako (3), iltako (6)...

erakusleak: contako (25), cortako (23)...

Genitibo leku-denborazkoa

Kasu hau genitibo lokatibo eta genitibo bigarrena izenekin ere eza-gutzen dugu.

-N, -L, -R ostean «-KO» marka eranstea, «-GO» bihurtzen da. Ia euskalki guztietan ozentzen bada ere, Zubereraz, Zaraitzeraz eta Erronkarieraz «-KO» mantentzen da, ez da ahostunik egiten:

kemenko (6/7/9), nonko (9), aurtenko (13), egunko (20)...

Kasu honetarako erabiltzen diren atzizkiak:

—Mugatu sing.: «-(E)KO»

iriko (2), escolako (3), iturriko (4), etseko (7)...

—Mugatu plur.: «-ETAKO»

andietako (3), cartetako (11), fiestetako (16)...

—Mugagabea: «-TAKO»

bi eta irur gisatako (12), cer erritako (14)...

—Erakusleak:

ing.: valle kontako (14), (kortako, kartako)

plur.: (kuentako, korientako, kentako)

—Adberbioak:

kemenko (6/7/9), korko (15), (kanko)

-Bukatzeko, denbora adierazteko zenbait adibide:

1903co ... (2), irur urteren buruco (2), oraico (3), uda guzuko (9), seculako (11), aurtenko (13), egunko egunian (20)...

ONDORIOAK

Ikerketa txiki hau bukatu ondoren, ondorio orokorrak aztertu beharrean gaude.

Kasuz kasu ikusi dugun bezalaxe, askotan Iparraldeko euskalkiekin amankomuneko ezaugarriak aurkitu ditugu. Besteak beste: datibo plural-leko «-ER», bizidunetan «-REN BAITA(N)» egitura, genitibo objetiboa, ...

Deklinabide arloa bakarrik aztertzea ez da nahikoa hizkera bat sailkatu ahal izateko. Hala ere, korpusa oso txikia izan arren, hizkera baten zenbait ezaugarri ispiilatzen da.

Sarreran esan dugunez, Bonaparte Printzeak bere laugarren sailkapenean Erronkaria Zubereraren azpieuskalkitzat jo zuen. Orain baieztatzeko, deklinabideari dagokionean, ez zela oso oker ibili, lantxo honetan elkarren arteko berdintasunak frogatu baitira.

Hala eta guztiz ere, parekotasun guzti horien gainera, Erronkarierak baditu bereak diren ezaugarriak. Hain ezaugarri garrantzitsu eta bereziak dira, ezen euskalki nortasuna ematen baitiote. Hain zuzen ere, Bonapartek berak, aurreko iritzia aldatuz, eta geroago Azkuek euskalki mailara igo zuten. Eta horixe da Erronkarierak merezi duen sailkapena, euskalki mailakoa.

Erronkarieraz bakarrik erabilitako forma horiek euskalki propiostat jotzera behartzen dute. Guztien artean armonia bokalikoak eragindako aldaketa fonetikoak azpimarra ditzakegu, deklinabide kasu askotan gertatzen direnak. Eta armonia bokaliko horren barruan -U bokalari hainbat kasu marka eranstea eragindakoa nabarmentzen da: «burria», «eskia», «benedikatiuari», «merkatiuara»...

Kasuz kasu egindako lan honetan beste ezaugarri berezi batzuk ere aztertu ditugu, orain berriro aipatuko ez ditugunak.

Bukatzeke, lan honi esker Erronkarieraren nortasun berezia ezagutu ahal izan dudala esan behar dut. Korpus eta gaia mugatuak izan direnez, hizkera honi buruzko ezagutza ere mugatua izan da. Horrexegatik, orain hasitako bidea etorkizunean berriro hartu eta jarraitzea ideia ona izango litzateke. Erronkaria bizia betirako galdu den arren, ikerketak egin behar dira, garai batean izan zenaren oihartzuna gutxienez gal ez dadin.

BIBLIOGRAFIA

1. Bibliografia orokorra

- AZKUE, R. M.: *Morfología vasca*, La Gran Enc. Vasca, Bilbao, 1969, 3 ale.
 —, *Diccionario vasco-español-francés*, La Gran. Enc. Vasca, Bilbao 1969.
- MITXELENA, K.: *Fonética Histórica Vasca*, Diputación Foral de Guipúzcoa, San Sebastián, 1985.
- PAGOLA, R. M.: *Dialektologiaren atarian*, Mensajero, Bilbo, 1991.
- YRIZAR, Pedro de : *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1961, (2 ale).
 —, *Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1976-89.

2. Bibliografia zehatza (Erronkarierari buruzkoa)

- ARRATIA, J. M. de: «Notas sobre el euskera roncalés», *Cancionero popular del País Vasco*, Tomo I, Auñamendi, Donostia, 1968, 37-41 or.
- ARTOLA, Koldo: «Erronkariko uskararen azken hatsak ... einóre!», *F.L.V.* 25, (1977) 75-107 or.
- , «Erronkariko uskararen azken hatsak ... orainóre» *F.L.V.* 34, (1980), 49-85 or.
- AZKUE, R. M.: «Particularidades del dialecto roncalés», *Euskera* XII, (1931) 207-406 or.
- ESTORNES LASA, B.: «Notas sobre el euskera roncalés», in J.M. ARRATIA: *Cancionero País Vasco*, Donostia, 1968, 37-41 or..
- ESTORNES LASA, José: «Jesu-Kristo gore Jainaren Ebanjelio Saintiua», *F.L.V.* 39, (1982) 43-103 or.
- , «Erronkari'ko uskaraz elestak», *F.L.V.* 40, (1982) 461-484 or.
- IRIGOYEN, Alfonso: «Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección María de Azkue», *Euskera* 2, (1957) 119-170 or.
- IZAGIRRE, Kandido: «Erronkariko Euskal-Ondakin batzuk», *BRSVAP* XV, (1959) 279-314 or.
- , «Erronkariko euskal-ondakin batzuk II» *BRSVAP* XVII, 391-407 or.
- MITXELENA, K.: «El último roncalés» *BRSVAP* IX, (1953) 469-470 or.
- , «Contribución al conocimiento del dialecto roncalés», *BRSVAP* IX, (1953) 499-536 or.
- , «La posición fonética del dialecto vasco del Roncal», *Via Domitia* III, (1954) 124-158 or.
- SAN MARTÍN, Juan: «Fragmentos de canciones populares roncaleses», *BRSVAP*, (1966) 375-388 or.
- , «Fragmentos de canciones del uskara roncalés», *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, núm. 22, I.P.V. (1976), 5-20 or.

Enseiukarrean



Deustuko
Unibertsitatea

• • • • • • • •